

EUSKO LEGEBILTZARRARI
TXOSTEN BEREZIA
1992 - 1993

ADINEKOEN EGOITZAK
EUSKAL AUTONOMI
ELKARTEAN

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Paper erreziklatua.
I.S.B.N.: 84-87122-50-7 Liburu osoa.
D.L.: BI-178-94



EUSKO LEGEBILTZARRARI
TXOSTEN BEREZIA
1992 - 1993

AURKIBIDEA

I. ATALA. TXOSTENAREN AURKEZPENA	13
II. ATALA. IKERLANAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA	19
2.1. HELBURUAK	21
2.2. METODOLOGIA	21
2.2.1. Ikerlanaren esparrua	21
2.2.2. Metodologia	22
III. ATALA. ADINEKOEN EGOITZETAKO SOROSPENARI BURUZKO ZEHAZPENAK	29
3.1. EGOITZETAKO ZAINZA: AUKERA POSITIBOA	32
3.2. ADINEKOEN EGOITZAK: BALIAPIDE URRIA	34
3.3. KOMUNITATE SOROSPENAREN GARAPENA	39
IV. ATALA. ADINEKOEN EGOITZA-ZERBITZUEN ERLAZIO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAREN JAURPIDEA EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAN	49
4.1. GIZARTE-LAGUNTZA KONTZEPTUA	51
4.1.1. Esapidearen zehaztasunik eza	51
4.1.2. Kontzeptuaren mugak jurisprudentzia konstituzionalean eta Zuzenbide positiboan	51
4.1.3. Adinekoen babesu gizarte-laguntza alorrean	53
4.2. ADINEKOEN EGOITZETAKO LAGUNTZA-ZERBITZUEN ERLAZIO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOIA	53
4.3. ADINEKOEN EGOITZETAKO SOROSPEN-ZERBITZUEN ERLAZIO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAREN HARTZAILE- EMALEAK	53
4.3.1. Egoitzetako sorospen-zerbitzuen emaleak	53
4.3.2. Egoitzetako sorospen-zerbitzuen hartzaileak	54
4.3.3. Gizarte-laguntza jasotzeko eskubidea. Adinekoen egoitzeta- ko laguntza-zerbitzuei buruzko aipamen berezia	55

4.4.	ADINEKOENTZAKO LAGUNTZAREN ERLAZIO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAREN AZTERGAIA	56
4.5.	ADINEKOEN EGOITZA-ZERBITZUEN ESKUMEN-ESPARRUA EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAN.....	57
4.5.1.	Eskumenen banaketa gizarte-laguntza emaleen esparruan ..	57
4.5.2.	Estatuaren eta Euskal Autonomi Elkartearen arteko eskumen banaketa	57
4.5.3.	Eskumenen banaketa Euskal Autonomi Elkartearen	59
4.5.4.	Toki-administrazioak gizarte-sorospenaren alorrean duen eskumena	67
4.5.5.	Ondorioak	69
4.6.	ARAUDIAREN ALDAKETARAKO PROPOSAMENAK.....	69
4.6.1.	Aztergaiaren aurkezpen orokorra	69
4.6.2.	Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileek dituzten eskubide eta bete-beharren jaurpidea	70
4.6.3.	Adinekoen egoitzak erabiltzeko eskubidea berdintasun-irizpidearen ikuspuntutik	73
4.6.4.	Sorospen-egoitzetako erabiltzaileen betebeharrak	74
4.6.5.	Zigortzeko administrazio-Zuzenbidea egoitzetako gizarte-laguntzaren erlazio juridikoaren alorrean	74

V. ATALA. ADINEKOEN EGOITZA SISTEMA EUSKAL HERRIKO AUTONOMI ELKARTEAN 79

VI. ATALA. IKERLAN HONETARAKO HAUTATU DIREN EGOITZEN EBALUAZIOA 87

6.1.	EGITURA ETA PROZESU ADIERAZLEEN ERABILPENA.....	89
6.1.1.	Egitura eta prozesu adierazleen erabilpena hautaturiko adinekoen egoitzetan	89
6.1.2.	Egitura eta prozesu adierazleen bidez aztertutako egoitzen egoera	91
6.2.	MEAP (Multiphasic Environment Assessment Procedure) METODOAREN ERABILPENA	106
6.2.1.	MEAPen erabilpena aztertutako egoitzetan.....	106
	A) MEAP metodoaren erabilpena	106
	- Metodoaren nondik-norakoak.....	106
	- Ezaugarri fisiko eta arkitektonikoak (PAF)	106
	- Antolakuntzari buruzko politika (POLIF).....	108
	- Egoiliarren eta langileen ezaugarriak (RESIF).....	109

- Barneko giroa (SCES).....	111
- Balorazio-mailaketa (RS)	112
B) MEAPen ezaugarri teknikoak	113
6.2.2. MEAPen bidez aztertutako egoitzen egoera.....	126
VII. ATALA. EAeko EGOITZEN ESKAINTZAREN AZALPEN OROKORRA	247
7.1. GAIAREN NONDIK-NORAKOAK	249
7.2. AZTERTURIKO EGOITZEN ESKAINTZARI BURUZKO ZEHAZPENAK.....	252
7.2.1. Osasun zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen arteko koordinazioa. Egoitzetako medikuntza eta osasun sorospenezko arazoak.....	252
7.2.2. Adinekoen egoitzetako zerbitzuak jasotzeko aukera	257
7.2.3. Erabiltzaileen partaidetza egoitzetako zerbitzuen finantziazioan.....	262
a) Administrazioen diru-ekarpena.....	263
b) Erabiltzaileen diru-ekarpena	264
c) Ordaintzera behartuak daudenak eta kobratzeko moduak	266
7.2.4. Ezintasun-adierazpena egoiliarren eskubideen bermean ...	269
7.2.5. Arauketa eta kalitatearen bermea	273
7.2.6. Gizarte-xedezko ekinbide pribatua gizarte-laguntzaren eskubideari egokitzea. Fundazioen eginkizuna ongintza-izpiritua gaiturik.....	275
7.3. AUKERATUTAKO EGOITZAK EBALUATU ONDORENGO ZEHAZPENAK.....	277
7.3.1. Inguru fisikoa.....	277
a) Egoiliar guztientzako gunéak	278
b) Gelak	278
c) Hornigaiak eta laguntza teknikoak	280
7.3.2. Jardunbideak.....	281
7.3.3. Giza baliapideak eta egoitzetako langilegoaren antolakuntza.....	282
7.3.4. Zerbitzuen eskuragarritasuna.....	283
a) Osasun zerbitzua.....	283
b) Eguneroko bizimoduan ematen den arreta	284
c) Astialdirako jolas-ekintzak	285

7.3.5. Zuzeneko zaintza eta egoiliarren eskubideetan duen eragina.....	286
a) Intimitatea izateko eskubidea	288
b) Askatasunez aukeratzeko eskubidea	289
c) Txisari eutsi ezina, arazo berezia.....	291
d) Duintasunarekiko begirunea	293
7.3.6. Heriotza adinekoen egoitzetan.....	295
VIII. ATALA. LABURBILDUMA.....	299
8.1. EGOITZEN ESKAINTZAREN EZAUGARRIAK. ADINEKOEN EGOITZAK: BALIAPIDE URRIA GIZARTE-ZERBITZUEN SAREAN.....	301
8.2. EGOITZETAKO SOROSPEN-ZERBITZUAREN JAURPIDEA EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAN	304
8.3. EBALUAZIOAREN EMAITZAK	306
8.3.1. Gai orokorrak	306
8.3.2. Zehazpenak.....	311
IX. ATALA. GOMENDIOAK	317
BIBLIOGRAFIA	325

I. ATALA

TXOSTENAREN AURKEZPENA

Arartekoak Eusko Legebiltzarrari, aparteko txosten modura bideratzearen, aurkezten dion hirugarren txosten monografikoa da berau; 1992 eta 1993 urteetan eginiko ofiziozko jarduera baten ondorioz prestatu dugun liburu honetan, Euskal Autonomi Elkarteko zahar-egoitzetako aiton-amonen eskubideen egoera aztertu dugu.

Jakina denez, legegileak oso lanabes egokia eskuratu dio Arartekoari euskal hiritarren eskubideak babesteko, alegia, ofiziozko jarduera bati ekin ahal izatea lehenago inoren kezarik ez egon arren. Ararteko honek berariz jarduteko aukerak benetan laguntza handia eskaintzen du eskubideen babes-sistema egoki eta eraginkorra lortzeko bidean.

Zoritzarrez, sistema demokratikoak hiritarren eskubideak bermatzeko dauzkan erakundeei kezarik gutxien aurkezten dietenak gizartean egoerarik okerrenetan dauden gizataldeak dira. Jende-multzo horiek ez dituzte beren arazo eta eskariak ezagutzera ematen. Horregatik, beharrezkoa da haiek bizi duten eguneko bizimodura hurbiltzea, horrela botere publikoei jakinarazi ahal izateko zer-nolako gabeziak eta beharrianak dauzkaten hiritar horiek. Hortaz, Arartekoak ahotsik ez dutenen ahotsa izan behar du.

Ararteko erakundearen jardunaren lehen aro honetan, ofiziozko jarduera monografikoen ardatza egoerarik okerreanean aurkitzen diren jende-multzo horietara hurbiltzeko ahalegina izan da, hain zuzen ere; gure asmoa, horrelakoetan, jende horien arazoei erantzun orokorra ematea izan da, eta horretarako ahalik eta modurik zabalenean aztertu nahi izan dugu aurkitu dugun errealtatea.

Horrexegatik, lehen lan monografikoaren aztergaia Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren atxiloteta-zentruak izan ziren, eta bigarrenak, aldiz, erietxe psikiatrikoetako buru-gaixoak izan zituen ikergai.

Gure erakundeak jardunean eman dituen urte hauetan oso kexa gutxi jaso izan ditugu aiton-amonen arazo bereziei buruz (alabaina, pertsona zaharrek aurkeztutakoak asko izan dira, baina adina ez zen nahikoa arrazoi, azaltzen zuten administrazio-ekintza baten kontra jotzeko); hori hala da, baina, halere, gure gizartean gero eta aiton-amon gehiago dago eta, horregatik, kontuan izanik haien eskubideak nahiko erraz kaltetuak izan daitezkeela, azterlan hau egin nahi izan dugu adineko gizon-emakumeen egoera ezagutzeko.

Beste alde batetik, landu nahi genuen esparruari muga zehatzak jarri behar genizkion, hasi nahi genuen azterlana egitan izango bazen eraginkorra, bai eta Ararteko Erakundearen baliabideez egiteko modukoa ere.

Gure ikerketan erabili nahi genuen errealismoak bultzaturik, hasiera-hasieratik alde batera utzi genituen adinekoentzat zalantzarik gabe garrantzitsuak diren puntu batzuk: bizi-beharrak asetzeko pentsioak egokiak diren ala ez, edota osasun, astialdi, etxebizitza, kultura eta abarren aldetik dauzkaten arazo bereziak. Hortaz, Euskal Autonomi Elkarteko zahar-etxeen egoera hartu dugu ikergai, eta, zehazkiago, haietan bizi diren gizon-emakume edadetuen eskubideak noraino errespetatzen diren aztertu dugu.

Gure kezka hau etengabea izan da, ez bakarrik gure lanean, baita Estatuko gainerako legebiltzar-goikargudunen jardunean ere. Izan ere, Estatuko Defensor del Pueblo-k berak zahar-etxe publiko eta pribatuei buruzko txosten bat aurkeztu zuen 1990. urtean.

Orobat, El Justicia de Aragón deritzanak ere antzeko azterlan berezi bat aurkeztu zien 1991n Aragoako Gorteei, *Los derechos de los ancianos. Las residencias de la tercera edad en la Comunidad Autónoma* izenburukoa.

Gainera, Herri-Defendatzailen VII. eta VIII. Jardunaldietan ere mintzagai nagusi izan ziren aiton-amonen eskubideak; izan ere, elkar hartuz lan egiteko beharra beteaz, legebiltzar-goikargudunek beren iritziak eta esperientziak elkarri jakinerazteko asmoz antolatzen dira jardunaldi horiek.

Egia da adinekoen arazoak antzekoak direla autonomi elkarte guztietan, baina, hala ere, alderdi batzuk are nabariagoak dira zenbait elkartetan eta, horregatik, garrantzi handiena halako edo holako arazo jakin bati ematen zaio.

Gure ikerlan honi ekiterakoan, pentsatu genuen jabetza publikoko zahar-egoitzetara mugatu behar genuela, hain zuzen ere uste genuelako irizpide hori ondo egokitzen zitzaiola legeak Arartekoaren ikerketei ematen dien esparruari.

Hala eta guztiz ere, argi zegoen jarraibide horrek Euskal Autonomi Elkarteko egoitzei buruzko ikuspegi mugatua eta, beraz, murrizta emango zigula; izan ere, gure kontroletik kanpo utziko zituen egoitzak, beharbada, aiton-amonen eskubideak gehien murrizten dituztenak izan zitezkeen.

Beste alde batetik, 218/1990 dekretuaren oinarrian dauden irizpideek berek diote gizarte-zerbitzuen sistema bai bakarria dela, nahiz eta horiek artez-tekto ardura bai erakunde publikoek, bai pribatuek beren gain hartu.

Erakunde pribatuen lanak administrazioaren baimena jaso eta arauz ezarritako baldintza batzuk bete behar ditu, derrigorrez.

Ikuspegi honetatik begiratuta, ez dago oztoporik Arartekoak egoitza pribatuei ere zabaltzeko bere ikerlana, azter baitezake zeharbidez, botere publikoek haiei ezarritako baldintzak, bai eta haien kontrola zein puntutaraino betetzen den ere.

Hortaz, gure ikerlanaren esparrua Euskal Autonomi Elkarteko zahar-egoitza guztietara zabaltzean, lan egokiagoa egin ahal izan dugu, askoz ere hobeto islatzen duena egoitzetan bizi diren euskal aiton-amonen eguneroko bizimodua.

Arartekoak egoitzetara eginiko ikustaldiek asmo bikoitza zuten. Alde batetik, datuak bildu nahi genituen, hau da, egoitzen barruko errealitatea zuzen-

nean ezagutu eta, horrela, horri buruzko irizpen bat eman, gero gure txosten honetan azaltzeko. Gainera, egoitza bakoitza zuzenean ikertzeko eta, horrela, haietan aurkitutako arazo jakinak aztertzeko balio izan dute.

Eta bestetik, aurrekoa baino helburu garrantzitsuago bat zeukaten: hiritarren eskubideek jaso ditzaketen kalteei aurre hartzea; horrela, gure ikustaldia jaso ondoren, egoitzetako zuzendaritzek bai baitakite Legebiltzarraren mendeko sail batek azter ditzakeela; eta, era berean, egoiliarrek, hau ça, egoitzetan bizi diren aiton-amonek ere jakin dezakete beren eskura daukatela beraien eskubideak babesteko asmoz sortutako erakunde bat, eskubide horiek kaltetu dizkietela iruditzen zaienean.

Bukatu baino lehen, nire eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiet txosten hau osatzen inolako oztoporik jarri gabe lagundu ditugun erakunde guztiei.

Lehenik eta behin, hiru foru aldundietako Gizarte-ongizate departamentuei, haien lantaldeei eta bisitatu ditugun egoitzetako zuzendariari.

Eusko Jauriaritzaren Lan eta Gizarte-Segurantzà Sailburu jaunari eta bere lantaldeari, gure eskari guztietan eman ditugun laguntzagatik.

Are esker beroagoak ere, ahal bada, jabetza pribatuko zahar-egoitza guztietako arduradunei, gure ikerlan honen helburua ulertu eta inolako trabarik ez ipintzeagatik.

Eta azkenik, txosten hau osatzen eta idazten lan egin duen taldeari, SII Fundazioko kideei, eta, bereziki, bere zuzendariari, Ramon Saizarbitoria jaunari, gure lan hau ezinezkoa izango baitzatekeen bere laguntza teknikoa eduki izan ez bagenu. Orobat, nola ez, Ararteko erakundeko lantaldeari berari ere, bai eta gure lanean beren borondatez lagundu ditugun guztiei ere; ez ditugu banan-banan izendatuko, atal hau luzeegia ez izatearren.

Amaitzeko, Europako Aiton-Amonen eta Belaunaldien Arteko Elkartasunaren Urtea ospatzen dugun honetan, zahar-egoitzetako adineko hiritarren egoera hobetzeko tresna egokia eskaini nahi genuke gure azterlan honen bidez, bai eta botere publikoek aintzat hartzea ere bertan bildu ditugun gomen-
dioak, horrela Euskal Autonomi Elkarteko zahartzarorako politikabideak eraginkorragoak eta berme handiagokoak izan daitezzen.

JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE
ARARTEKOA

II. ATALA

**IKERLAN HONEN HELBURUAK ETA
METODOLOGIA**

2.1. HELBURUAK

Euskal Autonomi Elkarteko zahar-egoitzen zerbitzuak erabiltzen dituzten euskal hiritarren eskubideen egoera nolakoa den aztertu nahi dugu gure ikerlan honetaz, berez nahiko jende-multzo babesgabea baita.

Dena dela, gure azterketan ez gara mugatuko eskubide horiek zorrotz betetzen diren ala ez ikustera bakarrik; izan ere, gure herrialdeko egoitzak nolakoak diren eta nola dauden ere aztertu nahi dugu, egoera horren bitartez jakin baitezakegu zein neurritan errespetatzen diren, behar bezala, hiritar horien eskubideak.

Helburu orokor horren barruan, zehatzagoak diren beste batzuk ere bereiz ditzakegu:

1. Zahar-egoitzetan bizi diren aiton-amonon egoera ikertu, garrantzi berezia emanez beren eskubide eta askatasunek jasotzen duten errespetuari.
2. Euskal Autonomi Elkarteko zahar-etxeen laguntza-zerbitzuak neurtu.
3. Adintsuen esparruan eragina duten hainbat puntu aztertu, kalitatearen ikuspegitik: nolako eskaintza dagoen egoitzen artean; non dauden egoitzak, funtsezkotzat joaz eraikuntzen egoera eta haietan daudekeen oztopo arkitektonikoak; nolako zerbitzu eta prestazioak eskaintzen diren; egoiliarren eskubideak mugatuta dauden ala ez; egoitzetako langileak zein neurritan dauden pozik beren lanarekin; eta egoiliarrek ere zein neurritan dauden pozik egoitzan.
4. Gai honen inguruko arauen azterketa juridikoa egin, bereziki aiton-amonon eskubideak babesteko jaurpideaz.

2.2. METODOLOGIA

2.2.1. Ikerlanaren esparrua

Adinekoen egoitzetan bizi diren euskal aiton-amonon egoera aztertu nahi da. Alor honetako gizarte-zerbitzuen sistema bat bakarra dela oinarri harturik,

txosten honetan egin dugun azterketan ez da inolako bereizketarik egin jabetza publikoko eta jabetza pribatuko egoitzen artean.

Hortaz, gure asmoa ez da adinekoen arazo guztiak luze eta zabal jorratzea, baizik eta egoitzak zenbat eta nolakoak diren aztertzea, bai eta eskaintzen dituzten zerbitzuak nolakoak diren ere; halaber, egoitzetan bizi diren aiton-amonen eskubideak zein neurritan bermatuta dauden ere ikertu nahi dugu.

Gauzak horrela, lan honetatik kanpo utzi ditugu bete-betean egoitzen zerbitzuak ez direnak, hots, etxeko laguntza-zerbitzuak eta eguneko zentruak; era berean, ez dugu aztertu nolako egoeran dauden beren etxeetan bizi diren aiton-amonak, jakin ongi dakigun arren askotan babesik gabe eta inolako laguntzarik gabe bizi direla.

Ikerlan honetan, beraz, ez dira ikertuko zaharren bizitzaren kalitate-mailan zuzenean eragiten duten gaiak, hala nola osasun zerbitzuei dagozkienak edo pentsioei, etxebizitzari edo astialdiari buruzkoak.

2.2.2. Metodologia

Aztertu nahi den errealitatea adimen legez ezagutzera iristeko erabili den metodologia ondorengo ikerketa-bide nagusietan oinarritu da.

Hasteko, alor horretan aurretik eginda zeuden ikerlanak eta gai horri buruz dagoen dokumentazioa ikertu dira.

Gainera, gai horretan adituak direnekin bildu egin gara. Honako hauek dira: Foru aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizate sailletako ordezkariak, zaharren etxeetako zuzendariak, Gurutze Gorriko ordezkariak, Itxaropenaren Telefonokoak, Cáritas-ekoak, Laugarren Adinekoentzako Laguntzarako Elkartekoak, sendagile gerontologo bat eta Ararteko Erakundeko ordezkari bat; zuzendaritza eta koordinazio lanak Fundación SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentruak egin ditu, ofiziozko jarduera hau egiteko beharrezko euskarri teknikoa eskainiz.

Agirien ikerlanaren eta adituen bilera deitu dugunaren bidez, egoeraren lehen diagnostiko bat eta bizi den egoera kokatzen lagundu digun gaien sailkapena egin ahal izan ditugu.

Azter zitezkeen gaien artean ondorengoak agertu dira: eskainitako postuen urritasuna, eta ondorioz hainbat aiton-amonak kanpoan utzi beharra, gai horretan ahalmena duten administrazioen arteko koordinaziobideak, egoitzen egungo egoera edadetuen eskubideen ikuspegitik, intimitate eskubidea, zaharren duintasunaren kontra gerta litezkeen jarduerak, egoitzetan sartzeko sistemak, egoitzaren antolaketan eragiten duten erabakietan parte hartzea, eskubideen babeserako prozedura, zaharren legezko gaitasungabetzea, erresidenzien finantziaketa eta zerbitzu alternatiboen sarea.

Agiriak aztertu eta adituen taldeak ateratako ondorioak ezagutu eta gero egin zen gidoi baten ondoren, Autonomi Elkarteko zahar-etxeen benetako egoerarekin alderatu behar zen.

Horretarako, Erakundeko ordezkariak eta SIIS Fundazioko teknikari laguntzaileek zentru horietara egin behar zituzten bisitak prestatzerako orduan, alde aurretik konpondu beharrezko arazo batzuekin topo egin genuen.

Batetik, ordurarte egindako ofiziozko jarduera monografikoekin ez bezala, kasu haietan ikertutako erakunde guztiak -atxiloketa zentru eta psikiatrikoak- bisitatu baitziren, Autonomi Elkarteetan zahar-etxe asko daudenez, denetara bisita egitea erabat ezinezkoa zen.

Bestetik, lehenago ere adierazi dugun bezala, egoitzen jabetza erabat mota ezberdinetakoa denez, bete-betean izaera publikoa dutenak bakarrik bisitatu behar ote ziren galdetu genion geure buruari. Gai horri dagokionez, azkenik erabaki zen ahalik eta ikerketarik fidagarriena lortzeko, jabetzaren gaiä alde batera utziz bisitatu behar zirela egoitzak.

Bisitatu beharreko zentrueri dagokienez, lehen aipatutako baldintzak ahaztu gabe, haietako batzuetara bakarrik joatea erabaki zen, eta bi irizpide erabili ziren horretarako: alde batetik, erakunde-arrisku bezala defini ditzakegunak bisitatu nahi ziren, horretarako aldagai objektiboak erabiliz -zenbat ohe dauden, gela bakoitzeko, zenbat urte dituen eraikuntzak, eta abar- edo pertsona adituen irizpideetatik abiatuz; eta bestetik, egoitzak lurraldez lurralde banatzeko irizpide bat jarraitu zen, Euskal Autonomi Elkartearen eskualdeetako egoitzen egoera ezagutzeko aukera emango ziguna.

Irizpide horri jarraiki, hauek dira aukeratutako egoitzak:

ARABA

- San Roke Zahar-etxea (Laudio)
Jabetza publikoa - burujabeentzat
- Egoitza geriatrikoa (Oion)
Jabetza publikoa - laguntza behar dutenentzat
- Araba Klinika (Gasteiz)
Jabetza pribatua - laguntza behar dutenentzat
- Arana Egoitza (Gasteiz)
Jabetza publikoa - bitarikoa
- San Prudentzio Egoitza (Gasteiz)
Jabetza publikoa - bitarikoa

BIZKAIA

- Bolibar Fundazioa Egoitza (Areatza)
Jabetza pribatua - laguntza behar dutenentzat

- Abando Zentru Geriatrikoa (Bilbo)
Jabetza pribatua - laguntza behar dutenentzat
- Bizkaiko Andra Mari Etxea (Bilbo)
Jabetza pribatua - burujabeentzat
- Labayru Egoitza Geriatrikoa (Bilbo)
Jabetza pribatua - burujabeentzat
- Nire Etxea Egoitza. Txiroen Arreatxoak. (Bilbo)
Jabetza pribatua - burujabeentzat
- Revilla Egoitza (Bilbo)
Jabetza pribatua - burujabeentzat
- Erruki-etxe Saindu eta Erregezkoa (Bilbo)
Jabetza pribatua - bitarikoa
- Pakearen Erregina Egoitza (Bilbo)
Jabetza pribatua - burujabeentzat
- Txurdinaga Egoitza (Bilbo)
Jabetza publikoa - burujabeentzat
- Zelaiondo - Laguntzadunen Zahar-etxea (Busturia)
Jabetza pribatua - laguntza behar dutenentzat
- Ospitale Saindu eta Erruki-etxea (Durango)
Jabetza publikoa - burujabeentzat
- Bihotz-Alai Egoitza (Gamiz-Fika)
Jabetza pribatua - laguntza behar dutenentzat
- Bihotz Deuna Udal Egoitza (Getxo)
Jabetza publikoa - bitarikoa
- Babesgabeen Andre Dena Zahar-etxea Ospitalea (Karrantza)
Jabetza pribatua - bitarikoa
- Leioako Laguntzadunen Egoitza (Leioa)
Jabetza publikoa - laguntza behar dutenentzat

- San Roke Egoitza (Markina-Xemein)
Jabetza publikoa - burujabeentzat
- San Jose Etxe Alai Egoitza (Mungia)
Jabetza publikoa - burujabeentzat
- "Residencia General" Egoitza (Muskiz)
Jabetza pribatua - laguntza behar dutenentzat
- San Juan Bautista Dohatsuaren Ospitale Saindua (Portugaleta)
Jabetza pribatua - burujabeentzat
- Juan Ellacuría de Larrauri Zaharrentzako Udal Egoitza (Sestao)
Jabetza publikoa - burujabeentzat

GIPUZKOA

- Mizpirualde Egoitza (Bergara)
Jabetza publikoa - bitarikoa
- Julian Rezola Laguntzadunen Egoitza (Donostia)
Jabetza pribatua - laguntza behar dutenentzat
- San Jose Laguntzadunen Egoitza (Donostia)
Jabetza publikoa - laguntza behar dutenentzat
- San Rafael Egoitza (Donostia)
Jabetza pribatua - burujabeentzat
- Zorroaga Egoitza (Donostia)
Jabetza pribatua - bitarikoa
- San Andres Fundazio Publikoa (Eibar)
Jabetza publikoa - bitarikoa
- Pentsiodunen Egoitza (Eibar)
Jabetza publikoa - bitarikoa
- San Lazaro Zahar-etxea (Elgoibar)
Jabetza publikoa - bitarikoa
- Santa Maria Magdalena Egoitza (Hernani)
Jabetza publikoa - bitarikoa

- San Gabriel Egoitza (Hondarribia)
Jabetza pribatua - bitarikoa
- San Jose Egoitza Fundazio Publikoa (Ordizia)
Jabetza publikoa - bitarikoa
- San Juan eta La Magdalena Erruki-etxe eta Ospitalea (Segura)
Jabetza pribatua - bitarikoa
- Yurreamendi Egoitza (Tolosa)
Jabetza pribatua - bitarikoa

Aipatutako egoitzak aukeratu ondoren, Arartekoak eta Erakundeko ordezkariak horiek bisitatzeari ekin zioten, eta egoitzen eguneroko biziera aztertu genuen, kasu bakoitzean egoitza osorik ikuskatuz eta zaharren egoera arakatzuz. Gainera, egoitzetako zuzendari taldearekin bilera bat egin genuen, bai eta bertan haien eskura jarri galdesorta bat, txostena osatzeko behar ziren datu objetibo batzuk jasotzeko asmoz.

Era berean, egoitza horietako batzuen ebaluazio kualitatiboa egin dute SIIS Fundazioko kideek, hau da, lehenago esan bezala, lan monografiko hau osatzeko gure Erakundearekin elkarlanean ari den talde teknikoak.

Ebaluazio horren bidez, egoitza horietan bizi den jendearekin eta bertako arduradunekin harreman zuzena eta sakona edukiaz egoitzek nolako arazoak dauzkaten jakin dugu, baina egoitza guztiei ez zaie gai guztien planteamendu zientifiko bat egin, hori egitea txosten honetatik kanpo dagoelako.

SIIS fundazioaren lantaldeak ebaluatu dituen egoitzak honako hauek dira:

ARABA

- Amurrioko Egoitza (Amurrio)
- Araba Klinika (Gasteiz)
- San Prudentzio Egoitza (Gasteiz)

BIZKAIA

- Agirretxu Baserria - Aiton-amonon Etxea (Berango)
- Erruki-etxe Saindu eta Erregezkoa (Bilbo)
- San Esteban Geriatrikoa (Getxo)
- Bihotz Deuna Udal Egoitza (Getxo)
- Leioako Laguntzadunen Egoitza (Leioa)
- San Roke Egoitza (Markina)
- San Juan Bautista Dohatsuaren Ospitale Saindua (Portugalete)

GIPUZKOA

- Julian Rezola Zentrua -Matia Fundazioa- (Donostia)
- Zorroaga Egoitza (Donostia)
- Santa Maria Magdalena Egoitza (Hernani)

Hautatu ditugun egoitza horiek MEAP (Multiphasic Environmental Assessment Procedure) deritzan metodoaren laguntzaz neurtu eta gero, lortutako ondorioen berri eman diegu aztertutako egoitzei, nolabait "interesatuari entzunaldia" eskaintzeko asmoz; horrela, aukera eman nahi genjen ikerlanak biltzen dituen iritziei buruzko alegazioak egiteko, beharrezkoa iruditzen bazitzaien.

Zer esanik ez, jaso ditugun ekarpenak gehiago izan dira puntu objetibo edo ezaugarri fisikoei buruzkoak, balorazio subjektiboak baino, azken hauek iritzia baitira azken finean. Horrekin fidagarritasun handiagoa eman nahi izan diegu gure ikerlanaren emaitza gisa aurkezten ditugun agiriari.

Bestalde, eta txostena prestatzeko azken lanetan geundela, zalantza bat sortu zaigu: alegia, komeni ote zen ala ez ebaluazioaren emaitzak argitara ematea bisitatutako egoitzak aipatuz; izan ere, Euskadiko egoitza guzti-guztiak bisitatu ez ditugunez, bidegabekeria konparatiboa izango litzateke bisitatu ditugun egoitzen akatsak nabarmentzea eta, aldiz, ezertxo ere ez esatea -zuzeneko berririk ez dugulako- agian okerrago dauden egoitzen egoerari buruz.

Azkenik, SIISen lantalde teknikoak burututako hamahiru bisitaldien emaitza argitaratzea erabaki dugu, uste baitugu ematen diren datuak behar bezain kontrastatuta daudela, eta, orobat, erreferentzia egokia izan daitezkeela Euskal Autonomi Elkarteko egoitzetako eguneroko bizimodua islatzen duten egoitza batzuen berri zehatza jakin nahi duenarentzat, beti ere ikuspegi zientifikotik begiratuta, jakina.

Beste alde batetik, 37 egoitzei egindako bisitaldien emaitzez, Ararteko Erakundearen beraren lantaldeak zentruetara bidalitako galde sorten erantzunez eta ebaluaturiko egoitzen dokumentuez iritzi orokor bat osatu ahal izan dugu Euskal Autonomi Elkarteko zahar-egoitzen sistemari buruz; gure ustez, iritzi horrek ondo islatzen du egiazko egoera, dauden hiru egoitzetatik bat bisitatu baitugu; gainera, iritzi zuzena ere badela iruditzen zaigu, egoitzak aukeratzeko orduan irizpide bikoitza erabili dugulako: alde batetik, lurraldea kontuan hartuz, eta bestetik, irizpide objektiboak -alegia, egoitzak zenbat urte dituen, gela bakoitzeko zenbat egoiliar dagoen- eta subjektiboak -gai honetako adituen iritzia- bilduz. Horrela, seguru gaude gure ikerlanaren azken emaitzak okerrik gabe azaltzen duela gure arteko zahar-egoitzen egoera.

Bukatzeko esan, txostenaren azken idazketarako bibliografia ugari kontsultatu behar izan dugula gai honetaz, horrela egin ezean, ezinezkoa izango baikenuen ikerketa burutzea.

Hala ere, lan honek ez du doktrina izaera, Legebiltzarrari aurkezturiko txostena baita, horregatik, akademikoki derrigorrezkoak ziratekeen aipamen

bibliografikoak bazter utzi ditugu. Liburuaren bukaeran, ordea, eranskina gehitu dugu eta bertan aurki daitezke, gai honetan sakondu nahi izanez gero, behar beste erreferentzia.

III. ATALA

**ADINEKOEN EGOITZETAKO
SOROSPENARI BURUZKO
ZEHAZPENAK**

Zahartzaroa pobreziaren azpitalde bat zeneko ez hain aspaldiko garaian, aintzinako erruki-etxeek erruki zerbitzua betetzen zuteneko ideologia gure gizarteak, neurri handi batean, gainditurik duela esan daiteke.

Ondotxo dakigu zahar-etxe klasikoaren zeregoria, gutxienez, bikoitza zela, ezen, alde batetik, txiroei egoitza eskaintzeko balio zuten eta, bestetik, gizarteko ordena eta bakea gordetzen laguntzeko xedea ere bazuten, gogaikarri ezezik, arriskutsu ere izan zitezkeen biztanleak kontrolatuz. «Zahar-etxean bukatuko duzu» mehatxua aurreztu eta lan eginerazteko erabili izan da sarri, eta esakera horrek berekin zekarren zahar-etxeak pertsona nagia, bizioetara emaniko eta zuhurtasun gutxikoek merezi zuten «zigorra» zirelako ustea.

Ezpairik gabe, horrelako ideia sustraituek, oraindik ere, nolabaiteko eragina dute, bai egoitza-erakundeen eguneroko bizimoduan, eta bai gizarteak, oro har, eta edadetuek bereziki, bizimodu hori ikusteko eran. Eta, gaur egun ere, egoitza-zentruen erabiltzaile askok horrelaxe bizi du bere egoera, norberaren huts egitearen edo bizitzan huts egitearen ondorio balitz bezala, alegia.

Bestalde, zenbait irizpide zaharren eraginez, gizarte-zerbitzuen erabiltzailea ez da eskubidedun gizakitzat hartzen. Erabiltzaileak, bere aldetik, era askotako arrazoiak direla medio, maiz ontzat ematen du jasotako zerbitzua, aldaketak edo hobekuntzak eskatzeko eskubidea duela jabetu gabe.

Izandako hizketaldietan, egoitza-zentruen erabiltzaileen ahotan -gehientsuenak bizitza zaila eta sakrifizioz bete izandakoak- honako esaldiak entzuten ditugu: «zer eskatuko dugu, bada?», «jana eta ohea ematen digute», «osasuna dugun artean», «zertarako kexatuko gara?», «non egoingo gara hobeto?», eta antzekoak, hots, kritika urrikoak. Oker geundeke jarrera hori pertsona zaharren berezitasun psikologikoei bete-betean egotziko bagenie, eta ahaztuko bagenu hainbat sorospen zerbitzuek, egoitzak aukerakoak direlako ustean oinarrituz, duten eragina, berariz aipatzen ez duten arren.

Kontua da, sarri-askotan erabiltzaileek zein familiakoek erabat bereganatzen dutela aukerakoa delako izate hori eta, besteak beste, sorospen-eskaintza urria dela kontuan izanik, oso kexa gutxi egiten direla, bai absolutoki, bai erlatiboki, nahiz egia izan oro har jendea gustora dagoela.

Hala ere, arrazoi anitz tarteko, eskubideak kaltetuak izan daitezkeen ikuspuntutik, egoitzak arrisku handiko esparrutzat jo daitezke. Arestian aipatu ditugun eta neurri handi batean arrazoi historiko-sozialek eragindakoa diren faktore ideologikoez gain, ondorengo ideia garrantzitsu hauek hartu beharko dira kontutan:

- Azken hamarkadetan, egoitzetan dauden pertsona edadetuen sorospenean benetako lorpenak erdietsi badira ere, ez dugu ahaztu behar gehienak erakunde "itxiak" direla, Goffmanek¹ termino horri emandako adierari jarraiki, normalean bizitzako eremu desberdinen artean -aisialdia, lana, etxebizitza- egiten den banaketa ez dela egoitza horietan gertatzen. Beraz, ezaugarri nagusi horretatik dator kie duten "joera irenstea edo totalizatailea" eta egoiliarrek komunitate asko edo gutxi aldentzeko arriskua.

- Bigarrenik, egoiliar anitzek dituzten ezaugarri fisiko-psikologiko zein kultura mailakoengatik oso erraz jasan ditzakete gehiegikeriazko jokabideak, eta ikuspuntu horretatik dira, hain zuzen ere, arrisku handiko taldea, horien egoerak kontrol eta zaintza berezia eskatzen ditue larik.

Aipatu arrazoioak aski dira Euskal Autonomi Elkarteke egoitzetan dauden zaharren egoera zer-nolakoa den aztertzeko ahalegina ulertzeko.

3.1. EGOITZETAKO ZAINZA: AUKERA POSITIBOA

Horixe du izenburu Gillian Wagner² buru zuen batzordeak egindako lan bikainak. Duela hamar urte, Erresuma Batuko Osasun eta Gizarte-Zerbitzuetarako Estatuko Idazkaritzak eskatutako ikerketa horrek egoitza-zerbitzuen eskaintza gizartearen premietara egokitzeko beharrezko oinarriak ezarri zituen. Eta izenburuan bertan dago, zalantzarik gabe, pertsona edadetuen beharrianak sorosteko berrikuntza filosofikoaren gakoa.

Zahar-egoitzak aukera positibo bilakatuko badira, behar bezala definitu eta baliapide bezala zuzen erabili beharko dira. Egoitza-sorospenak ez ditu, inolaz ere, ordezkatu behar eskain daitezkeen bestelako sorospen neurri zuzenak edo zeharkakoak, «bigunagoak» lirakekeenak, ez baitute zaharra bere ohizko bizi-ingurutik ateratzea eskatzen. Egoitza-sorospena sarriegi erabili izan da eta, zoritxarrez, gaur egun ere erabili ohi da beharrian pertsonal, ekonomiko eta sozialen erantzun gisa, horiek guztiak beste laguntza batzuen bidez -ekonomikoez zein diruz bestelakoez- bete bazitezkeen ere, erabiltzaileen eskaerei zuzenago eta merkeago erantzunez.

Garbi dago, egun egoitzetan dauden asko eta askori, sartu ziren egunean, zituzten premiei hobeto egokituriko bestelako irtenbiderik eskaini izan balitzaie -etxebizitza, etxean emandako sorospena, laguntza ekonomikoa-, egoitzatik kanpo bizitzen jarrai zezaketela. Ildo horretatik, J.J. Calvo eta bestek³

¹Erving Goffman: *Internados*. Buenos Aires: Amorrortu argitaletxea, 1970.

²National Institute for Social Work. *Residential Care. A Positive Choice*. Londres, 1988.

³J.J. Calvo eta beste batzuek. Demanda de institucionalización y posibles alternativas en la población anciana de San Sebastián. *Zerbitzuan*, 11. zenbakian.

Donostiako egoitzetako itxaron-zerrendari buruz egin zuten azterlana adierazgarria da oso. Bertan garbi uzten dute, postu eskatzaileetako askok, eta bai egoitza-zerbitzuen erabiltzailegai askok ere, atsegin handiz onartuko luketela komunitatean bertan bizitzeko aukera emango liekeen beste irtenbiderik.

Agerikoa da, hainbat zaharrek zerbitzu horren benetako premiari aurrea harturik egiten dutela postu eskabidea egoitzan, beharrezana izan dezatenean tokirik aurkituko ez duten beldurrez.

Postu urritasunagatik, ezinduentzako egoitzetan batez ere, eta autonomia funtzional maila ona eskatzen duten zenbait erakundek ezartzen dituzten onartze-irizpideengatik ere, bihar-etziko sorospena ziurtatu asmoz, benetako beharrezana izan aurretik erakunde batera jotzen dute hainbat zaharrek, berez egoitzaratuta egon behar ez luketen arren.

Pertsona edadetuek beren ohizko bizilekuan jarraitzeko daukaten nahia erakusten dute, duda-mударik gabe, inkesta guztiek. Arabako Aldundiaren Gizarte Ongizate sailak⁴ buruturiko *Zaharren gizarte eta osasun egoera* ikerlanetik ateratzen da, esaterako, %1,6ak bakarrik jotzen duela egoitzarena irtenbide arras atsegin. Beraz, erakunderen batean sartzea aukera positiboa izan daiteke eta behar du izan, baina ahal den neurrian itzuri beharrekoa.

Komeni da, labor baido ez bada ere, arazo honi heltzea, ez baita beti argi eta garbi azaltzen.

Gogoan izan behar dugu 60. hamarkadan, garapen ekonomikoan bete-betean sartuta, egoitzaren irtenbidea arinkiegi hartzeko joera izan zela, pentsiodun guztientzako aukera baliagarri bezala eta agian, inplizitoki, gizarte-erreforma sakonagoen ordezkot bezala aurkeztu zenean. Orduko joeraren ondorio dira egun dauden egoitza-erakunde batzuk, autonomia fisikoa dutenen premiak asetzeko egituratuak izan zirenak.

Berez baliatzeko gai ez direnentzako egoitzen diru-kostuak, burujabeentzako aldean, handiagoak izateak eta, horrez gain, lehenengo osasun zerbitzuetako aginpidea dela eta, sortzen diren arazoen -osasun alorrak betidanik itzuri du arazoa eta gizarte ongizateak, bere aldetik, egonaldi luzeko ospitale antzekorik egitea, ahal duen neurrian, ekidin du eragin dute egoitza-zerbitzuen garapena hala-nolakoa izatea, ez baitiote beharrezan larriagoak dituen biztanlegoari erantzun egokirik eskaintzen.

Hala ere, egoitzetako zerbitzua autonomia larriki galdua duten edadetuentzako gorde beharko litzateke, laguntza-sare antolatu edo antolagabeko zerbitzuen bidez beren etxeetan konpondu ezin diren kasuetarako. Allen eta besteren esanetan⁵, planteamendu horrek bi oinarri ditu: lehena, zaharrek eta hauen zaintzaileek hala nahi izaten dutela eta, bigarrena, baliapide mugatu batzuk erabiltzeko erarik onena dela, nahiz eta komunitate-sorospena aukerarik merkeena ez izan.

⁴Arabako Foru Aldundia. *Gizarte Ongizate Saila. Situación socio-sanitaria de los ancianos.*

⁵I. Allen, D. Hogg, S. Pearce. *Elderly people. Choice, Participation and Satisfaction.* Londres: Policy Studies Institute, 1992.

3.2. ADINEKOEN EGOITZAK: BALIAPIDE URRIA

Goian adierazitakoak ez du inolaz ere eragozten, egoitza-sorospenerari kasu askotan erabat egoki eriztea; tamalez, Euskal Herriko Autonomi Elkartearen eskaintzak aurre egin diezaiokeen baino askoz ere kasu gehiagotan.

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Gizarte-Zerbitzuei buruz EUSTATEk buruturiko azken eroldaren arabera, 1991-12-12an 7.908 egoitza-postu zegoen, 120 toki ezberdinetan banatuta. Izan ere, ohe guztien stocka zortzi milatik gorakoa izan liteke, alde batetik, 1991ko estatistikek ez baitute jasozten galdeketa erantzuteari uko egin zioten erakunde kopuru bat, eta bestetik, arestian aipatu dataz geroztik postu berriak sortu direlako. Hainbat informazio-erorbide alderatuz, egun 8.890 egoitza-postu inguru dagoela uste dugu, lurralde historikoen arabera honela banatzen direlarik: 1.565 Araban, 4.553 Bizkaian eta 2.972 Gipuzkoan.

8.890 kopuruak 65 urte eta gehiagoko biztanlegoaren %3,34ko eskaintza tasa dagoela adierazten du.

Lurralde batetik bestera alde nabarmenak ageri dira eskaintza tasetan, hala nola, Arabako %5,08tik, Bizkaia eta Gipuzkoako %3,10 eta %3,40ra, hurrenez hurren.

Jabetzari dagokionez, postuetatik ia erdiak publikoak dira, eta beste laurden bat fundazioek zuzendutakoak, hauetako gehienak ere, publikoak direla. Postu guztien %17a irabazte asmorik ez duten erakundeek kudeatzen dute eta, ondorioz, huts-hutsean jabetza pribatukoak lirakeenak ez dira %10era heldzen.

Lurraldeen arteko aldea, jabetzari dagokionez ere, ondo nabarmena da. Gipuzkoa eta Arabako «merkatuan» enpresa gutxi batzuk besterik ez badago ere, Bizkaian, aldiz, egoitza-erakundeen %30a eta postuen ia %17aren jabetza esku pribatuetan dago.

1. LAUKIA

EGOITZEN JABETZA LURRALDEZ LURRALDE Gutzizko kopuruak eta Portzentaiak

	GUZTIRA				ARABA				BIZKAIA				GIPUZKOA			
	Zentr.	%	Postu.	%	Zentr.	%	Postu.	%	Zentr.	%	Postu.	%	Zentr.	%	Postu.	%
GUZTIRA	120	100.0	7.908	100.0	22	100.0	1.371	100.0	56	100.0	3.983	100.0	42	100.0	2.554	100.0
Lurralde Adm.	15	12.5	1.609	20.3	9	40.9	748	54.5	3	5.3	480	12.0	3	7.1	381	14.9
Toki Adm.	38	31.7	2.170	27.5	6	27.3	374	27.3	8	14.3	486	12.2	24	57.2	1.310	51.3
Autonomi Adm.	1	0.8	18	0.2	-	-	-	-	1	1.8	18	0.5	-	-	-	-
Fundazioak	27	22.5	2.039	25.8	1	4.5	18	1.3	17	30.4	1.443	36.2	9	21.4	578	22.6
I. a. g. erakundeak	20	16.7	1.355	17.1	4	18.2	178	13.0	10	17.8	892	22.4	6	14.3	285	11.2
Enpresak	19	15.8	717	9.1	2	9.1	53	3.9	17	30.4	664	16.7	-	-	-	-

Baina lurralde historiko bakoitzeko erakundeek egindako ahalegina kontutan izanez gero, batzuetatik besteetara dauden alderik handienak laburtuko genituzke esanez, Araban Foru Aldundiaren zeregina oso garrantzitsua dela, postuetarik erdiak baino gehiago bereak baititu, Gipuzkoan, berriz, postuen jabetzaren arabera noski, ahaleginik handiena udalbatzek egiten dutela, fundazioetako ez gain, postuen erdiak baino gehiago bereak direlako, eta Bizkaian, aldiz, garrantzirik handiena irabaztea xede ez duten fundazio, enpresa pribatu eta erakundeek dutela.

Dena dela, argi dago horretan diharduten erakundeen ahalegina, orokorrean ez dela nahikoa. Esandakoaren lekuko dira erakunderik gehienetan dauden itxaron-zerrendak, oraingoz erantzunik gabe dagoen eskaera handiaren adierazle garbia baitira. Honako txosten hau idatzi aurretik adituen bileran bertan ere, partehartzaile gehientsuenen esanetan, zaindu gabe edo gaizki zainduta hainbeste zahar egotea kezka garriagoa zen, erakundeetan kualitate aldetik egon zitezkeen arazoak baino.

Nor bere etxean bizi diren zaharren egoera eta, jakina, beren zaintzaileena ere, gure artean soziologikoki ezagunak ez badira ere, ziur gaude hainbat eta hainbat kinka larrian daudena, ezindutako zahar askok jasan behar izaten dituen bitzita-baldintzengatik, eta senideei, batipat emakumezkoiei, diru aldetik zein pertsonalki eskatzen zaien guztiagatik.

Ikerketa epidemiologikoen⁶ diotenez, 65 urtetik gorakoen artean %2,4ak ohean edo besaulkian egon beharra dauka, beste %3,1ak, berriz, autonomia handiagoa izanda ere, besteren beharra du jantzi eta garbitzeko eta azkenik, %12,4ak bere burua garbitu eta jatzeko gauza izanik ere, etxetik ez da irteten edo ez dauka bakarrik irteterik.

Kopuru horiek asistentzia aldetik zein hutsune handia dagoen azaltzen dute, gorago aipaturiko era guztietako 8.890 egoitza-postuez gain, ohean edo besaulkian egotera derrigortutako 6.628 zaharri, beren burua garbitu eta jatzeko gai ez diren beste 8.218 ere gehitu behar baitzaizkio. Jakina da aipaturiko horiek guztiak, beren gaitasun gabezia handia gorabehera, ez dutela egoitza-posturen beharrik. Izan ere, behar duten laguntza asko ta askori ziurrenik familiak berak emango dio, etxean zaintzeko zerbitzuaren laguntza izan nahiz ez izan. Dena dela gai horren inguruan hiru alderdi garrantzitsu, behinik behin, hartu behar dira kontutan.

Lehenik eta behin *Egoitzetako Zaharrak*⁷ ikerketak adierazten duen bezala, bere buruaz arduratzeko inolako eragozpenik ez duen jendeak betetzen

⁶Cfr. Cólvez eta beste batzuek. Rapport au Groupe de Travail: *Méthodologie pour une planification des services aux personnes âgées dépendantes. Approche épidémiologique des besoins en services pour les personnes âgées dépendantes*. Montpellier: INSERM, 1990. SIIS - Dokumentazio eta Ikerketa Zentruak (ezezaguna) eginiko Gipuzkoa eta Bizkaiari buruzko Zerbitzu sozialen Mapak-en agertzen diren emaitzak eta guk aipatutakoak bat datoz.

⁷Eusko Jaurlaritz, Lan eta Gizarte Segurantz Saila. Ancianos en residencias. *Estadísticas y documentos de trabajo*, 9. zk.

du erakundeetako oheen ia erdia, eta %30a, berriz, berez baliatzeko oso eragozpen txikiak dituztenek betetzen dituzte. Litekeena da, aipaturiko lan hori egin zenez geroztik, batetik egoitzek jendea hartzerakoan izan duten irizpidealdaketa egokiagatik, eta egoitzetako jendea hiltzen joan delako bestetik, benetan bere buruaz arduratzeko erabateko eragozpenak dituztenak gehiago izatea bestelakoak baino. Tamalez, "bitariko" egoitzetan elbarrientzako dagoen postu-kopurua ez dugu ezagutzen, baina egia da, ohe guztietatik %35a pertsona burujabeentzako bakarrik diren egoitzetan daudena. Bigarrenik, Gipuzkoako egoitzetako kasua kualitate aldetik dagoen urritasunaren lekuko da, bertako egoitzetako zaharren %60a baino gehiago ezintasun maila neuritzen duen Kuntzmannen eskalan 4aren azpitik daudelako eta, beraz, lurralde horretako Foru Aldundiko Ongizate Sailaren iritziz, laguntzadunentzako postua eman behar zaien ala ez erabakitzeke muga-mugan leudeke. Kopuru hori elkartearen dauden egoitza-postuetara ekarriko bagenu, 8.890 horietatik 3.500era ere ez lirateke iritsiko larriki ezindutako zaharrek -postu bat edukitzeke besteko gaitasun eza dutenek- beteko lituzketenak; berez, aulki edo ohean egotera derrigortutakoek, arestian aipatu den kopuruaren bikoitza osatzen dute.

Inguruko herrialdeek eskaintzen dituzten egoitza-postu kopurua ikusi besterik ez dago, gure artean laguntza aldetiko urritasuna zenbaterainokoa den jakiteko. Eskuarki, badirudi mota guztietako egoitza-zerbitzuak kontutan hartuz, 65 urtetik gorako 100 pertsonako 5 ohe dagoela herrialde aurreratu gehienetan. Ikusi ahal izan dugunez, Araban kopuru hori gainditua da, eta lurralde honetan eskaintza handiegia eman denik baztertuz, honako ondorio hau atera genezake: Autonomi Elkartearen 65 urtetik gorakoen egoitza-postuak %5era ailegatu behar izateak, berez beharrezko diren 13.000tara heltzeko beste 5.000 sortu beharra dakar.

2. LAUKIA

BIZTANLEGOAREN BILAKAERA 2016. URTEARI BEGIRA

	1991. urtea		2016. urtea	
	Zenbatespena	Errolda	Zenbatespena	Errolda oinarria 1991 = 100
Biztanlegoa guztira	2.118.194	2.104.041	2.060.872	97,8
65 urtetatik gorako biztanlegoa	257.465	266.109	396.211	148,8
65 urtetatik gorako biztanlego portzentaia (%) biztanlego osoaren arabera	12,2	12,6	19,2	152,4

Informazio-erorbidea: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Planifikazio Sarea. Escenarios Demográficos. Horizonte 2016.

3. LAUKIA

2016. URTEAN BEHARKO DIREN EGOITZA POSTUAK

	Postu kopurua	1993n zeudenen gainean = 8.890
Eguno eskaintza %3,34	13.255	49%
Beharrezko eskaintza %5	19.810	123%

Bestalde, egoitza beharrak aztertzean, aintzat hartu behar da zaharren populazioak izan dezakeen bilakaera. Bada, azken hamabi urteotan postuak sortzeko egin den ahaleginari dagokionez, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko postuak %21 gehitu badira ere, garai berean zaharren populazioan eman den %49ko hazkuntzaren ondorioz, eskaintza tasa %4 gutxitu da.

2016. urtean %5eko eskaintza tasa eduki ahal izateko, gaur egungo ohe stockak %120ko hazkuntza eduki beharko luke, beharrezko izango diren 20.000 postuetara heldu nahi bada. Ez dezagun ahaz, 20-25 urteren buruan 10.000ren bat zahar izango dela ohean edo besaulkian egotera derrigortutakoa.

Aipatu ditugun urritasuna eta 25 urte barrurako aurrikusitakoa garrantzi handikoak baziren ere, horiek instalazio desegoki eta zentru zaharkituak berri-ri beharra erantsi behar zaie.

Beste xehetasunik ukitu gabe, eta erakundeen tamainura mugatuz gero, ehun postutik gorako tokia duten 19 eta 200etik gora duten 7 daude. Beraz, ez da betetzen ia aditu guztiek diotena, era honetako egoitzek ez dutela berrogeita hamar ohe⁸ baino gehiagorako tokia eduki behar, alegia.

Zahar egoitzaratuen %45a ehun ohetik gorako erakundetan bizi da, eta ia laurdena 200etik gorako makrozentrotan.

Bestalde, erakundetan bizi diren zaharren %15ak gutxienez beste bi lagunekin batera du gela, eta ia %6a, lau ohe gutxienez dituen gelatan dago. Hala ere, eta Hirugarren Adinekoentzako Egoitzetako Zerbitzu Soziali buruzko uztailaren 30eko 218/1990 Dekretuak (aurrerantzean, 218/1990 dekretua) emandako irizpideekin bat etortzeko, hiru pertsona baino gehiagoko gelak desagertu beharko lirateke eta, beraz, mila ohe inguru gehiago sortu.

Arazoa, beraz, larria da eta neurriak azkar eta tinko hartu beharko dira.

3.3. KOMUNITATE SOROSPENAREN GARAPENA

Komunitatean egindako sorospena, gero eta konplexuagoak diren zaintza-multzoen bidez egindakoa, instituzionalizazioaren ordezkotik aukera egoki bezala agertzen da. Hala ere, azken urteotan sarri askotan, egoitza-postuen sorkuntza txikia zuzitzeko erabili izan da kontzeptu hori, zeren eta komunitate-zaintzaren alde egotea, egoitzan eskainitakoaren aurka egotea zela ulertu izan baita.

Egun, egia da, egoerarik larriena ere etxean zain daitekeela, eta komunitatean egiten den zaintza, duela 20 urte egoitza-sorospenekoa izango zatekeen hainbat kasuren ordezkotik baliagarri eta desiragarri bilakatzen dela. Dena den, egia ere bada, beharrezko aukera dela egoitzan ematen den arreta, eta,

⁸Zenbait herrialdetako akreditazio arauak gehienezko tokia ezartzen dute. Danimarkan 20 ohekoa da muga, Frantzia 80koa, Ingalaterran eta Galesen 65koa eta Estatu batuetan 60koa. SIIIS - Dokumentazio eta Ikerketa Zentrua. *Sistemas de autorización y acreditación de servicios residenciales para ancianos: panorama internacional*. Donostia-San Sebastian: SIIIS, 1992.

aipatu bezala, erabat positiboa larriki gaitasun-gutxiagotutako zaharrentzat, eta are gehiago egoitzek eskaini beharrekoaz egun pentsatutakoari jarraiki, zerbitzu horiek toki, neurri eta programen aldetik, erabiltzailea komunitatean, ahal den neurrian, barnera dadin erraztu behar baitute.

Bestalde, nahiz eta gure herrian egoitza-postuen eskasia handia izan, ez dago ordezko zerbitzu-sare aipagarriarik. Eguneko zentruak bitxikeriatzat har genitzake eta etxean emandako sorospena 6.500 erabiltzailerentzako baino ez da, 65 urtetik gorako 100 zaharretik 2,4rentzako eskaintza-tasa, alegia.

Kopuru hori Europakoarekin alderatuz gero, ikusiko dugu Suedian eta Finlandian tasa horrek %18a gainditzen duela, eta hurbilago dauden herrialdeetan, Frantzia edo Belgika kasu, %6ra iristen dela. Hori bai, zerbitzua denbora aldetik neurtuz gero, trinkoagoa da gurean, Europako herrialdeetan astean bi ordutik gorako zerbitzurik nekez aurkituko dugun arren, hemen 7 ordukoa baita. Horren guztiaren arrazoi nagusia, Euskal Autonomi Elkartearen etxean emandako sorospen-zerbitzuek bere gain hartu beharreko kasuen larritasunean datza, nahiz eta bestelako arrazoirik ere baden. Horrela, bada, 65 urtetik gorako biztanle bakoitzeko zerbitzu ordu kopurua antzekoa izanagatik, gure eskaintza europearrena baino murriztagoa da.

Edozelan ere, egoitzen ordezko har daitezkeen komunitate-zerbitzuen kopurua eta kalitatea ez dira, inola ere, hain egoitza-ohetutako egoteko aitzakia.

4. LAUKIA (A)

JABETZA ETA EGOITZA MOTAK

E A E	GUZTIRA		ZENBATENTZAKO TOKIA									
			< 12		12 - 30		30 - 100		100 - 200		> 200	
	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak
GUZTIRA	120	7.908	18	130	15	317	68	3.882	12	1.727	7	1.852
Lurralde Adm.	15	1.609	1	10	-	-	8	440	4	606	2	553
Toki Adm.	38	2.170	8	42	4	89	21	1.293	4	506	1	240
Autonomi Adm.	1	18	-	-	1	18	-	-	-	-	-	-
Fundazioa	27	2.039	2	21	4	90	16	928	2	291	3	709
I.a.g. erakundeak	20	1.355	3	21	2	55	12	605	2	324	1	350
Enpresak	19	717	4	36	4	65	11	616	-	-	-	-
PUBLIKOA GUZTIRA	54	3.797	9	52	5	107	29	1.733	8	1.112	3	793
Lurralde Adm.	15	1.609	1	10	-	-	8	440	4	606	2	553
Toki Adm.	38	2.170	8	42	4	89	21	1.293	4	506	1	240
Autonomi Adm.	1	18	-	-	1	18	-	-	-	-	-	-
PRIBATUA GUZTIRA	66	4.111	9	78	10	210	39	2.149	4	615	4	1.059
Fundazioa	27	2.039	2	21	4	90	16	928	2	291	3	709
I.a.g. erakundeak	20	1.355	3	21	2	55	12	605	2	324	1	350
Enpresak	19	717	4	36	4	65	11	616	-	-	-	-

4. LAUKIA (B)

JABETZA ETA EGOITZA MOTAK

A R A B A	GUZTIRA		Z E N B A T E N T Z A K O . T O K I A									
			< 12		12 - 30		30 - 100		100 - 200		> 200	
	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak
GUZTIRA	22	1.371	4	35	3	63	11	547	3	486	1	240
Lurralde Adm.	9	748	1	10	-	-	5	252	3	486	-	-
Toki Adm.	6	374	1	9	2	45	2	80	-	-	1	240
Fundazioa	1	18	-	-	1	18	-	-	-	-	-	-
I.a.g. erakundeak	4	178	1	8	-	-	3	170	-	-	-	-
Enpresak	2	53	1	8	-	-	1	45	-	-	-	-
PUBLIKOA GUZTIRA	15	1.122	2	19	2	45	7	332	3	486	1	240
Lurralde Adm.	9	748	1	10	-	-	5	252	3	486	-	-
Toki Adm.	6	374	1	9	2	45	2	80	-	-	1	240
PRIBATUA GUZTIRA	7	249	2	16	1	18	4	215	-	-	-	-
Fundazioa	1	18	-	-	1	18	-	-	-	-	-	-
I.a.g. erakundeak	4	178	1	8	-	-	3	170	-	-	-	-
Enpresak	2	53	1	8	-	-	1	45	-	-	-	-

4. LAUKIA (C)

JABETZA ETA EGOITZA MOTAK

B I Z K A I A	GUZTIRA		Z E N B A T E N T Z A K O T O K I A									
			< 12		12 - 30		30 - 100		100 - 200		> 200	
	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Centros	Postuak
GUZTIRA	56	3.983	6	55	10	202	31	1.883	5	735	4	1.108
Lurralde Adm.	3	480	-	-	-	-	1	60	1	120	1	300
Toki Adm.	8	486	-	-	1	20	7	466	-	-	-	-
Autonomi Adm.	1	18	-	-	1	18	-	-	-	-	-	-
Fundazioa	17	1.143	2	21	2	44	9	629	2	291	2	458
I.a.g. erakundeak	10	892	1	6	2	55	4	157	2	324	1	350
Enpresak	17	664	3	28	4	65	10	571	-	-	-	-
PUBLIKOA GUZTIRA	12	984	-	-	2	38	8	526	1	120	1	300
Lurralde Adm.	3	480	-	-	-	-	1	60	1	120	1	300
Toki Adm.	8	486	-	-	1	20	7	466	-	-	-	-
Autonomi Adm.	1	18	-	-	1	18	-	-	-	-	-	-
PRIBATUA GUZTIRA	44	2.999	6	55	8	164	23	1.357	4	615	3	808
Fundazioa	17	1.443	2	21	2	44	9	629	2	291	2	458
I.a.g. erakundeak	10	892	1	6	2	55	4	157	2	324	1	350
Enpresak	17	664	3	28	4	65	10	571	-	-	-	-

4. LAUKIA (D)

JABETZA ETA EGOITZA MOTAK

	GUZTIRA		ZENBATENTZAKO TOKIA									
			< 12		12 - 30		30 - 100		100 - 200		> 200	
G I P U Z K O A	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak	Zentruak	Postuak
GUZTIRA	42	2.554	8	40	2	52	26	1.452	4	506	2	504
Lurralde Adm.	3	381	-	-	-	-	2	128	-	-	1	253
Toki Adm.	24	1.310	7	33	1	24	12	747	4	506	-	-
Autonomi Adm.	9	578	-	-	1	28	7	299	-	-	1	251
Fundazioa	6	285	1	7	-	-	5	278	-	-	-	-
I.a.g. erakundeak	27	1.691	7	33	1	24	14	875	4	506	1	253
Enpresak	3	381	-	-	-	-	2	128	-	-	1	253
PUBLIKOA GUZTIRA	24	1.310	7	33	1	24	12	747	4	506	-	-
Lurralde Adm.	15	863	1	7	1	28	12	577	-	-	1	251
Toki Adm.	9	578	-	-	1	28	7	299	-	-	1	251
Autonomi Adm.	6	285	1	7	-	-	5	278	-	-	-	-

5. LAUKIA

1991ko GIZARTE ZERBITZUAK. ADINEKOENTZAKO ZERBITZU NAGUSIAK ETA ESKAINTZA TASAK

	EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Etxean emandako sorospena	6.496	1.097	3.354	2.045
Eguneko zentruak	256	79	66	111
Familietan hartutakoak	70	-	-	70
Egoitzetako Zerbitzuak	8.890	1.565	4.553	2.972
GUZTIRA	15.712	2.741	7.973	5.198
65 urtetik gorako biztanlegoa	266.109	30.828	146.896	87.385
GUZTIZKO ESKAINTZA TASA 0/00	59,0	88,9	54,3	59,5
EGOITZETAKO ESKAINTZA TASA 0/00	33,4	50,8	31,0	34,0

Informazio etorbidea: EUSTAT eta foru aldundiek egindako lana.

6. LAUKIA

EGOITZETAKO ZERBITZUEN POSTUEK IZANDAKO BILAKAERA. 1981-1993

		EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
1981	Postu kopurua	6.660	1.296	3.317	2.047
	65 urtetik gorako biztan.	207.678	23.401	115.112	69.165
	Eskaintza Tasa 0/00	32,1	55,4	28,8	29,6
1993	Postu kopurua	8.890	1.565	4.553	2.972
	65 urtetik gorako biztan. (1991)	266.109	30.828	146.896	87.385
	Eskaintza Tasa 0/00	33,4	50,8	31,0	34,0
Oinarri indizeak 1981=100	Postu kopurua	135,5	120,8	137,3	145,2
	65 urtetik gorako biztan. (1991)	128,1	131,7	127,6	126,3
	Eskaintza Tasa 0/00	104,0	91,7	107,6	114,9

Informazio-etorbidea: EUSTAT.

7. LAUKIA

1991ko GIZARTE-ZERBITZUAK. ADINEKOENTZAKO ZENTRU ETA EGOITZA POSTUAK, TOKI MOTEN ARABERA SAILKATUAK

	EAE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Zenbat.	%	Zenbat.	%	Zenbat.	%	Zenbat.	%
ZENTRUAK								
Burujabeentzako egoitzak	45	37,2	10	43,5	22	39,3	13	30,9
Laguntzadunentzako egoitzak	9	7,4	4	17,4	4	7,1	1	2,4
Bitariko egoitzak	60	49,6	6	26,1	30	53,6	24	57,1
Apartamenduak	2	1,7	-	-	-	-	2	4,8
Gizarte etxebizitza	5	4,1	3	13,0	-	-	2	4,8
EGOITZA ZERBITZUA GUZTIRA	121	100,0	23	100,	56	100,0	42	100,0
POSTUAK								
Burujabeentzako egoitzak	2.619	31,1	321	23,4	1.425	35,8	873	34,2
Laguntzadunentzako egoitzak	888	11,2	412	30,0	426	10,7	50	2,0
Bitariko egoitzak	4.327	54,7	611	44,6	2.132	53,5	1.584	62,0
Apartamenduak	4	0,1	-	-	-	-	4	0,1
Gizarte etxebizitza	70	0,9	27	2,0	-	-	43	1,7
EGOITZA ZERBITZUA GUZTIRA	7.908	100,0	1.371	100,0	3.983	100,0	2.554	100,0

Informazio-etorbidea: EUSTAT. *Gizarte Zerbitzuen Estatistika. Entitate eta Zentroak*. 1991.

8. LAUKIA

EUROPAKO BATASUNEN ESTATUKIDEETAN DAGOEN EGOITZA-AZPIEGITURAREN ESKAINTZA. 1991

	65 urtetik gorako 100 laguneko postu kopurua	65 urtetik gorako 100 laguneko egoitza postuak
Alemania	5,4	2,3
Belgika	7,8	2,1 ¹
Danimarka	13,2 (11,3)	5,3
Espania	2,0	0,2
Frantzia	5,1	2,4 ¹
Grezia	0,5	-
Irlanda	5,0	-
Italia	2,3	-
Luxemburgo	7,8 (6,8)	1,4
Holanda	12,3 (9,7)	2,6
Portugal	2,0	-
Erresuma Batua	10,0 (5,0)	

OHARRA: Parentesi arteko kopuruak, zaharrentzako babespeko etxebizitza eta bestelako zenbait egoitza berezi kanpo uzten dituzten datuei dagozkie.

1 - Ospitaleetako egonaldi luzeak (Frantzia) eta geriatrikoetakoak (Belgika) bane.

Informazio-erorbidea: The 1993 Report of the European Observatory.
Commission of the European Communities.
Older people in Europe: Social and Economic Policies.

9. LAUKIA

ETXEAN EMANDAKO SOROSPEN-ZERBITZUA Eskaintza, maila eta intentsitatea

	EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
1. 65 urtetik gorako zahar sorostu kopurua	6.496	1.097	3.354	2.045
2. 65 urtetik gorako biztanlegoa	266.109	30.828	146.896	87.385
3. Sorostutako biztanlegoa/biztanlego osoa 100 zaharreko	2,44	3,55	2,28	2,34
4. Zaharrak sorosteko urteko zerbitzu-orduak	2.438.983	459.036	1.297.591	682.356
5. Asteko sorospen-orduak	46.777	8.803	24.887	13.087
6. Intentsitatea (asteko zerbitzu-orduak erabiltzaileko)	7,20	8,02	7,42	6,39
7. Maila (asteko zerbitzu-orduak 65 urtetik gorako 1.000 biztanleko)	175,8	285,5	169,4	149,8

Informazio-etorbidea: foru aldundiek egina.

10. LAUKIA

EUROPAKO ZENBAIT HERRIALDETAN ETXEAN EMANDAKO SOSPENAREN ADIERAZLEAK

	Eskaintza	Intentsitatea	Maila
Suedia	18,4	4,75	1.016
Danimarka	20,5	-	-
Erresuma Batua	12,5	3,2	320
Frantzia	6,1	2	128
Belgika	6	2,2	133
Finlandia	18,4	1,4	271
Austria	8,8	1,1	104

IV. ATALA

**ADINEKOEN EGOITZA-ZERBITZUEN
ERLAZIO JURIDIKO-
ADMINISTRATIBOAREN JAURPIDEA
EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAN**

4.1 GIZARTE-LAGUNTZA KONTZEPTUA

4.1.1. Esapidearen zehaztasunik eza

Laguntza soziala jasotzeko eskubideak Ongizate-Estatuaren edo Estatu Soziala deitzen denaren azalpen batean du sustraia; hau da, hemeretzigarren mendeko ongintza edo erruki publikoaren kutsua galdurik, eskubide sozialak konstituzio-arauetan sartu zirenean sortu zen.

Hala ere, sekulako zehaztasunik eza dago eskubidea izendatzeko orduan, zeren eta hainbat eta hainbat esapide desberdin erabiltzen baitira kontzeptu bakartzat jotzen den hori zehazteko -izan ere, adiera bakarreko kontzeptua da, era askotako izendapenak ematen bazaizkio ere: halako doktrina batek, esaterako, ekintza sozial modura definitu du, eta Konstituzioak berak, aldiz, laguntza sozial modura-. Autonomi estatutuek eta alor hau arautzen duten lege autonomikoek inolako bereizketarik egin gabe erabiltzen dituzte laguntza soziala, gizarte-ongizatea, zerbitzu sozialak, eta baita ongintza kontzeptu zaharra ere¹.

Guk, ordea, *laguntza soziala* esango dugu, Konstituzioak berak erabiltzen duen esapidea delako, nahiz eta bera ulertzeko modu modernoagoa iruditu *ekintza sozial publikoa* doktrinak -Beltran Aguirre- sortutako esapidea.

4.1.2. Kontzeptuaren mugak jurisprudenzia konstituzionalean eta Zuzenbide positiboan

Konstituzio-Auzitegiak laguntza sozial kontzeptua landu duen arren, nahiko zabal eta zehazkabea da. Eta 71/1986 Konstituzio-Auzitegiaren Epaiko (KAE) seigarren oinarri juridikoaren arabera, honako definizio-lerro hauek jar daitezke:

¹Otsailaren 25eko 2/1983 Legè Organikoaren bidez onartutako Balear Irltako Autonomi Estatutuko 10.12. artikulua.

“- Laguntza soziala nozioa zehaztu gabe dago Konstituzioaren testuan; horregatik, konstituziogileak kontuan izan dituen legeria mailako kontzeptuetara jo beharra dago.

- Indarrean dagoen legeriaren arabera, Gizarte Segurantzaren sistematik kanpo badago laguntza sozialik ere, sistema horretan sartuta ez dagoena, beraz; orduan, horri buruzkoa izan behar du Espainiako Konstituzioaren 148.1.20. artikuluko aipamenak, eta, hortaz, autonomi elkarteek ahalmenen arteko bat izan behar du.

- Laguntza sozial hori halako premia-egoera berezi batzuetarako babes-tresna da, Gizarte Segurantzaren sistematik kanpo geratzen diren biztanle-multzoen beharrak asetzeko helburua izan behar duena; laguntza horrek, jakina, ez ditu erabiliko Gizarte Segurantzak erabiltzen dituen teknikak.

- Gaur egun, laguntza sozial guztien ezaugarrietako bat zera da: jasotzaileek edo onuradunek aldeztatik aurretik ordaindu gabe edo inolako zergarik ordaindu gabe mantentzeko gai izatea.”

Bestalde, azaroaren 25eko 146/1986 KAEak berriz ere agertzen ditu lehenago esandakoak, baina honako hau ere gaineratuz:

“- [Laguntza sozialaren] ezaugarri teknikoetako bat hau da: erakunde publikoek edo haien menpeko beste sail batzuek emandakoa izatea, erakunde horiek edozein direlarik ere.

- Laguntza soziala babeserako teknika publikoa, eta horregatik bereizten da ohizko ongintzatik, nahiz eta beronetan eduki sustraiak.

- Laguntza soziala nozioan ez dago bakarrik erakunde publikoek emandakoa -beraiek zehazten eta ematen dutena-, baizik eta, baita erakunde pribatuek emandakoa ere; kasu hauetan, erakunde publikoek laguntza edo atentzio horiek sustatu edo kontrolatu egiten dituzte.

Beste alde batetik, Konstituzioak berak ez du zehazten zer den laguntza soziala; bakar-bakarrik, autonomi elkarteek beren gain har dezaketen alorretako bat dela esaten du (148.1.20. artikulua).

Europako Gutun Sozialak, Espainiak 1980ko apirilaren 19an berretsiak, 13 eta 14. artikuluetan zehazten du zer diren laguntza soziala eta zerbitzu sozialak.

Lege autonomiko desberdinek nola edo hala zehaztu dute laguntza soziala kontzeptua. Gure azterlanari dagokionez, Zerbitzu Sozialari buruzko maiatzaren 20ko 6/1982 Legeak honela zehazten du zer diren zerbitzu sozialak, bere zioen azalpenean: “norbanakoen eta taldeen elkarteango ongundea eta hezkundea suztatu, eta horiek gizarte-inguruari egokitzeko laguntza ematen duten zerbitzuak.”

4.1.3. Adinekoen babesaren gizarte-laguntzaren alorrean

Konstituzioaren 50. artikulua honakoa dio:

“Botere publikoek, dagozkien pentsioez aldika gaurkotuz zahartzarotan garantizatuko dio hiritargoari behar beharrezko ekonomia. Era berean, eta familiako betebeharretatik kanpo, haien ongitasuna bultzatuko dute zerbitzu sozialen bidez beraien arazo bereziei kasu egin, hots, osasun, bizileku, kultura eta aisiari.”

Esan daiteke laguntza sozialaren barruan sartuta daudela alor honetako hainbat puntu (emakumearen babesaren, haurtzarorako politika, gazteriarako politika, elbarrien babesaren, etab.); beraz, adinekoentzako politika ere bai. Orduan, alor desberdinetan egiten diren ekintzak dira, jasotzailegaien arabera zehazten direnak eta, loturiko gaiak izanik, *laguntza sozialaren* barruko arduratza hartu behar direnak.

Baieztape hau egiaztatzeko, esan dezagun autonomi estatutu batzuetan, Euskal Herriarenean ez bezala, ekintza sozialaren alorreko eskumenik eduki ez arren, bai transferentzia-dekretuek, bai elkarte autonomoetako arauak ere eragina dutela alor berezi batzuetan (hirugarren adina, gazteria, etab.); izan ere, kontutan hartzen da alor horietako ekintza loturik dagoela laguntza sozialarekin, edo haren barruan sarturik dagoela, horrelakorik berez argi eta garbi aipatuta egon ez arren.

4.2. ADINEKOEN EGOITZETAKO LAGUNTZA-ZERBITZUEN ERLAZIO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA

Adinekoentzako egoitzetako laguntza-zerbitzuen erlazio juridiko-administratiboa laguntza sozialaren erlazio juridiko-administratiboaren osagaitzat jo dezakegu eta, gure txosten honi dagokionez, hari buruz egingo dugun azterketan egoitzen laguntza-zerbitzuetara mugatuko da, azken batean.

4.3. ADINEKOEN EGOITZETAKO SOROSPEN-ZERBITZUEN ERLAZIO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAREN HARTZAILE-EMALEAK

4.3.1. Egoitzetako sorospen-zerbitzuen emaleak

Spainiaiko Konstituzioaren 50. artikulua arabera, botere publikoek adinekoen “ongitasuna bultzatuko dute zerbitzu sozialen bidez beraien arazo

bereziei kasu eginez, hots, osasun, bizileku, kultura eta aisiari”, eta, beraz, haiek dira egoitzetako laguntza-zerbitzua eman behar dutenak. Lan honetako 4.5. puntuan aztertuko dugu nola banaturik dauden alor honetako eskumenak administrazio publiko desberdinen artean, Euskal Autonomi Elkartearen adinekoentzako egoitzetako laguntza-zerbitzuen emaleak nortzuk diren zehazteko.

4.3.2. Egoitzetako sorospen-zerbitzuen hartzaileak

Adinekoentzako egoitzetako laguntza-zerbitzuen hartzaileak dira, beste inor baino lehen, 6/1982 Legearen 2. artikulua zerbitzu sozialak jasotzeko eskubidearen jabetzat ematen dituenak.

Arau horrek dioenez:

“Euskal Herrian bizi eta arrotz ez direnak eta bidariak dira lege honetan araupetutako gizarte-zerbitzuen eskubidedun, arauz jarri daitezten baldintzapean. Atzeritarrek baliatu ahal izango dute zerbitzu hoietaz, eta bai iheslariak eta aberririk gabekoak ere, arauz jarri daitezten baldintzekin eta indarrean dauden horretazko nazioarteko ituneetan agindutakoaren arauera.”

Zerbitzu sozialak jasotzeko eskubidea dutenen artean, hirugarren adina deitzen den horretara iritsitakoak dira lan honetan aztertzen ari garen laguntza sozialaren jasotzaileak.

Hirugarren Adina izenez ezagutzen den kontzeptu hori legearen ikuspegitik ez da oso zehatza, baina, eufemismo bat da, lanetik erretiratzeko adinera (hau da, salbuespenak salbuespen, 65 urtera) iritsi diren gizon-emakume zaharrek izendatzeko erabiltzen dena, ezertarako ere kontutan hartu gabe haien gorputz edo buru-egoera.

Hori hala izanik ere, komenigarria litzateke hirugarren adinekoentzako egoitzek ematen dituzten zerbitzu sozialei buruzko arauak argi eta garbi adieraztea nortzuk diren zerbitzu horren jasotzaileak, ez baitago definizio baturik autonomi elkarte guztietan².

²Horrela, Asturiasko Printzerriko martxoaren 12ko 62/1988 Dekretuaren 2.2. artikulua hauxe dio:

“Hirugarren adinekoak honako hauek dira:

a) 65 urtetik gorakoak.

b) 60 urte edo gehiagoko pentsiodunak.

c) 50 urtetik gorakoak izanik, erabateko ezgaitasun iraunkorra jasaten duten pentsiodun elbarriak.”

Bestalde, Kataluniako martxoaren 3ko 145/1990 Dekretuaren 2. artikulua beste hau dio:

“Ebazpen honen ondorioei begira, aipatutako egoitzen laguntza-zerbitzuen jasotzaileak dira 60 urte bete dituztenak, bai eta halako zertzelada pertsonal zein sozialengatik gizataldeen pare jar daitezkeenak ere.”

Uztailaren 30ko 218/1990 euskal dekretuak honi buruzko ezertxo ere esaten ez duenez gero, ulertu behar da hirugarren adinekoen artean 65 urtetik gorakoak sartzen direla, hau da, usadioen arabera halako gizon edo emakume bat zahartzat hartzeko erabiltzen den adina daukatenak.

4.3.3. Gizarte-laguntza jasotzeko eskubidea. Adinekoen egoitzetako laguntza-zerbitzuei buruzko aipamen berezia

Erakunde honen iritziz, oso garrantzitsua da zehaztea hiritar zaharrek adinekoentzako laguntza-zerbitzuak jasotzeko egiazko eskubiderik baduten ala ez.

Horri dagokionez, esan dezagun Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua, zahartzaroaren babes aipatzen duena, Konstituzioaren I. tituluko III. kapitulu dagoela, hau da, "Politika sozial eta ekonomikoaren gida oinarriez" izenburuaz, eskubide sozialak deitzen direnak konstituzionalizatzen dituen pasarteetan.

Ez dugu eskubide sozial deritzaien babes-sistema nolakoa den luze eta zabal azalduko, nahiko ezaguna delako eta lan honen asmoetatik kanpo geratzen delako; halere, komeni da gogoratzea Konstituzioaren testuko 53.3. artikulua dioena:

"Hirugarren kapituluaren aitortuak onartze, errespetu eta babesaz adieraziko du legeztapen positiboa auzi praktika eta botere publikoen ekintzak. Bakarrik aipatu ahalko dira arruntaren aurrean aurrera eramaten duten legeek erabakitzen duten arabera."

Euskal Autonomi Elkartearen kasuan, egia da Zerbitzu Sozialei buruzko 6/1982 Legeak ez duela argitasun handiz zehazten zerbitzu sozialetarako eskubidea, haren 2. artikuluan "araz jar daitezten baldintzak" bete behar dituela esaten baitu; horrek, azalpen erretoriko hutsean utz dezake aurrikuspen hori.

Gure elkartean behar baino gutxiago izanik adinekoentzako egoitza-zerbitzu publikoak, ohizko doktrinaren arabera, euskal hiritar zaharrek ezingo lukete erabili adinekoentzako egoitza-zerbitzu eta laguntza berriak sortzeko eskubide subjektiboa; izan ere, doktrina horrek Administrazioaren nahiaren esku uzten du ahalmen hori.

Hala ere, doktrinarik aurreratuenaren arabera, Administrazioak ez dauka halako zerbitzu bat jartzeko edo ez jartzeko erabakia hartzeko askatasunik, ezen, arau konstituzionaletan azaldutakoari jarraituz eta, zehazkiago, Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua arabera, Administrazioa Konstituzioaren aginduak betetzeko behar diren zerbitzu sozialak sortzera behartua baitaigo.

Beste kontu bat da, aldiz, hiritarrak esparru jurisdikzionaletan eskubide horiek baliaraztea. Esan dugu, bai, Zerbitzu Sozialei buruzko 6/1982 Legeak

ez duela inolako arauik euskal hiritarrei zerbitzu sozialak jasotzeko eskubidea aitortzen dienik, baina Toki-Jaurpiderako Oinarriak Arautzeko Legea (TJOAL) delakoak argi eta garbi esaten du 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek zerbitzu sozialak eman behar dituztela.

TJOALaren 18.1. g) artikulua onartzen du “laguntza-zerbitzua eskatzeko eskubidea eta, hala dagokionean, halako zerbitzu publiko bat sortzeko eskubidea, hori udalaren derrigorrezko ahalmena baldin bada.”

Horregatik, egia baldin bada 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak zerbitzu sozialak ematera behartuta daudela, horrek esan nahi du udalerrri horietako biztanleek egiatan dutela zerbitzu horiek eskatzeko eskubidea; beraz, eskubide hori auzitegien bitartez baliaraz daiteke, nahiz eta berori gero ezin behar bezala bete, udalerrriaren ahalbideetatik kanpo dagoelako, berez aitortuta eta onartuta egon arren.

Ondorio modura esan dezagun, TJOALeko aipamena izan ezik, ekintza sozialerako lege autonomikoak eta, hortaz, Euskal Autonomi Elkartekoa ere, ez direla tresna juridiko egokiak izan Konstituzioaren bitartez onartuta dauden eskubide sozialak osorik betearazteko.

Oso bestelako kontua da, aldiz, hiritar zaharrek egiatan duten ala ez elkarteko egoitzetan postu bat betetzeko eskubidea, adinekoentzako egoitzalaguntzaren erlazio juridiko-administratibo horretako jasotzaileak direnez. Gure ikuspegitik, Euskal Autonomi Elkartearen 6/1982 legeak aipatzen dituen zerbitzu sozialak jasotzeko eskubidedunek eskubidea dute egoitza batean postu bat lortzeko berdintasun osoz, arauen bidez ezartzen diren mugen arabera.

Ezin ahaztuko dugu gure arteko gizon-emakume zaharren artetik %3,34ra baino ez dela iristen Euskal Autonomi Elkarteko postu-eskaintza. Horregatik, postu bat jaso dezaketenen eskubideak badu baldintza bat: alegia, modu objetiboan ipintzen diren lehenetsuenen menpe dago, irizpide kronologikoa erabiliz edota, hobeto, eskatzaileen ezaugarri egiaztatuen arabera.

Hori horrela izanik, gure ustez, egoitza bateko postu bat lortzeko eskariari ezetz erantzuten bazaio arbitrarijoki eta arau bidez ezarritako irizpideak kontutan hartu gabe, orduan administrazio-azibideetarako jurisdikzioan horren aurka egin daiteke, ezezko hori baliogabetu dezaten eskatuz eta Administrazioa eskaturiko laguntza ematera behartuz.

Esan gabe doa, egoitza-zerbitzuak jasotzeko eskubideari babes judiziala ematea zaila denez gero, Ararteko honek eta gainerako legebiltzar-goikargudunek zeregin zeharo garrantzitsua bete dezakete eskubide sozial horien babesarako, Ombudsman erakundeari buruzko aditurik ospetsuenek onartu duten bezala.

4.4. ADINEKOENTZAKO LAGUNTZAREN ERLAZIO JURIDIKO-ADMINISTRATIBOAREN AZTERGAIA

Laguntza sozialaren erlazio juridiko-administratiboaren aztergaia zera da: egoitza-zerbitzu publikoek beren behar edo gabeziak bereziki babestea eska-

tzen duten pertsonen zuzenean ala zeharka eskaintzen dizkieten laguntza sozialengatik inguruko ekintza.

Adinekoentzako egoitza-zerbitzuen kasuan, erlazio horren objektua, beraz, zentru horietan ematen diren zerbitzuak izango dira.

4.5. ADINEKOEN EGOITZA-ZERBITZUEN ESKUMEN-ESPARRUA EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAN

4.5.1. Eskumenen banaketa gizarte-laguntza emaleen esparruan

Arlo honetako eskumenak nola banatzen diren aztertu nahi dugu, ongi zehaztu nahi dugulako botere publikoetatik zeintzuk bete behar duten adinekoen gizarte-ongizatea sustatzeko agindu konstituzionala. Horregatik, helburu horri begira funts handirik ez duten puntuak ez diegu arreta handirik eskainiko.

4.5.2. Estatuaren eta Euskal Autonomi Elkartearen arteko eskumen banaketa

Konstituzioaren 148.1.20. artikulua arabera, elkarte autonomoek eskumena izan dezakete gizarte-laguntzaren alorrean.

Beste alde batetik, Konstituzioaren testuko 149.1 artikulua ez du gai honi buruzko inolako eskumenik uzten Estatuaren gain.

Euskal Autonomi Elkarteak bere Autonomi-Estatutuaren erabaki zuten berak zuela eskumen osoa "gizarte-laguntzaren" alorrean (10.12. art.), bai eta haurtzaro, gazteria eta zahartzarorako politikan ere (10.39. art.).

Konstituzioa egin zenean, beraz, argi eta garbi erabaki zen gizarte-laguntzaren alorreko eskumenak elkarte autonomoen gain uztea, halaxe jasotzen bazuten behintzat beren autonomi-estatutuaren.

Baieztape horren arabera, pentsa liteke Estatuak ez duela inolako eskumen exekutiborik "gizarte-laguntzaren" alorrean eta, zehazkiago, "adinekoen" alorrean, Konstituzioak ez diolako gai honen inguruko lege-arauik egiteko eskumenik ematen.

Alabaina, gizarte-laguntzaren eta, oro har, gizarte-zerbitzuen esparruan, Estatuak ondoan adierazten ditugun eginkizunak utzi ditu bere gain, gai honen eskualdaketak egiteko erret-dekretuetan:

- Estatuaren esparruko beharrak betetzea, eta harremanak ezartzea bere esparruko edo nazioarteko beste erakunde edo sailekin.
- indarrean dauden arauen arabera bere ardurapekoak diren gainerako eginkizun guztiak, baldin eta elkarte autonomoek beren gain har-

tutako eskumenen barruan ez badaude, edota, egonez gero, ardura horiek eskuz aldatu gabe badaude.

Gainera, praktikan, Estatuaren administrazioak gizarte-zerbitzuak kudeatzen ditu Gizarte Segurantzaren bitartez eta, Gizarte-Arazoetarako Ministerioa sortu eta gero, hainbat egitarau eta ekintza ere bai.

Gauzak horrela, egoera nahasi samarra aurkitzen dugu, itxuraz Konstituzioaren testua argia den arren.

Eskumenen banaketari begira, interesgarria da Auzitegiaren azaroaren 25eko 146/86 Epaia³.

Goi-epaitegiak dioenez, "auzi honetan -ekintza eta babes sozialerako neurri publikoak- ezin da interes kontrajarritakorik egon -Estatuarena eta elkarte autonomoena-, alde batera utzirik aukera politikoengatik gerta daitezkeen desadostasunak; hortaz, lehentasuna eman behar zaio Elkarte Autonomoaren zuzendaritza politikoari, eskumen eskusiboak direlako, Konstituzioak Estatuaren gain utzitako eskumenen kalterik gabe."

Azpitarratzen du, gainera, ekintza eta babes soziala bezalako gai konplexu batean, eskumen alderazle edo eskusiboak ez direla estu-estuan ulertu behar; hau da, Estatuak esku har dezake babes sozialean, autonomi elkarteetan mailaz gaineko arazo bereziei aurre egin behar zaienean, edota arazo horietarako konponbide eta azterketen gestioa elkarteetan gaineko maila bati, Estuari esaterako, dagokionean.

Leguina Villa auzi-maisuak, hala ere, botu partikularra egin zuen, ados ez zegoelako esandako epaiaren edukinarekin; bere hitzen arabera, "Konstituzioaren 148.1.20 artikuluari jarraituz, laguntza soziala Autonomi-Estatutuen bitartez utzi da erabat elkarte autonomoen esku, eta horrek, nire iritziz, esan nahi du erakunde zentralak ez dutela inolako eskumenik alor horretan beren kasa esku hartzeko, eta, gainera, eskumen-falta hori ezin daiteke konpondu interes orokorraren izenean."

Ondorioz, autonomi elkarteek, eta zehazkiago Euskal Elkarteak, eskumen alderazleak dituzte gizarte-laguntzaren alorrean; eskumen horiek, doktrina baten arabera, erabat alderazleak edo eskusiboak direla esan daiteke, alor guztia betetzen duten neurrian.

Horregatik, elkarte autonomoaren ardura da alor horretako arau-legeak egitea eta horiek indarrean jartzea, nahiz eta horrek ez duen esan nahi autonomi elkarteetan esparruaren gainetik dauden ondasun sozialen babesa Estatuaren eginkizun ez denik, halaxe aitortu baitio Konstituzio-Auzitegiak.

Euskal Autonomi Elkarteko zahar-egoitzei buruzko gure ikerlan honi dagokionez, esan behar da, gainera, gure elkartean ez dagoela Estatuaren jabetzako zahar-etxe bakar bat ere; hala ere, Gizarte Segurantzak INSERSO

³Epaia honek ebazpena ematen zion Galizako Xuntak Dirección General de Acción Social deialakoaren 1983ko irailaren 14ko eta 1985eko urtarrilaren 2ko xedapenen kontra aurkeztutako eskumen-auzi bati, xedapen horien bitartez ekintza sozialaren alorreko halako diru-zuzkidura batzuk banatzeko deialdia egiten baitzen.

(Instituto Nacional de Servicios Sociales) delakoaren bitartez elbarri eta aitona-amonentzako zerbitzu sozialak kudeatzen ditu, urriaren 2ko 1478/87 Erret Dekretuak, hau da, Estatuaren zerbitzuak Euskal Autonomi Elkartearen esku uzten zituenak, INSERSOk gure elkartean zituen egoitzak gure elkartearen ardurapean utzi zituenetik⁴.

4.5.3. Eskumenen banaketa Euskal Autonomi Elkartean

A) Gure Autonomi Elkartearen barruan eskumenak erakunde amankomunen eta lurralde historikoetako foru erakundeen artean banaturik daudenez, aparteko aipamena egin beharko dugu, gure ikerlan honetan aztertu dugun gaia Euskal Autonomi Elkartean nola banaturik dagoen ikusteko.

Lurralde Historikoen Legea deritzan azaroaren 25eko 27/83 Legearen arabera, lurralde historikoen eskumen berezien zerrendaren barruan, hauen esku uzten du babes sozialaren alorreko legeria autonomikoa indarrean jarzea, erakunde amankomunek alor horretan zuzenean esku hartzeko daukaten aukera galerazi gabe (7.c.1. art.).

Orobat, 7.c arau horretzeko 2. zatian, lurralde historikoen gain uzten du lurralde bakoitzean erakunde amankomunen legeria betearazteko ardua, alor hauetan zehazki: "Elkarte-hazkuntza, emakumea, haurrekiko, gazteekiko, zahartzaroarekiko, atsedeen eta egurastearekiko politika, Euskal Herri osoaren Erakundeek alor hoietan artez ihardutzearen kaltetan gabe".

Beste alde batetik, lurralde historikoen lege horretako 6. artikulua haxe dio:

"1. Autonomia-Estatutoaren arauera, Autonomia-Elkarteari dagozkionak izanik, Estatuto horretan, Lege honetan edo gerokoren baten Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Sailei aitortu edo izendatu

⁴Urriaren 2ko 1.476/1987 Erret Dekretuaren bidez (Eusko Jaurlaritzaren 375/1987 Dekretua, abenduaren 10ekoa) onartu zen INSERSOren (Instituto Nacional de Servicios Sociales) eginkizun eta zerbitzuak Euskal Elkarte Autonomoari eskualdatzeko 1987ko ekainaren 17ko Transferentzi-Batzorde Mistoaren erabakia; horren arabera, honako egoitza hauek eskualdatu ziren:

Araba

Gasteizko Mexiko kaleko 11. zenbakian dagoen Pentsiodunen Egoitza (Txagorritxu Egoitza deritzana).

Gipuzkoa

Tolosako Euskal Herria plazan, z/g, dagoen Pentsiodunen Egoitza (Tolosako Pentsiodunen Egoitza deritzana).

Eibarko Arraterako errepidean, z/g, dagoen Pentsiodunen Egoitza (Eibarko Pentsiodunen Egoitza deritzana).

Bizkaia

Bilboko Txomin Garat kalean, z/g, dagoen Pentsiodunen Egoitza (Txurdinaga Egoitza deritzana).
Leioako Santimami auzoko 20. zenbakian dagoen Pentsiodunen Egoitza (Leioako Pentsiodunen Egoitza deritzana).

ez dakizkien gai guztiekiko legegintza eta egiterapena Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeei dagokien agintepide da.

2. Beti ere, Lege-mailako arauak emateko ahalmena Legebiltzarrari bakar-bakarrik dagokio.”

Beraz, honako hau esan dezakegu, Euskal Autonomi Elkartearen eta lurralde historikoen artean eskumenek duten banaketaz:

a) Euskal Autonomi Elkarteko erakunde amankomunei -hots, Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari, hurrenez hurren- laguntza soziala eta zahartzaroa alorreko legeak egin eta arauen bidez garatzeko eskumena dagokie.

b) Lurralde historikoetako foru aldundiei alor honetako legeria autonomi-koa indarrean jartzea dagokie.

Eusko Legebiltzarrak, lurralde historikoeri legea baino lehen, Zerbitzu Sozialeri buruzko 6/82 Legea, maiatzaren 20koa, eman zuen.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, hirugarren adinekoen gaia arautu zuen Hirugarren Adinekoentzako Erresidentzietako Zerbitzu Sozialeri buruzko uztailaren 30eko 218/1990 Dekretuaren bitartez.

B) Lehenago esan bezala, legegile autonomikoak Zerbitzu Sozialeri buruzko maiatzaren 20ko 6/82 Legea eman zuen, lurralde historikoen legearen aurretik.

Estatu osoan alor hau arautzen duen lehen legea da, eta garai hartako zerbitzu sozialen egoera antolatzeke helburuaz sortu zen; izan ere, egoera horrek, legearen beraren hitzetan, “arau eta barne-egokitasunezko irizpideekiko ia erabateko hutsa du ezaugarri”.

Zioen azalpenean adierazten denez, “Gizarte-Zerbitzuen Lege honek, oraingo egoeraren alde txarrak onbideratzea du lehenengo xede. Oinarrizko, bakun eta barne-egokitasunezko dela, gizarte-zerbitzuen zati bat ez baina osorik araupetzen duen lege gisa aurkezten da, beraz”.

Gure ikerlan honi dagokionez, hiru alderdi funtsezko azpimarra ditzakegu orain aztertzen ari garen arau honetan.

Lehendabizi, esan behar da arauak eskumen edo agintepideen banaketari buruzko titulu bat duela.

Bere 6. artikulua honakoa dio:

“Legegintza Eusko Legebiltzarrari dagokio. Gizarte-zerbitzuen alorreango egiterapena eta araubidezko osaketa, legeak agintzen duenaren arauera, honako hauei dagokie:

a) Jaurlaritzari.

b) Foru-erakundeei.

c) Udal, udal-elkarte edo udal-mailaz gaineko erakundeei.

Jaurlaritzari, foru-erakundeei eta udalei eta udal-mailaz gaineko erakundeei ematen dizkien eskumenak arautu ere egiten ditu. Horrela, 6/1982 legearen 8. artikulua araberan, Eusko Jaurlaritzari dagokio zerbitzu sozialen plan-gintza orokorra egitea, lehentasunak finkatzea eta laguntzen gutxiezeko mailak zehaztea lurraldeen arteko desorekarik egori ez dadin.

Bere azken erabakian, 6/82 lege honek honakoa dio: "Lege honetan ematen diren zerbitzu eta agintepideei atxikitako ogasun eta eskubideen jabetza edo baliapena Diputazioei edo Udalei eman diezaieneko eskua ematen zaio Jaurlaritzari."

Bigarrenik, legearen 5. artikulua legearen bidez arautzen diren zerbitzu sozialen, eta, beraz, adinekoentzako zerbitzu sozialen oinarrizko irizpideak finkatzen ditu.

Hona hemen oinarrizko irizpide horiek:

1. Herri-agintaritzaren erantzukizuna.

Norbanakoak eta taldeak gizarte-bizitzan sartzeko beharrezko izan daitezzen zerbitzuen erantzukizuna herri-agintaritzari dagokio; hoiek, herri-zerbitzuek modu eraginkorrez ihardun dezateneko diruzko, teknikazko eta gizakizko eskuarteak eskaini beharko dituzte, irabazte-xederik gabeko norbanakoen arioak haiek mugatutako hesparruaren barruan zerbitzu hoiek egiteko bere laguntza eman dezakeela.

2. Kidetasuna.

Herri-agintariek kidetasuna suztatuko dute, bazterkeria-egoeraren iturri direnak gainditzeko norbanakoen eta gizarte-taldearen arteko harremanen sorburu denez.

3. Herritarren eskuhartzea.

Herri-agintariek, herritarrek, lege honetan jartzen diren bidez baliatuz gizarte-zerbitzuen egitamuketa eta zaingoa egiten demokrazia-arauz eskuhartzea suztatuko dute.

4. Gizarterapena.

Gizarte-zerbitzuek, herritarrek bere familia edo gizarte-giroan jarraitu dezatenara joko dute edo, hala behar izanez gero, arauzko gizarte-giroan birsartzera, horretarako, ahal dedin neurrian, gizarte-beharrei erantzuteko agizko bidez baliatuz.

5. Erdikoikeriarik eza.

Gizarte-zerbitzuak egitea, hoiengandik zernolakoa dela eta, ahal dedinean, ahalik eta irizpide erdikoikeriarik ezezteko atxikiz egingo da, hoiengandik eraentzaille nagusia udala dela eta egitamuketaren oinarrizko maila eskualdea denez honen ardura izanik.

6. Egitamuketa.

Herri-agintariek gizarte-zerbitzuen egiterapena egitamutuko dute, bere ekintzapideak eta irabazte-xederik gabeko norbanako-ariozkoak antolakidetzatuz, eta bai herri-agintaritzaren sail berezien artekoak ere, gizarte-beharrei eskabideari dagokionez eta zatikeriatan erori gabe erantzuteko.

7. Aurrea hartzea.

Gizarte-zerbitzuek, egon dauden bereizkeriei aterapide bat ematera ezezik, hoiengatik aurrea hartzera ere joko dute, batipat.”

Azkenik, adinekoen alorrari dagokionez, 3.4. artikulua lehentasuna ematen dio ondoko zerbitzu sozial hauetan esku hartzeari:

“Zahartzaroarentzako laguntza, zaharrek bere gizarte-giroan iraun dezateneko, bere gizarte eta kulturazko hobekuntza lortzeko, eta hala behar izanez gero *egoitza-giro egoki bat eskaintzeko* xedezko zerbitzuen bidez.”

Hemen aipatzen ari garen 6/1982 lege honek alor batean aitzindari den arau orok duen balioa du; hau da, arautzen duen esparruaren egiazko egoerara hurbiltzeko dauden oztupoak bide erditik kentzen ditu, eta alor honetako hutsuneak betetzeko balio du; baina, aldi berean, badu koska bat: alegia, legeak araupetzen duen errealitatea aldatzen eta bilakatzen den heinean sortzen diren egoerak ezin dituela aldeztatik igarri, eta horregatik arauari egokitzapenak egin behar izaten zaizkiola argitaratu eman eta gero.

Lege honen ondoren, beste hiru mugarriz gehiago aipatu beharko ditugu, haietako bi, arau mailakoak, 6/1982 Legeak araupetutako arloan eragin zuzena dutenak eta gaur egungo legea eraberritzeko ezinbesteko beharra dakartanak.

Lehendabizi, esan dezagun Euskal Autonomi Elkartearen Erakunde Amankomunen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundearen arteko harremanari buruzko 27/1983 legeak, geroago onartutakoa eta Lurralde Historikoen Legea (LHL) izenez ezagunak, zuzen-zuzenean ukitzen duela 6/1982 Legearen II. titulua, “agintepideen banaketa” arautzen duena; hortaz, titulu hori indargabetuztat hartu beharko genuke LHLak dioenaren kontra doazen puntuetan, berau geroagoko araua delako.

Bigarrenik, 1985eko Toki-Jaurpiderako Oinarriak Arautzeko Legeak ere eragina dauka zerbitzu sozialen alorreko agintepide edo eskumenen banaketan.

Azkenik, 6/1982 legea indarrean sartu zenetik gaur arte igaro diren hamar urteotan, ahalegin handia egin dute botere publikoek zerbitzu sozialak, oro har, eta adineko gizon-emakumeentzakoak bereziki, zabaltzeko, bai eta ongintza-kutsua gainditzen duen laguntza sozialak jasotzeko eskubidea tajutzeko ere. Gainera, laguntza sozialari buruzko arauaketa autonomikoa orokortu egin da, eta, horrenbestez, bakoitza bere ahotsaz noski -zerbitzu sozialak, ekintza soziala, gizarte-origizalea-, alor hau ia autonomi elkarte guztietan araututa dago.

Oraingo araudi berriari (LHL eta TJOAL), eta laguntza sozialaren esparru osoan baina, batez ere, adinekoentzako laguntza sozialen esparruan gertatu diren aldaketak handiei begira, komenigarria da Zerbitzu Sozialari buruzko

6/1982 oraingo legea ere aldatzea, arau berrien arabera moldatzeko eskumen edo agintepideen banaketaz egindako arauketa.

Jakina, hemen azaldu ditugunak ez ditugu egin halako asmo akademizista batek bultzatzen gaituelako, eta are gutxiago Eusko Legebiltzarraren legegintzarako ahalmenean eragina edukitzeko, hori Ararteko honen zereginetatik kanpo dagoelako; aitzitik, gure asmo bakarra da, 3/1985 legeak berak Ararteko honi zuzenbidea suspertzeko ematen dion eginkizunaren barruan, gomendatzea alor hau ukitzen duten arau berrien argitan muga dadila eskumenen banaketa, beti ere segurtasun juridikoaren oinarritzko irizpidea errespetatuz; izan ere, oso garrantzitsua izan daiteke zerbitzu sozialak erabiltzen dituztenengan -eta, zehazkiago esanda, adinekoentzako egoitzetan bizi direnengan eragin nabarmena duen zerbitzu publiko hau behar bezala bete dadin.

Koordinazioaren oinarritzko irizpidea, jurisprudentzia ugari batetik abiatuta eratuz joan den kontzeptu juridikoa izanik, egiazko giltzarria, alor honetako eskumenen banaketa ixteko sistema moduan.

Esan dugun bezala, ahalmenei buruzko arauak moldatu ez ezik, beharrezkoa da halaber zenbait aldaketa egitea jasotzaileen eskubideak egiatan bermatzeko moduko esparru egoki bat antolatu nahi badugu, txosten honetako 4.6. atalean zehaztuko denaren arabera.

C) Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, dagokion araugintzarako ahalmenaz baliatuz, arau-zehaztapen horiek garatu egin zituen Hirugarren Adinekoentzako Erresidentzietako Zerbitzu Sozialei buruzko uztailaren 30eko 218/1990 Dekretuaren bitartez. Zioen azalpenak berak dioenez: "zerbitzu sozialen sistema publikoa bakarra da, legean eta bere garapenean aurrikusitakoa, baina horren kudeaketa bere gain hartu ahal izango dute bai erakunde publikoek, bai pribatuak".

Dekretu honen helburua, bere zioen azalpeneko hitzak erabiliz, hauxe da: "hirugarren adinekoentzako erresidentzi-zerbitzu sozialen sistemaren guztirako definizioa ematea, Euskal Autonomi Elkarteko eta arloan agintea duten Administrazio Publikoen zerbitzuen sisteman zerbitzu horiek sartzea, zerbitzu horien eta inizatiba pribatuak zerbitzu horien eskaintzean parte hartzearen arauketa zehatza egitea"; gainera, geroago esaten duenez, Dekretu honen bidez zera nahi da: "hirugarren adinekoentzako erresidentzi-zerbitzu sozialen gutxienezkoak jartzea, bai material arloan eta bai funtzionamenduari dagozkionetan ere, erabiltzaileek dituzten eskubideak ohi den bezala erabil ditzaten bermatu ahal izateko."

Baimenaren tresna administratiboan oinarrituz, dekretuan aipatutako irizpideen arabera egokia den laguntza bermatzeko beharrezko baldintza batzuk finkatzen ditu.

Dekretu honek dituen eranskin batzuetan, gainera, ziurtatu beharreko kalitate-baldintza batzuk ipintzen dira, hau da, egoitzek bete behar dituzten baldintzak, zehaztasun teknikoan arabera banan-banan zerrendatzen direnak.

Euskal Autonomi Elkartea zerbitzu sozialak arautu zituen lehena izanda (1982ko lege batez), harritzekoa da nolatan 1990era arte ez zituen arautu adi-

nekoentzako zerbitzu sozialak; ordurako, beste sei autonomi elkartek emanak zituzten alor horri buruzko beren arauak: Andaluzia, Aragoa, Asturias, Kantabria, Katalunia, Valentziako Komunitate Autonomoa eta Madrilek.

Horrek bultzaturik, adinekoentzako egoitza publiko eta pribatuen egoeraz egindako txosten batean, Estatuko Defensor del Pueblo-k honelako gomendioa egin zion Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte-Segurantza Sailari: “azter dadila egokia edo komenigarria den prestatzea eta onartzea, edo, bestela, arauak onartzeko ahalmena duen sailari helaraztea, gutxienez 2. gomendio orokorrean aipatzen dena kontutan hartzen duten arau batzuek; hona hemen gomendio hori, hitzez hitz:

“Egoiliarrei behar bezalako atentzioa emateko, alor honi buruzko arautegirik ez duten elkarte autonomo guztiek premia handiz prestatu eta onartu beharko dituzte adinekoentzako egoitzei ezarri beharreko arau batzuk, honako puntu hauek kontutan hartuz, gainera: irekitzeko, aldaketak egiteko, lekuz aldatzeko eta ixteko baimena; hornigai eta funtzionamendu mailako gutxienezko baldintzak; prezio-taulak; zerbitzuak erabiltzen dituztenen eskubideak eta betebeharrak; ikuska-penak; arau-hausteak eta zigorrak.”

Puntu hauek nola edo hala, eta hedadura desberdinaz sartu izan dira orain aztertzen ari garen 218/1990 dekretuan.

Oro har, beste autonomi elkarteetan honen antzeko dekretuak onartu direnean, egoitzen munduko pertsonak hoztasunez hartu izan dituzte, aditzera emanez asmo on sorta bat baino ez dela, eta arau horiek ez direla egokiak egiatzko egoerarako: izan ere, begien bistan izanik nolako urritasuna dagoen egoitzetako postuen eskaintzan, ezin liteke pentsatu ere egin halako egoitza bat itxia eskatutako gutxienezko baldintzak betetzen ez dituelako. Onenean, adituek uste dute jartzen diren baldintzak egokiak direla, baina oso zailak direla betetzen.

Uztailaren 30eko 218/1990 dekretua ez da geratu iritzi horretatik kanpo: plazaratu zenean, laguntza sozialaren alor honetan diharduten hainbat eta hainbat pertsonak aditzera eman zuten beren ustez kalitatea ziurtatzearren jarritako baldintzak (gutxienezko baldintza moduan jarriak, gainera) nekez bete daitezkeela osorik; hau da, zerbitzu sozialen sistema publikoa osatzen duten egoitzek nekez beteko dituztela, edozein delarik beraien jabetza mota.

Tankera honetako itzarokizunekin plazaratzen den arau batekin, zalan-tzazkoa izan daiteke noraino beteko diren eskatutako baldintza material eta funtzionalak.

Hala eta guztiz ere, ezin ahaz dezakegu administrazio publikoek objetibotasunez erantzun behar dietela interes orokorreari, beti ere Legeari eta Zuzenbideari (EK, 103.1. artikulua) men eginez.

Aipatzen ari garen dekretu hori (218/1990) indarrean dagoen neurrian, botere publikoak behartuta daude hura betetzera, nahiz eta beraiek “paper erre” bihurtu dekretuko anitz artikulua. Dekretuak zehatz-mehatz arautzen du

administrazio-baimenaren jaurpidea, bai eta dekretuak berak finkaturiko arauak noraino betetzen diren ziurtatzeko ikuskaritza-sistema ere.

Foru aldundien artetik, bakar batek ere ez du zorrotz bete uztailaren 30eko 218/1990 dekretuko 17. artikulua dioena, alegia: "Zaintza lana eta Dekretu honetan ezartzen diren arauak betetzen diren ala ez ikuskatuko dute Foru Aldundiek, bakoitzak bere Lurralde Historikoaren eremu barruan".

Ondorioz, ez dira bete ikuskaritzaren funtsezko eginkizunak, ez behintzat ondoko esaldietan esaten diren puntuetan: "Hirugarren Adinekoentzako Erresidentzi Zerbitzuetan bizi direnen eskubideak errespetatu daitezkeen zaintzea", eta "I. eranskinean zehazten diren kalitate-mailak betetzen diren ala ez zaintzea"; zer esanik ez, ez da ahaztu behar ikuskaritza-betekizun horiek adinekoentzako zentruetako egoiliarren egoera bermatzeko helburu garbia dutela.

Guk dakigunez, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak ez du martxan jarri dekretu horretako 5.4. artikulua finkatzen duen Goi Mailako Ikuskaritza ere, "Horretan agintea duten Administrazioek, arauak bete dituztenari" buruzkoa.

Halaber, guk dakigula behintzat, ez zaio adinekoentzako egoitza-zerbitzuen erroldak egiteari ekin (nahiz eta dekretuak esan lurralde historikoetan bana sortu behar dela), ez eta adinekoentzako egoitza-zerbitzuen Errolda Nagusia eratzeari ere, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren barruan sortzekoa zena; eta erregistro horiek eskubideak bermatu asmoz finkatu ziren dekretuan.

Horregatik, ezinbestez administrazio publikoek bete behar dituzte lehenago esandako aginduak, ondoan adierazten dugun bezala:

1. Foru aldundiek, dekretuak ezarritako zaintza lanak betetzeko beharrezkoak diren ikuskaritza-zerbitzuak ezartzen hasi behar dute.
2. Lan eta Gizarte Segurantza Sailak martxan jarri behar du "Agintea duten administrazioek arauak betetzeari buruzko Goi Mailako Ikuskaritza".
3. Foru aldundiek adinekoentzako beren zerbitzu sozialen errolden egitura eta betekizunak arautu behar dituzte.
4. Lan eta Gizarte Segurantza Sailak egoitza-zerbitzuen Errolda Nagusia sortu behar du.
5. Hirugarren adinekoentzako erresidentzi-zerbitzuen akreditazio-batzordeak lanari ekin behar dio, alor honetako sail aholku-emaile gisa.
6. Alor honetan ahalmena duten botere publiko guztiek halako ekintza-politika batzuk jartzeari ekin behar diote, kalitatea ziurtatzeko jarritako baldintzak egiatan bete daitezkeen. Hona hemen, zehatz-mehatz, baldintza horiek:
 - a) Jabetza publikoko egoitzen esparruan, eskatutako baldintzak betetzeko eta dauden akatsak konpontzeko behar diren aurrekontu-zuzkidurak.
 - b) Irabazte-xederik gabeko egoitza pribatuen esparruan, dirulaguntza-politika egoki bat erabili, haietan dauden akatsak konpontzeko.

- c) Irabazte-xedea duten egoitza pribatuen esparruan, aipatutako baldintzak betearazi, dekretuko 2 eta 3. ebazpenetan finkatutako epeetan (hots, 5 urtetan, baina beste 3 urte gehiagotara ere zabal daiteke).
- d) Egoitza sortuberriren baten kasuan, baimena emateko administrazio-teknikaz baliatu, dekretuak ezarritako baldintzak zorrotz bete daitezzen eskatuz.

Esan beharrik ez dago dekretu hau, eta bere eranskinak bereziki, ezinbesteko lanabes bihurtu direla txosten hau egin ahal izateko, baztertu ezinezko abiapuntu baita Euskal Herriko hirugarren adinekoentzako egoitzen egoera balioztatzerako orduan.

Zerbitzu hori eman behar duten sujetutzat jo ditzakegun botere publikoei dagokienez, adierazi behar dugu dekretu horretan ezarritakoari jarraiki, gizarte-zerbitzuen sistema bat bakarra dela, nahiz eta bere kudeaketa bai erakunde publikoek, bai pribatuek ere har dezaketen beren gain. Zaharrentzako egoitza publikoen jabetza foru aldundiena da, eta badaude beste batzuk udalen jabetza-koak direnak, izan ere, Euskal Autonomi Elkartek INSERSOtik jasotako egoitzak, zegozkien lurralde historikoetara eskualdatu ziren⁵.

D) Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak joan den 1990ean onartu zuen Euskadiko Plangintza Gerontologikoa; adinekoen egoitzen esparrurako, honako hauek finkatu ziren plangintza horretan:

1. Egoitza publiko nahiz pribatu guztiek bete behar dituzte adinekoentzako laguntza-zentruak direla egiaztatzen duten gutxienezko baldintzak, aiton-amonen eskubide amankomuna errespetatzeko.

⁵1. Abenduaren 30eko 386/1987 Dekretuaren bidez (Euskal Autonomi Elkarteko erakunde amankomunetatik Araba Lurralde Historikora INSERSO edo Instituto Nacional de Servicios Sociales delakoak emandako laguntza eta zerbitzu sozialak eta eginkizunak eskualdatzen dituen), Gasteizko Mexiko kaleko 11. zenbakian dagoen Pentsiodunen Egoitza (Txagorritxu Egoitza deritzana) eskualdatu zen.

2. Abenduaren 30eko 387/1987 Dekretuaren bidez (Euskal Autonomi Elkarteko erakunde amankomunetatik Bizkaia Lurralde Historikorako eskualdaketa egiten duena), beste egoitza hauek eskualdatu ziren:

- Bilboko Txomin Garat kalean, z/g, dagoen Pentsiodunen Egoitza (Txuridinaga Egoitza deritzana).

- Leioako Santimami auzoko 20. zenbakian dagoen Pentsiodunen Egoitza (Leioako Pentsiodunen Egoitza deritzana).

3. Abenduaren 30eko 387/1987 Dekretuaren bidez (Euskal Autonomi Elkarteko erakunde amankomunetatik Gipuzkoa Lurralde Historikorako eskualdaketa egiten duena), beste hauek eskualdatu ziren:

- Tolosako Euskal Herria plazan, z/g, dagoen Pentsiodunen Egoitza (Tolosako Pentsiodunen Egoitza deritzana).

- Eibarko Arraterako errepidean, z/g, dagoen Pentsiodunen Egoitza (Eibarko Pentsiodunen Egoitza deritzana).

2. Egoitzek bitarikoak edo mistoak izan behar dute; hau da, beren buruen jabe direnak eta ez direnak atenditzeko gertu egon behar dute, nahiz eta lehentasuna burujabeei eman.
3. Arazo psikosozialak dauzkaten aiton-amonak beren buruen jabe baldin badira, betiko instituzionalizazioa ez bezalako beste aukera batzuetara jo.
4. Osasun eta gizarte-ongizate alorrean elkarlanean aritu behar dute Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta alor hauetan eskumena duten udalek.
5. Egoitza berriak sortu behar dira, gehienez ere 70-100 posturekin eta logela gehienak bakarkakoak dituztenak.

E) Amaitu baino lehen, esan dezagun alor honetako eskumenek Euskal Autonomi Elkartean eta lurralde historikoetan duten banaketa bereziaren araberak, Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari dagokiela adinekoen laguntza sozialari buruzko legeak egiteko ahalmena, bai eta lege horiek araubidez garatzeko ere.

Bestalde, lurralde historikoek betearazi behar dute "laguntza soziala"ri buruzko autonomi-legeria, baina erakunde amankomunek ere esku hartu ahal izango dute alor horretan.

4.5.4. Toki-administrazioak gizarte-sorospenaren alorrean duen eskumena

Ohitura handia dago esateko esparru lokala dela babes sozialean erakunde publikoek esku hartzeko egokiena; izan ere, deszentralizazioaren prozesuan oinarrituz, udalak dira hiritarren arazoetatik hurbilen dauden erakunde publikoak.

Horrela, Euskal Autonomi Elkarteko Zerbitzu Sozialei buruzko 6/1982 legearen zioen azalpenak berak "erdikoikeriarako joera indartsu bati darizkion egokitasunik ezak" aipatzen ditu, eta aurrerago honakoa dio: "Udalak -herritarrek hurbilen duen ardulararitza-sailak, alegia- ez du herri-ardulararitzak egiten dituen zerbitzu murriztekin inolako zerikusirik"; eta, aurrerago: "Erdikoikeria honen ondorio, baliatzaileak eskaintzen zaizkion zerbitzuetan modu eginkorrez eskuhartu dezaneko bide egokiak aurkitzeko ia erabateko ezina".

Horregatik, zioen adierazpenean bertan honako hauxe ematen da aditzera:

"Baliatzaileak zerbitzuen egitamuketan eta artan era eraginkorrago eskuhartu dezan, legeak ahalik eta erdikoikeriarik ez handienerako bideak jartzen ditu, udala edo eskualdea zerbitzutarako oinarritzko alor egin eta herritarra hoietara iritsi dedineko erraztasunak emanez".

Adierazpen hori mamituta dago 6/1982 Legearen 5.5. artikuluan, esanez lege horrek araupetutako zerbitzu sozialek erdikoikeriarik ezaren oinarriko irizpidea izango dutela ardatz, eta honako hau ere adieraziz: "Gizarte-zerbitzuak egitea, hoiengatik zernolako dela eta, ahal dedinean, ahalik eta irizpide erdikoikeriarik ezezkoei atxikiz egingo da, hoiengatik eraentzailen nagusia udala dela eta egitامتuketaren oinarriko maila eskualdea denez honen ardura izanik".

Halaber, lege horrek udalei eta udalaz gaineko erakundeei eskaintzen die bere IV. atala.

Gainera, udalek Gizarte Ongizaterako Lurralde-Kontseiluetan eta Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseiluan esku hartuko dutela finkatzen du.

1985eko Toki-Jaurpiderako Oinarriak Arautzeko Legeak eragin zuzena izango du udalerriek laguntza sozialaren alorrean eta, zehazkiago, adinekoentzako laguntzaren esparruan izango duten betekizunean.

Horrela, bere 2.1. artikuluan honako hau dio: "Konstituzioak erakunde lokalei aitortzen dien burujabetasuna egiazkoa izango bada, Estatuaren legeriak eta elkarte autonomoenak ere, ahalmenek Konstituzioaren aginduz duten banaketaren arabera ekintza publikoaren alor ezberdinak arautzen dutenak" ziurtatu behar die udalerriei "beren interesak ikutzen dituzten arazo guztietan esku hartzeko eskubidea; horren ildotik, behar diren ahalmen edo eskumenak eman beharko zaizkie, egin beharreko ekintza publikoaren arabera eta erakunde lokalaren gaitasunaren arabera, eta bi ardatz nagusirekin: deszentralizazioa, eta administrazioaren gestioa hiritarrendandik ahalik eta hurbilen egotea".

TJOALk berak bere 25.2. k) artikuluan dio udalerriak, nolana ere, eskumenak izango dituela Estatuaren legeriak eta autonomi elkarteetakoak zerbitzu sozialen alorrean diotenaren arabera; orobat, bere 26.1. artikuluan, udalerriek eman behar dituzten gutxienezko zerbitzuak finkatzen dituen c) zatian hain zuzen, esaten du 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek derri gorrez eskaini behar dituztela zerbitzu sozialak.

Toki-jaurpiderako oinarrien legegileak toki-erakundeentzat halako ekintza edo betekizun batzuk utzi ditu, halako gutxienezko zerbitzu batzuk emateko beharra ezarri, eta toki-erakundeak funtsezko zerbitzu batzuk ematera behar-tuz.

Lege honetako testuak udalerrien esku uzten du gutxienezko zerbitzuak emateko ardura, baina argi uzten du ardura hori udalerrien arteko hitzarmenen edo lankidetzaren bitartez ere bete daitekeela, edota, halaber, aldundiek eskaintzen duten laguntza sozialaren bitartez.

Hortaz, gutxienezko zerbitzu derrigorrezkoen kontzeptuan oinarrituta, esan dezakegu TJOALaren 26. artikulua zerbitzu sozialak eskaintzeko ahalmena bermatzen diela 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerriei, eta ahalmen hori, beraz, errespetatu behar dutela arlokako legeria autonomikoek.

Alor honi buruzko arauak plazaratu baino lehen ere, hainbat udalek ahalgin handiak egin dituzte adinekoen egoitzetako beharrak asetzeko; horixe gertatu da Gasteizko Udalararekin, izan ere, 1992. urtean udal honek bere gerontologia-plangintza berezia tajutu zuen.

Udalaren politikabide horri esker, bai eta Arabako Foru Aldundiak eginko lanari esker ere, lurralde historiko hau Estatu osoko lehen postuan aurkitzen dugu, egoitza postuen eskaintzari dagokionez.

Bestalde, azpimarratzekoa da TJOALren 26. artikuluko arau-agindu honek zuzeneko eragina daukala zerbitzu sozialei buruzko 6/1982 euskal legeak udalerriei egiten zien ahalmen-banaketan; hortaz, toki-jaurpiderako oinarritzko arauetara moldatu beharko da, autonomi elkarte guztiek beren zerbitzu sozialei buruzko legeekin (ez, ordea, Nafarroako legearekin edo Madrilko Autonomi Elkartearenarekin, ez eta TJOALren aurrekoekin, euskal legearekin, adibidez) egin duten bezala.

4.5.5. Ondorioak

Euskal Autonomi Elkartean adinekoentzako egoitzen laguntza-zerbitzuari buruzko ahalmenak nola banatuta dauden erakutsi duen atal hau amaitzeko, zehaztu dezagun botere publikoen artetik zeintzuek bete behar duten aitonamonen ongizatea bultzatzeko agindu konstituzionala; hala, bada, adinekoentzako egoitza-zerbitzua lurralde historikoetako foru erakundeek eman behar dute, eta haiekin batera baita TJOALaren arabera eskumena duten udalerriek eta Euskal Autonomi Elkarteko egoitza-zerbitzuen sistema juridikoki kudeatzen duten erakunde publikoek.

4.6. ARAUDIAREN ALDAKETARAKO PROPOSAMENAK

4.6.1. Aztergaiaren aurkezpen orokorra

Lurralde Historikoen Legea (LHL) eta Toki-Jaurpiderako Oinarriak Arautzeko Legea (TJOAL) geroagokoak izanik, esan bezala, aurreko arauak horien arabera moldatu beharra dago; baina, gainera, beste aldaketa batzuk ere egin beharko dira garrantzi handiko zenbait puntutan, bai behintzat lortu nahi badugu zerbitzu sozialak jasotzen dituztenen eskubideak (eta, beraz, adinekoentzako zentruetako egoiliarrenak) egiatan babesteko arau-esparru egoki bat; izan ere, komeniko litzateke puntu horiek eta aldaketa horiek zerbitzu sozialei buruzko lege berri batean eta, ondorioz, adinekoentzako egoitza-zerbitzuetarako arautegi batean jasotzea.

Kontu horiek aztertzeari ekin aurretik, beharrezkoa zaigu adieraztea beroriek azaletik jorratuko ditugula, gai haietako askok Zuzenbide-Estatuaren mui-nean eta funtsean eragina dutelako; gainera, haietako batzuk doktrina iuspublizistaren barruan orri ugari idatzarazi duten Zuzenbide publikoaren kontzeptu juridikoak dira. Horregatik, gure aldetik handinahikeria litzateke, bai eta eze-gokia ere, aztergai horiek luze eta zabal jorratu nahi izatea. Hori bai, egia da

legegileek ezingo dituztela bazter utzi, eskatutako arau-aldaketak egiteari ekite-
rakoan.

Oso gai korapilatsu eta eztabaidatuak dira hauek: Zuzenbide-Estatu Sozialaren barruan ekintza administratiboa hirutan banatuta egotea da bat; eta bestea, baimenaren teknikari erabilera berria ematea ekintza mugatzailea edo polizi-ekintza hutsa gainditzeko, dirulaguntzak emateko teknika administrazioaren kontrol-tresna edo tresna mugatzaile gisa, eta zerbitzu sozialak zeharka kudeatzea, hitzarmenien bitartez.

Konstituzioaren osteko unean lotura edo menpekotasun bereziko harremanak kontzeptuak duen balioa ere aipatuko dugu, doktrinaren eta jurisprudentziaren adierazpenen argitan, bai eta kontzeptu horrek nolako eragina duen ere harreman horren eraginpean gertatzen diren gizataldeen eskubideak bermatzeko esparruan, edota administrazioaren zigor-jaurpidearen antolaketan.

Horri gagozkiolarik, aztertu behar da zigortzeko administrazio-Zuzenbidea bera ere Estatuak zigortzeko duen ahalmenaren azalpen bezala, edota zigortzeko administrazio-Zuzenbide horren berezko tasun bezala; beste horrenbeste esan beharko dugu Zigorlegearen oinarrien balioaz eta zigortzeko administrazio-Zuzenbidearen barruan oinarri horiek duten modulazioaz.

Era honetako zerbitzuak jasotzen dituztenen eskubideen esparrua zehazteko orduan, ezinbestez aztertu beharko da oro har finkatutako eskubideak babesteko bermeen balioa; zehazkiago, lege-erreserbaren balioa, edota, baita ere, EK-ko 53.1. artikuluari dagokionez 81.1. artikuluko lege organikoaren erreserbaren erabilera zuzena. Izan ere, aztertu beharko da horrek noraino muga dezakeen autonomi elkarteek legeak egiteko duten ahalmena funtsezko eskubideei dagokienez. Zorrotzak izanez gero, esan beharko litzateke lege organiko berriak ezin dituela mugatu funtsezko eskubideen alorrean autonomi elkartei estatutuek emandako ahalmenak.

Puntu horiek guztiak eta beste batzuk zirriboraturik aztertuko ditugu, txosten honen marrian beharrezkoa den neurrian, baina beste kasu batzuetan nahita utziko dira aipatu gabe, nahiz eta horiei buruzko erabaki bat hartu beharko den, halako proposamen bat onartu ahal izateko.

4.6.2. Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileek dituzten eskubide eta betebeharren jaurpidea

Zerbitzu sozialak ematen dituen zentru batean, edo, zehazkiago, adineko-entzako egoitza batean bizitzen hasten den hiritarra zerbitzu publiko horren erabiltzaile dela esan daiteke; horregatik, ulertu behar dugu halako lotura-harreman berezi bat sortzen dela zerbitzua ematen duen administrazioarekin.

Ez da gauza bera halako harreman bat lotura berezikotzat jotzea edo lotura orokorrekotzat jotzea; izan ere, batera edo bestera jotzeak ondorio juridiko garrantzitsuak ditu. Kontzeptu hau Alemanian sortu zen, erregetza konstituzionalaren garaian, hau da, halako konstituzio-egitura bitarikoa agertzen zuen

une batean; baina geroztik dexente aldatu da eta, doktrinarik aurreratuenaren arabera, lotura bereziko harremanak 1978ko Espainiako Konstituzioaren oinarrietan sartu beharko dira, azkenik.

Gallego Anabitartek 1960.eko hamarkadaren hasieran Alemaniako zuzenbide inperialaren sorkari zahar hori gureganatu zuenetik, halako lotura berezi bat onartu da Administrazioaren eta halako sujetu batzuen arterako; lotura horren arabera, Administrazioak indar handiz parte hartzen zuen, esku-bideak mugatuz eta lege-erreserbaren oinarritzko irizpidea bete gabe.

Konstituzioak berak lotura berezi horien mende jartzen ditu halako sujetu batzuk: presoak, funtzionariak eta Indar Armatuetakoa eta Segurtasun Indarretako kideak.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak uste ez ziren harreman batzuetara ere zabaldu du lotura berezia deritzan kontzeptu hori, nahiz eta horrela mugak ezarri eskubideei.

Hala ere, 1978ko Konstituziotik aurrera, gogoan eduki behar da lotura-harreman berezien esparruan balio osoa dutela funtsezko eskubideek, badagola lege-erreserbarik, eta esparru horretan ere bermatu behar dela babes juridikionala.

Konstituzio-Auzitegiaren jurisprudentziak Konstituzioaren esparruan kokatu ditu nagusitasun bereziko harremanak, kontutan hartuz lotura bereziko harremanetan balio osoa dutela funtsezko eskubideek eta lege-erreserbak, nahiz eta esparru horietan posible izan eskubideak mugatzea eta lege-erreserbaren oinarritzko irizpidea modulatzeko.

Horrela, urtarrilaren 21eko 21/1987 epaian, Konstituzio-Auzitegiak, presoak halako lotura-harreman berezi batean daudela adierazi ondoren, argi uzten du estatus berezi baten mende dagoen halako gizataldearen aurrean, lege-erreserbak mamia galdu eta funtsezko eskubideak nolabait bigundu egiten direla. Lotura-harreman berezien menpe dagoen edozein gizataldek oro har goza ditzake bere funtsezko eskubideak, nahiz eta halako muga batzuk ere jasan behar dituen, estatus berezi bakoitzaren berezitasunen arabera. Arazoaren gakoa zera da: noraino muga daitekeen halako eskubide bat.

Bestalde, martxoaren 29ko 61/1990 epaian, Konstituzio-Auzitegiak dio lotura-harreman bereziaren alorrean atxikipenik gabekoa den araudiak ezin duela inoiz ere funtsezko eskubiderik mugatu. Beste kontu bat da araudi exekutibo baten bidez jartzea mugak. Funtsezko eskubideek lotura bereziko harremanetan ere badute indarririk, eta mugatzekotan Konstituzioak aitortu eta adierazi beharko du harreman horiek beharrezkoak direla halako erakunde batek behar bezala jardun ahal izateko.

Gauzak horrela, adinekoentzako egoitzen zerbitzuak erabiltzen dituzten aiton-amonak administrazio zerbitzu-emalearekin halako lotura-harreman berezia dutela finkatzen bada ere, arrazoi hori ez da nahikoa bestelako zuri-biderik gabe erabilzaileren eskubideak mugatzeko; hori bai, eskubide horiek bai izan ditzakete halako muga batzuk, harremanaren berezitasunaren arabera. Gainera, epaileen egiazko babesa edukitzeko eskubidea (EK, 24. artikulua)

zeharo baliaraz daitekeela ere esan dezakegu, bai eta, beraz, Administrazioaren ekintza auzitegien kontrolpean geratzen dela ere.

Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaigu adinekoentzako egoitzak erabiltzen dituzten hiritarren eskubideak eta bermeak azaltzen dituen taula bat prestatzea.

Ildo horretatik, Gaztela eta Leongo Ekintza Sozialari eta Zerbitzu Sozialei buruzko abenduaren 28ko 18/1988 Legeak, bere 19.2. artikuluan, zera dio: “zentru bakoitzean erabiltzaileen eskubide eta betebeharren agiri bat eduki behar dute”.

Bestalde, Madrilgo Komunitateko urriaren 10eko 8/1990 Legeak, ekintza sozialetarako zentru eta zerbitzuak ikuskatu eta kontrolatzeko lana arautzen duenak, hauxe dio bere 3. artikuluan:

“Legearen 3. artikulua araberan, hauek dira zentru eta zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak:

1. Haietara sartzea eta atentzioa jasotzea, inolako bereizkeriarik egin gabe haien sexuagatik, arrazagatik edo erlijioagatik, ideologiagatik edota beste edozein zertzelada pertsonal edo sozialagatik.
2. Zentru eta zerbitzu horretako langileengandik eta beste erabiltzaileengandik tratu duina jasotzea.
3. Bere historia kliniko eta sozialeko datuak isilpeko profesionalaren pean egotea.
4. Beste pertsona batzuekiko harremanak edukitzea, bai eta bisitak jasotzeko eskubidea ere.
5. Bakoitzak behar duen atentzio berezia jasotzea, bere beharren arabera.
6. Ahalik eta intimitaterik handiena edukitzea, zentru eta zerbitzuen egiturako baldintzen arabera.
7. Atentzioa jasotzea maila sozialean, osasunaren aldetik, botikak hartzeko, heziketaren aldetik eta kulturaren aldetik, eta, oro har, bai eta garapen psikiko-fisiko egokia lortzeko ezinbestekoak diren norberaren gainerako premien aldetik ere.
8. Nahi izanez gero, zerbitzu horiek erabiltzeari edo zentruan egoteari uztea.”

Aragoako ekainaren 20ko 81/1989 dekretuak eta Kataluniako urtarrileko 27/1987 dekretuak erabiltzaileen eskubideen taula finkatzen dute beren 35. eta 26. artikuluetan, hurrenez hurren.

Euskal Autonomi Elkartearen esparrura itzuliz, Zerbitzu Sozialei buruzko 6/1982 Legeak ez ditu ezertarako ere aipatzen erabiltzaileen eskubideak.

Bestalde, 218/1990 dekretuak bere 8.1. d) artikulua araberan, baime-na lortzeko ezinbesteko baldintza da “erabiltzaileen eskubideak behar bezala bermatzea”. Eta dekretu horretxetako I. eranskineko A.8. zatiak honela dio:

“Dekretuaren ataletan ezartzen diren printzipio operatiboak praktikoki onartzea, honako portaera-modu zehatz batzuk gutxienez jaso behar direlarik:

- Egoiliarrek dituzten eskubide indibidualak erabat errespetatzea, intimitate-eskubidea bereziki; jaioterria, sexua, ekonomi egoera, eriztiak... direla medio, inor ez diskriminatzea; afekto eta sexu bizitza garatu ahal izatea; espresio askatasuna; tratu egoki batetarako eskubidea; bere historia kliniko eta sozialari buruzko datuen sekretu profesionalerako eskubidea.

- Egoiliarren harahonakotarako (irteerak eta sarrerak) askatasuna.

- Kontrolik gabeko bisita-erregimena, egoiliarren geletara sartzeko posibilitatea barne, behar den bezalako ordenaren barruan.

- Kultura, gizarte eta politika mailako bizitza indartzea, eritzi askatasuna errespetatuko dela beti.”

Argi dago erabilitako teknika juridikoak akatsak dituela, eta horregatik beharrezkoa iruditzen zaigu Zerbitzu Sozialei buruzko Lege berriak finka dezala zerbitzuon erabiltzaileen eskubideen taula, edota, Aragoa eta Kataluniako autonomi elkarteek egin duten bezala lehenago aipatu ditugun dekretuekin, laguntza-zerbitzuak ematen dituzten zentruak bete beharrekoen taula.

Bestalde, adinekoentzako egoitzak arautzen dituen dekretuak era honetako zentruen erabiltzaileen eskubide bereziak jasotzen dituen taula ere tajutu beharko du.

4.6.3. Adinekoen egoitzak erabiltzeko eskubidea berdintasun-irizpidearen ikuspuntutik

Lehenago adierazi dugun bezala, pertsona zaharra adinekoentzako egoitza batera sartzeko hutsarekin sortzen da atentziorako harreman juridikoa.

Hortaz, egoitzetako postuak oso urriak izanik, guztiz garrantzitsua da egoitza batera sartzeko prozedurak irizpide objetibo zorrotzak edukitzea, arazoigabeko sarrerak, berdintasun-irizpidea hausten dutenak, alegia, galarazteko.

Berdintasun-irizpidea errespetatzeko beharra hartuko da kontuan egoitzetako zerbitzuak eskuratzeko modua arautzen duten araudietan, eta arau orokor eta agirikoak erabili beharko dira sartzeko baldintzak arautzeko.

Ildo honetatik, oso aipagarria da Kataluniako Zerbitzu Sozialei buruzko abenduaren 27ko 26/1985 Legearen 7. artikulua; honelaxe dio:

“Alor publikoko zerbitzuak eta ekimen pribatuek bultzatuak izan arren dirubide publikoa dutenak arauen arabera onuradun diren guztientzat egongo dira zabalik, beti ere berdintasun-irizpideari jarraituz. Kasu bakoitzean, erakunde, zerbitzu edo establezimendu bakoitzaren helbu-

ruek, esparruek eta ezaugarriek zehaztutako lehentasunak errespetatu beharko dira. Arau orokor eta agiriko batzuen bidez arautuko da egoitzetako postuak lortzeko prozedura, beti ere Gizarte Segurantzaren onuradunen eskubide bereziak kontutan hartuz.”

On litzateke tankera honetako agindu bat egotea oraindik egin gabe dagoen zerbitzu sozialei buruzko lege horretan.

4.6.4. **Sorospen-egoitzetako erabiltzaileen betebeharrak**

Erabiltzaileen betebeharrak arautu gabe daude zerbitzu sozialei buruzko lege autonomiko guztietan, baita legeak garatzen dituzten araudi guztietan ere; normalean, zentruetako barne-araudietan egoten dira zehaztuta.

Hala eta guztiz ere, betebehar-taula ere finkatu beharko litzateke egoitza batera sartutako gainerako erabiltzaileen eskubideak errespetatu daitezten, elkarbizitza egokiagoa lortzearen.

Ildo honetatik, argigarria izan daiteke ekintza sozialeko zentru eta zerbitzuak ikuskatu eta kontrolatzeko Madrileko Komunitateko urriaren 10eko 8/1990 Legearen 4. artikulua; izan ere, haren arabera, honakoak dira erabiltzaileen betebeharrak:

- Zentru edo zerbitzuak erabiltzeko baldintza orokorretan zehaztutako arauak betetzea (Gizarteratze-Sailak onartu behar ditu lehenago).
- Elkarrenganako begirunean, tolerantzian eta elkarlanean oinarritutako jokamoldea azaltzea, elkarbizitza hobea lortzearen.

4.6.5. **Zigortzeko administrazio-Zuzenbidea egoitzetako gizarte-laguntzaren erlazio juridikoaren alorrean**

Lehenago ere aipatu dugu teknika baimen-emalea erabiltzen dela egoitzetako zerbitzuek lege zehaztutako eskakizunak betetzen dituzten egiaztatzeko; jardunbide horrek, ikuskatu beharra dakar berekin eta, azken batean, neurri zigortzaileak hartu beharra eskaturiko baldintzak betetzen ez direnean.

Hortaz, administrazioaren zigor-jaurpidearekin egiten dugu topo aurrez aurre.

Gai hau aztertzen hasi baino lehen beharrezkoa da adieraztea Administrazioaren zigortze-ahalmena Konstituzioan aipatua izan dela (Konstituzioko 25.1. eta 3. art.) eta Konstituzio-epaitegiak epai bat baino gehiagotan jakinarazi duela ahalmen horren eragina.

Oro har, auzibidezko eta Konstituzioko lege-arauek nahiz jurisprudentziak aditzera ematen dute Konstituzioko 25. artikulua ezar dakiokoela administra-

zioaren zigor-jaurpideari, Estatuko zigor-Zuzenbide orokorraren ardatz nagusi izan behar duen irizpide-berdintasunean oinarrituz.

Ildo horretatik, besteren artean, 1981eko ekainaren 8ko Konstituzio-epaitegiak hauxe dio: “zigorbidearen oinarritzko irizpideak, zenbait nabardura gorabehera, zigortzeko administrazio-Zuzenbideari ezar dakizkioke, biak baitira Estatuko zigor-arauen adierazle, Konstituzioak berak isladatzen duenez (25. artikulua, legezketasun-irizpidea), eta hain dira elkarren kide, ezen lege mailako ondasun bat administrazio-bideez nahiz zigor-bideez babes daitekeen”.

Konstituzio-epaitegiak zehaztu egin du legezketasun- irizpideak alor honetan duen eragina, eta horrela, hauxe dio 1990eko martxoaren 29ko bere epaian:

“Irizpide horrek *bi berme* ditu: *bata, gauzatze-mailakoa eta erabateko eragina duena* da, bai zigorlegeari bete-betean, bai administraritzazigorreari dagokiena, eta epai-segurantzaren irizpideak aipaturiko alor murrizleetan duen garrantzia isladatzeaz gain, aditzera ematen du zein beharrezkoa den *jokabide arau-hausleen eta beroriei dagozkien zigorreari buruzko araudia aurrez zehaztea*, hau da, jokabide horiek behar adinako ziurtasun mailaz (*lex certa*) iragartzen lagunduko duten lege-arauak (*lex previa*) finkatzea, eta horrek berekin dakarren erantzukizuna eta jar daitezkeen zigorrak aurrikustea; bigarrena, berriz, lege-arauzkoa da, maila egokiko arau bat eskatu eta edukitzeari dagokiona eta, lege-arauen ikuspegitik begiratuta, Epaitegi honek legetzat jo duena”.

Epai honetantxe aipatzen diren hainbat ustezko egoeratan, legezketasun-irizpidea “gutxiagotu edo eskakizun maila apalagoan betetzea” eska daiteke, eta egoera horien artean, *lotura bereziko egoerak deritzenak* daude, nahiz eta zehazten den, alor horretan ere, Konstituzioko 25. artikulua aitortzen duen oinarritzko eskubidea urratuko lukeela legezketasunean oinarritu gabeko zigorrak.

Beraz, berriro ere honako hau ondorioztatzen dugu: Administraritzaren eta baimendutako egoitzen arteko erlazioa, eta are gehiago Administraritzaren eta itunpeko egoitzen artekoa, loturazko edo nagusitasunezko erlaziotzat jotzeak lege mailan ondorio garrantzitsuak dituela.

Konstituzio-epaitegiak dio erlazio mota hauetan “eragin maila ezberdina duela 25.1. artikuluan egindako indarrean dagoen legediaren aipamenak” (1987ko urtarrilaren 21eko epaia). Arestian aipatu 1990eko martxoaren 29ko epaiak era murrizlean interpretatzen du, lotura bereziko erlaziozko egoeretan, Administraritzak zigortzeko administrazio-Zuzenbidean nagusi diren irizpideak saihesteko duen aukera. Epai honek, legezketasun-irizpidearen ezarpenari mugak jartzea onartzen badu ere, berori zehazten du esanez:

“gauza bat da lotura bereziko kasuetan murrizpenak onartzea eta beste gauza bat, guztiz bestelakoa, Konstituzioko irizpideak ere (eta

beroriek barne hartzen dituzten oinarrizko eskubideak) murriztu ahal izatea edo horiek eraginkortasuna eta indarra galtzeko modua egitea. *Ez dago irizpide bat erlatibizatzerik, berori kentzeko arriskurik gabe.* Eta Administraritzako zigor alorrean (eta, jakina, zigorlege alorrean) beti eskatu ahal izango da Konstituzioko legezketasun formalizko eta eredutasun edo tipizitatezko betekizunak bete daitezen, hiritarraren lege mailako segurtasuna bermatzearren. Beste kontu bat da *betekizun horiek, loturaren indarraren arabera, Administraritza eta administratuen arteko erlazioei dagozkien kasu edo hipotesietara moldatzeko aukera -inoiz ez kentzekoa- ematen duten”.*

1992ko Administraritza Publikoen Lege-Jaurpiderako eta Administraritzaren Jardunbide Arrunterako Lege berriak hauxe dio legezketasun-irizpidea zigor-ahalmenaren irizpideetako bat bezala arautzerakoan: “Titulu honetako xedapenak ez dira ezarri behar herri-administraritzek beren zigor-ahalmena erabiltzen dutenean, bai beren menpeko langileei begira, bai lan-hitzarmenez administraritzei loturik daudenei begira” (127.3. art.). Honek, alderantzizko zentzuan, esan nahi du agindu honetan aurrikusi ez diren lotura bereziko gainerako erlazio guztiak legezketasun-irizpide horren menpe egongo lirakekeela, xedapen hori indarrean egoteari buruzko ñabardurarik eransten ez duelarik.

Gure autonomi elkartean 1982ko Laguntza Sozialei buruzko Legeak ez du zigortzeko administrazio-Zuzenbideari dagozkion inolako arauketarik jasotzen.

Bestalde, Hirugarren Adinekoentzako Erresidentzietako Zerbitzu Sozialei buruzko 218/1990 Dekretuak, uztailaren 30ekoak, honako hau dio bere 1. d) artikuluan: hirugarren adinekoentzako erresidentzietako zerbitzu sozialak Administrazioaren kontrolezko eta ikuskapenezko jardunari atxikiko zaizkio eta “zigorra ipiniko zaie indarrean dagoen araudia, bete beharrekoa, urratzen den kasuetan”.

Horrez gainera, dekretu horretako 8.2. artikulua dio “Erresidentzietako Zerbitzuak bere jardunari beharrezko baimenik gabe ekiten badio, dagozkion administrazio-zigorak jarriko zaizkiola”.

Era berean, 218/1990 dekretuaren 14.1. artikulua dio baimenik ezak edo dekretuan ezarritako baldintzak ez betetzeak “berekin ekarriko duela, egoki den administrazio-prozeduraren bitartez, administrazio-zigorak ezartzea, indarrean dagoen legediari jarraiki”.

Aurrikuspen hauek denak gorabehera, ez dago, ordea, zigor-jaurpidezko berarizko arauketarik administraritza alor honetan; hori dela eta, ezin itzurizkoa da lege-urratze eta zigor-jaurpidea araupetzea, bi gauza eskatuko direla bermatuz: alde batetik, araeuan aurrez zehaztea zeintzuk diren arauz-kontrako jokabideak eta zeintzuk horiei dagozkien zigorak (eredutasun edo tipizitate-irizpidea); eta bestetik, araupetze hori lege balioa duen arau batean gauzatu dadin (lege-erreserbaren irizpidea, hots, lege moduan araupetu beharri

buruzkoa), bi irizpide hauek hutsaldu gabe molda daitezkeelarik; lotura bereziko erlazioa du-ten neurrian.

Gure autonomi elkarteko legegileak zerbitzu sozialen alorreko lege-urratze eta zigor-jaurpideari buruzko araua ezar lezake, Madrileko eta Nafarroako autonomi elkarteetan araupetu den bezalaxe (Gizarte-ekintzazko Zentru eta Zerbitzuen Ikuskatze eta Begiratze Jarduerak arautzen dituen 28/1990 Legea, urriaren 10ekoa; eta Zerbitzu Sozialeri alorreko Baimen, Lege-urratze eta Zigorren Jaurpideari buruzko 9/1990 Foru-legea, azaroaren 13koa).

Halere, gai hau araupetu duten autonomi elkarte gehienek egin dutenaren antzera⁶, Zerbitzu Sozialeri buruzko Legean, horri dagokion lege-hauste eta zigorrezko idazpuru bat sartu ere egin lezake legegileak. Konponbide hau, sistematikoagoa izan daitekeen arren, Nafarroa eta Madrileko legeek duten legezorroztasunez egitea komeniko litzateke.

Aztertzen ari garen gaiaz bestelakoa da egoitzen erabiltzaileei ezar dakiekeen administrazioaren zigor-jaurpidea.

Egoiliarrek zigortzeko bideak egitez erabiltzen direla egiaztatu ahal izan dugu (esate baterako, alkohol gehiegi edaten duenean, egoiliarri egun batzuetan kanpora ateratzea debekatzen zaio), hori egiteko zigor-jaurpide arauturik ez dagoen arren.

Berriro ere nagusitasun bereziko erlazio baten aurrean gaude, hots, zerbitzua ematen duen administrazioaren eta berori jasotzen duten erabiltzaile edo administratuen arteko erlazioaren aurrean, alegia.

Jakina, zigor-jaurpidea ezartzearen alde egiten dugunean, ez dugu erabiltzaileak zigortzeko sistema eskatzeko asmorik; aitzitik, zigorrak ipintzen direla jakin badakigunez, horiek ezartzeko bidea ahalik eta bermerik handienaz hornitu nahi dugu.

Hori dela eta, lege-urratze eta zigor taula bat ezarri beharko litzateke, egoiliarrek zein jokabide ezin daitezkeen onar eta, jokabide horietako bat erakutsiz gero, zein zigor jaso dezaketen jakin ahal izateko.

Lege-urratze eta zigor taula hori, gainerako egoiliarren eskubideak babestutu asmoz egin beharko litzateke, elkarbizitza hobetzearren, eta hertsiki lotu beharko litzaioke hirugarren adineko sorospen-egoitza hauen erabiltzailei eskatzen zaizkien araupetutako betekizunak betetzeari.

⁶Andaluziako legearen 31. artikulutik 33.era bitartekoak; Aragoako legearen 45 eta 46. artikulua; Kataluniako legearen 23.etik 25. artikulura bitartekoak; Gaztela eta Leongo 37.etik 41.era bitarteko artikulua; Estremadurako legearen 33. artikulutik 35.era bitartekoak; Errioxako legearen 35. artikulua eta Valentziako legearen 26. artikulua.

V. ATALA

**ADINEKOEN EGOITZEN EGITURA
EUSKAL HERRIKO AUTONOMI
ELKARTEAN**

Hirugarren adinekoen egoitzetan zerbitzu emateak sistema bakarra osatzen du, sistema hau baterabilduz, ekimen publikoak eta ekimen pribatuak batera dihardute; azken honetan bi mota bereizten dira: aberastea helburu ez duten erakundeak eta merkatal xedeak dituztenak. Denak ere uztailaren 30eko 218/1990 dekretuaren eremuan biltzen dira.

Jarduera publikoaren barruan, egoitza guztien jabetza ez da kasuan kasuko administrazioarena, esan den bezala sistema publikoa bakarria bada ere, kudeaketa erakunde pribatuekin elkarlanean egin daiteke, elkar hartuz hain zuzen ere. Izaera pribatua duten, baina fundatzailearen borondatea betetzea ikuskatzen duen administrazio baten babespeko ongintza erakundeak, aberaste asmorik gabeko ekimen pribatuaren barnean kokatzen dira.

Egoitzen jabetza publikoari dagokionez, gehienetan foru institutu, udal institutu edo fundazio publikoen bidez gauzatzen den administrazio batena edo besterena -foru aldundiak, udalak- den, aldatu egiten da lurralde batetik bestera.

Sistema publikoan egon ala ez, egoitza guztiak uztailaren 30eko 218/1990 dekretuaren eremuan biltzen dira. Arau honetan egoitzen errolda egitea aurriztatu da, berori funtsezko baliabidea baita aipatu dekretuak ere arautzen duen egoitzei baimena emateko araubide eraginkorrerako.

Arrazoiak direnak direla ere, oraindik ez da erroldarik egin, 218/1990 dekretua argitaratu zenetik hiru urte joan badira ere.

Lurralde errolden eta errolda orokorraren helburuetako bat, dekretuan aipatzen diren egoitzetako ekintzak aurrez behar duten baimenpean egotea izanik, erroldarik ez egiteak araugabeko zerbitzuak kontrolatzea zailtzen du, hala nola, itxuraz hoteletako ekintzetan jardun eta, egiaz, adinekoen isilpeko egoitzak direnak, baldintza tekniko orokorrak bete arren, jarduera honek behar dituen berariazko baldintza teknikoak beteko ez lituzketenak. Horretarako daturik ez dagoelako, ez dira kontuan izaten materialki egoitzatzat har daitezkeen, baina formalki egoitzak ez diren jarduera hauek.

Nolanahi ere, Ararteko Erakundeak, Euskal Autonomi Elkarteko hirugarren adinekoen egoitza guztiak zerrenda batean bildu nahi izan dituenean, zailtasun handiekin topo egin du erroldarik ez zegoelako. Egin ahal izan den zerrenda erreferentzia ezberdinak erkatuz landu da eta, beraz, hutsegiterik balego, hirugarren adinekoen egoitzen erroldarik ez izatearen ondorio litzateke, hau da, 218/1990 dekretuaren aurrikuspenak ez betetzearen ondorio.

ARABAKO ADINEKOEN EGOITZA ZERBITZUEN ZERRENDA

<u>IZENA</u>	<u>UDALERRIA</u>	<u>JABETZA</u>
Res. S. Antón de Armuru	Amurrio	pub.
Piso protegido de Amurrio	Amurrio	pub.
Res. Fundación Alday	Ayala	prib.
Piso protegido de Campezo	Campezo	pub.
Res. S. Roque	Llodio	prib.
Res. de Salvatierra	Salvatierra	pub.
Res. Samaniego	Samaniego	pub.
Piso protegido de Espejo	Valdegovia	pub.
Res. Hermanitas de los Pobres	Vitoria-Gasteiz	prib.
Clínica Alava	"	prib.
Res. Sta. M ^a de las Nieves	"	pub.
Res. Arana	"	pub.
Res. Casa Aurora	"	pub.
Res. Los Molinos	"	pub.
Res. San Prudencio	"	pub.
Res. Los Arquillos	"	pub.
Res. Txagorritxu	"	pub.
Res. Juan Pablo I	"	prib.
Res. Ntra. Sra. Las Mercedes	"	prib.
Res. Sacerdotal San Antonio	"	prib.
Pensión Res. El Carmen	"	prib.
Guardería de Ancianos	"	prib.
Res. Purísima Concepción	Zuia	prib.

BIZKAIKO ADINEKOEN EGOITZA ZERBITZUEN ZERRENDA

<u>IZENA</u>	<u>UDALERRIA</u>	<u>JABETZA</u>
Res. Gallarta	Ab. y Zierb.	pub.
Ntra. Sra. del Socorro	Ab. y Zierb.	prib.
Res. Fundación Bolivar	Areatza	prib.
Res. León Trucios	Balmaseda	prib.
Res. Fundación Miranda	Barakaldo	prib.
Res. Barrikabarri	Barrika	prib.
Fundación Asilo Elorduy	Barrika	prib.
Res. de Ancianos Basauri	Basauri	pub.
Caserío Agirretxu	Berango	prib.
Res. Sancti-Spiritus	Bermeo	pub.
Res. Reina de la Paz	Bilbao	prib.

Res. Siervas de Jesús	Bilbao	prib.
Res. Conde Aresti	Bilbao	prib.
Res. V. Emilia F. Urioste	Bilbao	prib.
Sta. y Real Casa de Misericordia	"	prib.
Inst. Beneficencia Sgdo. Corazón	"	prib.
Res. de Txurdinaga	"	pub.
Res. Mi Casa Herm. de los Pobres	"	prib.
Piso Res. Cruz Roja	"	prib.
Residencia Larrazabal	"	prib.
Centro Geriátrico Abando	"	prib.
Res. Venerables Sacerdotes	"	prib.
Casa Sacerdotal Ntra. Sra. Carmen	"	prib.
Clínica Anduiza	"	prib.
Clínica Mupag-Previsión	"	prib.
Hogar Los Rosales	"	prib.
Res. de Berastegi	"	prib.
Hogar Bizkaiko Andra Mari	"	prib.
Res. Campuzano	"	prib.
Res. La Milagrosa	"	prib.
Res. Geriátrica Labayru	"	prib.
Res. Ntra. Sra. Begoña	"	prib.
Res. Revilla	"	prib.
Res. Nicolás de Arretegi	Busturia	prib.
Res. Zelaiondo	Busturia	prib.
Res. Ntra. Sra. Desamparadas	Carranza	prib.
Sto. Hosp. Casa Misericordia	Durango	pub.
Inst. Benéfico Aboitiz	Ea	prib.
Res. Elorrio	Elorrio	pub.
Res. Hogar S. José Erandio	Erandio	pub.
Res. Zurimendi	Galdames	prib.
Res. Bihotz Alai	Gamiz-Fika	prib.
Res. Calzada	Gernika	prib.
Res. S. José	Gernika	prib.
Res. Sagrado Corazón de Jesús	Getxo	pub.
Res. San Esteban 1	Getxo	prib.
Res. San Esteban 2	Getxo	prib.
Mini Res. Sta. María	Getxo	prib.
Res. Andra Mari	Getxo	prib.
Res. Beato Domingo Iturrate	Getxo	prib.
Sto. Hospital Gordexola	Gordexola	pub.
Res. Geriátrica Bizkaia	Leioa	prib.
Res. Asistida de Leioa	Leioa	pub.
Clínica Dr. Luis Sánchez R.	Leioa	prib.
Res. Uribarren Abaroa	Lekeitio	prib.
Res. San Roke	Markina	pub.

Res. Jesusen Bihotza Etxea	Mundaka	prib.
Res. Geure Etxea	Mundaka	prib.
Res. San José Etxe Alai	Mungia	pub.
Res. San José de Larrauri	Mungia	prib.
Res. La Alegría	Muskiz	prib.
Res. Hospital Pobeña	Muskiz	prib.
Res. Municipal Ondarroa	Ondarroa	pub.
Res. Municipal Orduña	Orduña	pub.
Res. Municipal Otxandio	Otxandio	pub.
Hospital Asilo S. Juan Bautista	Portugaleta	prib.
Res. Ntra. Sra. Begoña	Santurtzi	pub.
Res. J. Ellacuría Larrauri	Sestao	pub.
Res. Bizi Berria	Sopuerta	prib.
Res. Avellaneda	Sopuerta	prib.
Res. Ancianos de Zalla	Zalla	pub.
Res. Eusebio Aldecoa	Zeberio	pub.

GIPUZKOAKO ADINEKOEN EGOITZA ZERBITZUEN ZERRENDA

<u>IZENA</u>	<u>UDALERRIA</u>	<u>JABETZA</u>
Res. A.S.J. Bautista	Andoain	pub.
Res. Urrats Gain	Aretxabaleta	pub.
Res. A. Iturbide	Arrasate	pub.
Piso protegido Asteasu	Asteasu	pub.
Res. A. S. José	Azkoitia	pub.
Res. A. S. Martín	Azpeitia	prib.
Res. Arangoiti	Beasain	pub.
Res. Mizpirualde	Bergara	pub.
Res. Santiago	Billabona	pub.
Res. Ntra. Sra. La Paz	Donostia-SS	prib.
Res. Mi Casa Herm. de los Pobres	"	prib.
Res. Zorroaga	"	prib.
Res. S. José	"	prib.
Res. Alai Etxe	"	pub.
Res. S. Rafael	"	prib.
Pisos Protegidos Intxaurreondo	"	pub.
Res. Beriyo	"	pub.
Res. Sacerdotes Ancianos	"	prib.
Res. Julián Rezola	"	prib.
Colegio S. Rafael	"	prib.
Res. Hermano Gárate	"	prib.
Res. Ancianos de Eibar	Eibar	pub.

Piso protegido de Eibar	Eibar	pub.
Res. Fund. Púb. S. Andrés	Eibar	pub.
Res. S. Lázaro	Elgoibar	pub.
Res. Ntra. Sra. de las Mercedes	Eskoriatza	prib.
Res. Sta. M ^a Magdalena	Hernani	pub.
Res. S. Gabriel	Hondarribia	prib.
Res. Municipal de Irun	Irun	pub.
Res. Inmaculada	Irun	prib.
Pisos protegidos de Irun (2)	Irun	pub.
Piso protegido de Lasarte	Lasarte-Orio	pub.
Res. Sta. Cruz	Legazpia	prib.
Res. S. Miguel	Mutriku	pub.
Res. Petra Lekuona	Oiartzun	pub.
Res. S. Martín	Oñati	pub.
Res. S. José	Ordizia	pub.
Res. Municipal de Pasaia	Pasaia	pub.
Res. Municipal de Renteria	Renteria	pub.
Res. S. Juan y Magdalena	Segura	prib.
Ntra. Sra. de la Merced	Soraluze	prib.
Res. Yurreamendi	Tolosa	pub.
Res. de Tolosa	Tolosa	pub.
Mini Res. Ugarte-Usurbil	Usurbil	prib.
Res. Sta. Ana	Zarautz	pub.
Res. S. Juan	Zestoa	prib.
Res. S. Juan	Zumaia	pub.
Res. Faustino Orbegozo	Zumarraga	pub.

VI. ATALA

**IKERLAN HONETARAKO HAUTATU
DIREN ADINEKOEN EGOITZEN
EBALUAZIOA**

6.1. EGITURA ETA PROZESU ADIERAZLEEN ERABILPENA

6.1.1. Egitura eta prozesu adierazleen erabilpena hautaturiko adinekoen egoitzetan


Atal honetan sailkapen zehatz baten bidez hautatutako kalitatezko adierazleak ezartzearen emaitzak ezagutarazten dira, adierazle hauek bi multzotan sailkatu dira, industria munduan produkzio sistemen kalitatea kontrolatzeko erabiltzen den eta arian-arian osasun eta gizarte zerbitzuetan ere erabiltzen ari den eredu bat oinarritzat hartuz.

Eredu honen arabera, edozein produkzio sistemekin zerikusia duten aldagaiak hiru multzo nagusitan sailka daitezke: *input* edo egiturari dagozkionak, prozesuari dagozkionak eta *output* edo produktuari dagozkionak.

Input delakoan, sisteman parte hartzen duten baliabide material, giza aldekoak eta finantza aldekoak daude. Prozesua, produktu zehatzak lortzeko baliabideen erabilera praktikoari deritzo, *input* delakoa *output* bihurtzeari alegia. *Output* delakoa berriz, inbertsioak antolatzen eta erabiltzen dituen sistemaren emaitza da. Laugarren elementu bat ere badago, *outcome* delakoa, normalean zuzendua dagoen populazio taldean produktuak duen eragin bezala ulertzen dena.

Elementu bakoitza bakarka baliozta daiteke eta sistemaren kalitatea hobetzeko, bitartekoak helburuen *-outcome-* arabera baliabideen *-input-* inbertsio berrietara edo erabilera prozedurara *-process-* zuzen daitezke.

EBALUAZIOAREN OSAGAIK



Zalantzarik gabe zaharren egoitza zerbitzu produkzio sistematzat har daiteke eta helburua, bertan bizi direnen bizitza kalitatea hobetzea da. Oraingoan *input* edo zerbitzuaren egitura honakoek osatzen dute: eraikuntzaren baldintza fisikoak, kokapena, hornikuntza, langile-biztanle ratioa, langileen kualifikazioa eta sistema antolatzeko oinarri diren prozedura ezberdinak.

Betidanik ereduak eta kreditazio arauak *input* azalpenetan adierazi izan dira. *Input* delako gehienak ikutu daitezkeen elementuak dira, esan den bezala nahiko erraz baliozta daitezke eta zerbitzuaren kalitatea zuzenean erabakitzen badute ere, berez eta bakarrik ez dute emaitzen egokitasuna bermatzen.

Prozesua, hau da, baliabide bai material eta bai intelektualen erabilera, egoitza batean ematen diren ekintza, zaintze, prozedura, jokaera, arreta-jardunbide eta egitarau multzoa da.

Bigarren maila honetan ereduak eta kreditazio arauak bilatzea eta ezartzea, *input* mailan egitea baino askoz konplexuagoa da.

Hirugarren mailari dagokionez, adierazi behar dugu zerbitzu produktua- ren eta erabiltzailearengan duen eraginetik bereiztea zaila dela, azken finean jokaera *-output-* ez baita pertsonarengan duen eragina *-outcome-* baizik.

Ondorioz, erabiltzaileak gustora dauden, lortu duten bizitza kalitatea edo giza giroa -bai bertan bizi direnen ikuspegitik eta baita langile eta ikuskatzaile- en ikuspegitik- izango ditugu emaitzak edo produktuak, nahiz eta zentzu zehatzean hau erabiltzaileengan eragin neurria besterik ez izan, hau da, produktu edo emaitza horien ondorioa.

Berriro esanda, *input* adierazleen kasuan ezinezkoa ez bada ere objetibitate maila ona lortzea, askoz zailagoa da prozesua balioztatzen saiatzerakoan eta ia ezinezkoa emaitzak baloratzekoan, arestian esan den bezala ez baitaude arreta kalitatearen menpe eta batzutan ezta zuzenean ere, eta are gutxiago egoitzan bizi direnak, zenbateraino bizi diren gustora baldin bada neurtzeko ezaugarria.

Oso zaila denez elkarrizketatuak izan diren biztanle eta langile guztien iritziak modu eskematikoan aurkeztea, azterketa orokorreko atalean eta MEAPen SCES (gizarte giroa) grafikoa jaso dira iritzi horiek.

Alderdi metodologikoez aritu garenean esan bezala, adierazleen zerrendaren oinarria *Homes are for Living in* -HAFLI¹- delakotik hartua da, Erresuma Batuko Social Services Inspectorate of the National Health Service, hau da, Osasun Zerbitzu Nazionalako Gizarte Zerbitzuen Ikuskaritzak landutako kalitatearen ebaluaziorako metodoa, eta metodo honek bizitza kalitatearen eta arreta kalitatearen analisia oinarritzeko sei adierazgarriren bidez egitea proposatzen du: biztanleak gustora egotea, duintasuna, norbera bere gisara egoteko aukera, burujabetasuna, aukeratzeko askatasuna eta erabiltzaileen eskubideak.

Metodo honi bestelako ebaluazio prozeduretatik eta SIIS Dokumentazio eta Azterlanen zentruan dauden literatura orokorreko husteketatik eratorritako adierazleak erantsi zaizkio. Aipatu den bezala, ekarpen nagusia Dupont, Hervy

¹Carrington, D., Clough M. eta beste batzuek. *Homes are for living in*. Londres: HMSO, 1989.

eta Lyon-en² *Evaluation de la qualité de vie dans les structures d'hébergement pour personnes âgées* metodo frantsesari, modu independentean ezartzen den MEAPari, Centre for Policy on Ageing-eko *Coping with mental frailty*³ dokumentuan dauden gomendioei eta 218/1990 dekretuaren⁴ zenbait ereduri zor zaie.

Adierazleen ezarpenaren emaitzak bestelako azalpenik gabe irakurtzea proposatzen da, berez nahiko esanguratsua baita, nahiz eta kasuan kasuko ataletan, azterketa orokorra eta azterlanaren ondorioak aberasteko azalpenak erabiliko diren.

Azkenik esan behar da erabili diren adierazle gehienek eskaintzen duten ikuspegia subjektiboa dela eta beraz, askotan ebaluatzaileak egiten duen interpretazioa eztabaida daitekeela. Alegia, hutsegite larririk egin gabe logeletan esku kirtanak edo kea antzemateko tresnak edo arkitektura eragozpenik dagoen ala ez dagoen interpretatzea nahiko erraza gerta daiteke, baina ezin da gauza bera esan beste adierazle batzuek, batipat aztertzen diren alderdiak materialak ez direnean.

Horiek horrela, tratua egokia den, edo norberak nahiko askatasunik baduen, eta baita erlatiboak direlako epaitzen zailak diren beste alderdi batzuk -usaiak, altzarien egoera, instalakuntzen erosotasuna- eztabaidagarriak gerta daitezke askotan, baina nolana ere objektibitate nahiari erantzuten diote eta irizpide askatasunez egin da iritzi bilketa.

Bestalde, adierazle guztiek ez dute balio bera egoitza ezberdinetan, eta adierazle batzuk zehazten dituzten zenbait elementu egoteak edo ez egoteak ez dakar berez kalitatearen bermea; horregatik, baloratu interpretatu behar dira. Halere, birgaitze-aretorik ez egoteak edo harrerarako langilerik ez izateak ez du garrantzi bera egoitza handian edo txikian, eta halaber megafonia zerbitzua izateak bizitza kalitateari kalte egin diezaioke -tren estazio giroa emanek- ona ez bada edo egoki erabiltzen ez bada. Orokorrean, eta xehetasunak alde batera utzita, erantsita doan adierazle zerrendak nahiko garbi zehazten ditu azertu diren egoitzen egituraren eta arreta prozesuaren ahuleziak eta alderdi garrantzitsuak.

6.1.2. Egitura eta prozesu adierazleen bidez aztertutako egoitzen egoera

²Dupont, A., Hervy, M.D., Lyon, N. *Evaluation de la qualité de vie dans les structures d'hébergement pour personnes âgées*. Paris: Fondation Nationale de Gérontologie, 1988.

³Hodkinson, J. Home work: Booklet No. 7. *Coping with mental frailty*. Londres: Centre for Policy on Ageing, 1988.

⁴Uztailaren 30eko 218/1990 Dekretua, Hirugarren Adineko Egoitzetako Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 1990eko abuztuaren 31ko 175 zkia. Auzen EHAA.

ADIERAZLEAK	Leioa	J. Rezola Zentrua	Zorroaga	S. Esteban	Bihotz Deuna	Araba Klinika	Agirretxu Baseria	Amurrio	Sta. M. ^a Magdalena	San Roke	San Juan Bautista	Erruki-etxea	San Prudentzio
Egitura-en Kalitatea (INPUT)													
Ingurunea													
Kokapena													
1. Hermitik bazertua ez egotea								x	x	x	x	x	x
2. Eraikituntza kanpoaldetik isolatua	x		x	x	x	x		x	x	x	x	x	x
3. Inguruko lurrak kanpoaldetik isolatuak	x	x		x	x	x		x	x		x	x	
4. Gaizkile arriskurik gabeko zonaldea	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
5. Zonalde ez zaratatsua	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
6. Trafiko handirik gabeko zonaldea	x	x	x		x		x			x			
7. Oinezko gizarte baliabideak eskuratzitea (< 400 m.)								x	x	x	x	x	x
8. Herri garraio geltokia < 400 m.	x	x	x	x		x		(1)	x	x	x	x	x
9. Argitasuna ingurunean	x	x	x	x	x	x		x	x	x	x		x
10. Leihotik kanpoalderako ikuspegi atsegina	x		x	x			x	x	x				x
Sarbideak													
11. Ezintasunak dituztenentzako gordetako aparkalekuak	x												
12. Bisitari eta langileentzako aparkalekuak	x	x	x		x	x		x				x	
13. Eskailerarik gabeko sarbideak	x	x	x	x				x	x			x	x

(1) Ez dago garraiorik, herria bikia baita.

ADIERAZLEAK	Leioa	J. Rezola Zentrua	Zorroaga	S. Esteban	Bihotz Deuna	Araba Klinika	Agirretxu Baserria	Amurrio	Sta. M. ^a Magdalena	San Roke	San Juan Bautista	Erruki-etxea	San Prudentzio
14. Sarrera nagusiak eskailerarik baldin badu, aldapa osagarria	(2)	(2)	(2)	(2)		x		(2)	(2)			(2)	(2)
15. Sarrerako atea automatikoki irekitzen da	x												
16. Harrera lekua eta harreragilea	x	x			x	x			x			x	x
17. Ixarote aretoa	x	x	x	x	x	x		x	x	x	x	x	x
18. Sarreran erlojua		x							x	x	x	x	
Ingurune amankomunak													
19. Astialdirako zonaldeen azalera dekretuak agintzen duena baino handiagoa da	x	x	(3)	x	x	x		x	(3)		(3)	x	
20. Jantokia dekretuak agintzen duena (2,5 m ² /egoilarreko) baino handiagoa da			(3)		x	x	x		(3)		(3)	x	
21. Egoilarrek telefono pribatu bat erabil dezakete	x	x	x		x	x	x	x	x	x	x	x	x
22. Intentsitate kontrolatzailea duen telefono bat behinartekoa bai													
23. Eskailera eta aldapetako azalera ez-iristakorra da	x				x		x					x	x
24. Eraikuntza barruan bideratzeko laguntzak daude	x							x	x				
25. Geletako atean egoilarren izenak agertzen dira	x							x	x			x	x

(2) Sarrera nagusiak ez du eskailerarik.

(3) Egoitzak ez du datu hau eman.

ADIERAZLEAK	Leioa	J. Rezola Zentrua	Zorroaga	S. Esteban	Bihotz Deuna	Araba Klinikak	Agirretxu Baserria	Amurrio	Sta. M.^a Magdalena	San Roke	San Juan Bautista	Erruki-etxea	San Prudentzio
26. Egongela bat du gutxienez	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
27. Egongelan idazteko makinak daude			x				x		x	x		x	x
28. Irakurgaiak badaude	x		x	x	x			x	x	x	x	x	x
29. Egongela lasai bat du gutxienez			x		x	x			x	x		x	
30. Liburuak hartzeko liburutegi bat dago	x		x		x			x	x		x		x
31. Iragarki-aula badago	x		x		x			x	x			x	x
32. Langileen izen eta argazkiak ikusgai daude													x
33. Egoiliarren izen eta argazkien zerrenda badago													x
34. Megafonia sistema badu	x	x	x	x	x	x		x	x			x	x
35. Egoilarrak gonbidatuekin egon eta kafea eskaintzeko sukaldaria dago							x		x		x	x	
36. Goxo eta edarien makina	x	x	x			x			x				x
37. Egoilarrak erabiltzeko garbiketaria gela		x	x										
38. Suhiltzaileen kopuru eta mota Eusko Jaurlaritzaren dekretuak eskatzen duena da	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x		x	x
39. Larrialdetarako argiak pasabideetan	x	x		x	x	x	x	x	x			x	x

ADIERAZLEAK	Leioa	J. Rezola Zentrua	Zorroaga	S. Esteban	Bihotz Deuna	Araba Klinika	Agirretxu Baserria	Amurrio	Sta. M. ^a Magdalena	San Roke	San Juan Bautista	Erruki-etxea	San Prudentzio
54. Eraikina eta altzariak egoera onean daude			x		x	x	x	x	x		x	x	x
55. Argitasuna nahikoa da zonalde guztietan	x		x		x	x	x	x	x		x		x
Gelak													
56. Gelen azalera dekretuak agindua (b.g. 20 m ²) baino handiagoa da (4)	x (5)	x (5)	x		x (5)	x		x	x (5)				x
57. Geletako hormetan kuadroak jar daitezke		x	x		x	x	x	x		x			x
58. Geletan nahikoa argi dago irakurtzeko	x		x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
59. Kalefazioa geletatik kontrola daiteke	x		x					x	x		x	x	x
60. Gelek telefonioa dute								x					
61. Gelak gurpildun aukia erabiltzen dutenentzako egokituak daude								x					x (6)
62. Gelek heldulekuak dituzte													
63. Kea antzemateko tresnak daude	x					x		x	x			x	x
64. Gela guztiak txirrina dute	x	x	(7)	x	x	x		x	x	x	x	x	x

(4) Dekretuak eskatzen duen azalera 9-20 m²koa da banakako geletan eta 15-25 m²koa binakako geletan.

(5) Arauak betetzen dira baina askorentzako gelak ere badaude.

(6) Erizaintza zonaldean.

(7) Zorroagan gela batzuek badute txirrina.

ADIERAZLEAK	Leioa	J. Rezola Zentrua	Zorroaga	S. Esteban	Bihotz Deuna	Araba Klinika	Agirretxu Baserria	Amurrio	Sta. M. ^a Magdalena	San Roke	San Juan Bautista	Erruki-etxea	San Prudentzio
65. Diseinu eta dekorazio ezberdintasunak daude gela batetik bestera				x			x			x			x
66. Nolabaiteko pertsonalizazioa nabarmentzen da geletan							x			x			x
67. Gelak giltzaz ibxi daitezke			x		x						x	(10)	x
68. Atea ibxita dagoenean barrua ezin da ikusi	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	-x
69. Askorentzako geletan altzarien kokaerak norberaren gela-zatia zehazten laguntzen du										x			(18)
70. Egoiliar bakoitzak dekretuak eskatzen dituen altzariak ditu gubxienez (9)			x				x	x		x			x
71. Gela guztiek leiho bat dute gubxienez			x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
72. Armairu eta kajoak giltzaz ibxi daitezke			x		x	x		x	x		x	x	x
73. Gela guztietan telebista antena dago		x	x		x	(10)		x	x		x	x	-x
74. "Lotarako argiak" edo orduoro piztuta dauden argiak	x	x		x		x	x	x	x			x	x
75. Bisitak hartzeko lekua dago								x				x	x

(8) Binakako geletan senar emazteak bizi dira.

(9) Eusko Jaurlaritzaren dekretuak agintzen dituen altzariak: 0,90 zentimetroko ohea, armairua, gau-mahaia, siloi txiki bat eta mahai txiki bat.

(10) Batzuetan bakarrak.

ADIERAZLEAK	Leioa	J. Rezola Zentrua	Zorroaga	S. Esteban	Bihotz Deuna	Araba Klinika	Agirretxu Baserria	Amurrio	Sta. M.^a Magdalena	San Roke	San Juan Bautista	Erruki-etxea	San Prudentzio
Komunak													
76. Gela guztiek komuna eta dutxa dituzte						x		x	x				x
77. Komun guztietan heldulekuak edo seguritasun-hagak daude			x	x		x	x	x			x	x	x
78. Komun guztietako konketa inguruan seguritasun-hagak daude			x	x		x	x	x		x	x		x
79. Komunetako zoria ez-iristikorra da	(10)	(10)					x						(10)
80. Komunetan txininak daude	x			(10)		x			x				
81. Komunetan gurgildun aukiaz buelta eman daiteke	x	(10)	(10)	x			x	x	(10)	(10)	(10)	(10)	(10)
82. Dutxa edo baineran eserlekua dago	x	(10)		x			x	x	x	(10)			(10)
83. Gurgildun aukietan dabiltzanentzat egokitutako dutxak	x				x		x	x					x
84. Komunetako atek barutik ibi daitezke (baita kanpotik ere)						x	x		x				x
85. Komunetako ateetatik gurgildun aukiak pasa daitezke	x	x	(11)	x			x	x	(11)	x	x	(11)	x
Homikuntza eta laguntza teknikoak													
86. Komun geriatrikoak daude	x	x	x		x	x		x	x		x	x	x

(10) ■ atzuetan bakarrik.

(11) Erizaintza zonaldean bakarrik.

ADIERAZLEAK	Leioa	J. Rezola Zentrua	Zorroaga	S. Esteban	Bihotz Deuna	Araba Klinika	Agirretxu Baserria	Amurrio	Sta. M.^a Magdalena	San Roke	San Juan Bautista	Erruki-etxea	San Prudentzio
100. Erosketak egiteko laguntza ematen da	x		x		x		x			x	x		
101. Kanpora irteko laguntza ematen da							x						
102. Garraio zerbitzua dago			x		x								
103. Astialdirako ekintzak antolatzen dira	x		x		x			x	x			x	x
104. Txango eta irteerak antolatzen dira	x		x		x	x		x	x			x	x
LANGILEAK													
105. Langilego/egoiliar ratioa dekretuak eskaintzen duen gutxienezko gorakoa da (12)	x	x	x		x	x		x	x	x		x	x
106. Langile berriak bideratzeko egitasmuak eratzen dira													
107. Langileen bilerak astean behin egiten dira gutxienez	x								x				x
PROZEDURAK ETA ERROLDAK													
108. Barne-araudia daukate			x			x		x	x		x		x
109. Egoitzak dituen ezaugarri eta zerbitzuen liburuskak dute		x				x							x
110. Larrialdietarako jardunbideak idatziz adieraziak daude						x							

(12) Dekretuak agintzen duen: ratioa 0,25ekoa da "burujabeentzat" eta 0,40koa "laguntzadunentzat".

ADIERAZLEAK	Leioa	J. Rezola Zentrua	Zorroaga	S. Esteban	Bihotz Deuna	Araba Klinika	Agirretxu Baserria	Amurrio	Sta. M.^a Magdalena	San Roke	San Juan Bautista	Erruki-etxea	San Prudentzio
123. Egoiliarrek parte hartzeko batzordeak daude								x					x
124. Asarblada orokorrak egiten dira urtean behin gutxienez								x	x	x			x
125. Bame aldizkaria dago													
126. Egoitzak dituen baliabideak adierazteko plana dago													
PROZESUAREN KALITATEA													
Zaintza													
127. Egoiliarrek eserlekua aukera dezakete jantokian							x			x			
128. Egoiliarrek ez dituzte ordu jakin batean esnatzen			x			x	x	x	x	x			x
129. Egoiliarrek ordu jakin batean oheratu behar dute			x		x		x	x	x	x	x		x
130. Bisita ordutegia libre da					x		x	x		x			x
131. Geletan alkoholdun edariak eduki daitezke			x					x		x			
132. Geletan norberaren gauzak eduki daitezke	x		x			x	x	x	x				x
133. Altzariak lekuz alda daitezke			x				x	x		x			x
134. Gelan txori edo arrain bat eduki daitezke							x	x					

ADIERAZLEAK	Leioa	J. Rezola Zentrua	Zorroaga	S. Esteban	Bihotz Deuna	Araba Klinika	Agirretxu Baserria	Amurrio	Sta. M. ^a Magdalena	San Roke	San Juan Bautista	Erruki-etxea	San Prudentzio
135. Gelan janari hotzak edo kafea presta daitezke							x						x
136. gelan arropa txikiak garbi daitezke	x		x		x		x						
137. Otorduetan baso bat ardo edan daiteke	x	x	x		x	x	x	x	x	x	x	x	x
138. Gelako atea itxita eduki daiteke	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
139. Gelako atea giltzaz itxi daiteke			x										x
140. Langileak atea jotzen dute eta sartzeko baimena eman arte itxaroten dute			x				x	x		x			x
141. Geletako garbitasuna egoiliarren ohituretara moldatzen da							x			x			
142. Egoera berezietan senitartekoak egoitzan gera daiteke gauz		x				x	x	x		x		x	x
143. Banakako gelak nori eman erabakitzeko baremu bat dago	x		x (13)								x		(14)
144. Laguntza behar dutenei nahi dutenean jaiki edo oheratzen laguntzen diete langileak							x			x			

(13) Aintzinasunaren araberako zerranda bat dago eta kasu berezietan bakarrik ez da errespetatzen, hala nola elkarbizitze-arazoak claudenean edo norbaiten ezkontidea hiltzen denean.

(14) Gela guztiak banakoak dira ezkontideenak izan ezik.

ADIERAZLEAK	Leioa	J. Rezola Zentrua	Zorroaga	S. Esteban	Bihotz Deuna	Araba Klinika	Agirretxu Baserria	Amurrio	Sta. M. ^a Magdalena	San Roke	San Juan Bautista	Erruki-etxea	San Prudentzio
145. Langileek egoiliarrekin denbora ematen dute beren nahiak ezagutu ahal izateko							x	x					
146. Egoiliarrek bi menuren artean gutxienez aukera dezakete	x						x			x	x	x	x
147. Osasun arazoak direla eta, dieta bereziak ematen dira	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
148. Gosari, bazkari eta a'ari orduak ez dira zorrozak							x			x			x
149. Egoiliarren diruaz baliatzen direnean ezintasun juridikoa tramitatzen da									x				
150. Langile berezien sistema dago													
151. Laguntza behar duten egoiliarrek nahi dutenean joan daitezke komunera				x			x	x		x	x		x
152. Txisari ezin eutsi diotenezat norberarentzako plar gintzak daude													
153. Bainatzen ari diren bitartean bakarrik egotea bermatzen zaie				x		x	x	x	x	x	x		x
154. Jazten edo erazten diren bitartean bakartasunz bermatzen zaie			x	x		x	x	x	x	x	x		x
155. Txisari ezin eutsi izatea egoki tratatzen da (15)				x			x	x	x	x	x		x

(15) Ez da antzematen langileek zelulosa maindirerik, trenslerik, sondarik edo oinaledun aukirik erabiltzeko joerarik dutenik.

ADIERAZLEAK	Leioa	J. Rezola Zentrua	Zorroaga	S. Esteban	Bihotz Deuna	Araba Klinika	Agirretxu Baserria	Amurrio	Sta. M.^a Magdalena	San Roke	San Juan Bautista	Erruki-etxea	San Prudentzio
156. Egoiliarrek gelan bisitak izan ditzakete	x	x	x			x	x	x		x	x	x	x
157. Egoiliarrek beste pertsona batzuk bazkaltzera gonbida ditzakete	x(16)												
158. Egoiliarren bizitza esperientziak ezagutzeko norberarentzako arreta-plangintzak daude													
159. Buru-nahasketa duten pertsonentzako aurre hartzeko eta tratatzeko egitaraua dago													
160. Sexu-harremanak izateko intimitate eskubidea aztertu izan da								x					(17)
161. Zahar-erotasuna dutenen ratioa 1/5 baino txikiagoa da													
162. Ez dirudi askatasun mugarik edo nolabaiteko tratu txarririk dagoenik		x					x	x	x	x	x		x
163. Ez dago sexu arrazoiengatik erabiltzaileen eskubideak mugatzen direlako susmorik	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x		x

(16) Kafetegian.

(17) Ez dago horrelako arazorik, gelak banakakoak baitira.

6.2. MEAP (Multiphasic Environment Assessment Procedure) METODOAREN ERABILPENA

6.2.1. MEAPen erabilpena aztertutako egoitzetan

A) MEAP metodoaren erabilpena

Metodoaren nondik-norakoak

Neurgai anitzeko azterbide hau zahar-egoitzetan erabiltzeko pentsatua dago. Zenbaki bidezko metodoa da, hau da: erantzunak zenbakitan eman eta gero grafiko bidez adierazten dira, horrela, egoitza baten ezaugarri orokorrak errazkiago antzeman ahal izateko.

Bost tresna edo eskala ditu, lau neurgai desberdinei eta balorazio orokor bati dagozkienak. Tresna bakoitzaren bitartez egoitzaren halako edo holako puntu jakin bati buruzko kalifikazioak lortzen dira, eta horietxek dira gero grafikoetan islatzen direnak.

Hona hemen metodo honek dituen bost balorazio-tresnak:

- PAF: Physical and Architectural Features Checklist

Ezaugarri fisiko eta arkitektonikoak

- POLIF: Policy and Program Information Form

Antolakuntzari buruzko politika

- RESIF: Resident and Staff Information Form

Egoiliarren eta langileen ezaugarriak

- SCES: Sheltered Care Environment Scale

Barneko giroa

- RS: Rating Scale

Balorazio-mailaketa

Ondoren, tresna bakoitza eta beren azpimailak azalduko ditugu.

Ezaugarri fisiko eta arkitektonikoak (PAF)

Maila honen bidez egoitzen baliabide fisiko eta arkitektonikoak neurtzen dira, haien erabilpenari baino areago haien eskuragarritasunari begiratuz. Nahiz eta argia izan PAF edo ezaugarri fisiko eta arkitektonikoen eta POLIF edo antolakuntza eta funtzionamenduari buruzkoen arteko aldea, batzuetan baliabide fisikoak egoitzaren antolakuntzaren inguruko erabakien ondorio izaten dira. Esate baterako, baliabide fisikoak dira (zehazkiago esanda, bideratzeko laguntzak dira) egoitzaren planu bat, ondo ikusteko moduko lekuan jarria, edota langileen izen-zerrenda, baina zentruko zuzendaritzak erabakitzen du horiek jartzea. Oro har, honelako itemak tresna honetan (PAF) sartzen dira; honetan, honako bederatzi azpimaila hauek bereizten dira:

1. Komunitatea eskuragarri izatea

Hurbileko komunitatea eta bere zerbitzuak egoitzarentzat zenbateraino eskuragarriak diren neurtzen du (adibidez: Ba al da supermerkatuak oinez joan ahal izateko bezain hurbil? Ba al da garraio publikoaren geralekurik egoitzaatik hurbil?).

Komunitatearen zerbitzuen eskuragarritasunak esaten digu egoitzarentzat zenbateraino den erraza komunitatearen barruan txertatzea eta egoiliarrentzat erraza den ala ez behar dituzten komunitate-zerbitzuak beren kasa erabiltzea.

2. Erosotasuna

Egoitzak erosoak eta atseginak ote diren esaten digu, eta beste ezaugarri batzuk ere ematen dizkigu (adibidez: Ba al da telefonorik egoiliarrentzat? Ba al dute egoiliarrek beren geletatik kalefazioa kontrolatzeko modurik?).

3. Norberaren astialdirako laguntzak

Egoiliarren gizarte-bizitza eta astialdirako aukerak aztertzen ditu (adibidez: Sarreratik hurbil ba al da hizketan egoteko moduko gelarik? Biliar-jokorako mahairik? Mahaietan edo apalategietan irakurgairik?).

4. Ibilera errazteko laguntzak

Honen bidez aztertzen da nolakoak diren eraikuntzako sarbideak, eta oztopo arkitektonikoak kentzeko hartutako neurriak, bai eta egoiliarren ibilera errazteko eta baita beraien burujabetasuna sustatzeko dauden laguntzak ere (adibidez: Beharrezkoak al dira eskailerak eraikuntzara sartzeko? Pasabideetan heldulekurik ba al dago?).

5. Bideratzeko laguntzak

Egoiliarrek bideratzeko orduan erakundeak nolako ikusizko laguntzak ematen dituen aztertzen du (adibidez: Solairuak edo pasabideak kolore edo zenbakien bidez sailkatuta al daude? Erakundeak eskainitako zerbitzu ezberdinak non dauden azaltzen duen irudirik ba al da ikusteko moduko lekuan?).

6. Segurtasuna

Egoitza nola dagoen zainduta eta istripurik ez gertatzeko nolako neurriak hartu diren adierazten du (adibidez: Egoitzako sarrera zaintzeko ardura duen inor ba al da? Bainugeletan ba al da larrialdietan laguntza eskatzeko txirrinik?).

7. Langile-gelak

Langileen gelak, bai atsedenekoak, bai lanekoak ere, nolakoak diren adierazten du (adibidez: Bulegoak bestelako ekintzak izaten diren lekuetatik aparte al daude? Langileentzako egongelarik ba al dago?).

Neurgai hau ere erabili dugu, langileentzako instalazio egokiak edukiz gero langileen gogoak berotzen den ustetan, horrela, egoitzetan ematen den arreta ere hobea izan daitekeela uste dugulako.

8. Espazioa

Egoiliarren kopurua kontutan harturik, denentzako lekuak zenbat eta zein tamainatakoak diren esaten du (adibidez: Saio berezietarako zenbat gela dago? Zenbatekoa da guztira horien azalera?).

Tresna honi buruzko informazioa biltzeko, zuzeneko ikuskapen eta neurketak egiten dira, bai eta planuak eta dokumentuak aztertu, eta zuzendariarekin eta beste langile batzuekin hitzegin ere.

Antolakuntzari buruzko politika (POLIF)

Tresna honekin egoitzaren antolakuntza eta jarduna neurtzen dira; adibidez, maila funtzionalari eta egoiliarren jokaerari dagokienez dagoen eskakizuna, egoiliarren partaidetza, intimitatea eta, azkenik, erakundeak egoiliarren esku jartzen dituen zerbitzuak eta ekintzak nola antolatuta dauden. Zerbitzu eta ekintza horien erabilera egoiliarrek nolakoak diren neurtzeko modutzat jotzen da eta, hortaz, Egoiliarren eta Langileen Ezaugarriak (RESIF) izeneko atalean balioztatuko da.

Tresna honek bederatzi azpimaila ditu; haietako lehen biek egoiliarrei eskatzen zaien jokamoldea neurtzen dute.

1. Eskakizun funtzionalak

Egoitzan bizi diren aiton-amonei eguneroko bizitzan moldatzeko jartzen zaizkien gutxienezko baldintzak hartzen ditu kontutan (adibidez: Onartzen al da gorputzeko beharrak ez kontrolatzea? Kontrolik egiten al da egunero, egoiliarrik ez dela desagertu ziurtatzeko?).

2. Jarrera okerren onarpena

Egoiliarrei jarrera gogorak, desafiozkoak, xelebreak edota indarkeriazkoak zenbateraino onartzen zaizkien neurtzen du (adibidez: Uzten al zaie egoiliarrei bainatzeari uko egiten? Eta agindutako botikak hartzeari?).

3. Aukeratzeko askatasuna

Honen bitartez neurtzen da eguneroko bizitzan erakundeak zenbaterainoko aukera ematen dien egoiliarrei beren jokamoldea hautatzeko (adibidez: Zilegi dute egoiliarrek otorduetan ardoa edo garagardoa edatea? Egoiliarrek halako ordurako bildu behar al dute egoitzara?).

4. Egoiliarren partaidetza

Maila honek, aldiz, erakundearen arazuko egiturak zenbateraino uzten dien egoiliarrei haren zuzendaritza-lanetan parte hartzen eta antolakuntzan eragina edukitzen neurtzen du (adibidez: Egoiliarrek ba al dute ordezkariarik? Parte hartzen al dute ekintza berriak aukeratzeko?).

5. Antolakuntzaren argitasuna

Jokaera-arauak zabaltzeko eta burutapenak elkarri adierazteko modua ematen duten tresnak balioztatzen ditu (adibidez: Ba al da egoiliarrentzako argibide-orririk? Aldizkako bilerak egiten al dituzte langileek?).

6. Intimitatea

Egoiliarrei zenbaterainoko intimitatea edukitzen uzten zaien neurtzen du (adibidez: Banakako zenbat gela daude? Uzten al zaie egoiliarrei gelak giltzapetuta edukitzen?).

7. Osasun-zerbitzuak

Egoitzak eskaitzen dituen osasun-zerbitzuak zenbat eta nolakoak diren adierazten du (adibidez: Birgaitze-zerbitzurik ba al dago? Sendagile-kontsultarik ba al dago egoitzan bertan?).

8. Eguneroko bizitzarako laguntza

Erakundeak egoiliarrei beren eguneroko bizitzan moldatzeko nolako laguntza ematen dien neurtzen du (adibidez: Erosketak egiteko laguntza ematen al zaie? Eta nork bere burua txukuntzeko?).

9. Astialdirako jolas-ekintzak

Egoitzaren barruan nolako ekintzak egiten diren eta ekintza horiek nolako maiztasunaz antolatzen diren neurtzen du (adibidez: Ematen al da mintzaldirik? Ba al dago zine-saiorik? Nolako maiztasunaz?).

Tresna honi buruzko informazioa biltzeko, zuzendariarekin eta langileekin hitzegin eta zuzeneko ikuskapena egiten da.

Egoiliarren eta langileen ezaugarriak (RESIF)

Egoitza bakoitzeko egoiliarren eta langileen ezaugarrien araberakoak diren puntuak biltzen dira tresna honetaz. Pertsona batzuk talde batean biltzen direnean -zahar-egoitza batean, esate baterako- beraien baloreak, arauak eta gaitasunak eramaten dituzte berekin. Bestalde, taldeak ez dira berez sortzen, baizik eta onartzeko moduaren baldintzapean; horrela, taldearen barruan taldeko bakoitzaren ezaugarri desberdinak biltzen dira. Taldekideen ezaugarri horien multzoa -edo, bestela esanda, pertsonaren gaineko ingurua- nolakoa, halakoa da talde barruko azpikultura, eta horrek ere eragina eduki dezake kide bakoitzaren jokamoldean.

Galdetegi honetan langileen eta egoiliarren ezaugarriei buruzko neurgaiak jasotzen dira: gaitasun funtzionala, ekintza-maila, komunitatean duen integrazio-maila, etab. Orobat, egoitzak eskainitako zerbitzuak eta ekintzak ere balioztatzen dira.

RESIF tresnak bederatzi neurgai ditu.

1. Langileen ezaugarriak

Langile bakoitzak nolako eskarmentua eta prestakuntza dituen, eta haien artean nolako desberdintasunak dauden adierazten du (adibidez: Zenbat langile dira halako adin-talde batekoak? Nolakoa da langileen trebakuntza?).

2. Egoiliarren trebetasun funtzionala

Egoiarrak beren eguneroko zereginetan moldatzeko gauza diren ala ez adierazten du, bai eta nolako ezintasunak dauzkaten funtzionamendu orokorrean (adibidez: Egoiliarren artean zenbatek ez dute laguntzarik behar jateko, bainatzeko, ibiltzeko, etab.?).

3. Egoiliarren jarduera-maila

Egoiarrak halako zeregin batzuetan zenbateraino aritzen diren neurtzen du (adibidez: Zenbat egoiliarrek irakurtzen dute egunkaria, zenbatek jokutzen dute kartetan, zenbat ateratzen dira kanpoan ibiltzera, etab. aste normal batean?).

4. Egoiliarren integrazioa komunitatean

Egoitzatik kanpo egiten diren ekintzetan egoiliarrek nolako partaidetza duten neurtzen du (adibidez: Zenbat egoiliar joaten dira lagunak edo senitartekoak bisitatzera? Nolako maiztasunaz? Zenbat ateratzen dira txangoak egitera edo eroztera? Nolako maiztasunaz?).

5. Osasun-zerbitzuen erabilera

Egoiliarrek egoitza barruko osasun-zerbitzuak nola erabiltzen dituzten adierazten du (adibidez: Zenbat egoiliar joaten dira sendagilearen kontsultara aste normal batean? Zenbatek erabiltzen ditu birgaitze-zerbitzuak aste normal batean?).

6. Eguneroko bizitzako zerbitzuen erabilera

Egoiliarrek eguneroko bizitzan laguntzeko dauden zerbitzuak nola erabiltzen dituzten adierazten du (adibidez: Egoiliarren artean zenbati lagundu behar izaten zaie aste normal batean beren burua garbitzen? Zenbatek erabiltzen dute arropa garbitzeko zerbitzua?).

Eguneroko bizitzako ekintzak hiru neurgairen bitartez baliozta daitezke: egoiliarrek nolako beharrak dauzkaten (trebetasun funtzionalak), egoitzak nolako laguntzak ematen dituen (eguneroko bizitzako zereginetarako eskain daitekeen laguntza) eta laguntza hori zenbateraino erabiltzen den (eguneroko bizitzarako laguntzaren erabilera).

7. Astialdirako ekintzen erabilera

Egoitzaren barruko ekintzetan egoiliarrek nolako partaidetza duten adierazten du (adibidez: Zenbatek parte hartzen du egoitzan antolatzen diren jaieetan? Zenbat sartuta daude gimnasia-taldean?).

8. Egoiliarren baliabide sozialak

Egoiliarren egoera zein den adierazten du, gizartearen barruko lehiatasuna errazten duten aldagai demografiko desberdinei dagokienez (adibidez: Zenbat egoiliar daude ezkondata? Zenbatek lortu dute ikas-maila altua?).

9. Egoiliarren arteko ezberdintasunak

Nortasunari dagokionez, egoiliarren arteko ezaugarrien desberdintasuna neurtzen du (adibidez: Zenbat dira gizonezkoak? Zeintzuk dira egoiliarren lanbide desberdinak?).

Barneko giroa (SCES)

Pertsonak bezala, giza giroek eta giza inguruek ere beren "nortasuna" dutela uste dugu. Laguntza emateko prest dagoen jendea aurki daitekeen bezala, badira inguru batzuk jende arteko lotura estuagoak eta babes handiago eskaintzen dutenak. Badago jende asko argitasunari eta txukuntasunari garrantzi handia ematen diona, eta, era berean, giza inguru batzuek ere lehen-tasuna ematen diete ezaugarri horietxei.

SCES deritzan tresna honen bitartez egoitza bateko barne-giroa neurtu nahi da; horretarako, bai langileei, bai egoiliarrei ere galderak egiten zaizkie zentruari buruz daukaten jarrerari edo usteari buruz.

Aurreko tresnen bitartez (hau da, PAF, POLIF eta RESIF izeneko bitartez) halako argibide objetibo batzuk bilatu eta RS balioztapen-eskalan kanpoko ikuskatzaileen iritzia jasotzen zen; aldiz, SCES delako honekin langileen eta egoiliarren iritzia jasotzen dugu. Haien ikuspuntua oso interesgarria da gure ikerketarako, zeren eta halako inguru baten bizitzen edo lanean aritzen diren pertsonak oso argibide zehatz eta baliagarriak eman baititzakete inguru horri buruz.

Eskala honek 63 galdera ditu, bai/ez tankerakoak, eta egoitzetako barne-giroko zazpi neurgai balioztatzen ditu; berauek, hiru multzo nagusitan bereiz daitezke:

Lagunarteko harremanak

1. Taldearen batasuna

Langileen eta egoiliarren artean nolako batasuna, elkartasuna eta elkarri laguntzeko giroa dagoen neurtzen du, bai eta nolako harremanak eta laguntza-maila dagoen egoiliarren beren artean (adibidez: Banakako arreta handia jasotzen al dute egoiliarrek? Solasaldi interesgarriak egiten al dituzte?).

2. Gatazkak

Egoiliarren arteko haserreak eta gaizki esanak zenbaterainokoak diren neurtzen du (adibidez: Askokexatzen al dira egoiliarrek? Bata besteaz gaizki-esaka aritzen al dira?).

Pertsonaren garapena

3. Burujabetasuna

Neurgai honek aditzera ematen du nolako adorea ematen zaien egoiliarrei beren kasa moldatzeko eta beren kabuz erabakiak hartzeko (adibidez: Irakasten al zaie egoiliarrei beren eguneroko arazoak konpontzen? Hartzen al dute egoiliarrek ekintzaren baten ardura?).

4. Arazoen azalpena

Beste honen bitartez aditzera ematen da zenbateraino adoretzen dituzten egoiliarrek beren arazo eta sentimenduak azaltzeko (adibidez: Agerian aztertzen al dira egoiliarren arazo pertsonalak? Sarri hitzegiten al dute beren beldu-
rei buruz?).

Sistemaren mantenimentua eta aldaketa

5. Antolakuntza

Erakundearen barruan ordenak eta antolakuntzak duten garrantzia neurtzen du, bai eta egoiliarrek zenbateraino ezagutzen duten egoitzaren egunero-ko ohikeria eta jokamolde arauen argitasuna ere (adibidez: Arretaz planifikatzen al dira egoiliarrentzako ekintzak? Ba al dakite egoiliarrek zer gertatuko litzaekeen halako arauen bat bete ezean? Ondo antolatuta al dago egoitza?).

6. Egoiliarren eragina

Egoiliarrek egoitzaren jardunbidean eta arauetan nolako eragina duten neurtzen du, bai eta zeinen zorrotzak diren langileak arauak betearazteko orduan ere (adibidez: Parte hartzen al dute egoiliarrek arauak finkatzeko orduan? Langileak zorrotzak al dira arauekin?).

7. Erosotasuna

Inguruak nolako erosotasuna, intimitatea, atsegingarritasuna eta ongizate fisikoa eskaintzen duen neurtzen du (adibidez: Gorde al dezakete egoiliarrek beren intimitatea nahi duten bakoitzean? Hotzik edo korronterik egoten al da inoiz?).

Tresna honetarako argibideak biltzeko, halako galdetegi bat aurkezten zaie egoitzan bizi eta lanean aritzen direnei, bai/ez tankerako 63 galderaz.

Balorazio-mailaketa (RS)

Kanpoko ikuskatzaileek egoitzari buruz emandako balioztapenak jasotzen dira tresna honen bidez. Lau neurgai orokor biltzen ditu: egoitzaren edertasuna, giro-ugaritasuna, egoiliarren jarduna eta langileen jarduna. Lehendabiziko neurgaiarekin eraikuntzari berari eta bere kanpoko inguruari buruzko balorazioak biltzen dira, bai eta zaratei, usainei, argiari, ordenari, txukuntasunari eta egoerari buruzkoak ere. Bestela esanda, ikuskatzaileek egoitzan aurkitzen dioten edertasuna neurtzen du.

Bigarren neurgaiak, giro-ugaritasunak alegia, ezagutzera ematen du nolako aukera desberdinak ematen dituen egoitzak inguru fisiko bezala, eta balioztatzen direnen artean honako hauek daude: leihoak dituzten aldeak, haietatik dagoen ikuspegia, bizigune desberdinen arteko bereizketak, bai eta egoiliarren gelen pertsonalizazioa ere.

Egoiliarren jardunari dagokionez, neurgai honekin adierazten da egoiliarren itxurari, haien jarduera-mailari eta harremani buruzko balorazioa. Aldiz, langileen jardunak langileen, egoiliarren eta egoitzaren zuzendaritzaren arteko harremanak islatzen ditu. Hona hemen, zehazkiago adierazita, neurgai horietako bakoitza.

1. Egoitzaren edertasuna

Kontutan hartzen ditu egoitzaren garbitasuna, egoera eta ematen duen itxura (adibidez: Leku ederrean kokatuta al dago egoitza? Nolako argitasuna daukate parte desberdinek: aretoek, jantokiek, gelek eta pasabideek?).

2. Giro-ugaritasuna

Egoitza bera egoiliarrentzat erakargarria ote den neurtzen du (adibidez: Zenbateraino dauden pertsonalizatuta egoiliarren gelak? Ikuspide ona al dute?).

3. Egoiliarren jarduna

Egoiliarren itxura, ekintza-maila eta elkarren arteko harremanak neurtzen ditu (adibidez: Itxura txukuna al dute egoiliarrek? Nolako harremanak daukate elkarren artean?).

4. Langileen jarduna

Langileen eta egoiliarren arteko harremanak, egoitzaren zuzendaritza bera eta langileen beren arteko harremanak onak ote diren adierazten du (adibidez: Zuzeneko harremanak edukitzen al dituzte langileek egoiliarrekin? Langileak noraino daude egoiliarren eskura?).

Tresna honekin argitasunak eskuratzeko, egoitzaren jardunbidea zuzenean ikusi egiten da, eta gero hari buruzko balioztapena egiten 4 puntuko eskalan. Bi ikuskatzailek egiten dute balorazioa, bakoitzak bere aldetik, eta gero, grafikoan, bi puntuazioen batz-bestekoa jasotzen da.

B) MEAPen ezaugarri teknikoak

MEAP metodoa baliagarria eta fidagarria da erabat, halako prozedura tekniko batzuetan oinarrituta dagoelako:

- Ikuskatzaileen fidagarritasuna: argitasunak bi ikuskatzailek biltzen dituzte, bakoitzak bere aldetik eta biek aldi berean.
- Test-retest proba egiten da 9-12 hilabeteren tartean.
- Mailaketaren barne-egokitasuna aztertu egiten da (Cronbach).

Egin ziren probetan 244 egoitza aztertu ziren, bai laguntzadun apartamenduak, bai laguntzadun egoitzak eta baita pertsona burujabeentzako egoitzak ere. Lagin hori hartu eta gero, egileek batz-besteko balore-taula bat osatu zuten azpieskala bakoitzerako eta egoitza-zerbitzuen arteko hiru mota horietako bakoitzerako; horrela, balore horiek puntuazio estandar moduan har daitezke.

Ikerlan honetan aztertutako hamahiru egoitzetatik, bederatzi kasutan hartu da erreferentzia gisa aitona-amonaren burujabeentzako egoitzen arau-taula: San Prudentzio, San Roke, Santa Maria Magdalena, Erruki-etxe Saindu eta Erregezkoa, Amurrioko Egoitza, Zorroagakoa, San Juan Bautista Dohatsuaren Ospitale Saindua, Bihotz Deuna Udal Egoitza eta Berangoko Agirretxu Baserria. Gainerako laurak laguntzadunen egoitza modura balioztatu dira; izan

ere, izen horixe dute haietako hiruk: Leioako Laguntzadunen Egoitza, Araba Klinika eta Julian Rezola Zentrua; laugarrena, San Esteban Geriatrikoa, kategoria honetan sartu dugu egoiliarren gaitasun funtzionalari dagokion neurgaia (RESIF, 2. puntua) gehiago hurbiltzen delako Ameriketako batz-bestekora laguntzadunen egoitzak hartzen baditugu kontutan ($T=34$), pertsona burujabentzako egoitzak hartuz baino ($T=7$).

Ondorioz, MEAPen bitartez, bi eratarata baliozta daitezke egoitzak:

- egokitzen diren item kopuruari dagozkion portzentaien arabera. Esate baterako, "Komunitatearen eskuragarritasuna" azpieskalak dituen 16 itemetatik 8 badira egokiak, orduan puntuazioa %50ekoa izango da;
- puntuazio estandar modura (T), portzentaiak arau-taularen arabera balore estandar bihurtuz.

Portzentaien bidez ematen den puntuazioak aukera ematen du egoitza desberdinak konparatzeko, bai eta edozein egoitzaren hainbat alderdi balioztatzeko ere. Hortaz, egoitza baten alderdi onak eta txarrak zeintzuk diren esateko aukera ematen du.

Puntuazio estandar edo (T) gisa ematen denaren bidez, egoitzak elkarren artean erkatu ez ezik, haietako bakoitzaren hainbat alderdi ere baliozta daitezke erreferentziatzat hartutako laginaren arabera.

Emaitzak bi eratarata aurkezten dira: sei lauki egiten dira, MEAPa osatzen duten bost tresnei buruzkoak -haietako batean, SCES (Barneko Giroa) deitzen den horretan, aparte hartzen dira kontutan egoiliarrek eta langileak-. Lauki horietan neurgai bakoitzean lortutako T puntuazioak jasotzen dira; horrela, erraz ikus daitezke egoitza bakoitzaren puntuazioak eta konparatu lagineko besteekin.

Ondoren 13 egoitza horietako bakoitzari buruzko puntuazioa aurkezten da. MEAPen bidez bildutako datuekin sei grafiko osatu dira, lehenago aipatu ditugun tresnei dagozkienak. Grafiko bakoitzak bi perfil ditu: bata portzentaiatan adierazitako zenbakizko balorez eraikita dago, hau da, item egokien portzentaiaren arabera; besteak, aldiz, arau-taularen arabera dagozkien balio estandar edo (T) deitzen direnak agertzen ditu.

Grafiko horien bitartez, egoitza bakoitzaren alderdi onak eta txarrak ikus daitezke, bai eta ere nolako egoeran dagoen egoitza bakoitza arauzko datuak kontutan hartuz; kasu bakoitzean, puntuazio horiek ematera eraman gaituzten zentruaren ezaugarriak, jokaerak eta arauak azaltzen dira. Bestalde, egoitza bakoitzari buruzko oinarritzko datuak eta halako deskribapen orokor bat ere eskaintzen dira.

EZAUGARRI FISIKO ETA ARKITEKTONIKOAK

PAF	Puntuazio Handia (T > 60)	Puntuazio Ertaina (T 40-60)	Puntuazio Txikia (T < 40)
1. Komunitatearen eskuragarritasuna	San Roke 71 S. Juan Bautista 66 San Prudentzio 66 Sta M ^a Magdalena 71 Erruki-etxea 63,5	J. Rezola Zentrua 53 Amurrio 48 S. Esteban 43 Araba Klinika 56 Zorroaga 48	Agirretxu Baserria 34 Leioa 38 Bihotz Deuna 36
2. Erosotasuna		S. Juan Bautista 41,5 J. Rezola Zentrua 43 Agirretxu Baserria 58 Leioa 46 San Prudentzio 58 Bihotz Deuna 53 Zorroaga 50 Amurrio 49	San Roke 37 San Esteban 25 Sta. M ^a Magdalena 37 Araba Klinika 30 Erruki-etxea 38
3. Astialdirako laguntzak		Agirretxu Baserria 43 Leioa 42 San Prudentzio 40 Bihotz Deuna 52 Zorroaga 51	San Roke 36 San Juan Bautista 37 J. Rezola Zentrua 29 Amurrio 36 San Esteban 29 Sta. M ^a Magdalena 33 Araba Klinika 26 Erruki-etxea 35,5
4. Mugitzeko laguntzak		San Juan Bautista 42 Agirretxu Baserria 49 Amurrio 50 Leioa 46 San Prudentzio 52 Sta. M ^a Magdalena 51 Bihotz Deuna 41 Zorroaga 50 Erruki-etxea 40,5	San Roke 37 J. Rezola Zentrua 7 San Esteban 16 Araba Klinika 7
5. Bideratzeko laguntzak		Amurrio 42 Leioa 45 San Prudentzio 52	San Roke 33 San Juan Bautista 27 J. Rezola Zentrua 26 Agirretxu Baserria 33 San Esteban 15 Sta. M ^a Magdalena 27 Bihotz Deuna 37,5 Araba Klinika 15 Zorroaga 33 Erruki-etxea 33,5
6. Segurtasuna	San Prudentzio 62	San Juan Bautista 41 J. Rezola Zentrua 48 Agirretxu Baserria 47 Leioa 55,5 Sta. M ^a Magdalena 53 Zorroaga 41 Erruki-etxea 50 Amurrio 53	San Roke 37 San Esteban 33 Bihotz Deuna 39,5 Araba Klinika 29

EZAUGARRI FISIKO ETA ARKITEKTONIKOAK

PAF	Puntuazio Handia (T > 60)	Puntuazio Ertaina (T 40-60)	Puntuazio Txikia (T < 40)
7. Langile-gelak	Leioa 63 San Prudentzio 61 Zorroaga 57 Erruki-etxea 61	J. Rezola Zentrua 57 Agirretxu Baserria 41 Sta M ^a Magdalena 53 Bihotz Deuna 44 Araba Klinika 52	San Roke 35 San Juan Bautista 35 Amurrio 38 San Esteban 20
8. Espazioa	Araba Klinika 62	San Roke 47 San Juan Bautista 50 J.Rezola Zentrua 48,1 Agirretxu Baserria 42 Amurrio 53 San Esteban 40 Leioa 56 San Prudentzio 43 Sta. M ^a Magdalena 45 Bihotz Deuna 50 Zorroaga 52,5	

ANTOLAKUNTZARI BURUZKO POLITIKA

POLIF	Puntuazio Handia (T > 60)	Puntuazio Ertaina (T 40-60)	Puntuazio Txikia (T < 40)
1. Eskakizun funtzionalak		J. Rezola Zentrua 43 San Esteban 43 Leioa 43 Araba Klinika 43	San Roke 33 San Juan Bautista 33 Agirretxu Baserrria 33 Amurrio 33 San Prudentzio 33 Sta. M ^a Magdalena 33 Bihotz Deuna 33 Zorroaga 33 Erruki-etxea 33
2. Jarrera okerren onarpena		San Roke 44 J. Rezola Zentrua 48 Amurrio 49 Leioa 46 San prudentzio 47 Sta. M ^a Magdalena 46 Zorroaga 44	San Juan Bautista 36 Agirretxu Baserrria 36 San Esteban 30 Bihotz Deuna 36 Araba Klinika 34 Erruki-etxea 33
3. Aukeratzeko askatasuna	Agirretxu Baserrria 71	San Roke 47 Amurrio 54 San Prudentzio 45 Sta. M ^a Magdalena 45 Bihotz Deuna 40 Araba Klinika 49 Zorroaga 54	San Juan Bautista 32 J. Rezola Zentrua 39 San Esteban 34 Leioa 33 Erruki-etxea 36,5
4. Antolakuntzan parte hartzeko aukera		Agirretxu Baserrria 57 Amurrio 42 San Prudentzio 45 Sta M ^a Magdalena 40	San Roke 35 San Juan Bautista 35 J. Rezola Zentrua 30 San Esteban 30 Leioa 30 Bihotz Deuna 35 Araba Klinika 30 Zorroaga 34 Erruki-etxea 34,5
5. Antolakuntzaren argitasuna		Amurrio 42	San Roke 29 San Juan Bautista 38 J. Rezola Zentrua 7 Agirretxu Baserrria 29 San Esteban 7 Leioa 7 San Prudentzio 37 Sta. M ^a Magdalena 33 Bihotz Deuna 29 Araba Klinika 7 Zorroaga 29 Erruki-etxea 29

ANTOLAKUNTZARI BURUZKO POLITIKA

POLIF	Puntuazio Handia (T > 60)	Puntuazio Ertaina (T 40-60)	Puntuazio Txikia (T < 40)
6. Intimitatea	San Prudentzio 60	Agirretxu Baserria 45 Amurrio 53 Zorroaga 45	San Juan Bautista 37 J. Rezola Zentrua 32 San Esteban 32 Leioa 24 Sta. M ^a Magdalena 37 Bihotz Deuna 37 Araba Klinika 39 Erruki-etxea 37 San Roke 37
7. Osasun-zerbitzuak	San Prudentzio 65 Zorroaga 65	San Juan Bautista 55 J. Rezola Zentrua 58 Agirretxu Baserria 44 Amurrio 44 San Esteban 40 Leioa 58 Sta. M ^a Magdalena 55 Bihotz Deuna 55 Erruki-etxea 60 Araba Klinika 40	San Roke 39
8. Eguneroko bizitarako laguntza		San Roke 41 San Juan Bautista 46, 5 J. Rezola Zentrua 48 Agirretxu Baserria 52 Amurrio 52 San Prudentzio 52 Sta. M ^a Magdalena 50 Zorroaga 56 Bihotz Deuna 56 Erruki-etxea 41,5	San Esteban 17 Leioa 33 Araba Klinika 26
9. Astialdirako aukerak		Amurrio 52 San Prudentzio 46 Bihotz Deuna 49,5 Zorroaga 46	San Roke 19 San Juan Bautista 20 J. Rezola Zentrua 31 Agirretxu Baserria 18 San Esteban 9 Leioa 35 Sta. M ^a Magdalena 36 Araba Klinika 17 Erruki-etxea 22,5

EGOILIARREN ETA LANGILEEN EZAUGARRIAK

RESIF	Puntuazio Handia (T > 60)	Puntuazio Ertaina (T 40-60)	Puntuazio Txikia (T < 40)
1. Langileen ezaugarriak		San Roke 43 Amurrio 44 San Prudentzio 51 Sta M ^a Magdalena 44 Araba Klinika 40 Zorroaga 52 Erruki-etxea 50	San Esteban 19 Leioa 28 Bihotz Deuna 36 J. Rezola Zentrua 19 San Juan Bautista 37
2. Egoiliarren trebetasun funtzionala		San Roke 42 San Juan Bautista 43,5 J. Rezola Zentrua 43,5 Leioa 45 San Prudentzio 41	Agirretxu Baserria 19 Amurrio 30 San Esteban 34 Sta. M ^a magdalena 39 Bihotz Deuna 30 Araba Klinika 34 Zorroaga 39 Erruki-etxea 30
3. Egoiliarren jardueramaila		San Juan Bautista 42 Leioa 42,5	San Roke 33 J. Rezola Zentrua 35,5 Agirretxu Baserria 36 Amurrio 37 San Esteban 35 San Prudentzio 23 Sta. M ^a Magdalena 30 Bihotz Deuna 33 Araba Klinika 37 Zorroaga 30 Erruki-etxea 21
4. Egoiliarren integrazioa komunitatean		San Roke 50 San Juan Bautista 41 J. Rezola Zentrua 44 Amurrio 40 Leioa 47,5 Araba Klinika 44 Zorroaga 41 Erruki-etxea 45	Agirretxu Baserria 33 San Esteban 39 San Prudentzio 36,5 Sta. M ^a Magdalena 39,5 Bihotz Deuna 38
5. Osasun-zerbitzuen erabilera	San Roke 69 Leioa 73	San Juan Bautista 46 Agirretxu Baserria 48 Amurrio 54 San Prudentzio 46 Sta. M ^a Magdalena 42 Bihotz Deuna 46 Araba Klinika 40 Zorroaga 40 Erruki-etxea 41,5	J. Rezola Zentrua 23 San Esteban 28

EGOILIARREN ETA LANGILEEN EZAUGARRIAK

RESIF	Puntuazio Handia (T > 60)	Puntuazio Ertaina (T 40-60)	Puntuazio Txikia (T < 40)
6. Eguneroko bizitzarako laguntzen erabilera	Agirretxu Baserria 69 San Esteban 72	San Roke 56 San Juan Bautista 45 J. Rezola Zentrua 57 Amurrio 56,5 San Prudentzio 55 Sta. M ^a . Magdalena 50 Bihotz Deuna 41 Araba Klinika 59 Zorroaga 48 Erruki-etxea 49,5	Leioa 35
7. Astialdirako ekintzen erabilera	San Roke 61 Agirretxu Baserria 68	San Juan Bautista 56 Amurrio 49 San Esteban 57 Sta. M ^a . Magdalena 51 Bihotz Deuna 43 Araba Klinika 57	J. Rezola Zentrua 30 Leioa 37 San Prudentzio 35 Zorroaga 35 Erruki-etxea 39

BARNEKO GIROA

SCES - Egoilarrak	Puntuazio Handia (T > 60)	Puntuazio Ertaina (T 40-60)	Puntuazio Txikia (T < 40)
1. Taldearen batasuna	Agirretxu Baserria 69	San Juan Bautista 52 Amurrio 42	San Roke 24,5 J. Rezola Zentrua 17 San Esteban 15 Leioa 21 San Prudentzio 30 Sta. M ^a Magdalena 38 Bihotz Deuna 30 Araba Klinika 23 Zorroaga 23 Erruki-etxea 19
2. Gatazkak	San Roke 70 Sta M ^a Magdalena 87 Bihotz Deuna 73 Zorroaga 68 Erruki-etxea 69	San Juan Bautista 56 J. Rezola Zentrua 56,5 Agirretxu Baserria 53 Amurrio 58 San Esteban 50 Leioa 60 San Prudentzio 60 Araba Klinika 56	
3. Burujabetasuna		San Roke 55 Amurrio 51 Leioa 44 San Prudentzio 46 Sta. M ^a Magdalena 41 Bihotz Deuna 51	San Juan Bautista 38 J. Rezola Zentrua 33,5 Agirretxu Baserria 31 San Esteban 30 Araba Klinika 35 Zorroaga 29 Erruki-etxea 33
4. Arazoen azalpena	San Roke 71 J. Rezola Zentrua 68 Agirretxu Baserria 98 Amurrio 73 Leioa 61 San Prudentzio 77 Sta. M ^a Magdalena 70 Bihotz Deuna 79 Zorroaga 63	San Juan Bautista 53 San Esteban 41 Araba Klinika 52	Erruki-etxea 35
5. Antolakuntza	Agirretxu Baserria 66 San Esteban 69 Sta. M ^a Magdalena 73 Araba Klinika 69	San Roke 47 San Juan Bautista 60 J. Rezola Zentrua 57 Amurrio 50 Leioa 41 San Prudentzio 56 Bihotz Deuna 59 Zorroaga 47 Erruki-etxea 47	

BARNEKO GIROA

SCES - Egoilarrak	Puntuazio Handia (T > 60)	Puntuazio Ertaina (T 40-60)	Puntuazio Txikia (T < 40)
6. Egoiliarren eragina	Agirretxu Baseria 74	San Roke 58 San Juan Bautista 43 San Esteban 42 Zorroaga 42 Erruki-etxea 44	J. Rezola Zentrua 32 Amurrio 32 Leioa 36 San Prudentzio 27 Sta. M ^a Magdalena 35 Bihotz Deuna 35 Araba Klinika 28
7. Erosotasuna	Agirretxu Baseria 64	San Juan Bautista 50 J. Rezola Zentrua 41,5 Amurrio 50 San Prudentzio 46 Sta. M ^a Magdalena 56 Erruki-etxea 41	San Roke 2 San Esteban 14 Leioa 10 Bihotz Deuna 32,5 Araba Klinika 32 Zorroaga 29

BARNEKO GIROA

SCES - Langileak	Puntuazio Handia (T > 60)	Puntuazio Ertaina (T 40-60)	Puntuazio Txikia (T < 40)
1. Taldearen batasuna		San Juan Bautista 41 Agirretxu Baserria 52	San Roke 22 J. Rezola Zentrua 14 Amurrio 18 San Esteban 13 Leioa 7,5 San Prudentzio 21 Sta. M ^a Magdalena 13 Bihotz Deuna 29,5 Araba Klinika 18 Zorroaga 21 Erruki-etxea 19
2. Gatazkak	Zorroaga 61,5	Amurrio 55 Agirretxu Baserria 42 Araba Klinika 53 Sta. M ^a Magdalena 58 Leioa 51 San Roke 54 J. Rezola Zentrua 49 Erruki-etxea 58,5 San Prudentzio 55 San Esteban 57 San Juan Bautista 48 Bihotz Deuna 58	
3. Burujabetasuna	Agirretxu Baserria 65	San Roke 42,5 San Juan Bautista 41 Amurrio 41,5 San Prudentzio 42 Bihotz Deuna 41 Araba Klinika 41 Zorroaga 43	J. Rezola Zentrua 26 San Esteban 23 Leioa 36 Sta. M ^a Magdalena 38 Erruki-etxea 27
4. Arazoen azalpena	Agirretxu Baserria 69	San Roke 58 J. Rezola Zentrua 48,5 Amurrio 60 San Prudentzio 50 Sta. M ^a Magdalena 51 Bihotz Deuna 49 Araba Klinika 52 Zorroaga 53	San Juan Bautista 33 San Esteban 32 Leioa 39 Erruki-etxea 35
5. Antolakuntza	Agirretxu Baserria 61	San Roke 41 San Juan Bautista 57 J. Rezola Zentrua 56 Amurrio 43 San Esteban 59 San Prudentzio 43 Bihotz Deuna 44 Sta. M ^a Magdalena 57 Araba Klinika 46	Leioa 38 Zorroaga 30 Erruki-etxea 29,5

BARNEKO GIROA

SCES - Langileak	Puntuazio Handia (T > 60)	Puntuazio Ertaina (T 40-60)	Puntuazio Txikia (T < 40)
6. Egoiliarren eragina	Agirretxu Baseria 61 San Esteban 73	San Roke 43 San Prudentzio 41 Zorroaga 38,5 Erruki-etxea 42	San Juan Bautista 37 J. Rezola Zentrua 18 Amurrio 34 Leioa 22 Sta. M ^a Magdalena 33 Bihotz Deuna 32 Araba Klinika 30
7. Erosotasuna	Agirretxu Baseria 62	San Juan Bautista 47 San Esteban 57 Sta M ^a Magdalena 50	San Roke 12 J. Rezola Zentrua 25 Amurrio 24 Leioa 13 San Prudentzio 33 Bihotz Deuna 30 Araba Klinika 26 Zorroaga 17 Erruki-etxea 25

ZUZENEKO IKUSKAPENA

RS	Puntuazio Handia (T > 60)	Puntuazio Ertaina (T 40-60)	Puntuazio Txikia (T < 40).
1. Egoitzaren edertasuna		San Juan Bautista 42 Agirretxu Baserria 52 Amurrio 48 San Esteban 46,5 San Prudentzio 46 Sta. M ^a Magdalena 45 Bihotz Deuna 48 Zorroaga 46,5 Erruki-etxea 60	San Roke 33 J. Rezola Zentrua 27 Leioa 37 Araba Klinika 35
2. Giro-ugaritasuna		San Roke 50, 5 Agirretxu Baserria 59 Amurrio 47 Leioa 41 San Prudentzio 54,5 Zorroaga 47,5 Erruki-etxea 42,5	San Juan Bautista 28,5 San Esteban 31 Sta. M ^a Magdalena 39 Bihotz Deuna 34 Araba Klinika 32 J. Rezola Zentrua 36,5
3. Egoiliarren jarduna		San Roke 41 San Juan Bautista 40 Agirretxu Baserria 54 Amurrio 46 Leioa 44 San Prudentzio 44,5 Sta. M ^a Magdalena 45 Bihotz Deuna 40 Zorroaga 41	J. Rezola Zentrua 33 San Esteban 35 Araba Klinika 38 Erruki-etxea 39,5
4. Langileen jarduna	Agirretxu Baserria 70 Amurrio 62	San Roke 52 San Juan Bautista 58 San Esteban 53 San Prudentzio 43	J. Rezola Zentrua 35 Leioa 19 Sta. M ^a Magdalena 29 Bihotz Deuna 36,5 Araba Klinika 25 Zorroaga 33 Erruki-etxea 23,5

6.2.2. MEAPen bidez azterturiko egoitzen egoera

SAN ESTEBAN GERIATRIKOA

Helbidea: Avda. de los Chopos (Getxo)

Jabetza: Pribatua

Egoiliarak: 52

Egoiliar bakoitzeko barne-azalera: 22,6 m²

Gelak: Banakakoak: 1

Binakakoak: 4

Askotarikoak (hiru, lau edo bost ohe): 17

Bainu-gela osoak: 5

Komunak: 4

Bainugela geriatrikoak: 0

Egoiliar bakoitzeko langileak: 0,37 (garbitzaileak kanpo)

Langileak: Zuzenean arreta ematen dutenak: 16

Langile laguntzaileak: 4

San Esteban Geriatrikoa hiriko kanpoaldean dago, erdigunetik eta komunitateko baliapideetatik urrun samar; hortaz, zinemak, dendak edo kafetegiak ere urrun ditu.

Egoitzaren esparrua, bere lorategi zabala barne, zuhurtasunez isolatuta dago kanpoaldetik. Eraikuntza aurrean zirkulazio handiko errepide bat dago.

Sarrera nagusira iristeko eskailera batzuk daude; badira aukeran beste bi sarrera ere, eskailerarik gabekoak, baina giltzapeturik egon ohi dira. Eguneroko irteteko ohitura duen egoiliar bakar batek dauka ate horietako bat erabiltzeko baimena, makuluak behar baititu ibiltzeko. Gure ikerlana egin genuenean egoitzan bizi ziren 52 egoiliarren artetik hiru bakarrik irteten ziren kanpora; irteten direnean, etxearen segurtasun-arau bati jarraituz, nora joateko asmoa duten esan behar izaten dute.

Egoitzak hiru solairu dauzka, eta 22 gela guztira: banakako bat, binakako lau eta beste hamazazpi gela lauazpabost lagunentzakoak. Hiru egongela daude, besaulki eta mahai txikiak dauzkatena, bai eta jangela txiki bat, 218/1990 dekretuak ezarri baino txikiagoa; horregatik, egoiliar guztientzako lekurik ez dagoenez gero, bi txandatan egin behar izaten dituzte otorduak; laguntzaren premia handia daukatenei, ordea, beren buru-egoeragatik -haietako batzuk loturik egoten dira egun osoan-, egongelako besaulkietan ematen zaie janaria.

Egoiliar bakoitzeko barne-azalera 218/1990 dekretuak ezarri baino txikiagoa da.

Langilegoa osatzen dutenen artean, laguntzaileak, sukaldariak, mantenu-arduradun bat eta egoitza zuzentzen duten bi sendagile daude. Kanpoko enpresa batzuen ardurapean daude garbiketara eta lorategia zaintzea.

Egoiliar/langile ratioa (0,37) ez da iristen 218/1990 dekretuak ezarritako gutxienez (0,4), baina kontutan hartu behar da garbiketako kanpoko enpresa baten esku dagoela.

1. PAF

Ezaugarri fisiko eta arkitektonikoen maila bataz-besteko normalaren azpitik geratzen da, alderdi guztiei begira.

Lehenago ere adierazi dugunez, komunitatearen eskuragarritasuna txikia da (1. puntua). Etxeak baditu oinarriko erosotasunak: besaulkiak, kalefazioa, kanpoaldea eserleku eta lorategiaz; baina beste batzuk ere falta ditu: egoiliarren erabilera pribaturako telefonoa -bada bat egongelara eta beste bat zuzendaritzaren bulegoan-, kalefazioaren kontrola geletan, gozokiak edo alkohol gabeko edariak saltzeko makinak, etab.

Astialdirako dauden instalakuntza bakarrak kanpoaldea, egongela eta telebistak dira.

Laguntza teknikoak eta bideratzekoak ez dira oso onak, eta segurtasun neurriak ere ez dira egokiak. Ez dago zoru ez-irristakorrik, ez eta txirrinik bainugeletan, edota kea antzemateko tresnarik, piktogramarik, etab. Hala ere, egia da langileak uneoro egoten direla adi egoiliarrekin.

Langileek ez dute beraienezako egongelarik, eta dauden bulego bakarrak bi sendagile eta zuzendarienak dira. Laguntzaileek zoko txiki bat daukate eskailera ondoan, kafea hartzeko aukerakoa.

Espazioa nahiko txikia da, bai 218/1990 dekretua, bai arau-terlatua ere kontutan hartuz (8. puntua).

2. POLIF

Grafiko honetan ikus daitekeenez, puntuaziorik handienak osasun-zerbitzuei eta eguneroko bizitzarako laguntzei dagozkie, baina kontutan hartzen badugu laguntzadun egoitza dela, balorazio estandarra ez da bataz-besteko normalera iristen: ez dago birgaitze-zerbitzurik, ez eta lanaren bidezko terapiarik edo psikoterapiarik ere. Eguneroko bizitzarako laguntzei begiratzen badiegu, oinarriko beharrezkoak beteta daude: arropa-garbiketako, garbitasuna, jantokia, banan-banako zaintza; aldiz, ez dago legezko edo finantzarako aholkularitza zerbitzurik, esate baterako.

Antolakuntza eta arauak zuzendaritzaren esku daude, eta egoiliarrek ez dute parte handirik hartzen horietan.

Ordutegi finkoak daude jateko, bainatzeko, oheratzeko eta jaikitzeo; etxe barruan ezin da alkoholik edan, ez eta erre ere; geletan ezin da janaririk gorde, altzariak lekuz aldatu, ez eta norberaren gauzak instalatu ere; egongeletan giro-musika egoten da beti. Egunez, egoiliarrek ezin dira beren geletan

oheratu, ez eta egon ere; arrazoi moduan, esan zitzaigun horrela gauean aitona-amonek hobeto egiten dutela lo.

Intimitatea ere ez da oso handia; banakako gela bakar bat dago, eta egoiliarrek ez daukate beren gelako giltzarik.

Langileek ez dute bilerarik edota batzar orokorrik egiten, eta ez dago instrukzio-eskulibururik edota argibide-orririk, etabar ere.

Astaldian egiten diren ekintza bakarrak, asteroko meza eta, halako egun berezi batzuetan, jai batzuk besterik ez dira.

3. RESIF

Nahiko puntuazio txikia du 1. neurgaiak; izan ere, profesional-mota gutxi dago: osasun-laguntzaile batzuk, denak emakumezkoak, eta bi sendagile.

Egoiliarren trebetasun funtzionala oso txikia da; gehienek (%90tik gora) laguntza behar izaten dute beren burua zaintzeko eta beren eguneroko zereginetan moldatzeko, eta %80k buru-nahasketa dute.

Jarduerak-maila ere txikia da: telebista ikusi eta, eguraldi ona eginez gero, kanpoaldera irten besterik ez dute egiten. Lehenago adierazi dugunez, komunitatean oso gutxi integratuta daude egoiliarrek; haietako hiru bakarrik irteten dira egoitza-esparrutik kanpo ibiltzera.

Egoiliar gutziek hartzen dute botika-motaren bat, sendagileen kontrolpean; osasun-laguntza jarraitua jasotzen dute, nahiz eta kontsultan egunez hiru pertsona bakarrik hartzen diren, gutxi gorabehera; oso gutxitan gertatzen da larrialdirik.

Grafiko honetan ikus daitekeenez, astialdirako dauden aukeretan egoiliarrek izaten duten partehartzea batzabesteko mailara iristen da, baina nahiko eskaintza murrizta dagoela hartu behar da kontutan.

4. SCES

Bi egoiliarri eta lau osasun-laguntzailerri egindako elkarrizketen emaitza da grafiko hauetan agertzen duguna. Zuzendariak ez zigun langile gehiagorekin hitzegiten utzi egoiliarrei eman beharreko atentzioari denbora kenduko geniolako.

Egoiliar gehiagorekin ere ezin izan genuen hitzegin borondatezko gehiagorik ez genuelako lortu hitzegiteko moduan zeudenen artean.

Ikus daitekeenez, bai batzuen, bai besteen iritziz, taldearen batasuna eta egoiliarren arteko harremanen maila nahiko txikiak dira; gauza berbera uste dute egoiliarren burujabetasunaz edo beren kasako ekimen-mailaz ere.

Langileen ustez, batzabestekoaren gaineratik dago gatazken, eztabaiden eta kexuen maila; egoiliarrek, aldiz, ez dute horrelakorik uste, eta batzabestekoaren azpitik geratzen da.

Langileen ustez, egoiliarrek maila altuagoan azaltzen dituzte beren arazok, sentimenduak edo kexuak, baina, hala ere, puntuazio estandar txikiagoa dauka, langileak nahiko baikorrak direlako alderdi hau balioztatzean.

Zentruaren antolakuntza, plangintza eta jardunari dagokienez, gure galderi erantzun zieten egoiliarrek eta langileek pozik daudela esan ziguten, niahiz eta denek aitortu diziplina ere eskatzen zaiela.

Gure galderi erantzun zieten langileen iritziz, egoiliarrek berek uste baino eragin handiagoa dute zuzendaritzan. Horixe ikusten dugu 6. puntuari.

Azkenik, gure galdeketa parte hartu zuten egoiliarrak laguntzaileak baino zorroztagoak dira egoitzaren inguru fisikoarekin, batez ere espazio eta intimitate faltagatik.


5. RS

Ikuskatzaileen iritziz, egoitzaren inguru fisikoa batz-bestekotik hurbil dago, edertasunari, aldameneko lurri, garbitasunari, argitasunari eta zaratari erreparatuz gero. Alderdiri txarrena egoitzaren barruan batzuetan egoten den zarata da, erotasun-maila aurreratu samarra daukatenean egiten dituzten oihuek eta nahigabeko soinuek sortutakoa.


Giro-ugaritasuna ere txikia da: gelak hotzak dira, altzari gutxi dituzte eta pertsonalizatu gabe daude.

Egoiliarren itxura txukuna eta garbia da, baina egonean egoten dira denbora guztian, egongelako besaulkietan eserita, eta egoiliarren arteko harremanak ere urriak dira.


Langileen jardunaren puntuazioa batz-bestearen gainetik dago; izan ere, osasun-laguntzaileak etengabe egoten dira egoiliarren esku, eta askotan egoten dira haiekin, besotik helduta paseoak emateko, esate baterako.




1. Komunitatearen eskuragarritasuna
2. Erosotasuna
3. Astialdirako laguntzak
4. Mugitzeko laguntzak
5. Bideratzeko laguntzak
6. Segurtasuna
7. Langile-gelak
8. Espazioa




1. Eskakizun funtzionalak
2. Jarrera okerren onarpena
3. Aukeratzeko askatasuna
4. Antolakuntzan parte hartzeko aukera
5. Antolakuntzaren argitasuna
6. Intimitatea
7. Osasun zerbitzuak
8. Eguneroko bizitzarako laguntza
9. Astialdirako aukerak




1. Langileen ezugarriak
2. Egoiliarren trebetasun funtzionala
3. Egoiliarren jarduera-maila
4. Egoiliarren integrazioa komunitatean
5. Osasun-zerbitzuen erabilera
6. Eguneroko bizitzarako laguntzen erabilera
7. Astialdirako ekintzen erabilera



1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna



- 1. Taldearen batasuna
- 2. Gatazkak
- 3. Burujabetasuna
- 4. Arazoen azalpena
- 5. Antolakuntza
- 6. Egoiliarren eragina
- 7. Erosotasuna



1. Egoitzaren edertasuna
2. Giro-ugaritsuna
3. Egoiliarren jarduna
4. Langileen jarduna

SAN PRUDENTZIO EGOITZA

Helbidea: Frantzia kalea, 35 (Vitoria-Gasteiz)

Jabetza: Publikoa (udalarena)

Egoiliarrak: 255

Egoiliar bakoitzeko barne-azalera: 44,5 m²

Gelak: Banakakoak: 235

Binakakoak: 10

Bainugela osoak: 27

Komunak: 274

Dutxak: 13

Bainugela geriatrikoak: 8

Egoiliar bakoitzeko langileak: 0,31

Langileak: Zuzenean arreta ematen dutenak: 48

Langile laguntzaileak: 33

San Prudentzio egoitza Gasteizko Frantzia kalean dago; Udalaren zerbitzua da eta adineko 255 gizon-emakume bizi dira bertan. Eraikuntzak bost solairu ditu eta, gainera, erizaindegia, arestian berritua, arazo fisiko zein psiki-koengatik laguntzaren beharrik handiena daukaten aiton-amonentzat bereziki. Banaketa hori langileen lana errazteko asmoz egina da, baina egoiliarrek ez dute begi onez ikusten. Antzeko beste egoitza batzuetan gertatzen den bezalaxe, "erizaindegiko" egoiliarrek baztertuak sentitzen dira, oso gutxitan irteten dira beren solairutik, eta, haietako baten hitzak erabiliz, "heriotzaren ataria" deitzen diote.

Eraikuntzaren barruan 235 banakako gela daude, bai eta beste 10, binakakoak, senar-emazteek beteak. Egoiliar bakoitzeko azalera 218/1990 dekretuak ezarritakoa baino handiagoa da. Baditu bi egongela, hiru ekintza-gela eta sei jantoki, solairu bakoitzean bana.

Langileen artean osasun-laguntzaileak, erizainak, sendagilea, jarduera-bidezko terapeuta, gizarte-laguntzailea, garbitzaileak, sukaldariak eta administrazioak daude.

Langileak/egoiliarrek ratioa 218/1990 dekretuak ezarritakoa baino handiagoa da.

1. PAF

Ezaugarri fisikoen maila ia erabat geratzen da bataz-bestekoaren gainetik. Komunitatearen oinarriko zerbitzuetatik hurbil dago, eraikuntza atsegingarria da eta erosotasun ugari ditu; baditu laguntza teknikoak, bideratzeko laguntzak eta funtsezko segurtasun-neurriak: segurtasun-hagak, heldulekuak, zoru ez-irristakorrek, kea antzemateko tresnak, etab.

Badaude langileentzako egongelak, bai eta zuzendariaren eta gizarte-laguntzailearen bulegoak ere, idazkaritza eta bilera-aretoa.

Espazioari dagokionez, hau da, gelen ugaritasuna eta egoiliar bakoitzeko azalera batz-bestekotik oso hurbil daude; beharbada, gela txikiak falta dira, talde txikien intimitaterako.

Astialdirako instalakuntzak portzentaien arabera batz-bestekoaren gainetik dago, baina, hala ere, arauzko datuei begira, ez da oso altua honelako egoitzen kasuan.

2. POLIF

Antolakuntzari buruzko politikari, egoiliarrek parte hartzeko bitartekoei, komunikazio-bideei eta nork bere bizi-erritmua edo ordutegia aukeratzeko askatasunari dagokienez, egoitza hau batz-bestekoaren azpitik geratzen da.

Ikerketa egin genuenean ez zegoen aginte-batzarrik ez eta egoiliarren batzorderik ere, baina bilerak bai, egiten zituzten, sarri askotan gainera, bilera orokorrak eta solairuka egindakoak.

Era berean, langile laguntzaileek ere egiten zituzten bilerak, egoiliarrentzako atentzioari buruzko gaiak jorratzeko.

Intimitatea handi samarra da hemen, gela gehienak banakakoak direlako -binakakoetan senar-emazteak bizi dira-, eta egoiliarrek badituzte beren geletako giltzak.

Osasun-zerbitzuen maila nahiko handia da, 7. puntuak adierazten duen bezala: badaude sendagilea, erizainak, lanaren bidezko terapeuta, eta birgaitze-zerbitzuak ere eskaintzen dira. Handia da, baita ere, eguneroko bizitzarako laguntzen maila (8. puntua), honelako egoitzetan ohizkoa denez.

Aukera handia dago astialdirako: eskulanak, kantu-taldeak, filmeak, mezak, jaiak, hitzaldiak, etab.; aldizka antolatzen dira, eta badaude ume-eskola batzuekin batera egiten diren beste esperientzia batzuk ere.

3. RESIF

Egoiliar guztien-batz besteko trebetasun funtzionala %45eraino iristen da. Egoitza mistoa izanik, eta kontutan hartzen badugu sartzeko ez dela inolako maila funtzional berezirik eskatzen, era askotako burujabetasun mailak aurkitu ditugu egoiliarren artean. Nolabaiteko buru-nahasketa daukaten pertsonen ratioa 1/3koa da, hau da, hirutik bat.

Grafiko honetan ikusten denaren arabera, azpimarratzekoa da egoiliarrak nahiko pasiboak direla bai egoitza barruan (3. puntua), bai kanpoan ere (4. puntua) antolatzen diren ekintzetan beren kasa parte hartzeko orduan. Halaber, geldotasuna nahiko handia da egoitzako langileek antolatutako ekin-

tzetan (7. puntua), nahiz eta eskaintza zabal samarra egon (POLIFeko 9. puntua).

4. SCES

Bi grafiko hauetan ikusten denez, egoiliarrek eta langileak ez datoz bat egoitza barneko giroari buruz: baikorrakoak dira lehenak beraien arazo, kexa eta sentimenduen azalpenean eta, oro har, antolakuntzan, baina beraien eragina nahiko txikia dela uste dute. Gauzak horrela, esan liteke konforme daudela beren partaidetza txikiarekin.

Langileak, ordea, kritikoagoak dira antolakuntzarekin, eta, haien iritziz, egoiliarrek beraien uste baino botere handiagoa dute, baina erreferentziatzat hartutako batz-beste normalera iritsi gabe.


Denek ikusten dute nola edo hala gertatzen direla gatazkak, eztabaidak, kritikak eta jarrera okerrak, eguneroko bizitzaren ondorioz.

Erosotasunari buruz bi taldeek daukaten ustea (7. puntua) ona da porzentaiatan neurtuz gero, baina ez da batz-bestearen mailara iristen arazuko datutan emanda. Eraikuntza nahiko egoera onean badago ere, ez dute erosotzat jotzen eta ez dute etxeko girorik aurkitzen.

5. RS


Neurgai guztiak batz-bestekotik hurbil daude. Nabarmen samarra da giroen ugaritasuna. Gela gehienak banakakoak izanik, nolabaiteko pertsonalizazioa badagoela esan daiteke (2. puntua).

SAN PRUDENTZIO EGOITZA




1. Komunitatearen eskuragarritasuna
2. Erosotasuna
3. Astialdirako laguntzak
4. Mugitzeko laguntzak
5. Bideratzeko laguntzak
6. Segurtasuna
7. Langile-gelak
8. Espazioa

SAN PRUDENTZIO EGOITZA




1. Eskakizun funtzionalak
2. Jarrera okerren onarpena
3. Aukeratzeko askatasuna
4. Antolakuntzan parte hartzeko aukera
5. Antolakuntzaren argitasuna
6. Intimitatea
7. Osasun zerbitzuak
8. Eguneroko bizitzarako laguntza
9. Astialdirako aukerak




1. Langileen ezugarriak
2. Egoiliarren trebetasun funtzionala
3. Egoiliarren jarduera-maila
4. Egoiliarren integrazioa komunitatean
5. Osasun-zerbitzuen erabilera
6. Eguneroko bizitzarako laguntzen erabilera
7. Astialdirako ekintzen erabilera

SAN PRUDENTZIO EGOITZA




1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna



1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

SAN PRUDENTZIO EGOITZA



1. Egoitzaren edertasuna
2. Giro-ugaritsuna
3. Egoiliarren jarduna
4. Langileen jarduna

SAN JUAN BAUTISTA DOHATSUAREN OSPITALE SAINDUA

Helbidea: General Castaños, 75 (Portugalete)

Jabetza⁵: Pribatua (subentzionatutako 60 postu eta banakako beste 25 gela pribatu)

Egoiliarak: 85

Egoiliar bakoitzeko barne-azalera: 17,85 m²

Gelak: Banakakoak: 30

Binakakoak: 1

Askotarikoak (4, 20 eta 22 ohe): 4

Bainugelak: 39

Egoiliar bakoitzeko langileak: 0,30

Langileak: Zuzenean arreta ematen dutenak: 14

Langile laguntzaileak: 39

Egoitza hau hiriko erdialdean dago, baina kanpoaldetik zuhertasunez isolatua. Esparru zabala dauka lorategi, pasealeku eta eserlekuez. Kaletik erai-kuntzara sartzeko aldapa nahiko handia dago. Sarrera nagusian eskailera zati bat dago aukerako arranparik gabe. Badira beste sarrera batzuk, baina guztietan igo edo jaitsi behar dira eskailerak.

Eraikuntzak hiru solairu ditu, eta hirugarrenean emakumeentzako 25 gela daude, banakakoak eta jabetza pribatukoak. Gainerako bi solairuetan, egoiliarak sexuaren arabera banatuta daude.

Guztira 35 gela daude: banakako 30 (25 zati pribatuan), binakako bat, launakako bi eta beste logela zabal pare bat, 20 eta 22 ohe dituztelarik. Gainera, badira hiru jangela, solairu bakoitzean bana. Ikerketa egin genuenean, 85 pertsona bizi ziren egoitzan.

Azalera, guztira, 218/1990 dekretuak ezarritakoa baino handiagoa da.

Egoitzan lan egiten dutenak 16 langile kontratatu (osasun-laguntzaileak, garbitzaileak, sukaldariak, plantxatzailea, arropa-garbitzailea eta ordezko bat) eta egoitzan bizi diren 10 monja dira. Gainera, bi sendagilek beren borondatez kontsulta pasatzen dute egunero, eta udaldian 15 pertsona inguru joaten dira eginbeharrekoetan laguntzera eta egoiliarrekin egotera. Egoiliarrek/langileak ratioa 218/1990 dekretuak ezarritakoa baino handiagoa da.

Egoiliarren trebetasun funtzionala arauzko batz-bestekotik hurbil dago. Nola edo halako nahasmendua jasaten duten egoiliarrek hirutik bat dira (1/3).

⁵Jabetza juridikoa pribatua da, nahiz eta, berez, 25 gela pribatuak alde batera utzirik, udal egoitza publiko baten antzera jardun.

1. PAF

Inguru fisikoaren mailari dagokionez, egoitza nahiko leku onean dagoela esan daiteke: hiriko erdialdean eta komunitateko zerbitzuetatik hurbil. Espazioari dagokionez, hau da, egoiliar bakoitzeko dagoen azalera, eta, beste-tik, gelen ugaritasuna batz-besteko normalera iristen dira.

Gainerako neurgaiak, ostera, batz-bestekoaren azpitik geratzen dira, ez baitago astialdirako instalaziorik, joko-lekurik, laguntza teknikorik, biderapene-rako laguntzarik -piktogramak, txartelak, etab.-, laguntzarik gabe mugitzeko askatasunik -zoru ez-irristakorrek, txirrinak bainugeletan, heldulekuak, etab.-, segurtasunik -kea antzemateko tresnarik, suaren kontrako aterik, etab.-, zuzen-arreta ematen duten langileentzako bilera-gelarik, ez eta egoitza eroso-a goa egiten duten bestelako elementurik: sukalde txikiak, garbitokiak, gozokiak edo alkoholik gabeko edariak saltzeko makinak, etab.

2. POLIF

Grafiko honetan, neurgai guztiak batz-bestekoaren azpitik geratzen dira, osasun-sorospena izan ezik (7. puntua): izan ere, borondatezko bi sendagilek pasatzen dute kontsulta egunero egoitzan bertan eta larrialdiez ere arduratzen dira.

Antolakuntza eta kudeaketa aginte-batzarraren esku daude, eta egoiliarrek ez dute inolako ordezkariak; ez da batzarrik, ez langile-bilerarik ere egi-ten.

Nahiko aukera gutxi dago ordutegia, gelen antolakera etab. nork bere gustora hautatzeko, eta nahiko gutxi onartzen dira jokaera okerrak, hau da, sesioak, alkohola edatea, etab.

Intimitatea ere batz-bestekoaren azpitik dago: badaude banakako 30 gela, baina baita 22 ohe dituen logela bat ere; oheak banatzeko bionbo batzuk daude eta, beraz, ezin esan daiteke intimitate handia edukitzeko modua dagoe-nik.

Eguneroko bizitzarako laguntzaren maila batz-bestekotik hurbil dago, antzerako beste egoitzetan bezala.

Nahiko txikia da 9. puntuaren maila, alegia, astialdirako aukerak: meza egunero eman, besterik ez da egiten. Alabaina, noizean behin jaiak, jaialdiak, mintzaldiak etab. ere antolatzen dira.

3. RESIF

Ekintzetan egoiliarrek duten partaidetza-maila batz-bestekoaren gainetik dago, baina kontutan izan behar da maila hori ekintza-eskaintzaren arabera-koa dela, POLIFeko 9. puntuaren ikusi den bezala; kasu honetan, meza eman

besterik ez da egiten, eta jaiak, mintzaldiak eta gainerakoak oso tarteka egiten dira urtean zehar. Hortaz, esan daiteke egoiliarrek biziki parte hartzen dutela eskaintzen zaien apurrean.

3. eta 4. puntuetan ikus daiteke egoiliarren geldotasuna, bai egoitza barruan, bai kanpoan. Erdiak baino gehiago ez dira inoiz ere irteten egoitzaren esparrutik, eta telebista ikusi eta lagunekin egotea da gehienbat egiten dutena.

Osasun-zerbitzuen erabilera eta eguneroko bizitzako beharretarako laguntza batz-bestekotik hurbil daude.

4. SCES

Egoiliarrek eta langileek barneko giroari buruz dituzten usteak parekatzen baditugu, haien artean alde batzuk badirela ikusiko dugu.

- Egoiliarren esanetan, langileek dioten baino gatazka maila handiagoa dago: eztabaidak, kexuak, kritikak, etab.

- Egoiliarren arazo, sentimendu eta kexen azalpenari dagokionez, iritzi hobea dute egoiliarrek berek; langileek, ordea, itxiagoak direla uste dute.

- Egoiliarren eta langileen arteko harremanak balioztatzeko orduan, egoiliarrek baikorrak dira, edo, beharbada, etsipen handiagoa erakusten dute.

Batzuek bezala besteek ere batz-bestekoaren azpitik jartzen dute egoiliarrek ekintzetan parte hartzeko duten burujabetasuna, bai eta haien eragina ere. Beste horrenbeste gertatzen da egoiliarrek egoitzaren antolakuntzan eta zuzendaritzan parte hartzeari dagokionez ere.

Bi taldeak bat datoz eraikuntzari berari buruz duten iritzian: erosotasunak, beroa, argia, apaingarriak, etab.; nahiko puntuazio handia ematen diote por-tzentaiatan, baina ertaina, besterik ez, arauzko taula erreferentziatzen hartuz gero.


5. RS

Kanpoko ikuskatzaileen arabera, eraikuntzaren inguru fisikoa batz-bestekotik hurbil dago. Erdialdean kokatuta dago, kanpoalde atsegina dauka, barruan ez da zaratarik edo usainik antzematen, nahiko txukun eta garbi dago, baina argi gutxiko leku batzuk ere badaude. Beste alde batetik, kanpotik dituen sarrerak ez dira oso onak, eta barruan badira eskailerak ere, igogailua egon arren, derrigorrez igo edo jaitsi behar direnak.


Giro-ugaritasuna txikia da; oso giro instituzionalizatua dago, gehiegi per-sonalizatu gabea.

Azkenik, 3. puntuak egoiliarren geldotasuna eta haien arteko harreman falta erakusten dizkigu. Hala ere, 4. puntuak azaltzen duen bezala, langileek nahiko jarrera ona dute egoiliarrekin, oso beroa, ia-ia gurasokeriatik hurbil dagoena.


SAN JUAN BAUTISTA DOHATSUAREN OSPITALE SAINDUA




1. Komunitatearen eskuragarritasuna
2. Erosotasuna
3. Astialdirako laguntzak
4. Mugitzeko laguntzak
5. Bideratzeko laguntzak
6. Segurtasuna
7. Langile-gelak
8. Espazioa




1. Eskakizun funtzionalak
2. Jarrera okerren onarpena
3. Aukeratzeko askatasuna
4. Antolakuntzan parte hartzeko aukera
5. Antolakuntzaren argitasuna
6. Intimitatea
7. Osasun zerbitzuak
8. Eguneroko bizitzarako laguntza
9. Astialdirako aukerak



1. Langileen ezugarriak
2. Egoiliarren trebetasun funtzionala
3. Egoiliarren jarduera-maila
4. Egoiliarren integrazioa komunitatean
5. Osasun-zerbitzuen erabilera
6. Eguneroko bizitzarako laguntzen erabilera
7. Astialdirako ekintzen erabilera




- 1. Taldearen batasuna
- 2. Gatazkak
- 3. Burujabetasuna
- 4. Arazoen azalpena
- 5. Antolakuntza
- 6. Egoiliarren eragina
- 7. Erosotasuna



1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

SAN JUAN BAUTISTA DOHATSUAREN OSPITALE SAINDUA



1. Egoitzaren edertasuna
2. Giro-ugaritsuna
3. Egoiliarren jarduna
4. Langileen jarduna

ARABA KLINIKA

Helbidea: Salvatierrabide, 9 (Vitoria-Gasteiz)

Jabetza: Pribatua (Foru Aldundiaren eta Gizarte Segurantzaren bidez edota zuzenean ere sar daiteke)

Egoiliarrak: 119

Egoiliar bakoitzeko barne-azalera: 42 m²

Gelak: Banakakoak: 1

Binakakoak: 62

Bainugelak: 63

Bainugela geriatrikoak: 1

Egoiliar bakoitzeko langileak: 0,6

Langileak: Zuzenean arreta ematen dutenak: 50

Langile laguntzaileak: 26

125 postu dituen bitariko egoitza da -horietatik 80 laguntzadunentzat dira eta 40, berriz, IV A konplexutasun-mailako ospitale bereziari dagozkio-; hiria- ren kanpoaldeko auzo batean kokatua dagoena, zirkulazio handiko errepide baten ondoan.

Hesi batek mugatzen ditu eraikuntza eta bere inguruko lurrak, baina kanpoaldetik ongi isolatu gabe. Egoitzaren esparruaren kanpoaldean belargune bat dago, eserleku batzuekin, baina ez dago mahairik, ez aulkirik, ez eta eguzkitarako itzalperik ere.

Eraikuntzaren sarrera nagusian lehen solairuko pasabidera zuzenean daramaten eskailera batzuk daude eta ez dago bebarrurik. Aukerako arranpa batek igogailu batera bideratzen du; berau derrigorrez zeharkatu beharra dago sarrera nagusira iristeko.

Eraikuntzak hiru solairu ditu. Behekoan egongela, birgaitze-gela, jangela, etab. daude. Lehenengoa laguntzaren beharrik handiena daukaten egoiliarrena da; berauek beren geletan egiten dituzte otorduak. Bigarren solairuan bizi direnek ez dute laguntzarik behar izaten ibiltzeko, eta denentzako jangelara jaitsi ohi dira otorduak egiteko.

Ikerketa egin genuenean 119 egoiliar zeuden, binakako 62 gelatan banatuak; haien azalera 218/1990 dekretuak ezarritakoa baino handiagoa da. Bestalde, egoiliar bakoitzeko dagoen azalera ere 218/1990 dekretuak ezarritakoa baino handiagoa da.

Langileak honako hauek dira: osasun-laguntzaileak, erizainak, sendagileak eta laguntzaileak (sukaldariak, garbitzaileak, arropa-garbitzaileak eta mantentimendu-langileak). Ez dago gizarte-laguntzailerik ez eta astialdirako susperztzailerik ere. Egoiliarrek/langileak ratioa 218/1990 dekretuak honen antzeko laguntzadun egoitzetarako ezarritakoa baino handiagoa da.

Egoiliarren artetik %70ek jasaten dute nola edo halako buru-nahasketa, Centre of Policy on Ageing delakoak elkarbizitza-arazorik ez gertatzeko gomendatzen duen ratioa (1/5) baino handiagoa, beraz.

1. PAF

Ezaugarri fisiko eta arkitektonikoen mailari bagagozkio, arauak dioena baino espazio erabilgarri gehiago dago, baina hainbat baliabide ere falta ditu: laguntza teknikoak, bideratzeko laguntzak, segurtasun-neurriak eta astialdirako materialak. Gurpil-aulkiak ez dira geletako bainuetan sartzen, ez dago zoru ez-irristakorrik, ez eta txirrinik ere bainugeletan. Entzumen arazoak dauzkaten pertsonentzat ez dago soinu-kontrola duen telefonorik. Orobat, ez dago bideratzen laguntzeko piktogramarik edo iragarki taularik ere, eta egoiliarren izekik ez da agertzen haien logeletako atean.

Hiriaren kanpoaldeko auzo batean dagoenez, egoitza hurbil badira zenbait gizarte-baliabide: dendak, tabernak, ospitalea; dena dela, ez dago behar bezain txertatua komunitatean.

2. POLIF

Dagokion grafikoan ikus daitekeen bezala, egoiliarren partaidetza nahiko txikia da, ez dago aginte-batzarrik eta komunikaziorako eta ideiak zabaltzeko bide gutxi daude, hau da, bilerak, batzarrak, berri-papera, etab. (4 eta 5. puntuak).

Nahiko gutxi dira, halaber, astialdirako aukerak; bakar-bakarrik, gimnasia egiten duen talde bat dago, bai eta beste bat ere eskulanak egiten dituen. Eguneroko bizitzarako laguntza, bestalde, kontutan hartuz laguntzadun egoitza bat dugula, batzabestekoaren azpitik dago. Dagoen hutsunerik nabarmenena erosketak egitera joateko laguntzarik eza da.

Arauetatik kanpoko jarrerak (eztabaidak eta sesioak sortu, bainua hartze-ari uko egin, etab.) nahiko maila txikian onartzen dira.

Lehenago ere esan den bezala, gela guztiak binakakoak dira eta ateak irekita egon ohi direnez, intimitatea ere nahiko txikia da (6. puntua).

Ez dago birgaitze-zerbitzurik, ez eta lanaren bidezko terapiarik edo psikoterapiarik ere; gauzak horrela, osasun-zerbitzuen neurgaia ez da iristen puntuazio estandarrean.

3. RESIF

Langileen ezaugarriei buruzko neurgaia arauaren azpitik geratzen da, ez dagoelako gizarte-laguntzailerik, psikologorik, ez eta lanaren bidezko terapeutarik, astialdirako suspertzailerik edo borondatezko langilerik ere.

Egoiliarren trebetasun funtzionala, haien burujabetasuna alegia, txikia da; %80k laguntza behar izaten dute jateko, jatzeko, beren burua garbitzeko, ohetik altxatzeko eta oheratzeko, etabar.

Egoiliarrek oso gutxitan egiten dute ezer beren kasa, bai egoitza barruan, bai kanpoan ere (haien artetik %80 ez dira inoiz ere irteten kanpora). Hala eta guztiz ere, antolatzen diren ekintzak nahiko gutxi izan arren (POLIF, 9. puntua), noizean behin egiten diren jai eta ikuskizunak besterik ez, partaidetza araua baino zertxobait handiagoa da (7. puntua).

Eguneroko bizitzarako laguntzaren maila txikia da (POLIF, 8. puntua), baina haien erabilpen maila nahiko handia; nagusiki, egoiliarrak zaindu, gelak txukundu, arropa garbitu, eta janaria ematea dira eskaintzen direnak.

4. SCES

Grafiko honetan egoiliarrek eta langileek egoitza barruko giroaz zer uste duten ikus daiteke.

Bai batzuek, bai besteek uste dute nahiko harreman eta laguntza maila txikia dagoela, baina langileek dute iritzirik txarrena (1. puntua). Ikusi dugun gatazka maila bataz-besteko normalarena da (2. puntua).

Era berean, langileek eta egoiliarrek, baina bereziki berauek, urri samartzat jotzen dute egoiliarren burujabetasuna, bai eta haien ekimena ere.

Egoiliarren eta langileen haserre eta kritiken azalpena, arauzko datutan emanda, puntuazio ertainera iristen da.

Egoiliarrek langileek baino iritzi hobea dute egoitzaren antolakuntzaz; hala ere, guztiek uste dute egoiliarrek apenas dutela eraginik antolakuntza horretan.


Azkenik, egoiliarrek eta langileek uste dute erosotasun maila txikia duela egoitzak; batez ere langileek azaltzen dute iritzi hori.

5. RS


Grafiko honetan ikusten dugunez, ikuskatzaileen arabera, egoitzaren erosotasuna eta atsegingarritasuna -argiak, usainak, zaratak- araua baino txikiagoak dira.

Orobat, giro-ugaritasuna ere txikia da, egoitzak ospitale itxura dauka, eta nahiko nabarmena da pertsonalizaturik gabe dagoela.


Egoiliarrek nahiko jarrera maila txikia dutela ikusten da, askok laguntza-beharrak izaten dutelako, eta langileek ez dutelako horretan laguntzeko modu handirik edukitzen. Batzuen eta besteen arteko harremanen maila eskaxa da, eta batzuetan harremanak ez dira ongi zaindu ere egiten.




1. Komunitatearen eskuragarritasuna
2. Erosotasuna
3. Astialdirako laguntzak
4. Mugitzeko laguntzak
5. Bideratzeko laguntzak
6. Segurtasuna
7. Langile-gelak
8. Espazioa




1. Eskakizun funtzionalak
2. Jarrera okerren onarpena
3. Aukeratzeko askatasuna
4. Antolakuntzan parte hartzeko aukera
5. Antolakuntzaren argitasuna
6. Intimitatea
7. Osasun zerbitzuak
8. Eguneroko bizitzarako laguntza
9. Astialdirako aukerak




1. Langileen ezugarriak
2. Egoiliarren trebetasun funtzionala
3. Egoiliarren jarduera-maila
4. Egoiliarren integrazioa komunitatean
5. Osasun-zerbitzuen erabilera
6. Eguneroko bizitzarako laguntzen erabilera
7. Astialdirako ekintzen erabilera



1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna



1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna



1. Egoitzaren edertasuna
2. Giro-ugaritsunā
3. Egoiliarren jarduna
4. Langileen jarduna

ZORROAGA EGOITZA

Helbidea: Zorroaga gaina, z/g (Donostia)

Jabetza: Pribatua

Egoiliarrak: 320

Egoiliar bakoitzeko barne-azalera: 48,98 m²

Gelak: Banakakoak: 70

Binakakoak: 104

Hirunakakoak: 14

Bainugelak: 151

Bainugela geriatrikoak: 1

Egoiliar bakoitzeko langileak: 0,25

Langileak: Zuzenean arreta ematen dutenak: 34,5

Langile laguntzaileak: 57,15

“Burujabeentzako” egoitza hau Zorroaga gainean dago, Donostian, hiri-ko erdialdetik urrun xamar, baina badu autobus bat egoiliarrentzat.

Bi eraikuntza ditu, eta bien artean 320 egoiliar bizi dira. Haietako batean 52 gizon-emakume, erabat beren buruen jabe direnak, eta gainerakoak bestean. Beste honek hiru solairu ditu; lehenengoan erizaintza dago, eta haren barruan bi atal desberdin: batean 36 emakume bizi dira, eta bestean 38 gizon, nolabaiteko laguntza-beharra daukatenak; guzti-guztiak beren solairuan egon ohi dira beti, eta solairua giltzapeturik egoten da, nahasmendua jasaten dutenek aldegin ez dezaten.

Guztira 188 gela daude: banakako 70, binakako 79 eta hirunakako 39. Egoiliar bakoitzeko azalera, guztira, 218/1990 dekretuak eskatzen duena baino handiagoa da.

Egoiliarrak/langileak ratioa 0,25ekoa da, hain zuzen ere 218/1990 dekretuak “burujabeentzako” egoitzei ezartzen dien gutxieneko maila. Langileen artean badaude laguntzaileak, erizainak, sendagilea, gizarte-laguntzailea, kultur suspertzailea, psikologoa, podologoa, astialdirako suspertzailea eta langile laguntzaileak.

1. PAF

Grafiko honetan ikus dezakegunez, nahiko gutxi dira egoiliarrak bideratzeko dauden laguntzak, hau da, piktogramak, txartelak, iragarki taulak; beste horrenbeste gertatzen da segurtasun-neurriekin: eskailera eta bainuetan zoru ez-irristakorrak, txirrinak bainuetan eta kea antzemateko tresnak.

Espazio erabilgarria batz-bestekoaren gainetik dago, bai egoiliarrentzat, bai langileentzat dagoena ere; azken hauek bulegoak, egongelak eta bilera-gelak dauzkate. Gainerako osagaiak, bestalde, batz-besteko normaletik hurbil daude.

2. POLIF

Alderdi onen artean, nabarmentzekoak dira osasun-zerbitzuak; izan ere, egoitza honek baditu sendagilea, erizainak, lanaren bidezko terapia, bai eta birgaitze-zerbitzua ere, nahiz eta honek hornigai edo tresneria gutxi eduki.

Alderdi txarren artean, aldiz, esan behar da egoiliarrek nahiko aukera gutxi daukatela egoitzaren jardunean parte hartzeko: ez dago aginte-batzarrik, eta zuzendaritza-batzarraren bileretan egoiliar bakar batek parte hartzen du, eskatu zuelako. Langileek ere ez dute bilerarik egiten, eta ez dago komunikaziorako bestelako biderik.

Jarrera-arazoak gertatzen direnean -alkohola edatea, adibidez-, nahiko onarpen maila txikia ikusi dugu. Batzuetan, zigorrak ere jartzen zaizkie: egoitzatik irteeta galerazi, esate baterako.

Gainerako neurgaiak batz-bestekoaren azpitik geratzen dira. Astialdirako honako aukera hauek daude: eskulanak, karta-jokoa, bingoa, mintza-taldeak, meza, gimnasia ere aldizka, bai eta, noizean behin, mintzaldiak, meriendak eta jaia ere.

3. RESIF

Grafiko honetan berriro ikusten dugu egoiliarrek nahiko geldoak direla, bai egoitza barruan (3. puntua), bai kanpoan ere (4. puntua); nahiko gutxi hartzen dute parte antolatzen diren ekitaldietan (7. puntua), nahiz eta aukera batzuk egon (POLIF, 9. puntua). Osasun-zerbitzuen erabilera batz-bestekoa baino txikiagoa da, nahiko egoiliar gutxi egiten dute birgaitzea edo lanaren bidezko terapia.

4. SCES

Langileen eta egoiliarren iritziak aztertzean, egoiliarrek ezertan jarduteko burujabetasunaz iritzi desberdinak dituztela ikusi dugu (3. puntua); izan ere, egoiliarrek iritzi okerragoa dute puntu horri buruz. Haien arazo eta sentimendu azalpenaren maila, ordea, hobetzat jotzen dute.

Langileak zorrotzagoak dira antolakuntzaz eta erosotasunaz, eta ez batzuk, ez besteek ere ez dute uste egoiliarrek eragin handirik dutenik egoitzaren antolakuntzan.

Bai langileek, bai egoiliarrek ere harreman eta elkartasun maila kaxkarra antzematen dute.


Azkenik, 2. puntuan ikus daiteke nolako iritzia duten gatazka-mailari buruz (eztabaidak, kexak, kritikak): langileen iritzi, handia da, baina, puntuazio estandarrean bilduz gero, egoiliarren iritzia baino txikiagoa; izan ere, langileek giro zailagoa aurkitzen dute normalean.

5. RS


Egoitzaren edertasunaz ikuskatzaileek duten ustea, 1 eta 2. puntuetan azaltzen dena, batz-besteko normaletik hurbil dago: etxea egoera onean dago, ez dago zaratarik, kiratsik, argi nahikoa badago eta inguruko lurrak politak dira. Egoitza barruaren itxura eta antolakera nahiko instituzionala da, handi samarra den neurrian. Ia gela guztiak berdinak dira, eta apenas duten kutsu pertsonalik.

Egoiliarren eta langileen jarduna, berauen eskuragarritasuna eta elkarren arteko harremanak batz-bestekoaren azpitik jarri dituzte; egoiliarrek, oro har, geldotasun handia azaltzen dute eta ez dute langileekin harreman sakonik, lanekoak aparte utzirik.


ZORROAGA EGOITZA



1. Komunitatearen eskuragarritasuna
2. Erosotasuna
3. Astialdirako laguntzak
4. Mugitzeko laguntzak
5. Bideratzeko laguntzak
6. Segurtasuna
7. Langile-gelak
8. Espazioa




1. Eskakizun funtzionalak
2. Jarrera okerren onarpena
3. Aukeratzeko askatasuna
4. Antolakuntzan parte hartzeko aukera
5. Antolakuntzaren argitasuna
6. Intimitatea
7. Osasun zerbitzuak
8. Eguneroko bizitzarako laguntza
9. Astialdirako aukerak




1. Langileen ezugarriak
2. Egoiliarren trebetasun funtzionala
3. Egoiliarren jardura-maila
4. Egoiliarren integrazioa komunitatean
5. Osasun-zerbitzuen erabilera
6. Eguneroko bizitzarako laguntzen erabilera
7. Astialdirako ekintzen erabilera

ZORROAGA EGOITZA




1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

ZORROAGA EGOITZA



1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna



- 1. Egoitzaren edertasuna
- 2. Giro-ugaritsuna
- 3. Egoiliarren jarduna
- 4. Langileen jarduna

AMURRIOKO EGOITZA

Helbidea: Landaburu, 2 (Amurrio)

Jabetza: Publikoa (Arabako Foru Aldundiarena)

Egoiliarrak: 39

Egoiliar bakoitzeko barne-azalera: 34,42 m²

Gelak: Banakakoak: 16

Binakakoak: 12

Bainugelak: 28

Bainugela geriatrikoak: 2

Egoiliar bakoitzeko langileak: 0,57

Langileak: Zuzenean arreta ematen dutenak: 13,5

Langile laguntzaileak: 3 + kanpoko garbiketa (6 langile)

Amurrioko egoitza erdialdetik hurbileko auzo batean dago. Eraikuntza ondoan zirkulazio handiko errepide bat dago. Hiru solairu ditu eta guztira 18 gela, banakako 16 eta binakako 12. Egoiliarrek 39 dira, eta haien burujabatasun mailan denetarik aurkitzen da, erabateko menpekotasunetik hasi eta erabateko burujabatasuneraino. Nahiko handia da nola edo halako buru-nahasqueta jasaten dutenen proportzioa, buru argia duten bi laguneko bat.

Egoiliar bakoitzeko dauden langileen kopurua 218/1990 dekretuak ezarritakoa baino handiagoa da; honako hauek dira egoitza honetan lan egiten dutenak: osasun-laguntzaileak, sukaldariak eta Osasun-Laguntzaile Tekniko (OLT) bat, zuzendari lanetan aritzen dena. Ez dago astialdirako ekitaldiez arduratzen den langilerik.

1. PAF

Grafikoan ikusten da egoitza hau bataz-besteko normaletik hurbil dagoela komunitatearen oinarriko zerbitzuen eskuragarritasunari dagokionez, bai eta pertsona ezinduek mugitzen laguntzeko neurriei dagokienez ere (4. puntua), hau da: segurtasun-hagak, heldulekuak, gorpil-aulkietarako moldatutako bainu eta logelak. Beste horrenbeste esan dezakegu pertsona bakoitzeko espazio erabilgarriari buruz.

Erosotasunari buruzko 2. puntua, aldiz, ez da bataz-besteko mailara iristen, ez baitago egoteko altzariak, lorategia eta belarra dituen kanpoalderik; bi terraza besterik ez dago.

Astialdirako instalaziorik ere ez dago; bakar-bakarrik, egongela bat, karteran aritzeko, irakurri edo idazteko eta telebista ikusteko. Egoiliarrek telebistarik ez duten beste gela batzuk ere erabil ditzakete.

“Bideratzeko laguntzak” deritzan neurgaia ez da iristen bataz-besteko mailara; iragarki-taula gehiago beharko lirake, bai eta egoiliarren eta langileen izenak eta argazkiak azaltzen dituen zerrenda bat eta harrera-leku bat; alabaina, egoitza hau txikia denez gero, beharbada neurri horiek ez dira hain

beharrezkoak. Aldiz, bai ikusi genituen txartel batzuk, nolabaiteko nahasmen-
dua daukaten pertsoneri beren geletara iristen laguntzeko.

Badira segurtasun-neurriak ere, baina ez dira iristen erreferentzia moduan
erabiltzen dugun bataz-besteko mailara: ez dago txirrinik bainugeletan, ez eta
zoru ez-irristakorrik ere eskailera eta bainugeletan.

Ez dago langile-gelarik, eta dagoen bulego bakarra zuzendariarena da.

2. POLIF

Antolakuntzari buruzko politikaren maila honelako egoitzetan ohizkoa
den bataz-bestekoaren ingurukoa da.

Ezin esan daiteke langileak zorrotzegiak edo axolagabeegiak direnik jarre-
ra-arazoekin: jarrera batzuk onartu egiten dira, eta beste batzuk ez (2. puntua).
Oro har, arauak ere ez dira oso zorrotzak (3. puntua): ez dago debekaturik al-
tzariak lekuz aldatzea edo geletan norbere gauzak jartzea, eta ez dago halako
ordutegi finkorik oheratzeko edo bisitak jasotzeko.

Antolakuntzari eta kudeaketari dagokienez, badago parte hartzeko bide
bat, aginte-batzarra (4. puntua). Langileek aldizkako bilerak egin ohi dituzte,
baina ez dago komunikaziorako bestelako biderik: barneko berri-paperik, ins-
trukzio-libururik, prestakuntza-saiorik, etab.

Intimitatea (6. puntua) nolabait errespetatu egiten dela esan daiteke: gele-
tatik erdia baino gehiago eta bainugelak banakakoak dira, baina egoiliarrek ez
daukate beren geletako giltzarik.

Egoitzan eskaintzen diren osasun-zerbitzu bakarrak erizaintza eta botiken
kontrola dira. Ematen den osasun-sorospen orokorra eta berezia ere komuni-
tatearen sarearena bera da (7. puntua).

Antzeko beste egoitza batzuetan bezalaxe, beste zenbait zerbitzu ere
eskaintzen dira: arropa garbitzeko, gelak garbitzeko, ilea mozteko, etab. (8.
puntua).

Era askotako ekintzak antolatzen dira astialdirako: ariketa fisikoa (tai-txi),
mintza-taldeak, filmeak, karta-jokoak, jaiak, erlijio-ospakizunak, eskulanak
(gero herriko merkatuan saltzen dira), eta egun osoko edo goizeko irtenaldiak.

3. RESIF

Grafiko honetan nabarmentzekoa da egoiliarrek nahiko geldotasun han-
dia azaltzen dutela ezertan jarduteko orduan, bai egoitzaren barruan (3. pun-
tua), bai kanpoan ere (4. puntua), nahiz eta komunitatearen zerbitzuak eskura-
garri samar egon (PAF; 1. puntua). Hala ere, egoitzak antolatutako ekintzetan
askoz gehiago hartzen dute parte (7. puntua). Gogora dezagun nahiko eskain-
tza zabala dagoela (POLIF, 9. puntua).

Eskaintzen diren osasun-zerbitzuen erabilera (erizaintza eta botiken kon-
trola) bataz-besteko mailaren gainetik dago, eta beste horrenbeste gertatzen da
eguneroko zerbitzuen erabilerarekin ere (5 eta 6. puntuak).

Langileen ezaugarriak (adina, sexua, lanbideak, borondatezko partaidetza) agertzen duen 1. puntuak portzentaia txikia dauka, baina batz-besteko mailatik hurbil dago, arauzko puntuaren arabera emanez gero.

Bestalde, egoiliarren ezaugarriek (adina, sexua, ikas-maila, lanbidea) puntuazio ertaina dute (8. puntua); alabaina, haien trebetasun funtzionalarena (hau da, beren kasa jantzi, jan, mugitu eta beren arazoak azaltzeko gai direnen proportzioa) txikia da honelako egoitzen arauzko puntuazioari begiratuz gero, baina batz-bestekotik hurbil samar dago, portzentaian adierazita.

4. SCES

Bi grafiko hauek aztertzean ikusten dugu langileak egoiliarrek baino zorrotzagoak direla barneko giroari buruzko zertzelada guztietan: talde-batasun txikiagoa eta egoiliarren arteko harreman maila txikiagoa ikusten dute, eta, orobat, apaltzat jotzen dituzte egoiliarren burujabetasuna eta ekimena. Antolakuntzarekin (ekintzen plangintza, gardentasuna, komunikazioa) duten adostasun maila batz-bestekoaren gainera dago portzentaian neurtuz gero, baina ez, ordea, arauzko datutan emanez gero; izan ere, erreferentzi-taularen arabera, adostasun handiagoa edukitzea da normalena. Bestalde, langileek egoiliarrek baino iritzi txarragoa dute erosotasun orokorraz: argia, zaratak, usainak, dekorazioa, etab. Ondorioz, langileak nahiko kritikoak direla esan daiteke.

Denek uste dute nahiko apala dela egoiliarrek antolakuntzan eta erabakiak hartzeko orduan duten partaidetza; hala ere, haien arazo, kezka eta kexak azaltzeko mailari dagokionez, berau nahiko handia dela esan behar da. Horregatik, baliteke bide zuzenik ez erabiltzea, horiek guztiak eraginkorrak izan daitezen.


Egoiliarren arteko gatazka maila, eztabaidak eta kritikak batz-bestekoaren gainera daude, baina, beharbada, horien azalpenaren maila ere handia delako.

5. RS

Zuzeneko ikuskapenaren bidez emandako puntuazioa handia da portzentaian, eta arauzko puntuazioaren batz-bestekoaren paretsu dago; nabarmentzekoak dira egoiliarren jarduna, haien jarrera, eta langileen eskuragarritasuna.


Inguru fisikoari dagokionez, egoitza atsegingarria da, kanpoalderik ez izan arren; leiho ugari ditu, bai eta bi terraza ere, kalea ikusteko aukera ematen dutenak. Egoiliarrek itxura txukuna eta garbia dute, eta gehienak geldo samarrak badira ere, nolabaiteko jarduera-maila eta elkarreragina ere badaudela esan daiteke.

AMURRIOKO EGOITZA




1. Komunitatearen eskuragarritasuna
2. Erosotasuna
3. Astialdirako laguntzak
4. Mugitzeko laguntzak
5. Bideratzeko laguntzak
6. Segurtasuna
7. Langile-gelak
8. Espazioa

AMURRIOKO EGOITZA




1. Eskakizun funtzionalak
2. Jarrera okerren onarpenera
3. Aukeratzeko askatasuna
4. Antolakuntzan parte hartzeko aukera
5. Antolakuntzaren argitasuna
6. Intimitatea
7. Osasun zerbitzuak
8. Eguneroko bizitzarako laguntza
9. Astialdirako aukerak

AMURRIOKO EGOITZA




1. Langileen ezugarriak
2. Egoiliarren trebetasun funtzionala
3. Egoiliarren jarduera-maila
4. Egoiliarren integrazioa komunitatean
5. Osasun-zerbitzuen erabilera
6. Eguneroko bizitzarako laguntzen erabilera
7. Astialdirako ekintzen erabilera

AMURRIOKO EGOITZA




1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

AMURRIOKO EGOITZA



1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

AMURRIKO EGOITZA



1. Egoitzaren edertasuna
2. Giro-ugaritsuna
3. Egoiliarren jarduna
4. Langileen jarduna

LEIOAKO LAGUNTZADUNEN EGOITZA

Helbidea: Santimami auzoa, 20 (Leioa)
Jabetza: Publikoa (Bizkaiko Foru Aldundiarena)
Egoiliarrak: 300
Egoiliar bakoitzeko barne-azalera: 51,15 m²
Gelak: Banakakoak: 30
Binakakoak: 15
Askotarikoak (lau ohe): 60
Bainugelak: 105
Komunak: 20
Bainugela geriatrikoak: 16
Dutxa geriatrikoak: 16
Egoiliar bakoitzeko langileak: 0,76
Langileak: Zuzenean arreta ematen dutenak: 138
Langile laguntzaileak: 92

Leioako Laguntzadunen Egoitza hiriko errebalean dago, komunitatetik eta beronen baliabide eta zerbitzuetatik aparte. Eraikuntza dexente handia da, guztira 105 gela dituena; haietatik 30 banakakoak dira, 15 binakakoak eta beste 60tan launa ohe daude, manpara batez binaka banatuak.

Bestalde, baditu areto nagusi bat eta egongela bana solairu bakoitzean. Gainera, beheko solairuan badago jantoki nagusi bat, eta lau solairuetako bakoitzean pasabide-zati bat jantoki gisa erabiltzeko atonduta dago. Horretaz gainera, badira ekintza-gela bat, eta birgaitzerako beste bi.

Egoiliar bakoitzeko duen azalera 218/1990 dekretuak ezarritakoa baino handiagoa da, jantokiarena izan ezik. Banakako eta binakako gelen azalera ere 218/1990 dekretuak ezarritakoa baino handiagoa da, baina honek bi pertsona baino gehiagoko gelarik ez jartzea gomendatzen du.

Langilegoa nahiko ugaria eta askotarikoa da; badira laguntzaileak, gizar-te-laguntzaileak, lanaren bidezko terapeutak, OLTak, sendagileak, etab. Guztira, 230 langile aritzen dira lanean.

Egoiliarrek/langileak proportzioa 218/1990 dekretuak laguntzadunen egoitzetarako ezarritakoa baino handiagoa da, eta langileen artetik %60 baino gehiago zuzenean soroosten aritzen dira, Dekretu horretxek gomendatzen duen bezala.

1. PAF

Egoitzaren inguru fisikoari buruzko mailak erakusten du komunitatearen eskuragarritasuna nahiko apala dela, egoitza hau aparte samar kokatuta dago-elako. Erosotasuna ez da bataz-bestekora iristen, laguntzadun egoitzetarako puntuazio estandarra hartzen badugu kontutan; esate baterako, ez dago ispilu-

rik bainugela eta logela guztietan, egoiliarrek ez daukate arropa garbitzeko zerbitzurik, ez eta janaria prestatzeko lekurik ere, eta kalefazioaren kontrola zentralizatuta dago.

Astialdirako dauden instalazioak egongelak dira; haietan mahaiak daude kartetan aritzeko, edota besaulkiak irakurtzen egoteko, etab. Gainera, badago kafetegi bat, eta eserlekuak dituen kanpoalde bat ere. Egoitza barruan, ez kanpoan ere, ez dago jokoetarako instalaziorik.

Egoiliarren mugimenduak errazteko neurriek (4. puntua) puntuazio handia lortzen dute portzentaiatan adieraziz gero, baina ez dira batz-besteke mailara iristen arauzko datutara bilduz gero, kontutan harturik laguntzadun egoitza dela berau. Geletan, lau ohekoetan batez ere, ez dago nahikoa leku gurgil-aulkiez mugitzeko, edota garabiak edo bestelako laguntza teknikoak erabiltzeko ere. Ez dago soinu-kontrola duen telefonorik entzumen-arazoak dauzkaten egoiliarrentzat.

Egoiliarrek bideratzen laguntzeko neurriak aztertzen dituen 5. puntua honelako egoitzean ohizkoa den batz-besteke mailatik hurbil samar dago.

Badira batz-besteke normalaren gainetik dauden segurtasun-neurri batzuk, baina txirrinak eta zoru ez-irristakorrak falta dira bainugeletan.

Espazio erabilgarria batz-bestekearen gainetik dago, bai egoiliarrek daukatena, bai langileek daukatena ere.

2. POLIF

Antolakuntzari buruzko politikari bagagozkio, egoitza honen maila apal samarra da, osasun-zerbitzuak baino ez baititu ematen aukeran -sendagileak, erizainak, birgaitze eta lanaren bidezko terapia-; jarrera okerren onarpena, aldiz, batz-bestekearen gainetik dago.

Egoiliarrek ordutegi finkoa daukate jateko, bainatzeko eta oheratzeko -laguntza behar dutenek-; geletan ezin dute ez janaririk ez alkoholodun edaririk eduki ere, eta ezin dute janari hotzik, ez kaferik prestatu. Aldiz, onartzen zaie otorduetan baso bat ardo edatea. Hortaz, neurgai hau, aukeratzeko askatasuna alegia, puntuazio aski txikiak geratzen da.

Antolakuntzan, ekintzen plangintzan eta arauak finkatzeko orduan (4. puntua) egoiliarrek daukaten partaidetza hutsaren parekoa da; beste horrenbeste esan daiteke komunikazioa errazteko bideei buruz -langile-bilerak, eskuliburuak, instrukzio-orriak, berripaperak, etab.-; alabaina, puntuazio estandarra ez da zero, egoera hori maiz samar gertatzen delako honen antzeko beste egoitzetan ere.

Ez dago intimitaterik; egoiliarren artetik %10ek bakarrik daukate banakako gela, eta ez dute beraien logeletako giltzarik.

Eguneroko bizitzarako laguntza batz-besteke mailaren gainetik dago portzentaiatan, baina ez, ordea, puntuazio estandarri begiratzen badiogu; ez da laguntzarik ematen erosketak egitera joateko, ez dago garraio-zerbitzurik, eta ez da lege edo finantz aholkularitzarik ere eskaintzen.

Egoiliarrek badauzkate aukeran ekintza batzuk: gimnasia, mintza-taldeak, karta-jokoak, asteroko mezak; bai eta beste batzuk ere, askoz gutxiagotan eskaintzen direnak, ordea: jaiak, mintzaldiak, kantu-taldeak, etab. Hala eta guztiz ere, neurgai honetan ez da puntuazio estandarrera iristen.

3. RESIF

Langileen ezaugarriak aztertzen dituen 1. puntuaren maila apala da; profesional aukera zabala dago langileen artean, baina ez dago prestakuntza egitarauik langile berrientzat, ez eta etengabeko prestakuntzarako saiorik ere; bestalde, ez dago borondatezko langilerik.

Egoiliarrek trebetasun funtzional kaxkarra dute: haien artetik %90ek laguntza behar izaten dute eguneroko zereginetan moldatzeko, bai eta beren burua garbitu eta zaintzeko ere.

Beren kasako ekimenaren maila ere apala da, bai egoitzaren barruan, bai kanpoan ere; egoiliarren artetik %10 bakarrik irteten da noizean behin egoitzaren esparrutik.

Zentruan antolatzen diren ekintzetan gutxitxo hartzen dute parte, aukera batzuk egon arren (ikus POLIF, 9. puntua). Jende gehien biltzen dituzten ekintzak gimnasia, karta-jokoak eta jaiak dira; izan ere, haietan %60ek hartzen dute parte.

Osasun-zerbitzuen erabilera handia da, batez ere sendagile eta erizaintza zerbitzuak eta botiken kontrola.

Azkenik, egoiliarrek honelako egoitzetan baino neurri txikiagoan erabiltzen dituzte eguneroko bizitzarako dauden laguntza-zerbitzuak. Haietako batzuk -garbiketa, arropa garbitzeko zerbitzua, jangela, etab.- egoiliar guztiek erabiltzen dituzte, baina beste zerbitzu batzuek, ordea -erlijio-laguntza eta ilea-paindegia-, oso gutxi baliatzen dira.

4. SCES

Langileek eta egoiliarren egoitzaren barruko giroaz daukaten usteari dagokionez, grafikoetan ikus dezakegu aldeak badaudela 4. puntuan. Portzentaiatan adierazita, langileek uste dute egoiliarrek maila handiagoan azaltzen dituztela beren arazo, kezka eta sentimenduak; puntuazio estandarrari begiratuta, aldiz, kontrakoa ikusten dugu. Egoiliarrek baikorrakoak dira beraien arazoan azalpen maila juzkatzean, eta horrexegatik gertatzen da, seguru aski, esaten duguna.

Gure galderei erantzun zieten egoiliarren zein langileen iritziz, elkarlaguntza eta taldearen batasuna (1. puntua) apala da, eta gatazka, eztabaida, kritika eta abarren maila bataz-bestekoaren gainetik edo paretsu dago; hori ez

da harritzekoa, berau egoitza handi samarra dela kontutan hartzen badugu (300 postu).

Bestalde, denek uste dute egoiliarren burujabetasuna, haien ekimena edo ekintzetan aritzeko ganora honelako zentruetan ohi dena baino txikiagoa dela; oro har, egoiliarrek geldo samarrak dira.

Langileak zertxobait zorrotzagoak dira egoitzaren antolakuntzari, plangintzari eta jardunari begira, eta den-denek ikusten dute maila aski apala dagoela egoiliarren partaidetzan eta eraginean.


Eraikuntzari, hornigaiari eta erosotasunei buruz (altzariak, argia, usainak, espazioa) duten ustea nahiko txarra da, 7. puntuari ikus dezakegun bezala.

5. RS

Ikuskatzaileen iritziz, inguru fisikoan neurtutako puntuak (argia, garbitasuna, edertasuna, eraikuntzaren eta altzarien mantenimendua) batz-besteko mailaren azpitik dago puntuazio estandarrean; beste horrenbeste gertatzen da giro-ugaritasunarekin. Egoitzaren itxura erabat instituzionala da, erietxe baten tankerakoa, eta ez da pertsonalizazio-kutsurik ikusten logeletan.


Egoiliarren harremanak eta jarduera-maila urriak dira (3. puntua), eta langileen jardunak, haien eskuragarritasunak eta egoiliarrekiko harremanak puntuazio txikia lortu dute; egoiliarrekin dauzkaten harremanak, esate baterako, lanean derrigorrezkoak gertatzen direnak baino ez dira. Azkenik, nola edo halako gatazka-maila ere antzeman dugu langileen arteko zereginen banaketan.

LEIOAKO LAGUNTZADUNEN EGOITZA




1. Komunitatearen eskuragarritasuna
2. Erosotasuna
3. Astialdirako laguntzak
4. Mugitzeko laguntzak
5. Bideratzeko laguntzak
6. Segurtasuna
7. Langile-gelak
8. Espazioa

LEIOAKO LAGUNTZADUNEN EGOITZA




1. Eskakizun funtzionalak
2. Jarrera okerren onarpena
3. Aukeratzeko askatasuna
4. Antolakuntzan parte hartzeko aukera
5. Antolakuntzaren argitasuna
6. Intimitatea
7. Osasun zerbitzuak
8. Eguneroko bizitzarako laguntza
9. Astialdirako aukerak

LEIOAKO LAGUNTZADUNEN EGOITZA




1. Langileen ezugarriak
2. Egoiliarren trebetasun funtzionala
3. Egoiliarren jarduera-maila
4. Egoiliarren integrazioa komunitatean
5. Osasun-zerbitzuen erabilera
6. Eguneroko bizitzarako laguntzen erabilera
7. Astialdirako ekintzen erabilera

LEIOAKO LAGUNTZADUNEN EGOITZA




1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

LEIOAKO LAGUNTZADUNEN EGOITZA



1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

LEIOAKO LAGUNTZADUNEN EGOITZA



1. Egoitzaren edertasuna
2. Giro-ugaritsuna
3. Egoiliarren jarduna
4. Langileen jarduna

BIHOTZ DEUNA UDAL EGOITZA

Helbidea: Sagrado Corazón, z/g (Getxo)

Jabetza: Publikoa

Egoiliarak: 175

Egoiliar bakoitzeko barne-azalera: 54,5 m²

Gelak: Banakakoak: 23

Binakakoak: 24

Askotarikoak : 30

Bainugela osoak: 28

Komunak: 40

Bainugela geriatrikoak: 4

Egoiliar bakoitzeko langileak: 0,3

Langileak: Zuzenean arreta ematen dutenak: 30

Langile laguntzaileak: 21

Bihotz Deuna Udal Egoitza hiriko kanpoaldean dago, eta beraz, komunitatearen oinarrizko baliabideetatik urrun. Egoitzara iristeko eskailera batzuk daude eta eskailerarik gabeko bide bat ere badago, baina oso aldapatsua denez, gurpil-aulkian joan behar duena ezin da pasatu laguntzarik gabe.

Egoitzak hiru solairu dauzka, eta 77 gela guztira, 23 banakakoak, 24 binakakoak eta 30 hiru pertsonentzakoak. Beheko solairuan erizaintza dago, eta bertan egoten dira laguntza-premiarik handiena duten pertsonak, inoiz ere solairu horretatik irten gabe.

Guztira 8 egongela daude, eta horietako batzuk ia beti itxita egoten dira. Guztira 175 egoiliar daude. Egoiliar bakoitzeko azalera osoa 218/1990 dekretuak ezarritakoa baino handiagoa da.

Langilegoa osatzen dutenen artean, laguntzaileak, garbitzaileak, sukaldariak eta erizain bat daude. Egoiliar/langile ratioa 0,3koa da, 218/1990 dekretuak beren kabuz baliatzen diren pertsonentzat ezarritakoa baino handiagoa, baina laguntza behar dutenentzako ezarritakoa baino txikiagoa da.

1. PAF

Grafiko honetan ikusten dira egoitza honek dituen alderik onenak: erosotasuna -egoitza egoera onean dago, oinarrizko erosotasunak baditu eta baita mahai eta eserluak dituen kanpoko egonleku bat ere- eta astialdirako hornimenduak, hala nola egongela batzuk, mahai handi eta txikiak eta besaulkiak, kafetegia, liburutegia, telebista batzuk eta josteko makinak dituztenak.

Espazioa -egongelen itxura-ugaritasuna, jarduerak, birgaitzea, jangelak eta pertsona bakoitzeko azalera- bataz-besteko maila normalean kokatzen da.

Beste neurgaietan ez da puntuazio ertainera iristen; egoitzaren kokagunea ez da ona, hirigunetik urrun dagoelako, oinez egiteko ezarrita dagoen 400 metroko muga baino urrutiago baitago.

Laguntza teknikoak, bideratzeko eta segurtasunerako neurriak ez dira asko; adibidez, bainugeletan ez dago gurpil-aulkiaz sartzerik lekurik ez dagoelako, bainugeletako zoruak irristakorrak dira eta ez daukate larrialdietarako txirrinik. Ez dago ez piktogramarik ez eta iragarki-taularik ere, eta egoiliarren izenak ez dira ageri beren geletako ateetan.

2. POLIF

Grafiko honetan ikus daitekeenez, antolakuntzari buruzko politikarekin zerikusia duten alderik onenak era guztietako zerbitzuak dira, hala osasun mailakoak -erizaintza, botiken kontrola, birgaitzea, lanaren bidezko terapia- nola eguneroko bizitzarekin lotutakoak -jangela, arropa-garbiketa, garbitasuna, zainketa pertsonalak, ile-apaindegia- eta astialdirako jarduerak, esaterako eskulanak, elkarrizketa taldeak, filmeak, kartetako jokuak eta erlijio zerbitzuak.

Aldiz, puntuaziorik txikiena ordutegia aukeratzeko askatasun mailari, dekorazioari eta logelen kokapenari dagokie, bai eta erabakietan eta arauen ezarpenean daukaten partaidetzari ere. Antolakuntzaren argitasunari dagokionez, alegia, komunikatzeko bideei bagagozkie, langileen bilerak, prestakuntza jarraiturako saioak eta instrukzio-liburuak hutsaren parekoak dira.

Okertzat jotako portaerak, alkoholdun edari gehiegi hartzea, istiluak sortzea, etabar, erabat galerazita daude, eta horiengatik zigoñrak ezartzeraino iristen dira: postrerik gabe uztea, gehiegi edan duen pertsonaren izena jende guztiori jakinaraztea, etabar.

Intimitate-maila oso txikia da: egoiliarren %13k bakarrik dauka banakako gela, eta geletako ateak ezin direnez giltzaz itxi, ateak ia beti zabalik edukitzen dituzte.

3. RESIF

Egoiliarren eta langileen ezaugarriei dagokien maila batzabestekoaren oso azpitik dago.

Profesional gutxi daudela adierazten du 1. neurgaiak: ez dago sendagilerik ez eta gizarte laguntzailerik ere. Maila horretan dagoen alderik onena borondatezko langileen partaidetza da.

Egoiliar gehienak ez dira berez baliatzeko gai: erdiek baino gehiagok beren burua gobernatzeko eta beste eginbeharretarako laguntza behar izaten dute. Seguraski, arrazoi horrengatik ez dute maizago parte hartzen bertako ekintzetan, laurden bat bakarrik irteten da egoitzatik eta beste horrenbestek parte hartzen du antolatutako ekintzetan.

Eguneroko bizitzan eskaintzen zaien laguntza ere ez da iristen erdi mailara, baina kontuan izan behar da eskaintza altua dela (POLIF 8. puntua), horrela, egoiliar guztiek erabiltzen dute jangela, arropa-garbiketa, garbitasun zerbi-

tzua, baina beste zerbitzu batzuk, ile-apaindegia, garraioa, norberaren dirua manejatzeko laguntza eta norberaren zaintza ez dituzte erabiltzen.

Bi puntu, 5.a eta POLIFeko 8.a elkarrekin lotuta aztertu behar dira, eta horrela ikusten da, osasun-zerbitzuen erabilera txikia izan arren, eskaintza nahiko zabala dela. Gehien erabiltzen den zerbitzua botiken kontrola da; beste guztiak, aldiz, egoiliarren %20 baino gutxiagok erabiltzen dituzte.

4. SCES

Egoitza barruko giroaz duten iritziari dagokionez, egoiliarrek eta langileak bat datoz taldearen batasunean, banan-banako arretan (1. puntua), egoiliarrek egoitzaren barne-antolaketan daukaten eragin txikian (6. puntua) eta erosotasun eta inguru fisikoaren baldintzetan -tenperatura, zaratak, usainak, argitasuna, dekorazioa, espazioa-; puntuazioan bataz-bestekoaren gainetik geratzen da, baina estandarraren azpitik.

Bi taldeek ikusten duten gatazka maila -eztabaidak, kritikak, kexak- berdintsua da, puntuazio estandarrean egoiliarrek gainetik daude, horiek normalean hain kritikoak izaten ez direlako.

Beste maila batzuk, hala nola burujabetasuna edo egoiliarren ekimen-maila (3. puntua), beraien arazoak, sentimenduak eta kexuak azaltzeko gaitasuna (4. puntua) egoiliarrek modu positiboagoan balioztatzen dituzte; aldiz, langileak ez dira hain pozik agertzen beraien iritzietan.

Era berean, lagileak zertxobait kritikoagoak azaltzen dira antolaketa, plangintza eta jardunari dagokienean (5. puntua).


5. RS

Inguru fisikoari buruz ikuskatzaileek egindako balioztapena bataz-bestekoaren parean kokatzen da; egoitza ondo dago, garbi, leku lasaian kokatua, baina piska bat isolatua. Aldiz, giro-ugaritasunak puntuazio txikiagoa lortzen du, itxura erabat instituzionala dauka, geletan ez dago pertsonalizazio-kutsurik eta leihoak zabalak izan arren, haien ikuspidea ez da interesgarria, ez delako inolako jarduerarik ikusten.


Egoiliarren ezaugarriak eta horien jarduera-maila adierazten dira 3. puntuan. Itxura apaina eta garbia daukate, baina apenas ez duten ezer egiten, egoiliar asko eserita egoten dira ezer egin gabe, eta batzuk lo.

Langileen eskuragarritasunak eta egoiliarrekin dauzkaten harremanak ez dute bataz-besteko puntuazioa lortzen.


BIHOTZ DEUNA UDAL EGOITZA



1. Komunitatearen eskuragarritasuna
2. Erosotasuna
3. Astialdirako laguntzak
4. Mugitzeko laguntzak
5. Bideratzeko laguntzak
6. Segurtasuna
7. Langile-gelak
8. Espazioa




1. Eskakizun funtzionalak
2. Jarrera okerren onarpena
3. Aukeratzeko askatasuna
4. Antolakuntzan parte hartzeko aukera
5. Antolakuntzaren argitasuna
6. Intimitatea
7. Osasun zerbitzuak
8. Eguneroko bizitzarako laguntza
9. Astialdirako aukerak




1. Langileen ezugarriak
2. Egoiliarren trebetasun funtzionala
3. Egoiliarren jarduera-maila
4. Egoiliarren integrazioa komunitatean
5. Osasun-zerbitzuen erabilera
6. Eguneroko bizitzarako laguntzen erabilera
7. Astialdirako ekintzen erabilera

BIHOTZ DEUNA UDAL EGOITZA




1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

BIHOTZ DEUNA UDAL EGOITZA



1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

BIHOTZ DEUNA UDAL EGOITZA



1. Egoitzaren edertasuna
2. Giro-ugaritsuna
3. Egoiliarren jarduna
4. Langileen jarduna

AGIRRETXU BASERRIA - AITON-AMONEN EGOITZA

Helbidea: Eguzkiza, 41 (Berango)

Jabetza: Pribatua

Egoiliarrak: 5

Egoiliar bakoitzeko barne-azalera: 29,13 m²

Gelak: Banakakoak: 2

Binakakoak: 1

Hirunakakoak: 1

Bainugelak: 1

Dutxak: 3

Egoiliar bakoitzeko langileak: 0,4

Langileak: Zuzenean arreta ematen dutenak: 1

Langile laguntzaileak: 1

Berango herriaren kanpoaldean dagoen baserri bat da. Azterketa egin zen unean bost pertsona zeuden, eta guztira zazpirentzako lekua dago.

Senar-emazte batzuk dira aiton-amonak zuzenean zaintzen dituztenak, eta beste pertsona bat gehiago dago garbitasuna egiteko.

Herrigunetik urrun eta garraio publikorik gabe dagoenez, ezin dira herriko errekurtoez baliatu. Gainera, etxean sartzeko lauzpabost eskailera-maila dauzkate.

Bertan dauden bost egoiliarretatik hiruri burua nahasten zaie, beste biak gurpil-aulkian daude eta horietako bat, gainera, gorra eta itsua da.

Baserriak lau gela ditu -bi banakakoak, bat binakakoa eta beste bat hirunakakoa-, egongela txiki bat, beste handi bat eta jangela. Kanpoan mahai eta eserlekuak dauzkan beste leku bat ere badago.

Egoiliar bakoitzeko barne-azalera, egongelak bezala, 218/1990 dekretuak ezarri baino txikiagoa da. Bestalde, famili-giroa nabari da ingurune fisikoan eta harremanetan ere bai.

1. PAF

Ezaugarri fisiko eta arkitektonikoei dagokienez, erosotasuna da alderik onena, etxeak gutxieneko erosotasunak baditu, gelak atseginak eta pertsonalizatuak dira, baina txikiak, eta kanpoan, mahaiak, eserlekuak eta eguzkitako bat dago.

Laguntza teknikoak eta segurtasun neurriak bataz-besteko normalean daude. Baditu beste instalazio batzuk ere: eskuetarako hagak bainuetan, gurpil-aulki berezia bainatzeko, eta bainugeletan eta geletan, adibidez, txirrinik ez dago, ezta zoru ez-irristakorrik eta keak antzemateko aparailurik ere.

Bistan denez, ezin da “langileentzako egongelez” hitzegin, baina aiton-amonak zuzenean zaintzeaz arduratzen diren bi pertsonak baserriko bigarren solairuan bizi dira eta, beraz, beraien egoitzak dauzkate.

Ez dago txartelik, piktogramarik, ohar-taula eta antzekorik, baina etxean bizi den famili-giroa ikusirik, ez dirudi oso beharrezkoak direnik ere.

Lehenago adierazi den bezala, egoitzarako sarrera zaila da eta baserriaren azalera eskasa.

2. POLIF

Grafiko honetan ikus daitekeenez, puntuaziorik handienak aukeratzeko askatasunari -ordutegiak ez dira zorrotzak, egoiliarrek beren geletako altzariak lekuz alda ditzakete, ez dago bisitetarako ordutegirik- eta antolaketan daukaten partaidetzari dagokie; egoiliarren batzorderik ez dagoen arren, etxeko arauak erabakitzerakoan berez eta era zuzenean parte hartzen dute.

Intimitatea bataz-besteko mailatik gertu dago: egoiliarrek beren geletako giltzak dauzkate, baina ezaugarri txar bezala aipatu behar da erdia baino gutxiago daudela banakako geletan, eta gela bat hirunakakoa dela.

Noski, sendagile-zerbitzurik ez dago eta herrikoaz baliatzen dira. Etxearen arduradunak bakarrik kontrolatzen ditu aiton-amonei eman behar zaizkien botikak eta berak egiten ditu erizain lanak.

Eguneroko bizitzan behar duten arretari dagokionez, maila altukoa da, ezaugarri horietako pertsoneri egoitzetan normalean eman behar zaienaren parekoa.

Ez da inolako ekitaldirik antolatzen; horiek berez sortzen direnak izaten dira: paseoak, erosketak egiteko irten, etabar.

3. RESIF

Lehenago adierazi den bezala, egoiliarren trebetasun funtzionala txikia da, guztiek daukate gabeziaren bat. Berez ez dute ia ezer egiten, telebista ikusi eta hitzegin besterik ez. Herrian ez daude batere integratuta, esan bezala, herrigunetik urruti baitago.

Dauden egoiliarretatik bik bakarrik hartzen dituzte botikak baina ez dute normalean sendagilerik behar izaten. Bestalde, guztiek erabiltzen dituzte arropa garbitzeko zerbitzua, garbitasunarena, jangela eta norberaren zaintzarena.

4. SCES

Grafiko hauek egoiliar bati eta horien zaintzaz arduratzen diren pertsonetako bati egindako elkarrizketen emaitzak dira.

Adostasun faltarik handiena egoiliarren askatasunari buruzkoa da. Etxearen arduradunak esaten du ez dagoela egoiliarrak nahi dutena egitera bultzatu beharrik; aldiz, gurekin hitzegin zuen amona bat ez zen iritzi berekoa eta uste zuen bultzatzen ez badituzte ez dutela ezer egiten.

Gainontzeko neurgaietan joera bera jarraitzen dute puntuazio portzentaietan; taldearen batasun handia, elkarren arteko harreman onak eta gatazkarik eza erakusten dituzte; beraien arazoak, sentimenduak eta kexak adierazteko gaitasuna eta antolaketa parte hartzeko eragina altuak dira. Era berean, inguru fisikoa ontzat hartzen dute, eta oro har beraien egoitzan pozik daudela esan daiteke.


5. RS

Ikuskatzaile adituek ontzat jotzen dute inguru fisikoa, atsegina da, ez dago zarata handirik, ezta usainik ere, eta baldintza onean dago.


Gelak formaz eta kokapenez desberdinak dira. Arau-taula erreferentzia gisa hartuta, puntuazio hauek batz-bestekotik gertu daude.

Egoiliarren arteko harreman maila altua da, baina beraien jardun maila txikia, eta horrek puntuazio ertaina ematen dio 3. neurgaiari.


Azpimarratzekoak dira egoiliarrez arduratzen diren bi pertsonen eskuragarritasuna eta jarrera, bai egoiliarrek tratatzeko era ere: izan ere, famili-giroa lortu dute, egoiliarrei atentzio pertsonalizatu eta beroa emanez.



1. Komunitatearen eskuragarritasuna
2. Erosotasuna
3. Astialdirako laguntzak
4. Mugitzeko laguntzak
5. Bideratzeko laguntzak
6. Segurtasuna
7. Langile-gelak
8. Espazioa




1. Eskakizun funtzionalak
2. Jarrera okerren onarpena
3. Aukeratzeko askatasuna
4. Antolakuntzan parte hartzeko aukera
5. Antolakuntzaren argitasuna
6. Intimitatea
7. Osasun zerbitzuak
8. Eguneroko bizitzarako laguntza
9. Astialdirako aukerak




1. Langileen ezugarriak
2. Egoiliarren trebetasun funtzionala
3. Egoiliarren jarduera-maila
4. Egoiliarren integrazioa komunitatean
5. Osasun-zerbitzuen erabilera
6. Eguneroko bizitzarako laguntzen erabilera
7. Astialdirako ekintzen erabilera

AGIRRETXU BASERRIA - AITON-AMONEN EGOITZA




1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna



1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

AGIRRETXU BASERRIA - AITON-AMONEN EGOITZA



- 1. Egoitzaren edertasuna
- 2. Giro-ugaritsuna
- 3. Egoiliarren jarduna
- 4. Langileen jarduna

SAN ROKE EGOITZA

Helbidea: Avda. San Agustín, 6 (Markina-Xemein)

Jabetza: Pribatua

Egoiarrak: 24

Egoiliar bakoitzeko barne-azalera: 25 m²

Gelak: Banakakoak: 8

Binakakoak: 5

Askotarikoak (sei ohe): 1

Bainugela osoak: 3

Komunak: 3

Egoiliar bakoitzeko langileak: 0,29

Langileak: Zuzenean arreta ematen dutenak: 5

Langile laguntzaileak: 2

San Roke egoitza antzinako (1820ko) etxe batean kokatuta dago: etxea Udalak jaso ondoren, herriko aiton-amona batzuk bertan jasotzeko erabiltzen hasi zen. Ez zen, beraz, betetzen duen zereginetarako eraikia izan eta horrek, alde batetik etxe- eta familiako giroa ematen badio ere, bestetik erosotasun, instalazio eta espazio falta handia dakarkio. Esate baterako, egoitzan sartzeko eskailerak daude, badauka igogailu txiki bat, baina oso txikia -gurpil-aulki bat ezin da sartu-, barneko eskailerak estuak eta ilunak dira, eta ondorioz, gurpil-aulkia erabiltzen duten egoiliar batzuk ez dira jaisten ez jangelara ez eta egongelara ere, eta kanpora ez dira sekula irteten. Azterketa hau egin zenean, egoitzan bizi diren 24 pertsonetatik bederatzik eguneroko eginbeharretarako laguntza behar zuten, eta beste hiruk burua nahastuta zeukaten (1/8 ratioa).

Era berean, kalefazioa ez dabil ondo; osasun-ikuskatzaileen iritziz, galdara eraikuntzatik kanpo eduki beharko litzateke.

Etxea herrigunetik piska bat aparte dago; baina komunitatetik ez oso urruti; horrela, dendak, parkeak, zinea edo kafetegiak nahiko gertu geratzen zaizkie.

Hiru solairu daude, gelak ezberdinak dira, norberak bere altzariak eta gauzak jar ditzake, eta horrek itxura pertsonalizatua ematen die, sei oheko gelan salbu, hartan apenas dagoelako lekurik.

Langileak/egoiarrak ratioa, 218/1990 dekretuak ezarritako gutxienero-
ra juxtu-juxtu iristen da. Guztira bost langile daude, emakumezkoak denak, eta horietaz gain, sukaldaria, administraria eta 64 urteko monja bat, lana gauzez egiten duena. Ez dago lan-banaketarik, denak arduratzen dira garbiketaz eta egoiliarrei laguntzeaz, bai eta sukaldeaz ere, sukaldaria ez dagoenean.

1. PAF

Ezaugarri fisiko eta arkitektonikoen mailan, herritik gertu egotea da gauzarik azpimarragarriena, egoitza hau herriko ia zerbitzu guztietatik nahiko gertu baitago.

Gainontzeko neurgai guztiak bataz-bestekoaren azpitik geratzen dira, eta horren arrazoa, lehenago adierazi den bezala, etxea egoitza bezala eraikia ez izatea da. Hutsuneak nabari dira astialdirako instalazioetan eta bideratzea eta mugikortasuna errazteko bitartekoetan. Ez dago suteei aurre egiteko neurririk, ezta irrist ez egiteko zorurik, ez bainuetan txirrinik ere, eta barneko eskailerak estuak eta ilunak dira.

Espazio erabilgarria bataz-besteko normaletik gertu dago. Egongela eta jangela zabalak dira, baina gelen artean desberdintasun handiak daude: banakakoak eta binakakoak neurritz egokiak dira, baina sei ohe dauzkan gela, nahiko txikia.

Langileentzat ez dago inolako ekintza-gelarik edo bestelako espaziorik.

2. POLIF

Grafiko honetan neurgai guztiak bataz-besteko normalaren azpitik daude arauzko datuak kontutan hartzen badira. Bataz-bestekora gehien gerturatzen diren puntuazioak, jarrera okerren aurrean dagoen eskuzabaltasunari eta aukeratzeko askatasunari dagozkienak dira. Egoiliarrek, adibidez, bereri altzariak eraman eta gelak apain ditzakete, jateko orduak ez dira oso zorrotzak eta jangelako mahaietan esertzeko lekua aukera dezakete.

Antolakuntzan dagoen partaidetza-maila txikia da: ez da batzar orokorrik egiten, eta zuzendaritza eta kudeaketa administrariaren eskuetan daude. Langileek ere ez dute bilerarik egiten, eta ez dago komunikaziorako beste biderik.

Intimitatearen gaia, 6. puntuan azaltzen dena, ez da erdi mailara iristen: banakako gela gutxi daude, ez dago banakako bainugela bakar bat ere, eta egoiliarrek ez daukate beren geletako giltzarik.

Egoitzan dauden osasun-zerbitzuei dagokien 6. puntuan puntuazio txikia ikusten da: botikak hartzeko bakarrik funtzionatzen du eta ez dago osasun-lan-gilerik; arauzko datutan emanda, ordea, puntuazioa ez da txikia, era horretako egoitzetan dagoenaren aldean. Alderantzikoa gertatzen da eguneroko eginbeharretarako laguntzan: puntuazioa handia da portzentaiatan -garbiketa zerbitzua, arropa-garbiketa, jangela, banakako beharretarako laguntza, etabar daude-, baina erreferentzia modura arau-taula hartzen bada, bataz-bestekoaren azpitik geratzen da.

Ez dago astialdirako ekintzarik era jarraituan; halako egun jakin batzuetan bakarrik antolatzen dira jaiak.

3. RESIF

Langileen artean profesional mota gutxi dago: garbitasunaz eta egoiliarrei eman beharreko laguntzaz arduratzen diren bost emakume eta sukaldari bat besterik ez; ez dago borondatezko langilerik, ezta astialdiko kultur-ekintzen sustatzailek ere. Neurgai hori, beraz, ez da puntuazio ertainera iristen.

Egoiliarren batz-bestekeko trebetasun funtzionala arauak ezarritako maila ertainera iristen da; egoitza bitarikoa denez, erabat beren buruen jabe diren pertsonak eta eguneroko eginbehar guztietarako laguntza behar dutenak daude.

Beren kabuz ez dute egoiliarrek ezer egiten; egiten duten gauza bakarra telebista ikusi eta kartetan jokatzea da, eta bakarrik irten daitezkeenak kalera joaten dira. Bestalde, 4. puntuan ikus daitezkeen bezala, herrian daukaten integrazio maila batz-bestekeoaren gainera dago, eta hori egoitzaren kokapenari esker gertatzen da (ikus PAFeko 1. puntua). Badira, ordea, gurpil-aulkia erabiltzen dutenak, eta horiek, kalera sekula ez irteteaz gain, jangela eta egongela dauden solairura ere ez dira jaisten. Lehenago esan dugun bezala, gurpil-aulkiak ez dira igogailuan sartzen, eta, sartu ahal izateko, derrigorrez pedalk askatu behar izaten zaizkie.

Handiak dira 5, 6 eta 7. puntuetakoa puntuazioak; baina POLIFeko 7, 8 eta 9.ekin batera aztertu behar dira, dauden zerbitzuen erabilerrari dagozkielako. Horrela, dagoen osasun-zerbitzu bakarra botikei dagokiena da; egoiliar guztiak hartzen dituzte botikak. Era berean, astialdiko ekintzetan dagoen partaidetza-maila handia da, baina kontuan eduki behar da egun jakin batzuk ospatzeko bakarrik antolatzen direla jaiak.

Oinarrizko beharretarako zerbitzuen erabilera (jangela, arropa garbiketa, garbitasuna, norberaren garbitasuna, etabar), batz-bestekeko puntuazioaren gainera dago.

Egoiliarren ikas-maila, lanbidea eta beraien familien baliapideak islatzen ditu 8. puntuak, eta, hor ikusten denez, taldea ez da batere homoginoa.

4. SCES

Antzekoak dira egoitzaren barneko giroa islatzen duten emaitzak, nahiz eta langileei dagokiena piska bat azpitik geratu.

Taldearen batasuna eta giza harremanak txikiak dira. Langileek diotenez, ez daukate denborarik egoiliarrekin hitzegiten egoteko; nolana ere, harremanak atseginak dira, baina ez nahi bezain ugariak.

Gatazka-maila batz-bestekeoaren gainera dago, egoiliarrek sarritan izaten dituzte eztabaidak, kezak dira eta kritikak egiten dizkiete elkarri. Hori 4. puntuan ere ikusten da, egoiliarrek beraien iritziak, arazoak, sentimenduak, etabar azaltzeko daukaten erraztasuna erakusten duen puntuan; ikusten denez, honen maila batz-bestekeoaren gainera dago.

Langilen eta egoiliarren iritiz, aiton-amonek ekimen eskasa dute jarduerak antolatzeko eta aurrera eramateko, bai eta txangoak, jaiak, etabar proposatzeko ere; normalean norbaitek ideiak proposatu zain egoten dira.

Antolaketari buruz daukaten iritziari emandako puntuazioa, egoitza mota honetan normalizat jotzen den batz-bestekotik gertu dago. Arauak eta antolaketa finkatzeko orduan egoiliarrek daukaten eragina aztertzean, beraiek baiko-rragoak dira langileak baino.


Azkenik, guztiek uste dute era horretako egoitza batentzat inguru fisikoa ez dela egokia. Etxea txikia da, batzuetan hotza egiten du eta ez dago erosotasun handirik.

5. RS

Bi ikuskatzaileraren balorazioa adierazten duen grafiko honetan, inguru fisikoak puntuazio txikia daukala ikusten da, baina ez dago zaratarik edo usainik, eta lur-zoruak eta bainugelak garbi daude, eraikuntza ez da erakargarria eta leku batzuetan argi gutxi dago.


Halere, geletan nolabaiteko bestelakotasuna badago. Sei ohe dauzkan gelan salbu, egoiliarrek beren gauzak eraman eta altzariak nahi bezala jar ditzakete.

Egoiliarren geldotasuna adierazten du berriro 3. puntuak; bestalde, 4. puntua, egoiliarren eta langileen arteko harremanak adierazten dituena, batz-bestearen gaineratik dago. Langileek daukaten denbora urria aintzat hartu arren, harremanak beroak eta onak dira, eta langileek jarrera ona azaltzen dute egoiliarrekiko.




1. Komunitatearen eskuragarritasuna
2. Erosotasuna
3. Astialdirako laguntzak
4. Mugitzeko laguntzak
5. Bideratzeko laguntzak
6. Segurtasuna
7. Langile-gelak
8. Espazioa

SAN ROKE EGOITZA




1. Eskakizun funtzionalak
2. Jarrera okerren onarpena
3. Aukeratzeko askatasuna
4. Antolakuntzan parte hartzeko aukera
5. Antolakuntzaren argitasuna
6. Intimitatea
7. Osasun zerbitzuak
8. Eguneroko bizitzarako laguntza
9. Astialdirako aukerak




1. Langileen ezugarriak
2. Egoiliarren trebetasun funtzionala
3. Egoiliarren jarduera-maila
4. Egoiliarren integrazioa komunitatean
5. Osasun-zerbitzuen erabilera
6. Eguneroko bizitzarako laguntzen erabilera
7. Astialdirako ekintzen erabilera

SAN ROKE EGOITZA




1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

SAN ROKE EGOITZA



1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

SAN ROKE EGOITZA



1. Egoitzaren edertasuna
2. Giro-ugaritsuna
3. Egoiliarren jarduna
4. Langileen jarduna

JULIAN REZOLA ZENTRUA (MATIA FUNDAZIOA)

Helbidea: Lugariz auzoa, z/g (Donostia-San Sebastian)

Jabetza: Pribatua

Egoiliarak: 160

Egoiliar bakoitzeko barne-azalera: 25 m²

Gelak: Banakakoak: 4

Binakakoak: 23

Askotarikoak (lau eta bost ohe): 27

Bainugelak: 4

Komunak: 12

Bainugela geriatrikoak: 7

Egoiliar bakoitzeko langileak: 0,5 (garbiketa zerbitzua sartu gabe)

Langileak: Zuzenean arreta ematen dutenak: 57

Langile laguntzaileak: 24 (gehi kanpoko garbiketa zerbitzua)

Berau laguntza behar dutenen egoitza da, 160 egoiliar jasotzen dituena, gehienak fisiko edo psikikoki ezinduak; burua nahastuta daukaten pertsonen ratioa 1/3 da.

Egoitza hiriko auzo batean dago, oinez iristeko bideak zailak dira, malda bizi bat igo behar da, eta hori dela eta, oso egoiliar gutxi ateratzen dira egoitzaren esparrutik kanpora.

Hiru solairu ditu, eta bakoitzean jangela bat dago. Dagoen egongela bakarra beheko solairuan dago, baina egoiliar batzuek; sekula jaisten ez direnez, egun osoa jangelan pasatzen dute.

Gela gehienak binakakoak edo askotarikoak dira eta oso leku gutxi dago; bainugelak eta komunak amankomunak dira eta geletatik kanpo daude.

Egoiliar bakoitzeko langile kopurua 218/1990 dekretuak ezarritakoa baino handiagoa da, kontuan izanik garbiketa kanpoko enpresa batek (Gureak) egiten duela. Egoitzan lan egiten dutenak hauek dira: osasun-laguntzaileak, erizainak, sendagilea, gizarte laguntzaile eta langile laguntzaileak. Astialdiko ekintzak antolatzeke profesional bat ere ez dago, baina badago zortzi bat pertsonako talde bat eraikuntzan bertan kokaturiko egunezko zentru batek antolatutako ekintzetan egunero parte hartzen duena.

1. PAF

Grafiko honetan ikus daitekeenez "komunitatearen eskuragarritasuna" deritzan neurgaiak puntuazio ertaina lortzen du, nahiko gertu dituelako denak, eliza eta ospitalea; alabaina, beste batzuk urrun ditu: zineak, liburutegiak, parkeak, banketxeak...

Eraikuntzak gutxieneko erosotasunak badituen arren -berogailua, telefonoa, alkoholik gabeko edariak saltzeko makina, garbiketa-zerbitzua egoilia-

rrentzat-, beste batzuk falta zaizkio, esate baterako geletan irakurtzen egoteko lanparak, gela bakoitzean kalefazioa kontrolatzeko aukera eta egoiliarrentzako sukaldea. Kanpokaldean badauka esparru bat, baina nahiko txikia, eta ez dago ez mahairik, ez besaulkirik, bankuak besterik ez.

Astialdirako instalazio edo leku gisa egongela bat dago mahaiez eta telebistaz, eta kafetegia ere badago.

Puntuaziorik txikiena mugitzeko laguntzak eta bideratzeak daramate. Ez da ahaztu behar laguntza behar dutenen etxe bat dela, eta beraz, puntuazio-portzentaia jakin baten arau-terekin puntuazio estandar txikiagoa lortzen duela "beren kabuz" baliatzen direnen egoitza batean baino, mota horretako egoitzetan normala baita laguntza tekniko eta instalazio berezi gehiago edukitzea: komun eta bainugela zabalak gurgil-aulkian mugitzeko, komun guztien biran segurtasun hagak, heldulekuak pasabide eta gela guztietan; bideratzeko piktogramak, egoiliarren izenak dagozkien geletako ateetan, etabar.

Segurtasun neurrientzako puntuazio ertaina ikusten da 6. puntuari; oinarrikoak baditu, baina beste batzuk falta zaizkio, esate baterako geletan txirriak eta irrist ez egiteko zoruak.

Langileen egongelek, batz-besteکو puntuazioaren gaitetiko lortzen dute; bulegoak daude, "office" izenekoak, etabar. Orohar, egoiliar bakoitzari dagokion espazioa, juxtu arauak ezarritakoaren batz-besteکو mailara iristen da.

2. POLIF

Grafiko honetan ikus daitekeenez, osasun-zerbitzuak eta eguneroko beharretarako laguntza ez beste aspektu guztiak batz-besteکوaren azpitik daude. Aukera gutxi dago ordutegiak hautatzeko, geletan altzariak lekuz aldatzeko eta antolaketan parte hartzeko -ez dago aginte-batzorderik eta ez da batzar orokorik ere egiten. Intimitatea txikia da banakako lau gela bakarrik daudelako, eta egoiliarrek ez daukate beren gelako giltzarik.

Jarrera okerrak ez dira ia inoiz ere onartzen.

Astialdirako aukeren artean karta-jokuak, mintza-taldeak, gimnasia eta eskulanetarako taldeak daude, baina kontutan izanik laguntzadun etxe bat dela eta egoiliar gehienak ez direla kanpora irteten, arau-terekin arabera txikiak direla esan daiteke.

3. RESIF

Egoiliarren ezaugarriei dagokienez, neurgai guztiak batz-besteکوaren azpitik geratzen dira.

Egoiliarren trebetasun funtzionalaren maila oso txikia da, beraz, menpekotasun handia daukate eta hortik datozkie geldotasuna eta egoitza barruko

nahiz kanpoko ekintzetan gutxi parte hartzea. Egoitza hau auzo batetik gertu dagoen arren, egoiliarrek gutxitan irteten dira; gutxi gorabehera erdiak ateratzen dira urtean noizbait beraien senitartekoak bisitatzera edo paseatzera.

4. SCES

Bi grafiko hauetan egoiliarrek eta langileek egoitzako giroaz daukaten iritzia ikusten da. Antzera ikusten dute giroa, baina biak bat datoz taldearen batasuna eta elkarren arteko laguntza txikia dela esatean; beste horrenbeste gertatzen da egoiliarren burujabetasunarekin; izan ere, normalean langileen laguntzaren beharra izaten dute. Era berean, batzuek zein besteek uste dute egoiliarrek eragin txikia daukatela antolakuntzan, eta ez dute uste parte hartze-ko aukera handirik daukatenik ere.


Erosotasunari, altzariei, argitasunari, aireztatzeari, zaratei, usainei, tenperaturari eta dekorazioari buruz, bai batzuek eta bai besteek iritzi txarra daukate, batez ere langileek.

5. RS

Ebaluatzaileen ustez, inguru fisikoa ez da oso erakargarria: eraikuntza hondatuta dago leku batzuetan, bere itxura erabat instituzionala da eta geletan ez dago pertsonalizazio-kutsurik.


Egoiliarren jarduna eta harreman-maila ere oso txikiak dira, eta egoiliarren eta langileen artean ez da harreman handirik ikusten.

JULIAN REZOLA ZENTRUA (MATIA FUNDAZIOA)




1. Komunitatearen eskuragarritasuna
2. Erosotasuna
3. Astialdirako laguntzak
4. Mugitzeko laguntzak
5. Bideratzeko laguntzak
6. Segurtasuna
7. Langile-gelak
8. Espazioa

JULIAN REZOLA ZENTRUA (MATIA FUNDAZIOA)




1. Eskakizun funtzionalak
2. Jarrera okerren onarpena
3. Aukeratzeko askatasuna
4. Antolakuntzan parte hartzeko aukera
5. Antolakuntzaren argitasuna
6. Intimitatea
7. Osasun zerbitzuak
8. Eguneroko bizitzarako laguntza
9. Astialdirako aukerak

JULIAN REZOLA ZENTRUA (MATIA FUNDAZIOA)




1. Langileen ezugarriak
2. Egoiliarren trebetasun funtzionala
3. Egoiliarren jarduera-maila
4. Egoiliarren integrazioa komunitatean
5. Osasun-zerbitzuen erabilera
6. Eguneroko bizitzarako laguntzen erabilera
7. Astialdirako ekintzen erabilera

JULIAN REZOLA ZENTRUA (MATIA FUNDAZIOA)




1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna



1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

JULIAN REZOLA ZENTRUA (MATIA FUNDAZIOA)



- 1. Egoitzaren edertasuna
- 2. Giro-ugaritsuna
- 3. Egoiliarren jarduna
- 4. Langileen jarduna

STA. MARIA MAGDALENA EGOITZA

Helbidea: Sandiusterrri, 1 (Hernani)

Jabetza: Publikoa (Udalarena)

Egoiliarrak: 104

Egoiliar bakoitzeko barne-azalera: 23,25 m²

Gelak: Banakakoak: 7

Binakakoak: 15

Hirunakakoak: 23

Bainugelak: 46

Komunak: 5

Bainugela geriatrikoak: 1

Egoiliar bakoitzeko langileak: 0,32

Langileak: Zuzenean arreta ematen dutenak: 18

Langile laguntzaileak: 16

Santa Maria Magdalena egoitza herrigunean aurkitzen da, beste etxebizitza batzuen artean kokatua, eta beraz, kanpokaldean ez dauka esparru propioarik. Eraikuntza berria da eta egoera onean dago. Hiru solairu ditu, horietako bat erizaintzarako gordetzen da, hau da, arazo fisiko nahiz psikikoengatik burujabetasun txikia duten egoiliarrentzat.

Guztira 45 gela daude, 23 hirunakakoak, 15 binakakoak eta 7 banakakoak, egongela handi bat, jangela bakarra, astialdirako gelak eta bi terraza. Hirugarren solairuko egoiliarrek, erizaintzakoek, aparteko jangela eta egongela daukate eta ez dira solairu horretatik ateratzen.

Egoiliar bakoitzeko barne-azalera eta langileak/egoiliarrek ratioa 218/1990 dekretuak ezarritakoak baino handiagoak dira.

Hauek dira langilegoa osatzen dutenak: osasun-laguntzaileak, erizainak, gizarte-laguntzailea eta langile laguntzaileak; solairuetako arduradunak monjak dira. Egoitzan, urtebetez Foru Aldundiak emandako laguntzaren bidez lagunarteko eta kulturazko ekintzen sustatzaile batek lan egin zuen.

1. PAF

Hernaniko egoitzaren inguru fisikoaren ezaugarriei dagokienez, alderik azpimarragarriena herri erdian kokatuta egotea da; hortaz, herriko zerbitzuak eskura geratzen zaizkie egoiliarrei.

Alderik txarrenak beste hauek dira: astialdirako instalaziorik eza -biliar eta ping-pongerako mahaiak, beste joku batzuk-; ez dago ez piktogramarik, ez txartel eta ez informazioa emateko eta bideratzen laguntzeko iragarki-taularik ere.

Erosotasun fisikoari eta egoitzak eskaintzen dituen beste erosotasunei dagokienez, egoitza hau bataz-besteko puntuazioaren azpitik dago, kanpoalde-

an ez daukalako higiezinez hornitutako lorategi edo esparrurik, nahiz eta zuhaitzak dauzkan pasealeku batetik oso gertu egon. Bestalde, bi terraza handi daudela esan behar da.

Segurtasun-neurriak, egoitzara iristeko bidea eta oinarrizko laguntza teknikoak, bai eta azaleraren neurria eta egongela amankomunen bestelakotasuna ere, batzaz-beste normalaren inguruan daude.

2. POLIF

Antolakuntzari buruzko politikari dagokion grafikoko 2. puntuan ikus daitezkeen bezala, zenbait portaera okerren aurrean dagoen onarpena era honetako egoitzetan egon ohi denaren parekoa da; gutxieneko diziplina bati eutsi nahi zaio.

Era berean, egoiliarrek beren ohiturak betetzeko aukerari, otorduetarako eta bainugelak erabiltzeko ordutegiari, gelen antolakerari etabarri dagokienez, batzaz-beste koaren inguruan dabilta.

Antolakuntzan egoiliarrek daukaten partaidetza txikia da, une hauetan ez dago aginte-batzorderik, eta egoiliar berriei harrera egiteko batzorde bat besterik ez dago.

Barne-informaziorako bitartekoak, hala nola langileen bilerak, instrukzio-liburuak, berri-paperak etabar oso urriak direla adierazten da 5. puntuan.

Intimitatea ohizko batzaz-beste koaren azpitik geratzen da, egoiliarrek ez daukatelako beraien geletako giltzak eta banakako zazpi gela baino ez daudelako.

Osasun-zerbitzuak eta eguneroko beharretarako ematen den laguntza normalak dira era honetako beste egoitzekin erkatuta; astialdirako ekintza gutxi daude, ordea: kantu-talde bat, karta-jokoak, eskulanak, meza eta beste erlijio ekintza batzuk baino ez.

3. RESIF

Grafiko honetako lehenengo puntuak langileen ezaugarriak neurtzen ditu, heziketaren, trebatzeko egitarauaren eta borondatezko partaidetzaren aldetik. Egoitza honetan portzentaien arabeko puntuazioa txikia da, ez dago profesionalik lanaren bidezko terapian eta sustapen sozio-kulturalean, ezta psikologorik ere. Azpimarratu behar da asteburuetan borondatezko pertsonen osatutako talde batek bisitatzen dituela egoiliarrak.

Egoiliarren trebetasun funtzionala nahiko txikia da, hamarretik hiruk edo lauk laguntza behar izaten dute eguneroko eginbeharretarako.

Egoiliarrek beren kabuz egiten dituzten ekintzak jasotzen dira 3. puntuan. Ekintza horiek irakurri, josi, landareak zaindu, argazkiak atera, artelanak egin,

kartetan jokatzea eta antzekoak dira. Gehienbat egiten dutena, ordea, telebista ikustea da.

Herrian daukaten integrazio-maila normalizat jotzen den bataz-bestekoaren azpitik dago, egoitza hau herri erdi-erdian dagoen arren (ikus PAFeko 1. puntua).

Egoitzako zerbitzuen erabilerari dagokionez (osasun mailakoak nahiz eguneroko eginbeharretarako laguntzak), eta antolatutako astialdirako ekintzetan daukaten parte hartze maila bataz-bestekotik gertu daude.

4. SCES

Bi grafiko hauek egoiliarrek eta langileek egoitzan bizi den giroaz duten iritzia adierazten dute.

Ikus daitekeenez, taldearen batasuna, egoiliarren arteko harremanak eta elkar-laguntza, eta egoiliarren eta langileen harteko harremanak ez dira onak, batez ere langileen ustéz. Egoiliarrek, ordea, kexa, kritika eta eztabaida mailan elkarbizitza istilutsuagoa dela uste dute.

Bai batzuek, bai besteek ere bataz-bestekoaren azpitik jartzen dute egoiliarren burujabetasuna; izan ere, beren kabuz ez dute ekin-biderik, eta beti ere zer proposatuko dieten zain egoten dira.

Egoiliarrek arazoak eta sentimenduak azaltzeko daukaten gaitasunari buruzko iritzia bataz-bestekotik gertu dago puntuazio-portzentaiaren arabera neurtzen bada. Arauzko datuen arabera, ordea, era honetako egoitzetarako, egoiliarren iritzia bataz-besteko normalaren gainetik dago.

Bosgarten puntuan ikus daitekeenez, egoitzako antolamendu eta jardunari buruz batzuek eta besteek, baina batez ere egoiliarrek daukaten iritzia ona da. Guztiek, ordea, uste dute egoiliarren partaidetza oso eskasa dela.

Azkenik, eraikuntza, altzariak eta beste tresnak kalitate onekoak eta erosoak direla eta ongi zainduta daudela diote guzti-guztiek.

5. RS


Grafiko honetan, ebaluatzaileek egoitzara egindako bisitaren iritzia jasotzen da.

Inguru fisikoari buruzko puntuazioa, ebaluatzaileen ikuskapen zuzena jasotzen duena, bataz-bestekotik gertu geratzen da; eraikuntza berria da eta egoera onean dago, inguruko bazterrak ez dira oso erakargarriak, baina herriko alderdi hartako zati dira.


Bestalde, erakunde itxura du, gelak ia berdinak dira eta ez daukate personalizazio-kutsurik; apenas dagoen bertako pertsonen apaingarririk.

Egoiliarren jardun eta harremanei buruzko 3. puntua bataz-besteko puntuaziora hurbiltzen da. Egoiliarren eta langileen arteko harreman maila erdi-mailaren azpitik geratzen da.


SANTA MARIA MAGDALENA EGOITZA



- 1. Komunitatearen eskuragarritasuna
- 2. Erosotasuna
- 3. Astialdirako laguntzak
- 4. Mugitzeko laguntzak
- 5. Bideratzeko laguntzak
- 6. Segurtasuna
- 7. Langile-gelak
- 8. Espazioa




1. Eskakizun funtzionalak
2. Jarrera okèrren onarpena
3. Aukeratzeko askatasuna
4. Antolakuntzan parte hartzeko aukera
5. Antolakuntzaren argitasuna
6. Intimitatea
7. Osasun zerbitzuak
8. Eguneroko bizitzarako laguntza
9. Astialdirako aukerak




1. Langileen ezugarriak
2. Egoiliarren trebetasun funtzionala
3. Egoiliarren jarduera-maila
4. Egoiliarren integrazioa komunitatean
5. Osasun-zerbitzuen erabilera
6. Eguneroko bizitzarako laguntzen erabilera
7. Astialdirako ekintzen erabilera

SANTA MARIA MAGDALENA EGOITZA




1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna



1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

SANTA MARIA MAGDALENA EGOITZA



1. Egoitzaren edertasuna
2. Giro-ugaritsuna
3. Egoiliarren jarduna
4. Langileen jarduna

ERRUKI-ETXE SAINDU ETA ERREGEZKOA

Helbidea: Sabino Arana etorbidea, 2 (Bilbo)

Jabetza: Pribatua (Udalaren eta Aldundiaren bidez edo zuzenean sar daiteke)

Egoiliarrak: 264

Gelak: Banakakoak: 44

Binakakoak: 34

Hirunakakoak: 38

Askotarikoak (3, 4, 5, 7 eta 9 ohe): 12

Komunak: 57 (37 banakakoak)

Egoiliar bakoitzeko langileak: 0,32

Langileak: Zuzenean arreta ematen dutenak: 26,3

Langile laguntzaileak: 59,9

Egoitza hau, hiriaren erdialde inguruan dago, plaza batean. Kanpoalde nahiko zabala dauka banku, paseo, lorategi eta zuhaitzez. Egoitzan sartzeko eskailerak daude, eta arranpa bat ere badago, baina oso aldapatsua. Lau solairu ditu: beheko solairuan langileen gelak daude, lehenengoan gizonak bizi dira, bigarrenean emakumeak, eta sotoan, hots, erizaintzan, trebetasun funtzional txikiena daukatena daude; egoiliar horiek bertan igarotzen dute egun osoa. Solairu bakoitzak bere egongelak eta jangela dauzka, eta normalean solairu bateko egoiliarrek ez dira besteetara joaten. Gizonak eta emakumeak kanpoan bakarrik elkartzen dira.

Ez dakigu zehazki zein den etxearen azalera osoa; itxuraz oso handia da, pasabide luzeak ditu, sapaia oso altuak, egongela asko -22 guztira-, baina askotariko gelak daude eta horietan oso leku gutxi.

Egoiliar/langile ratioa, orohar, 218/1990 dekretuak ezarritakoa baino handiagoa da, baina gauez ez da nahikoa: bi monjak bakarrik lan egiten dute gauez 264 egoiliarrentzat.

Osasun-laguntzaileek, erizainek, sendagile batek eta langile laguntzaile eta administrari batzuek osatzen dute langilegoa: solairuetako arduradunak monjak dira. Ez dago gizarte-laguntzailerik, ez astialdirako sustatzailerik ez eta lanaren bidezko terapia arduradunik, ez bestelakorik ere.

1. PAF

Grafiko honetan ikus daitekeenez, hiriko zerbitzuak oso eskura dauzkate. Dendak, elizak, zineak, liburutegiak, jubilatuetxe bat, denetik dago oinez egin daitekeen tarte txiki batean.

Gelen, jardun-gelen, jangelen, etabarren azalera zein den ere ez dakigu, eta horregatik ezin izan da zehaztu zein den "espazio erabilgarria" deitzen dugun neurgaia, baina ikuste hutsarekin baieztatu daiteke etxea oso handia dela. Lau solairutan banatuta, 22 egongela daude, langileentzat nahiko leku badago, office-ak, bulegoak eta egongela bereziak dauzkate.

Falta dira, ordea, egoliarrentzako baliagarriak diren tokiak, hala nola, arropa garbitzeko gela, kafetegia eta, kanpoaldean, mahaiak eguzkitakoez. Gelak ezin dira norberaren gustora apaindu eta, ondorioz, erosotasun fisikoan ateratzen duen puntuazioa bataz-bestekoaren azpitik dago.

Astialdirako instalaziorik eza ere nabaria da -telebistadun egongelak eta lorategi nahiz paseok dituen kanpoko esparru bat baino ez-; ez dago pikto-gramarik ez eta egoliarrak bideratzeko eta beren kasa mugitzen laguntzeko bestelako neurririk, hala nola ate automatikoak, hagak bainugela eta dutxa guztietan, etabar. Alderdi horiek guztiak bataz-besteko normalaren azpitik geratzen dira, beraz.

Portzentaiatan adierazitako puntuazioaren arabera, segurtasuna %60koa da, alegia, erdiko puntuazioa era honetako egoitzetarako. Baditu, ordea, sutei aurre egiteko neurriak, txirrinak geletan, bainuetan ez dago larrialdietan deitzeko baliapiderik, ez eta irrist ez egiteko zorurik ere, oso garrantzitsuak izan arren egoiliarrek lurrera ez erortzeko.

2. POLIF

Antolakuntzari buruzko politika mailan, bataz-bestekoaren gainera geratzen den neurgai bakarra osasun-zerbitzuen eskuragarritasuna da: badaude sendagile bat eta erizain batzuk, botikak kontrolpean daude, baina lanaren bidezko terapia eta birgaitze-zerbitzua falta dira.

Egoiliarrek ordutegi zehatzak errespetatu behar dituzte, ezin dituzte altzariak lekuz aldatu ez eta logelak beraien gustora apaindu ere. Egoiliar batzuek garbiketa-lanetan eta mahaiak jasotzen laguntzen dute, baina antolaketan parte hartzeko organurik ez dago, ez da batzar orokorrik egiten eta langileek ere ez dute bilerarik egiten. Zuzendaritza batzordearen eta egoiliar eta langileen artean ez dago komunikazio biderik.

Intimitatea ez da zehatz errespetatzen, egoiliar gutxik daukate beren gelako giltza.

Astialdiko ekintza gutxi egiten dira. Kantu-taldea daukate eta, bestela, kartetan jokatzeko dute. Meza egunero ematen da.

Eguneroko eginbeharretarako laguntzak, era honetako egoitzetako bataz-besteko puntuazio normala lortzen du.

3. RESIF

Langileen artean -gizon zein emakume izan- alde handi samarrak daude adinari dagokionez, baina profesional mota gutxi daude. Inor ez da arduratzen laguntza sozialaz, lagunarteko eta kulturazko ekintzez, astialdiko ekintzez eta lanaren bidezko terapiaz ere; psikologorik ere ez dago.

Egoiliarren trebetasun funtzionala, bataz beste, txikia da, nahiz eta erizaintza-solairuko egoiliarren eta gainontzeko solairuetakoen arteko aldea handia izan, azken hauetako ia denak beren buruaren jabe baitira.

Beren kabuz egiten dituzten ekintzei dagokie puntuaziorik txikiena. Egoiliar gehienek ezer egin gabe pasatzen dute denbora gehiena, batez ere erizaintza-solairukoek, horien entretenimendu bakarra telebista ikustea delarik.

Hirian oso gutxi integratuta daude -gutxi irteten dira-, baina erreferentzia gisa arau-taula hartzen bada, era honetako egoitzek daukaten batz-besteko normaletik gertu dago.

Zerbitzuen erabilerari dagozkien 5, 6 eta 7. puntuak batz-bestekotik gertu aurkitzen dira. Neurgai horiek, eskuragarritasuna neurtzen duten POLIFeko 7, 8 eta 9. puntuekin batera balioztatu behar dira. Horrela, adibidez, astialdirako ekintzetan egoiliarrek duten partaidetza azaltzen duena, egoitza barruan eskaintzen diren aukera urrien arabera da, eta sarrien azaltzen dena eguneroko meza da.

4. SCES

Egoiliarrek eta langileek giza harremanei buruz ematen duten iritzia antzekoa da. Taldearen batasun eta harreman maila txikia nabaritzen dute, eta aldiz, gatazkak, kegak, kritikak eta ezin-eramanak ohizkoak baino handiagoak dira.

Beste neurgai guztiak txikiak dira: egoiliarrek oro har ia ez dute ezer egiten beren kasa, aspertu egiten dira eta langileek ez dituzte gehiegi adoretzen. Nekez hitzegiten dute nor bere arazo, nahi, sentimendu edo oroimenez. Zuzendaritzan eta arauak finkatzeko orduan ia ez dute eraginik, eta antolakuntzarekiko daukaten iritzia batz-besteko normalaren azpitik dago.

Erosotasun fisikoari dagokionez, egoitza ez da ez erakargarria, ezta gozoa ere, aitzitik, hotza eta deserosoa da.


5. RS

Ebaluatzaileen ustez, inguru fisikoak puntuazio altua lortzen du, argitasun ona dauka, ongi aireztatuta dago, ez da somatzen zaratarik, ez usain txarrik ere, garbitasuna azpimarragarria da, altzariak erosoak dira eta ongi zainduta daude. Bestalde, itxura instituzionala dauka, eta egoiliarren geletan nabaria da pertsonalizatorik ez dagoela.

Ikuskatzaileek ikusi dute egoiliarren arteko harremanak oso urriak direla, batez ere erizaintza-solairuko artekoak, horietako asko jateko eta oheratzeko bakarrik mugitzen baitira.


Beti ere zuzeneko ikuskapenen arabera, langileen eta egoiliarren arteko harremanak urriak dira, oinarritzko lanak egitera mugatzen dira; bestela esanda, harreman profesionala bakarrik dago.

ERRUKI-ETXE SAINDU ETA ERREGEZKOA




1. Komunitatearen eskuragarritasuna
2. Erosotasuna
3. Astialdirako laguntzak
4. Mugitzeko laguntzak
5. Bideratzeko laguntzak
6. Segurtasuna
7. Langile-gelak
8. Espazioa

ERRUKI-ETXE SAINDU ETA ERREGEZKOA




1. Eskakizun funtzionalak
2. Jarrera okerren onarpena
3. Aukeratzeko askatasuna
4. Antolakuntzan parte hartzeko aukera
5. Antolakuntzaren argitasuna
6. Intimitatea
7. Osasun zerbitzuak
8. Eguneroko bizitzarako laguntza
9. Astialdirako aukerak




1. Langileen ezugarriak
2. Egoiliarren trebetasun funtzionala
3. Egoiliarren jarduera-maila
4. Egoiliarren integrazioa komunitatean
5. Osasun-zerbitzuen erabilera
6. Eguneroko bizitzarako laguntzen erabilera
7. Astialdirako ekintzen erabilera

ERRUKI-ETXE SAINDU ETA ERREGEZKOA




1. Taldearen batasuna
2. Gatatzak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna



1. Taldearen batasuna
2. Gatazkak
3. Burujabetasuna
4. Arazoen azalpena
5. Antolakuntza
6. Egoiliarren eragina
7. Erosotasuna

ERRUKI-ETXE SAINDU ETA ERREGEZKOA



1. Egoitzaren edertasuna
2. Giro-ugaritsuna
3. Egoiliarren jarduna
4. Langileen jarduna

VII. ATALA

**EAEko EGOITZEN ESKAINTZAREN
AZALPEN OROKORRA
EBALUAZIOAREN ARABERA**

7.1. GAIAREN NONDIK-NORAKOAK

Tamalez, gure inguruko egoitzak “denborapasarako” dira eta ez bizi-ko. Egoitza gehienek behar bezala erantzuten diete oinarrizko behar materia¹ lei, baina ez dute, oro har, aiton-amonak banaka tratatzeko programarik ez ekintza-antolamendu egokirik eskaintzen.

Helburuak ez daude argi zehaztuak edo oro har azaltzen dira, zaindu edo “arreta eman” aipatzen dira, helburu operatibo, zehatz eta emaitzetan neurtzeko modukorik kontuan hartu gabe.

Izan ere, Bovaird eta Mallinson¹ adierazten duten bezala, helburuek argiak, zehatzak eta objetiboki antzemateko modukoak izan behar dute, beraiek emango baitute lortuko den emaitzaren eraginkortasun-maila. Ondo zehaztu gabeko helburuek, ordea, politika-jarduera zehazgabeak dakartzate berekin eta praktikan sendotasunik eza eta jardunbide kontrajarriak.

Zalantzarik gabe, ezarpen zaila eta ondorio neurtezinak emango dituzte oinarrian ondo mugatu ez diren xedeek, eta horrelakorik gerta ez dadin, helburu operatiboak zehatz-mehatz zeintzuk izango diren ahal bezain argi zedarritzea bezalakorik ez dago, horrek ahalbideratuko baitu emaitzen kontrolerako plangintza.

Helburu jakin bat egonik, nola gauzatuko den jakitea da lehen galdera, eta horrek maila apalagoan egongo diren beste xede batzuk ezartzera eramango gaitu. Aitzitik, lortu nahi den helburuak eskatzen duen ahaleginaren zergatia maila goreneko xedea izango da ezinbestean.

Ikusmolde honek jarraian gauzatuko diren jarduerak zehazteko abiapuntua adierazten du, eta, azken xedera zuzendurik, jarduerak berek erakutsiko dute aurrikusi diren helburuak jerarkiaz nola tajutu diren. Horrekin esan nahi baita bitarteko helburuak erabat garatuko den plangintza koordinatuaren zati direla.

Zehaztasun falta horrek egoiliarrek zaintzeko geldokeriari ematen dio bide, egoitzak horretara soilik mugatzen direla ez esateagatik. Izan ere, ehundik gora ohe duten zenbait egoitzatan, egoiliarrek ez dute inolako zereginik, eta otorduez kanpo telebistaren aurrean lozorroan egon besterik ez dute egi-

¹Tony Bovaird eta Ian Mallinson. Setting objectives and measuring achievement in social care. *British Journal of Social Work*, 1988.

ten. Horren adibide gisa esan dezakegu udaberri partean aztertu genituen egoitzetako egoiliarren erdiak ere ez direla inoiz kalera irteten eta hirutik bat baino ez dela lorategi edo patiora ere irteten astean zehar.

Esan beharra dago zuzeneko zaintzarako egitarauik ez egotearen arrazoia ez dela beti baliabiderik ezan bilatu behar, baizik eta, batzuetan, egoitzen beren izaeran, zeren egoitzak, edo egoitza batzuk bederen, hotel gisa jarduteko helburuaz eginak baitira. Eskema horren arabera, gauza "naturalizat" eta errespetatu beharreko norbanakoaren eskubidetzat joko litzateke zaharren geldokeria. Horra, beraz, zerk zurrizten dituen programarik eza eta egoitzetako langileen ezaugarri profesionala eta haien jokabideak.

Gehienetan ez da kontutan hartzen egoitza egoiliarraren etxea dela eta, horrenbestez, langileek haien intimitatea eta ahalik eta erosotasunik handiena errespetatzeko moduan antolatu eta jardun behar dutela. Tamalez, lan-ohiturak eta ordutegiak gehiago dira langileen beharrezaneko egokituak egoiliarrenei baino.

Aztertu ditugun zenbait egoitzaren izenek berek -Erruki-etxe Saindu eta Erregezkua, San Juan Bautista Dohatsuaren Ospitale Saindua- joandako garaiak dakarzkigute gogora, zaharrak eta eriak zaintzeaz erruki-erakundeak arduratzen zireneko eta zaingo hori eskubide gisa inolaz ere esijitzerik ez zegoeneko garaiak, hain zuzen. Tamalez, izen horiek izateaz gain, erakundeek eta arduradunek berek ere -beren ugazaben batzarrek, erruki-anaien batzarrek, etab., halako izenak baitituzte- jokamolde anakronikoak hedatu dituzte, eta on litzateke horiek aztertu eta egungo egoerara egokitzea.

Aipa genitzake erakundeen jokabide asko, iraganeko zaintze-moduari eusten jarraitzen dela erakusten dutenak, baina aurrerago hitz egingo dugu horietako zenbaiti buruz. Alabaina, gure erakunde batzuetan, neurri batean edo bestean, oraindik ere indarrean dirauen ongintza-izpiritu hori argiago erakusten dute egoiliarren beren jokabideek: uzkur eta inolako kritikarik egiteke betetzen dute araudia, beren intimitate eta duintasunarekiko begirune eta malgutasun gutxikoak diren arren. Zehatzago esatearren, zenbait aiton-amonek talde ebaluatzaileari datuak emategatik zigortuko zituzten beldur zirela zioten, eta mesfidantza horrek zaintze-moduari dagokionaz bestelako arrazoirik izan badezake ere, bai baititu horrelakoak ere -zaharren biografia bera, beren psikologia berezia, duten menpekotasuna-, esan beharra dago, hala ere, beldur horrek baduela jatorri argia, hein batean bederen: zenbait egoitzatan ezarritako harreman-bide berezia, sari eta zigorrak emanez burutzen dena, eta zahar gehienek bere burua babesteko duten gaitasun makala edo gaitasunik eza.

Nekez lor daiteke gaitasun hori garatzea, egoiliarrari, kexatzen denean, nola edo hala aditzera ematen bazaio, ez duela berak sortzen dituen gastuei aurre egiteko lain ordaintzen; gaitasun hori, norberak dituen eskubideen berri ongi jakitearen baitan dago, eta ezinbestekoa da zaintze-modua ona izango bada. Gauza jakina da, gainera, nolako alde "kultural" ikaragarria dagoen gizarte-zerbitzuen eta bestelakoen, hau da, tradizio unibertsalista handiagoa duten osasun edo hezkuntz zerbitzuen artean. Oso nabarmen azaltzen da alde hori ongintza-erakundeek administraturiko egoitza pribatuetan.

Halaxe da, borondatezko langileek parte hartzeko dauzkaten sistema formalek, edo dirua eta bestelakoak biltzeko antolatutakoek, borondaterik onenarekin antolatuak izanik ere, gehienetan gurasokeria erakusten dute, eta hori nekez batera daiteke egoitza-sistema moderno batean nagusitu behar duten eskubide eta askatasunekiko errespetuarekin. Zenbait erakunderen txostenak, babesle eta laguntzaileen zerrenda eta guztikoak -"Udalaren donazioa, letxugak eta baratxuriak; Sociedad Recreativa, zenbait arrain" irakur dezakegu horietako batean-, nola funtsean, hala forman ere, guztiz eredu anakronikoak ditugu, egoitzak babesleku izaten jarraitzeari laguntzen diotenak, dudarik gabe.

Horren guztiaren inguruan, honako hauek esan behar ditugu:

- Komeniko litzateke zenbait erakundek beren izenak, bai eta horien gobernu-sailenak ere aldatzea, izen horiek lotura estuegia erakusten baitute "ongintza kultura"rekiko.
- Erakunde batzuetan, erakundearen izaera bera da gaurkotu beharrekoa. Izan ere, horietako oso gutxitan dago aurrikusirik egoiliarrek erakundearen antolamenduan parte hartzeko biderik. Hori egiteko modu bat baino gehiago dago eta ezinbestekoa da, era batean edo bestean, bide hori ezartzea eta egunero erabiltzeko indar egitea bizimodua hobetzeko.
- Zentru gutxitan egin ohi dira batzarrak, eta guk bisitatutakoetan, batean ere ez da inolako berri-paperik edo aldizkaririk argitaratzen. Egoiliarren ekimen edo gogorik ezak ez luke zuritu beharko adierazpiderik ez izatea, zeren, bestelako modurik ez dagoenez, elkarbizitzari mesede kaskarra egiten dioten beste bide batzuk urratzera eramaten baitu jokabide horrek.
- Egoitza-zerbitzu orok izan beharko lituzke bere dokumentu inprimatuak, horietan honako hauek ahalbait argien zehazteko:

- Erakundearen helburuak.
- Instalazio eta zerbitzuen nondik-norakoak.
- Barne-jaurpiderako araudia. Araudi horrek jaso beharko lituzke egoiliarren eskubide eta betebeharrak, zerbitzuak erabiltzeko arauak, segurtasun-neurriak, tasak eta kuotak, erreklamazioak egiteko bideak etabar.

7.2. AZTERTURIKO EGOITZEN ESKAINTZARI BURUZKO ZEHAZPENAK

7.2.1. Osasun zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen arteko koordinazioa. Egoitzetako medikuntza eta osasun sorospenezko arazoak

Egoitzen esparruko medikuntza eta osasun zaintza dugu, zalantzarik gabe, gerontologiaren alderdirik eztabaidagarrienetako bat. Duen garrantzia, nonbait, gehiago datza, ordea, konponbide arbitrarioen kariaz administrazio-sektore desberdinei dakarzkien ondorio ekonomikoetan -administrazio zentralak *versus* periferikoak, gizarte-zerbitzuen esparrua *versus* osasunaren esparrua-, sortzen dituen arazoen funts zientifiko-teknikoan bertan baino.

Muturreko ikuspegitik, zahar-egoitzetan oraindik ere ohizkoa den erabilitzaile-mota bat hartuta aintzat, hots, eguneroko bizitzako zereginetan erabat bere kasa moldatzeko gai dena eta egoitzan lekua eskatzen duena oso-osorik arrazoi sozialtzat jo ditzakegunengatik -arazo ekonomikoak, etxebizitza-arazok, bakardadea, segurtasunik eza, etabar-, badirudike ezen, nagusiki hotelek eskaintzen dutenaren gisako atentzioa izanik, osasun-alorrerako gehigarriaren kontuak zalantza gutxi sortzen dituela eta, batez ere, ondorio ekonomiko nahiko urriak dituela. Ez da horrela, ordea. Izan ere, gero eta aurrekontu-arazo larriagoei aurre egin beharrean aurkitzen diren zahar-egoitzek gero eta maizago eta modu tinkoagoan egiten diote uko osasun-langileak kontratatzeari, eta, are gehiago, plantilako medikuen lanpostuak amortizatzen saiatzen dira.

Bestalde, kontutan hartu beharrekoa da zehazki medikuak kontratatzea saihesteko gizarte-zerbitzuen sektoretik eskuarki eman ohi diren arrazoiak bat datozela erabat osasun-plangintza zuzentzen duten irizpide ideologikoekin. Horrela, instantzia batetik nahiz bestetik, integrazio eta normalkuntza irizpideen izenean, argudiatu egiten da egoitzetan bizi diren aiton-amonek beren etxebizitza partikularretan bizi izango balira bezalaxe baliatu beharko luketela osasun-zerbitzuez.

Planteamendu horrek, bueltarik gabeko logika eta guzti, era askotako zailtasunekin egiten du topo praktikan, hainbat faktoreren ondorioz. Horien artetik garrantzitsuena, zalantzarik gabe, hauxe da: egoitza bat jartzeak, haren neurriaren arabera, pertsona zaharren kopurua "dentsitatea" areagotzea dakar berekin, eta, horren ondorioz, baita osasun-sektore edo arlo jakin bati atxikitako fakultatiboen lan-zama areagotzea ere. Edonola ere, sektore edo arlo batean halako egoitza bat izateak mediku bakoitzeko erabilitzaile-kopuru edo "kupo"-aren proportzioa konprometituko ez balu ere, zaintze-arazoak ez lirake guztiz konponduta geratuko.

Izan ere, egoiliarrei dagokien osasun-zentruari atxikitako etxerako medikuaren edo medikuen bidez haiei banakako atentzioa ematea ziurtatu arren, konpondu gabe geratuko lirake komunitate-osasunari buruzko hainbat alderdi garrantzitsu, batez ere gaitzei aurre hartzearen alorrean.

Baliteke sare publikoko zenbait medikuk egoitzetako aiton-amonak zain-
tzeko ardura beren gain hartzeari jartzen dizkieten eragozpenak, neurri batean
bederen, honako honetan sustraituta egotea: hots, inplizituki, ez bada esplizi-
tuki, dagozkien titularrei banan-banako sorospena eskaintzearen ardura ez
ezik, beste alderdi batzuk ere beren gain har ditzaten nahi da, eta, horien arte-
an, egoitzako mediku-zuzendaritza dei genezakeena.

Edonola ere, arazo hori alde batera utzita ere, zahar-egoitzetan bizi diren
pertsonek osasun-zaintza komunitateko sarean modu egokian txertatzeko zail-
tasunik handiena, seguruenik, hau litzateke: oro har, ordainsariaren osagarri
kapitatiboak berarekin dakarren interes ekonomiko murrizta, eta, bereziki -
produktibitate osagarriaren baitan-, edadeko titularren kopuruak soldatan duen
eragin eskasa.

Orain arte esandakoa arazorik gutxien sortzen duten kasuei dagokie,
hots, ezintasun handirik gabeko pertsona zaharrei, "burujabe" liratekeen horiei
medikuntza eta osasun zaintza eskaintzeari. Ezinbestean, kontua askozaz ere
korapilatsuagoa da ezintasun larriak dituzten egoiliarrei, hots, egoitzetan "ezin-
du" deritzenei, sorospena eskaintzean. Izan ere, egoera horretan beste zenbait
profesionalek ere eskuhartu behar izaten dute orokorrean aztertzen duen
medikuz gain, eta, aldi berean, komunitate antolabidean beti ziurtatu ezin den
zaintze-trinkotasuna eskatzen da.

Azter-etxe Europarrak bere 1993ko txostenean² zerbitzuen antolaketari
dagokion atalean adierazten duenez, argi eta garbi bereizi behar dira senda
daitezkeen gaitzak tratatzeko sendabide trinkoak, alde batetik, eta ezintasun
iraunkorrek dituzten pertsonen luzaroko zaintza, bestetik, osasun zerbitzuek
eta laguntza sozialekoek dituzten eskumenak eta dirubidezko erantzukizunak
mugatzearren.

Bigarren taldean sartuko genituzkeen pertsonak, hots, ezintasun arinak
edo larriak eta iraunkorrek izanik, luzaroko arreta eskatzen dutenek, medikun-
tza nahiz gizarte mailako beharrak dituzte, osasun eta gizarte laguntzaren
esparrua zehazten dutenak.

Aribidean osasun-erakundeek eta laguntza sozialekoek (erakunde hauek,
gainera, lurralde-eremu ezberdinen menpe daude jardute eta dirubide alorre-
tan) itzuri egiten dute beren erantzukizuna -berekin diru-korapilo garrantzitsuak
dakartzana- eta elkarri egozten diote horren ardura.

"Osasun" alorrean txuliatu egiten dira kostu handiko zaintza eskatzen
duten kasuak, zeinak arian-arian gehituz doazen eta teknikoki atseginak ez
diren. Bestalde, sail horretan maiz aditzera ematen da pertsona edadetu asko
eta askok ospitaleetako oheak betetzen dituztela zerbitzu sozialen sarean bes-
telako aukerarik eskaintzen ez dietelako. Halaber, aitortu beharra dago ospita-
leetan ugalduz doazela bertan luzaro egoteko unitate edo sailak.

²Anne-Marie Guillemard, Jens Alber, Alan Walker eta beste batzuek. *Les personnes âgées en Europe: les politiques économiques et sociales*. Rapport 1993 de l'Observatoire européen. Commission des Communautés Européennes, 1993.

Horren ordain, esan beharra dago, orobat, gizarte-ongizateko sailen menpeko zahar-egoitzetan zaintzen duten jende-kopuru handiena gaiso kronikoek osatzen dutela, eta horiek denak ez direla edadetuak; eta adina alde batera utzita, nahiz horrek zerikusirik baduen eta egoitzetan egotearen arrazoi garrantzitsua den, gaiso kroniko horiek ia etengabe behar dute osasunbidezko laguntza eta osasunbidezko bestelakoa.

Egia esan, "laguntza behar dutenen" egoitzetako oheak eta ospitaleetan luzaro egoteko sailekoak mota bereko erabiltzaileek betetzen dituzte -mediku ikuspegitik begiratuta-.

Horren arrazoi edo zergatiak aztertzen hasi gabe, sentikortasun handiagoa eskatuko genieke gizarte-zerbitzuei, edo, zehatzago esateko, minberatasun handiagoa, osasun-zerbitzuei dagokienez, horrela, mediku eta osasun laguntza beharrean dauden pertsona anitzen eskaerei erantzutearren.

Ohar-ikasiz dakigu osasun alorrean alta eta baja ematea eskuarki ezin eztabaidatuzkotzat jotzen dela -agian medikuaren iritzia ezin zaiola kontra egin uste izateagatik-, eta gizarte-zerbitzuen alorrean, berriz, eztabaidatu edo elkar adituz zuzen daitezkeen kontutzat jotzen direla.

Beste alde batetik, burujabeentzako egoitzak berak medikuntza alorrean aurrera egin beharra dute, beren erabiltzaileen zaintza-beharrei egokituz; izan ere, denbora igaro eta bizitza-itzaropena handitu ahala, egoiliarren osasunak okerrera jotzen du eta beren beharrak areagotu egiten dira.

Horrela bada, zahar egoitzek gero eta maizago hartu behar izaten dituzte bere ardurapean hainbat pertsona, zein, dituzten ezaugarriengatik eta eskatzen duten osasun-zaintzagatik, ospitaleetan luzaro egoteko sailean hartzeko modukotzat jo daitezkeen. Ezinbesteko iruditzen zaigu gai hau nabarmentzea, izan ere, sarritan, ustezko bereizketa nosologikoak egin ondoren, batipat dirubidezko arazoak saihestu nahi izaten dira eta, kasurik onenean, arazo politiko eta administraziozkoak.

Orobat, ospitaleen kasuan egin berri dugun bezala, adierazi behar dugu medikuntza eta erizaintza ardura handia eskatzen duten erabiltzaileak hartu beharraren ondorioz, erresumindu egiten direla zentru batzuetako zuzendari eta langileak, eta baita bertako egoiliarrek ere, hauek kexu baitira, zentru horien baliapideei eta jatorrizko helburuei begira, pertsona larriki ezinduak asko direlako eta horrek elkarbizitzari eta zaintzaren kalitateari kalte handia dakarkiola uste dutelako.

Seguru aski Leioako egoitzan antzematen da ezin-eramanik handiena, estamentu guztietan, erakundeak bere gain hartu behar izan duen ospitale-zereginagatik.

Aztertutako egoitzetako arduradunek emandako datuak aintzat hartzen baditugu, buru-nahaste larriak dituzten zaharren proportzioak gainditu egiten ditu teknikoki gomendagarri diren mugak, eta, zenbaitetan, kexarik ere jaso izan da, ospitaleetan behar baino lehenago alta emandakorik ere hartu behar izan dutela eta.

Era berean, egia da, ordea, ospitale askotan uste dela bertako ohe asko modu ezegokian betetzen dituztela gaisotasun kronikoak dituzten pertsona

zaharrek, zeini zaintza aringarriak baino ezin baitzaizkie eskaini, eta horretarako, hala uste dutenek argudiotzat ematen dituzten irizpide tekniko eta ekonomikoen arabera, ospitaleak ez lirateke lekurik egokienak.

Esan daiteke, beraz, zio bat edo beste dela medio osasunaren alorrean nahiz horren inguruko beste hainbat alorretan etengabeko zaintza behar duten pertsona zaharren eta, oro har, ezintasun larriak dituztenen atentzioa, nolabait, "inorena ez den lurra" moduko zerbait dela. Gorago adierazi dugunez, gizarte-zerbitzuen sektoreak (administrazio-egitura den aldetik) eta egoitzek (baliabide materialak diren aldetik) izan dute beren gain, eta hala dute oraindik ere, arazoaren zama erlatiborik astunena; horren ondorioz, ordea, oso modu larrian konprometituta dituzte aurrekontuak -beraz, mugatuta beste jarduera batzuk-, eta, are okerrago, horrenbestez dagoen zaintza-defizit handia murriztea lortu gabe.

Horrenbestez, ezinbestekoa da arazoa behar bezala zehaztea, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki, eta administrazio-estamentu desberdinen agente-eremuak mugatzea, posible den erantzunik hoberena tajutzearren. Erantzun horrek, jakina, gizarte, ekonomi eta osasun mailako neurriak bildu beharko ditu.

Ezintasun larriak dituzten pertsona zaharren beharrei erantzuteko badago gizarte eta osasun antolakuntzarako eredu teoriko bat baino gehiago, eta bat baino gehiago aplikatu izan da Europan; arrakasta-maila ere ez dute guztiek berbera eduki. Edonola ere, hobe da horietako okerrera aplikatzea, egoera definitugabea egotea baino; izan ere, azken egoera horretan, arazoa administrazio orok besteren esku uzteko joera nagusitzen da -erantzunik gabe geratzen da arazoa, horrenbestez-, edo ardura, azken finean, egiturarik ahulenaren gain geratzen da.

Zorionez, antzematen dira, dagoeneko, arazoari modurik arrazional eta koordinatuenean aurre egiteko borondate politikoa erakusten duten lehen zantzuak.

Ildo horretatik, aipatzekoa da, lehenik eta behin, "Araba Lurralde Historikoan sorospen psikogeriatrikoa hobetu eta arrazionaltzeko" Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzak-hitzarmena, Osasun Sailburuak, Osakidetzako zuzendari nagusiak eta Gizarte Ongizateko Diputatuak 1993ko martxoaren 9an izenpetu zutena.

Hitzarmen horretan, psikogeriatricaren alorrean egintza ugari eta desberdinak egiteko beharra azpimarratu ondoren, hauxe adierazten da: "maila formalean, egintza horiek nagusiki gizarte-zerbitzuen esparruari edo osasunaren esparruari dagozkio. Baina, praktikan, zerbitzu horien jasotzaileek bi eratako arazoak agertu ohi dituzte, eta horiei aurre egiteko ikuspegi orokorraren beharra dago, eta ezinbestekoa da zerikusirik duten erakundeek elkarrekin lan egitea". Hitzartutakoaren arabera, eta sektoreko zereginei dagokienez, Osakidetzak hartzen du bere gain psikiatri laguntza behar duten aiton-amonei hori eskaintzea, anbulatorioko sorospen psikogeriatrikoa nahiz etxetik etxekoa gehitzen ahaleginduz, bai eta zaharren egoitzei eta antzeko erakundeek eskaintzen dien laguntza psikiatrikoa garatzen ere, horretarako beharrezko diren baliabi-

deak egokituz, gero eta gehiago. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, berriz, horren beharra duten zaharrei -arazo psikogeriatrikoak izanik ere elkarbizitza-arazorik sortzen ez dutenak eta etengabeko kontrol klinikoaren beharrik ez dutenak barne-, gizarte-sorospena eskaintzea hartzen du bere gain.

Bi erakunde horiek, halaber, sailen arteko lekualdaketak arintzea ere hitzartu dute. Horretarako, gizarte ongizaterako egoitzetan sartuta dauden edo berorietan sartu zain dauden zaharrei gertatzen zaizkien krisialdi guztiei erietxeetan berehalako erantzun psikiatrikoa emango diela bermatzen du Osakidetzak, eta lehentasunezkotzat jotzen du halako kasuetan gaisoa dagokion unitatean sartzea, bakoitzaren zernolakoen arabera. Ordainetan, sorospena osasun-zentruetan jasotzen dutelarik ere, azken batean eta nagusiki arazo soziala bizi duten sujetaek sektoreko erakundeetan hartzeko tramiteak arindu egingo ditu Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak.

Hitzarmenak berariaz onartzen du sektore batean nahiz bestean badela bertan modu ezegoki edo okerrean sartua izan den pertsonarik, eta, horrenbestez, horiek egitura batetik bestera aldatzeko bidea zehazten du. Horrela, Osakidetzak, apurka-apurka, Las Nieves ospitale psikiatrikotik gizarte-ongizaterako egoitzetara aldatuko ditu buru-ahalmenaren gutxitzea edo bilakabide luzeko arazo psikiatrikoak izanik ere portaera-nahasmendu larririk erakusten ez duten pertsonak, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, berriz, beste horrenbeste egingo du etengabeko osasun-zaintza eskatzen duten arazo psikogeriatrikoak izateaz gain, etengabeko portaera-nahasmenduengatik, egoitzetara elkarbizitza nabarmenki zailtzen duten pertsonekin, kopuru berean.

Poztekoa den bigarren gertakaria, gizarte ongizaterako egituren eta osasun-egituren arteko lankidetzari bide itxaropentsua zabaltzen diona, Osakidetzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Julian Rezola zentruarekin³ (Matia fundazioaren menpekoa) osasun-zaintzarako zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen iharduera bateratuari buruz izenpetutako hitzarmena dugu.

Akordio horren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko du, apurka-apurka -osorik 1995erako-, Julian Rezola ospitaleko zerbitzuak hitzartzea, esan nahi baitu, azken batean, erakunde hori zahar-egoitza gisa definitzen dela, eta, horrela izanik, gizarte-zerbitzuen ardura-esparruan sartzen dela bete-betean.

Akordio horrek, zeinetan jarraipena egiteko batzorde bat sortuko zela ere adierazten baitzeri, Gipuzkoako zahar-egoitzetako egoiliarren medikuntza eta osasun alorreko zamak zehazteko azterlana egin zedin bidea zabaldu zuen, helburutzat harturik Osakidetzak haiei erantzuteko orduan zer-nolako eskuhartzea eduki beharko lukeen zehaztu eta balioztatzea.

Azterlanak, nahiz eta erakunde baten eta bestearen erabakien artean desberdintasun kuantitatiborik badagoen, ez du lankidetzagiroa nahasi, ez eta erantzun koordinatua emateko nahia ere.

³Gipuzkoako Batzar Nagusietako Gizarte Zerbitzuen Batzordeak mila bederatzehun eta laurogeita hamabiko abenduaren bian berretsia.

Propio medikuntza-sorospenari dagokionez, zentru bakoitzari mediku jakin bat edo batzuk izendatzea du aurrikusia Osakidetzak; horrela, beren kupoan jasoko dituzte egoiliarren osasun-kartila guztiak.

Erizaintza-sorospenari dagokionez, aldeko jarrera erakusten du Osakidetzak bere azterlanean onartutako erizaintza-denboraren arabera diru-saria emateko sistema bat bideratzeari dagokionez, ordu/egun kalkulua Osakidetzako EDUen orduko kostuaren arabera eginik.

Gizarte-Zerbitzuetarako Sailak -Arabako Foru Erakundeak eta Osakidetzak izenpetutako hitzarmenean bezalaxe-, bere gain hartzen du edozein mailatako zahar-zorotasunak jotako pertsonentzako atentzioa, portaera-nahasmendu larririk ez duten kasu guztietan.

Ekimen horiek, zalantzarik gabe, aurrerapausu handiak dira gaiso kronikoak diren eta ezintasun larrien menpe dauden zaharrentzako zaintzaren alorrean azaltzen diren arazoan arteko garrantzitsuenetako bat konpontzeko bidean.

7.2.2. Adinekoen egoitzetako zerbitzuak jasotzeko aukera

Aurtengo abenduan Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburuak Legebiltzarrari txosten bat aurkeztu zion gure autonomi elkarteko osasun eta gizarte alorreko egoerari buruz; txosten horren arabera, etxeko laguntza bezain onartua ez izan arren, gaur egun badira 9.572 pertsona, zahar-egoitzaren batera sartu nahi dutenak, eta beste 1.206k eskatu ere eskatu dute; gaur egun egoitzetan bizi diren aiton-amonak, ordea, 8.625 dira.

Osasun-egoera izaten da aiton-amonak egoitzetara sartu nahi izateko azaltzen duten arrazoi nagusia. Nolabaiteko ezintasunen bat eduki ala ez, batez ere irizpide horixe erabiltzen dute zaharrek sarrera eskatzeko orduan; sail horrek egindako *Egoitzetako Aiton-Amonei buruzko Txostenean* (1983) adierazten zen bezala.

Izan ere, beren osasuna galtzeko beldurrez eta, beraz, behar dituzten atentzioak jaso gabe geratuko diren beldurrez, aiton-amonak ahalik eta azkarren sartu nahi izaten dute egoitza batean.

Horrela ulertzen da nolatan zaharren artetik %40k baino ez daukan ezintasunen bat; hortaz, jende gehienak uste duenaren kontra, zaharrek ez dute behartuta hartzen egoitzaratzeko erabakia, baizik eta beren buruaren jabe direlako.

Osasun gorabeheren ondoren, sarrera eskatzeko beste arrazoi nagusi batzuk ere aipa daitezke; adibidez, batzuek, beren ezkontidea hil eta gero, senitartekoentzat traba bat baino ez direla uste izaten dute; baina badira etxebizitzarekin edo diruarekin arazoak edukita egoitza batera sartu nahi dutenak ere, bigarren lekuan utzirik familiaren barruko istiluak.

Gizarte-zerbitzuak jasotzeko modu bereziari dagokionez, has gaitzen aipatzen Euskal Legebiltzarrak Gizarte-Zerbitzuei buruz emandako maiatzaren 20ko 6/1982 Legearen 2. artikulua dioena:

“Euskal Herrian bizi eta arrotz ez direnak eta bidariak dira lege hone-tan araupe-tutako gizar-te-zerbitzuen eskubidedun, arauz jarri daitez-en baldintzapean.”

Horren arabera, zerbitzu horietaz baliatzeko eskubidea dutenak ezer baino lehen beren bizileku edo nazionalitatearen arabera mugatuta clauden arren, araudiaren baitan utzi da eskubide horiek baliarazteko aukeraren antola-keta zehatza.

Gure ikerlan honen arlora etorri-z, Hirugarren Adinekoentzako Erresiden-tzietako Zerbitzu Sozialei buruzko Eusko Jaurlaritzaren 218/1990 Dekretua-ren arabera, egoitza ertain eta handiek, baina baita 30 egoiliar baino gehiago dauzkaten txikiek ere, araudi bat eduki behar dute, behar bezala zabaldua eta ezagutarazia, egoitzara sartzeko baldintzak eta hautapena egiteko baremua zezintzuk diren jakinerazteko (I.B.27. eranskina).

Betebe-har hori ezarrita egon arren, aztertu ditugun 13 egoitzetatik 7k ez zuten inolako araudi-rik; gauzak horrela, aplikazio orokorreko eta tankera des-berdinetako foru ebazpenen bidez arautu bada ere hiru lurralde historikoetako egoitzetarako sarrera, komenigarria da, halaber, argi eta garbi egoitza bakoit-zean ere arautzea eta barne-jaurpiderako araudien artikuluen artean sartzea.

Horrela, Arabaren kasuan, Gizarte Ongizate Institutuaren Administrazio-Batzarrak Arabako Foru Aldundiaren ardurapeko zahar-egoitzetara sartzeko modua eta baldintzak arautzen dituen erabakia onartu zuen 1990eko martxo-a-ren 12an.

Arabari, honako baldintza hauek jartzen dira adinekoentzako zentruetara sartzeko eta erakunde publiko zein pribatuek zuzendutako zenitruetian itundula clauden postuak lortzeko:

- a) 60 urte beteta edukitzea.
- b) Gutxienez bi urte lehenagotik Araban erroldaratuta egotea eskaria aur-kezten denean.
- c) Hirugarren Adinekoen Balorazio eta Biderapenerako Batzorde Teknikoak (HABBBT) aldeko txostena ematea.

Eskaria idatziz egin behar zaio Gizarte Ongizateko Foru Diputatuari, eta Udalaren Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuan aurkeztu behar da, edota, bestela, Gi-zarte Ongizaterako Foru Institutuan.

Eskariarekin batera, osasun-aurrekinak eta NANen fotokopia ere aurkez-tu behar dira.

Foru Institutuak argibideak bilatuko ditu erroldan.

Eskatzailearen diru-egoera nolakoa den neurtu ahal izateko, ondasunen zinpeko aitortpena egin behar da eredu ofizialean.

Eskaria eta dokumentazioa jaso ondoren, dagokion Udalaren oinarrizko zerbitzuek txosten sozio-familiar bat osatuko dute aditzera emateko nolako behar eta arazoak dituen eskatzaileak, bai eta egoitzaratu nahi duen, eta zein egoitzatan sartu nahi duen ere.

Egoiliar berriak onartzeko beharrezkoa da Hirugarren Adinekoen Balorazio eta Biderapenerako Batzorde Teknikoak (aurrerantzean HABBBT) proposatzea eta aurretiaz txostena aurkeztea.

Batzorde horretxek aztertzen ditu jasotako eskariak, eta berak finkatzen ditu lehenetsiak, horretarako onartuta dagoen baremuaren arabera.

HABBBT delakoa osatzen dutenak honako hauek dira:

Batzordeburua: Hirugarren adineko alorreko zuzendaria.

Hirugarren adineko sendagile geriatra.

Hirugarren adineko sendagile psikiatra.

Idazkaria: Gizarte-lanen koordinatzailea.

HABBBTk eskariak aztertu behar ditu, honako neurgaiak kontuan hartzen dituen baremu honen arabera.

Baremu soziala:

adina-> 0 puntutik 5 puntura.

dirusarrerak-> 0 puntutik 5 puntura.

elkarbizitzaren egoera-> 0 puntutik 6 puntura.

familiarekiko harremanak-> 0 puntutik 6 puntura.

familiarekiko ardurak.

etxebizitza-> 0 puntutik 4 puntura.

eroldako aintzinasuna-> 0,25 puntutik 2 puntura.

Osasun-balorazioaren maila:

patologiaren arabera-> 0 puntutik 5 puntura.

ezintasun fisikoaren maila-> 0 puntutik 5 puntura.

ezintasun psikikoaren maila-> 0 puntutik 5 puntura.

balorazio psikiatrikoaren maila-> 0 puntutik 5 puntura.

Baremu honen arabera dagokion azterketa egin eta gero, HABBBTk bere iritzia emango du eskatzaileari eman beharreko erantzunaz.

Adinekoentzako zentru batean sartzea gomendatu arren, eskari guztientzako posturik ez badago, puntuazioaren hurrenkerari hertsiki jarraituko zaio.

Zentru bakoitzeko postuak beren eragin-esparruko udalerrietan bizi diren aiton-amonentzakoak izango dira batez ere.

Puntuazioaren arabera bidezkoa bada sartzeko eskariari baiezkoa ematea, eskatzaileari jakinarazi behar zaio postua eman zaiola, bai eta zein zentrutan eta noiz sartu ahal izango den.

Eskaria onartzeko erabakian bertan emango da aditzera zer ordaindu beharko duen eskatzaileak indarrean dagoen araudiaren arabera, eta honek

bere banku-kontuaren zenbakia jakinarazi beharko du, ordaindu beharrekoak kobratzeko.

Arabaren gertatzen denaren antzera, Bizkaian eta Gipuzkoan ere Udalaren oinarrizko gizarte-zerbitzuek bideratzen dituzte eskariak, eta, kasu honetan, baremua osatzerakoan erabiltzen diren neurgaiak honako lau multzootan daude banaturik: familiaren gizarte-egoera, ezintasun fisiko eta psikikoen egoera, etxebizitza-egoera eta diru-egoera.

Bizkaiko Lurraldean, aldiz, azaroaren 2ko 108/1993 Foru Dekretuak (BAO, 281 zkia.), adinekoentzako egoitzetan sartzeko banakako dirulaguntzak arautzen dituenak, inplizituki hartzen du bere barne haietan sartzeko prozeduraren arauketa.

Arabako araudiarekin badago alderik; esate baterako, eskatzaileari urtebete lehenago bakarrik erroldaratuta egotea eskatzen zaio; bestetik, egoitzaratu baino lehen, zor-aitorpena egin behar du Foru Aldundiaren alde, berak ordaintzen duenaren eta gehienezko kostu teorikoaren arteko aldeagatik; gai honetaz berriro hitzegingo dugu egoiliarren ordainei buruzko atalean.

Dekretu horren 2. artikulua dióenez, salbuëspenezko kasuetan, baldin eta kasu horiek behar bezala arrazoituta eta dagokion foru sailak aztertuta badaude, premia handia daukaten edo egoera guztiz berezietan bizi diren eskatzaileei ez zaie adinari edo/eta erroldaratzeari buruzko baldintzak betetzea eskatuko.

Gipuzkoan, egoiliarrek sartzeari buruzko irizpideak eta zirkuitu bateratuak Foru Aldundiaren Gizarte-Zerbitzuen Departamenduak adinekoentzako egoitzekin egindako hitzarmenen bitartez finkatzen dira.

Egoitza batera sartu ahal izateko, oro har, 65 urte edukitzea eskatzen da, bai eta eskaria egin baino bost urte lehenago erroldaratuta egotea ere.

Bizkaian bezalaxe, eta onarpenak haien jardun-eremuaren arabera moldatzearren, egoitzek, oinarrizko gizarte-zerbitzuen tramitaziorik gabe, beren postuetatik %10 onartu ahal dituzte, premia larriko kasuak daudenean. Kasu horietan, onarpenak Gizarte-Zerbitzuen Departamenduari jakinarazi behar zaizkio, proportzio horren gainera gertatzen den beste edozein sarrera berariaz onar dezan.

Gure elkartetik atereaz, eta gonbarazio bat egitearren, Nafarroak, Bizkaia-aren antzera, egoitzarekiko eta Gizarte Ongizateko Zerbitzu Erregionalekiko zorra aitortzeko baldintza jartzen du.

Asturiasko Printzerriak abenduaren 10eko 82/1992 Dekretuaren bidez onartu zuen egoitzaratzeko moduaren arauketa aipatu nahi genuke hemen, nahiko berritzailea delako; dena dela, horri buruzko aipamen luze eta zabala goa egingo dugu egoiliarrek ordaindu beharrekoa aztertzean.

Elkarte horretan, postua ematea onartu eta gero, eskatzaileak kontratu bat eginez zehaztasun osoz arautzen dira "Establecimientos Residenciales para Ancianos de Asturias" deritzan erakunde autonomoak, nolana ere, egoiliarrek emandako ordainaren eta bere egonaldiaren egiazko kostuaren arteko aldea berreskuratzeke bermeak.

Horri gagozkiolarik, iritzi batzuen arabera, kontratuaren figurak garrantzi berbera ematen die egoiliarren eskubideei eta betebeharrei, eta eskatzailea egoera kaskarragoan uzten du erakundearen aurrean.

Beharbada, Asturiasko kasuak ez dio ikuspegi horri erantzuten zehazki, askoz gehiago kezkatzen baita egoiliarrek duen zorra kobratzeaz, hark dituen eskubideak aitortzeaz baino.

Nolanahi ere, bada suerte txarragoa duenik: alegia, esandako eginbideak egin eta gero, nahi duten postua hutsik geratu arte zain egon behar dutenak, egoitzetan postu gutxi dagoelako gaur egun.

Horrela, beste inork baino gehiago, gorputz edo buru ezintasunak eraginda burujabe ez diren eta, beraz, beren kasa moldatzeko gauza ez diren aitona-amonak dute laguntza-premiarik handiena, babesik gabe daudelako eta oso gutxi direlako haientzat dauden zerbitzuak.

Gauzak honela, bideren bat aurkitu behar da egoitzetara sartzeko orduan berdintasuna eta arrazionaltasuna bermatzeko; bide hori, ezinbestez, sartzeko behar objetiboan oinarritu behar da, alde batera utzirik beste hautabide batzuk, betidanik aseptikoagotzat eta objetiboagotzat jo izan direnak, itxarote zerrendako postua, esate baterako.

Azkenik, irizpide eta hautabideak argitzeaz gain, horien berri behar bezala zabaldu beharko litzateke era honetako zerbitzuen erabiltzailegaien artean; zeregin horretarako, oso lan egokia egin dezakete udalen oinarrizko zerbitzuek.

Beste alde batetik, postu hutsen kudeaketa garbiagoa eta eraginkorragoa izango bada, eta postu berbera aldi berean eskatzen duten pertsona batzuen arteko adjudikazioak hobeki kontrolatu ahal izateko, komenigarria litzateke errolda bakar bat edukitzea, lurralde historiko bakoitzean onartu gabe geratutako eskariak biltzeko.

Honi dagokionez, oso jakingarria da J.J. Calvok eta beste batzuek 1988ko udan Donostialdeko eskariari buruz egin zuten azterlana. Berau irakurri ondoren, argi dago, beste ezer baino lehen, eskariak ez daudela zentralizata, hainbat erakunde publiko zein pribaturen bitartez egin baitaitezke. Erakunde horiek guztiek eskainitako argibideen arabera, eskatzaileak 529 ziren guztira.

529 pertsona horietatik, 81 jadanik bazeuden Gipuzkoako adinekoentzako egoitzaren batean edota beste leku batzuetan; 36, aldiz, artean hilak ziren; 140, ordea, "leku ezezagunean" zeuden; eta beste 49 Donostiatik kanpo bizi ziren. Hortaz, azterlanean laguntza emateari uko egin zioten beste 30 lagunak ere kendu ondoren, azter-eremua 193 eskatzailetara mugatzen zen.

Argi samar erakusten digu honek zeinen beharrezkoa den aipatu ditugun neurri zuzentzaileak hartzea, nahi badugu daukagun informazioa egiazko eskariaren arabera izatea beti ere.

Itxarote-zerrendetan dauden aitona-amonen informazioaz, honako argibideak eskuratu dizkigute lurralde historikoetako arduradunek:

- Araban, Foru Aldundiaren ardurapeko egoitzetan 131 eskari daude oraindik erantzunik jaso gabe. Udalak, bestalde, 192 utzi ditu erantzun zain.
- Gipuzkoan, gaituentzako 530 eskari geratzen dira erantzun gabe eta laguntzadunentzako postuen alorrean, 57 eskari geratzen dira lurralde horretako itxarote zerrendan.
- Bizkaian, 1.602 lagunek osatzen dute hango itxarote zerrenda, horietatik 992 postu eskatu dira laguntza premia handia duten aiton-amonentzat, 429 eskari pilatu dira burujabeen alorrean, eta 181 eskarik oraindik balorazioa egiteke daukate.

Datu horien arabera, 1993ko abenduan 2.512 pertsona daude itxarote-zerrendan EAE osoan.

Hori horrela izanik ere, berriro diogu zaila dela jakitea eskari osoaren kopuru zehatza; horregatik, dagoen postu-eskaintza eskaxa aztertzerakoan hauxe hartzen da irizpiderik egokientzat: benetako eskaintzaren eta EAEko 65 urtetik gorako edadetuen kopurua alderatuz lortzen den tasa erabilteza.

7.2.3. Erabiltzaileen partaidetza egoitzetako zerbitzuen finantziazioan

Gaur egun, Estatu sozialaren laguntza emateko bideak aztertu behar dira, batez ere gizartearen aurrean hartuta dauzkan betebeharrei aurre egiteko behar adina errekurtso ez dauzkalako. Estatuak eta gizarteak, beraz, zerbitzu sozialen alorrean eduki beharreko partaidetza eta konpromezu maila mugatu behar dituzte. Hirugarren adinari dagokionez, eta osasun arloaren eraginez, sarritan nahi izaten da Estatuak bere gain hartzea kostu guztiak, publikoa eta dohainekoa gauza bera direlakoan. Alabaina, Estatuak berak bakarrik ezin dio aurre egin zerbitzu horren zamari, eta bestalde, gastuaren arrazionaltasunaren ikuspuntutik, ez dirudi arrazoizkoa zerbitzua behar eta ordain dezaketen pertsonen gain uzteak. Aldiz, hirugarren adinekoei erian beharreko zerbitzua eskaintzaren eta eskariaren jokuaren baitan uztea ere ez litzateke gomendagarria izango, bitarteko ekonomiko urrienak dituztenak beraien zoriaren baitan uztea litzatekeelako.

Ikuspegi horretatik, gizarte zerbitzuen alorreko gastuak gizarteak eta Estatuak elkar hartuta ordaintzearen aldeko iritzia gero eta gehiago indartzen ari da. Horrela, Administrazioari zerbitzu gehiago eskatzeak ez du pentsarazi behar dohainekoak izan behar dutela, zerbitzua eskatzen duenak, bere bitarte ekonomikoak direla medio zati bat ordain dezakeelarik.

Gastuak elkar hartuta ordaintzeari, orokorrean koordinazio sozio-sanitarioa eta bereziki hirugarren adinekoena gehitu behar zaizkio.

Ahaleginak koordinatzeko premia horri buruzko adibide adierazgarri modura esan dezagun, aurtengo ekainean Vitoria-Gasteizen egin ziren I. Jardunaldi Gerontologikoetan adierazi zena, alegia, gaisotasun kroniko bat

daukan adineko pertsona bat ospitale orokor batean edukitzeak, hilean 900.000 pezetako gastuak eragiten dituela, egunean bataz-beste 30.000 pezeta. Pertsona horri berari laguntzadunen egoitza batean arreta eskaintzea, hilean 180.000 pezeta kostako litzateke, gaur egun egonaldi horien kostua neurtzeko erabiltzen den moduloa ezarriz, egunekoa 6.000 pezetan finkatzen baita.

a) Administrazioen diru-ekarpena

Euskadin, 1990. urtean gizarte-zerbitzuetan egin zen gastu publiko arrunta 35.000 milioitik gorakoa izan zen, Eusko Jaurlaritzak, diputazioek eta udalek egindakoa batuta, eta pertsona bakoitzaren urteko gastua, bataz-beste 16.400 pezetakoa izan zen. Kantitate horietatik hirugarren adinekoentzat erabili zen dirutza 9.703 milioi pezetakoa izan zen, aiton-amona bakoitzeko 4.543 pezeta.

Diputazioek %62,26ko laguntza eman zuten; %15,87 udalek; Eusko Jaurlaritzak %12,46 eta beste erakunde batzuek %9,40.

Horretarako, Gizarte-Zerbitzuei buruzko 6/1982 Legeak 27. artikuluan hau xedatzen du: "Foru-Diputazioek bere egitarauetan gizarte-zerbitzu ezberdinei eusteko, eta horien hazkunderako, Udalen edo Udal-mailatik gorako erakundeen eskuharmen-heina sortuko dute".

Gipuzkoan, Diputazioak kopuru jakin bat ordaintzen du beren kabuz baliatzen diren edo laguntza behar duten hirugarren adinekoentzako egoitza-postuen arabera: 20.000 pezeta hitzarmen bidezko egoitzetan, baldin eta adineko pertsona bere kabuz baliatzen bada (35.000 pezeta pertsona horrek laguntza pentsio bat jasotzen badu) eta 60.000 laguntza beharreko pertsona den kasuan (75.000 laguntza-pentsioa jasotzen badu). Egoitza bakoitzaren kostu errealarari Diputazioaren eta erabiltzailearen ekarpena kitatu ondoren, dagokion Udalak ordainduko dio edadetuari geratzen den kantitatea, horrela kalkulaturako udalaren ekarpena udalbatzarraren erabaki baten bidez bermatuz.

Bizkaiko Foru Aldundiak udal bakoitzaren biztanle-kopuruaren arabera finkatzen ditu udalen diru-ekarpenen portzentaia: 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalen kasuan %10, eta erdia 50.000 biztanletik gora dituztenetan. Diputazioak bere aldetik, pertsona bakoitzari banaka laguntzen dio azaroaren 2ko 108/1993 foru dekretuan araututa dagoenaren arabera, egoitzan egoteak sortarazten dizkien gastu guztiak ordaintzeko adina diru ez dutenei.

Arabari, maila handi batean egoitzen eskaintza Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen baitan dagoenez, honelako laguntza ematen da: erabiltzaileak ordaintzen duenaren eta Erakundearen jabetzako egoitza guztientzat urtero finkatzen den gehienezko kostu teorikoaren arteko aldea ordaintzen du erakundeak.

b) Erabiltzaileen diru-ekarpena

Elkarren ardurazko tesi horien arabera, Gizarte-Zerbitzuei buruzko Legeak, 30. artikuluan hau xedatzen du:

“Baliatzaileek jakineko gizarte zerbitzu batzuen dirubidetarako eskuhartu ahal izango dute jarri daitezen irizpideen arauera.”

Hirugarren adinekoentzat eraturako zerbitzuei buruz hitzegiten dugunean, esan behar da, erretiroa pobretzearekin lotuta dagoela sarritan, eta gizabanakoen diru-egoeran aldaketak dakartzala.

Halere, Eusko Jaurlaritzaren Txosten Sozio-Sanitarioan elkarrizketatu zituztenetatik %41,6k ontzat jotzen dute erretiroa hartzea, %13,6k txartzat, eta %22,7k uste dute alde onak eta txarrak dituela.

Hain zuzen, alde txarrak ardatz ekonomikoaren eta erosteko ahalmena galtzearen inguruan mugitzen dira nagusiki.

Horrela, aiton-amonen %37,7k bakarrik uste dute beraien diru-premiak ongi betetzen dituztela, behar bezala bete gabe daudela uste dutenen kopurua handiagoa delarik.

Galderak erantzun dituztenen %32k hilean 30.000 eta 50.000 pezeta arteko irabaziak dauzkate, eta %16k 50.000 eta 70.000 arteko dirusarrerak.

Bestalde, %8,1k 70.000 eta 90.000 pezeta artean irabazten dute: %4,1ek 90.000 eta 110.000 pezeta artean, eta %4k kopuru horretatik gora.

Aiton-amonen %5,5ek 30.000 pezeta baino gutxiago jasotzen dutela diote.

Ohizko dirusarrerara erretiro saria da: hori jasotzen dute %51k, eta %25,6k alargun-saria, eta horien artean askok ez dute irabazten bizitzako gastu arruntei aurre egiteko adina.

Halere, 1993ko azaroko Lan Estatistiken Boletinean (107. zenbakia) argitaraturako datuen arabera, Euskal Autonomi Elkarteke pentsioen batzbestekoa Espainiako guztien artean lehenengo postuan dago, hilean 68.500 pezetaz; izan ere, Estatuko batzbestekoa 55.600 pezetakoa da, eta Galizakoa, aldiz, 48.100 pezetakoa, batzbesteko txikiena duen elkartea izanik.

Toki-Ogasunei buruzko 39/88 Legea eta Tasa eta Prezio Publikoei buruzko 8/89 Legea onartu ondoren, foru eta udal arauak igartzen du zerbitzu sozialen kostua ordaintzeko erabiltzaileek ematen dutena prezio publikotzat hartuko dela. Ia zerga bilakatzen den sistema hori, zerbitzuak emateagatik edo eskubide publiko eran jarduerak burutzeagatik egiten den diru ordainketan datza, eta zergetatik bereizten dira, zerbitzu horiek erabiltzaileek derrigorrez hartu behar ez dituztelako baina sektore publikoak eskainiak izan daitezkeelako.

Antolabide juridiko ezberdin honek batzuen eta besteen artean berehalako berezitasuna dakar diru kantitatearen aldetik. Alegia, prezio publikoen ordaina zerbitzuaren kostua baino txikiagoa izan ezin den bitartean, tasetan parametro hori gehieneko muga bezala erabiltzen da.

Arau orokor horrek salbuespen garrantzitsu bat dauka aztertzen ari garen ikuspuntutik, eta beraz, hori gomendatzen duten arrazoi sozialak, ongizate mailakoak, kulturalak edo interes publikoa dutenak daudenean, Erakundeak zerbitzuaren edo jardunaren kostuaren azpitik dauden prezio publikoak ezarri ahal izango ditu. Kasu horietan, erakundeak bere aurrekontuetan finkatu beharko du dirutan diferentziarik dagoen kasuan alde hori ordaintzeko behar den kopurua.

Udal prezio publikoak direnez, lakapenaren aurretik beharrezko agintarau fiskala derrigorrez onartu beharko da.

Euskal administrazioek kudeaturiko zahar-egoitzetan egoteagatik ordaindu behar diren prezio publikoak arautzen dituzten xedapen ezberdinei dago-kienez, hiru lurralde historikoetan zerbitzuaren erabiltzaileentzat ezartzen den ordainketa kopurua, urtean guztira irabazten dutenaren %75ean kokatzen da.

Portzentaia hori zein irabazi-oinarriri ezarri behar zaion erabakitzerakoan, kontutan hartuko dira lansariak, pentsioak edo laguntzak, eta baita kapital higigarri nahiz higiezinetik eratorritakoak ere, normalean ohizko etxebizitzaren balioa kanpoan utziz.

Egoitzan sartu aurreko bost urteetan orain zerbitzua jasoko duenak bere ezkontideari, seme-alabei eta oinordekoei pasatutako lukro mailako ondasun eta eskubideak ere kontutan hartuko dira, ez dadin gerta ondasun horiek kontatzea sailhestearren, zerbitzua jasoko duenak, beste batzuei osorik pasatzea ondasunak, egoitzan sartzeko eskaria aurkeztu aurretik.

Gipuzkoan, horrela kalkulaturako sarreraren %75a ezin izango da betetzen den postuaren benetako kostua baino altuagoa. Benetako kostu hori egoitza batetik bestera aldatzen da, horrela Bizkaian adibidez, laguntzadunentzako postua denean, gehieneko kostu teorikoa hileko 187.290 pezetan finkatzen da; burujabe direnengan, berriz, 96.000 pezetan. Araban ere, Bizkaian bezala, gehieneko kostu teorikoa finkatzen da, 1993an hileko 99.540 pezetakoa.

Egoiliarren dirusarrereri %75a ezarri ondoren norberaren gastuetarako utzi behar den kopurua, lurralde historiko ezberdinen arabera ezin da izan ondorengoa baino txikiagoa:

- Arabako foru arauak dioenez, erabiltzailearen ordainketa edozein izanda ere, bere gastuetarako geratuko zaiona ezin da izan Gizarte Ongizaterako Fondoaren Pentsioaren hileko sariaren (24.935 pta.) herena hamabi aldiz biderkatzetik ateratzen den kantidadeari pentsio horren urteko bi ordainketa bereziak batuz ateratzen dena baino gutxiago. Itxuraz kalkulatzen hain konplexua den kantidad hori, 1993. urterako eta hilabete bakoitzerako 12.467 pezetakoa da.
- Gipuzkoan, ordainketa bezala dirusarreraren %75a kendu ondoren, erabiltzaileari utzi behar zaion diru-kopurua ezin izango da urte bakoitzeko Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren (1993. urtean 58.053 pta.) %20 baino txikiagoa; horrek esan nahi du hilean 11.706 pezeta behintzat izan behar dituela adineko pertsona bakoitzak bere gastuetarako.

- Azkenik, Bizkaian, halako kopuru jakin bat finkatzen da: bakarrik dauden pertsonentzat hilean 10.000 pezeta eta ezkontidea edo bizi-laguna dutenen kasurako 15.000 pezeta.

XEDATUTAKO GUTXIENKO KOPURUAK

ARABA.....	12.467 pta./hilean
BIZKAIA.....	10.000 pta./hilean
GIPUZKOA.....	11.706 pta./hilean

Horrela, beraz, prezio publikoa zerbitzuaren kostuaren oso azpitik kokatzeak ekar ditzakeen gorabeherak aztertzea komeni da.

Hasteko, eta kontuan izanik egoitza publikoek ez dutela irabazbide asmorik, zerbitzuaren benetako kostuarekin bat etorriko litzatekeen prezio publikoa ezartzeak, Gipuzkoan egiten den bezala, nahikoa izan beharko luke egoitzen sare pribatuak eskaintzen dituenak baino askoz konpetitiboagoak izateko.

Ematen diren zerbitzuak sozialak direla aintzat hartuz, Administrazioak, gainera, zerbitzuaren kostua estaltzen ez duten prezio publikoak ezartzea erabakitzen badu, berehala sortzen da defizita, baita erabiltzaileak bere kostuak osorik ordaintzen dituen postuetan ere, behar adina diru ez duten egoiliarren zerbitzuaren kostua ez betetzetik datorren aldea gehitu behar baitzaio.

Honelako kasuetan arrisku bat dago: egoitzetan postua eskatzen dutenen artean, Administrazioak lehenetsuna eman diezaien beren dirusarreraren bidez kopuru handiagoa ekar dezaketen eskatzaileei.

Diskriminazio ekonomikoarekin zerikusia duen beste gai bat **INSERSOK** eskualdatutako egoitza-erakundeetan gertatzen dena da. Zentru horietan, erabiltzaileak ordaindu beharrekoa kalkulatzeko bi sistema daude. Transferentzia gauzatu aurretik zentruetan sartuta zeudenen kasuan, kalkulua pentsioaren arabera egiten da; aldiz, transferentziaren ondoren sartutakoen kasuan, arau orokorra jarraituz eskaria egiten dutenen dirusarrera guztien arabera egiten da. Lehenagotik zeuden egoiliarrek eskuratuta zeuzkaten eskubideei zor zaien errespetu egoeraren aurrean gaude, eta horrela bi prozedura ezberdinen pean daudenak elkarrekin daude. Nolanahi, badirudi sistema berria ez dela ezartzen beharrezko zorroztasunaz, eta horrela beren ondarea aitortzen duten egoiliar askok usté dute hori bera ez dutela guztiek egiten, eta ez dituztela horregatik haien ondareei buruzko ikerketak egiten.

c) Ordaintzera berhartuak daudenak eta kobratzeko moduak

Prezio publikoak arautzen dituen foru eta udal araudiaren arabera, egoitza-erakundeek emandako zerbitzuez zuzenean baliatzen diren erabiltzaileek ordaindu beharko dituzte prezio horiek, eta erabiltzaileek ordaindu ezin dituztenean, horien babesaz arduratzen direnek.

Hau da, arau orokor bezala, ordaintzeko betekizun nagusia dutenak egoitza-zerbitzuak erabiltzen dituztenak lirateke. Ezintasun kasuez aparte,

ordea, erabiltzailearen ordainketak zerbitzuaren kostu osoa estaltzen ez duenean, legeria zibilaren agindu batzuek, erabiltzaileari bizibidea ematera behartuta daudenen gain ezartzen dute zerga-zorra, beti ere beren baliapideen arabera.

Horrela, esaterako Bizkaian, 156/1990 Foru Dekretuak, sorospen-zerbitzuak jasotzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituenak, hauxe dio bere 2. artikuluan: "prezio hau ordaintzera behartuak daude lehen aipaturiko zentru eta egoitzetan postua betetzen duten norbanakoak, eta horien ordeaz, herrilegez beroriei bizibidea ematera behartuta dauden norbanako edo pertsona juridikoak."

Gauza bera diote Errioxa, Aragoa, Asturias, e.a.-eko araudiek ere. Horri dagokionez, Herrilege-bildumaren 1.894. artikulua hauxe dio: "bizibidea ematera behartuta daudenak jakinaren gainean egon gabe, bizibidea ezezagun batek ematen badu, azken honek emandakoa erreklamatzeko eskubidea izango du, inon ez baita agertzen borondate onez eta gero erreklamatzeko asmorik gabe eman zuenik."

Bestalde, Herrilege-bildumaren 142. artikulua dioenez: "Bizibide bezala ulertzen da elikatzeko behar den guztia, gela, arropa eta mediku-laguntza (...)"

Eta 143. artikuluan honela jarraitzen du:

"Batak besteari bizibidea ematera beharturik daude aurreko artikuluan xedatzen denari jarraiki:

1. Ezkontideak.
2. Arbasoak eta ondorengoak.

Senideen artean elkarri bizitzarako laguntza ematera beharturik daude, bizibidezko arazoietatik kanpoko beste edozeinengatik behar dituztenean bakarrik, eta hala behar izanez gero, heziketarako beharrezkoak diren eta hedatuko dira."

Bizibiderako betebeharraren funtsari dagokionez, Auzitegi Gorenaren 1958/3/21 epaiak hau dio: "bizibide-zorra oinarritzen da, alde batetik, auzia aurkezten duenaren eta demandatuaren arteko ahaidetasun edo ezkontide loturan, eta bestetik, lehengoak eduki ditzakeen premien eta horiei aurre egiteko bigarrenaren aukera ekonomikoetan, erakunde juridikzionaletan neurtu behar dutelarik zein proportziotan egin baten eta bestearen zirkunstantzien arabera."

Lege-testu bereko 148. artikulua hau iragartzen du: "Epaileak; bizibide beharra duenaren edo Fiskalgoaren eskariz, erakunde publiko edo pertsona batek laguntza eman diezaion eta etorkizuneko premiei erantzun diezaieten ziurtatzeko neurriak larrialdi izaerarekin ezarriko ditu".

Gai honi dagokionez, hildako egoiliar batek Basauriko Zahar-egoitzari zozion diru-kopurua egoitzak haren kontuan zorpidezagatik, haren familiaren eskariz Basauriko Zahar-egoitzaren kontra izandako auzian Bilboko 3 zenbakidun Lehen Auzipidetarako Epaitegiak eman zuen epaia dakarkigu gogora; honela dio bere 2. eskubide arauan: "...Basauriko egoitzak egindako zorpidezta ez da nahikeriaz egina, egoiliarrak bertan egon zen bitartean egin zuen

zorrari dagokio eta, hortaz, normala da lehenik hildakoaren diru-baliabidez kitatzea zorra, eta hori egin ezean bakarrik baliatzea herri-diruez.”

Ildo horretatik, garbi ikusiko bagenu egoitzen zerbitzua bizibide kontzeptu juridikoan sartzen dela, eta bestalde badirudi horren zalantzarik ez dagoela, pertsona zaharra dagoen egoitzak lehen aipatutako aginduen arabera justizia-rengana jo ahal izango luke legez egoiliarren ardura dutenak, horrek ordaintzen duenaren eta zerbitzuaren benetako kostuaren arteko diferentzia ordaintzera behartuak izan daitezten.

Arabara, abenduaren 1eko Diputatuen Kontseiluko 995/1992 Foru Dekretuaren arabera, zuzenean ordaintzera behartutakoaren ordezkoeak, herri-legez horri bizibidea ematera behartuta dauden pertsona fisiko edo juridikoak dira.

Agian ordezkoen baldintza gehiegizkoa da, ordezkoeak legearen aginduz eta zergapekoaren ordezkoei zerga betebeharren prestazio material eta formalak betetzera behartuta dagoena baita. Irudi horren adibiderik garbiena, bere ardurapeko langileen NUIZarengatik zorra ogasunean ordaintzera behartuta dagoen ordaintzailea da. Agian, bidezkoago izango litzateke ordezkoei arduraduntzat hartzea, zergen zama eskualdatu ahal izateko, alde aurretik esku-hutsiko norbanakotzat jo beharko delarik.

Horri dagokionez, funtsezkoa da Bilketarako Araudi Orokorreko 16. artikulua, zergapeko izan gabe, eskubide publikoen zorrak ordaintzera behartutakoari eskainia.

Horrela, hau da agindu horrek xedatzen duena:

“Zergapekoak ez diren eskubide publikoen zorreatik Administrazioaren aurrean beharturik daudenek, orain dauzkaten eta etorkizunean edukiko ditzuzten ondasun guztiekin erantzun beharko diete ordainketa horiei, Legeak ezarritako mugetan salbu.

Betekizun hori, edozein titulurengatik -legez nahiz borondatez- zor horiek kitatzera beharturik dauden guztiei ezarriko zaie. Ardura subsidiarioa bada, zorpeko nagusiaren eta arduradun solidarioen hutsegite aitortzen gain, haren ondoriozko ekintza administratiboa beharko da Araudi honetako 14. artikuluan xedatutako forma eta baldintzetan.

Behartu horien ardura beraien ondorengoei luzatuko zaie, Araudi honetako 15. artikuluan xedatutako baldintzetan.”

Beraz, nahikoa litzateke lege mailako arau batek zahar-egoitzetan arreta emateagatik prezio publikoa ordaintzeko ordezkoei arduraduntzat jotzea Herrilege-bildumaren arabera bizibidea ematera behartuak daudenak, justiziarren bidea erabili beharrik gabe, prezio publikoengatik zorrak biltzeko prozedura beren aurka hasi ahal izateko.

Eta horrela iristen gara, aiton-amonek sortarazitako gastua berreskuratzeko administrazio publikoek dauzkaten bermeen gaiaren muinera.

Gaur egun, egoitzetako zerbitzua emateagatiko salneurri publikoak arautzen dituen araudiaren barne, hainbat agindu sartu ohi dira sarritan; agindu horien indarrez, eskatzailea, egoitzarekiko duen zorra aitortuz, ordaindu duenaren eta prezio publikoaren kopuruaren arteko aldea ordaintzera behartua dago.

Lan eta xedapen ezberdinetan "zorraren aitortpena" deitzen den hori, egoitzetan ematen den sorospena sorrarazitako zerga-zorra nahierara atzeratzea baino ez da, eta horren ebazpena, zorpekoa hiltzen denean edo bere borondatez egoitza uzten duenean gertatzen da.

Halaxe da, hirugarren adineko egoitzen erabiltzaileek dauzkaten diru-ordainketen prezio publiko izaera ahaztu gabe, Bilketarako Araudi Orokorreko 48. artikulua hau aitortzen du:

"Zorraren ordainketa, Administrazioaren onespenez zorrak garaiz ordaintzeko ezintasuna dutenen kasuan, eta horretara beharturik dagoenak bere borondatez hala eskatuz, zorra zatika edo gerorapenarekin egin ahalko da, bai borondatezko epean eta baita epe exekutiboan ere."

Maiatzaren 28ko 803/1993 erret dekretuak sei hilabeteko epea ezartzen du atzerapena emateko edo ukatzeko.

Puntu berezi horri dagokionez, 1990. urterako Aurrekontuen Lege Nagusiak (ekainaren 29ko 4/1990 Legea, ekainaren 6ko Estatuko Boletín Ofiziala) atzerapenez edo bermerik gabe zatika ordaintzeko aukera erraztu egiten du, eta zergapekoak ez diren zorretara ere hedatzen du, eta beraz, bermesalbuespenaz atzeratu ahal izango dira zorrak; zordunak zorra bermatzeko behar adinako ondasunik ez daukanean, zorren kopurua, zeinaren atzerapena eskatzen baitzen, Ekonomia eta Ogasun Ministrariak Aginduz ezarriko duen kopurua baino txikiagoa denean. (1991ko apirilaren 17ko Ministro-Aginduz, 500.000 pezetan finkatu zen).

Bilketarako Araudi Orokorreko 57. artikuluan finkatutakoaren arabera, emandako epea bete eta ordaintzen ez bada, premiabideari ekingo zaio, eta denok dakigun bezala, zor dena ordaintzeko adina ondasun zordunari bahituz amaitu daiteke kontua.

Hori guztia, administrazio prozedurak prozesu judizialen parean eskaintzen dituen abantailez.

Nolanahi ere, puntu honi dagokionez autonomi elkarte osoan irizpide bakar bat edukitzea komeni da, hiritarren artean, lurralde historiko batekoak nahiz bestekoak izateagatik bazterkeriarik egon ez dadin.

7.2.4. Ezintasun-adierazpena egoiliarren eskubideen bermean

Atal honetan adierazi behar da pertsona edadetu batzuk egoitzetara beren borondatez eta burujabe zirela sartu arren, denbora igaro ahala ezindu bilakatu direla.

Gutxi gorabehera egoiliarren %10 inguruk adimen edo psikologi arloko akats larriren bat nozitzen du, baina oso gutxitan bideratzen da ezgaitasun juridikoren bat.

Azterturiko zentruetatik, Sta. M^a Magdalena egoitzan bakarrik bideratzen da ezintasun juridikoa, egoiliarren dirua erabiltzen den kasuetan.

Prozedura horretara hain gutxitan jotzearen arrazoiak modu askotakoak izan daitezke. Dena dela, bi argudio azpimarratuko ditugu, ohizkoenak direlako.

Lehenik, aukera honek duen diru etekin urria, babestu beharreko ondarerik ez dagoenean, eta bigarrenik, auzibidea bideratzeak sortzen dituen diru-kostuak.

Gehienetan ez dira ohartzen pertsona babesteko duen garrantziaz, prozedura horren bidez gutxietsi egiten dela uste da eta ez duela konpentsatzen dagokionak ondasunik ez duenean edo munta txikikoak direnean. Horrela, ezintasun juridikoaz hitz egitean, pertsonaren "heriotza zibila"z ari garela adierazi behar dugu.

Behin-betiko ezgaitasuna ebatzi baino lehen badago aldez aurretik behin-behineko neurri batzuk hartzeko aukera, baina gainera, kontuan hartzekoa da prozedura asko bizkortu dela azken urteotan. Horri dagokionez, zail gertatzen da Euskal Herriko epaitegietan horrelako zenbat auzi bideratzen diren eta zenbat irauten duten zehaztea, munta txikiagoko bideen bitartez mamitzen baitira. Prozesuak zabaltzeko bide egokia litzateke beroriek bizkortzea, eta horretarako neurri aproposa litzateke horiek mamitzeaz arduratuko diren epaitegi eta auzitegiak langile eta baliapide berezietz hornitzea. Xede hori du Bilbon sortu den lehen auzipidetakako 14 zenbakidun epaitegiak, ezintasun juridikoei buruzko auziez bakarrik arduratuko dena.

Hala ere, aitortu beharra dago baliabide arriskutsua dela. Gerta daiteke teoriarik babestu nahi den pertsonarenak ez diren interesen alde erabili nahi izatea, baina tamalez, behin baino gehiagotan gertatu da egoitzetako adineko pertsonak, eta usuago, seguraski, etxe partikularretakoak babesik gabe egotea haiekin gehiegikeriak egin edo haietaz baliatzen diren senitarteko, lagun, auzo edo profesionalen aurrean.

Bestalde, profesional batzuk, batez ere gizarte-langileak, kexu dira ziurtasunik ez dutelako zaharren arazo pertsonalak eta ekonomikoak erabili beharrean aurkitzen direnean, maiz aski zaharrak larriki ezgaituak baitira, lege babesik gabeak, eta haien familiakoak, berriz, hoberenean susmo txarrak non-nahi aurkitzen dituzten horietarikoak, beti ere profesionalen lana "azpijokotzat" jotzen dutenak⁴.

Adinekoak langileen -edo beste edozeinen- gehiegikerietatik babesteko eta, bidenabar, hauen aurkako susmo txarrik izan ez dadin eskura dauden

⁴Hain zuzen ere, etxe partikularretan izaten diren gehiegikeriak ekiditeko, Caritas-ek 1990ean AURKOA Zaintzarako Fundazioa sortu zuen, funtsean zaharren eskubideak babesteko eratua.

baliabideen artean hoberena, hala behar den kasuetan, beraz, gaur egun egiten den baino askozaz ere gehiagotan, ezgaitasun juridikoa bideratzea da.

Erabat baztertu behar dugu geure gogotik, legez ezindutzat jotako egoiliarren ondasunak kudeatzen dituzten pertsoniak, egoera horretaz baliatzen direlako ustea. Aitzitik, babesari buruzko lege-arauek halako berme-bideak ezartzen dituzte, ezen esan baitaiteke gaur egun babes-zeregina ez dela batere erakargarria edadetuaren ongizateak benetan kezkatzen ez dituen pertsonentzat.

Babeste-zereginei buruzko arauak babeste-ardura beren gain hartzen dutenentzat iragartzen dituzten alderdi txarrak ere arestian aipatutakoaren erakusgarri dira.

Horrela, Herrilege bildumaren 221. artikulua honako hauek debekatzen dizkio babes-ardura duen edonori:

1. Babestuarengandik edo hark eskubidea eman dien pertsonengandik ondasunak jasotzea, horien biderapena onartzen ez den bitartean.
2. Babestua ordezkatea, egintza berean bere izenean edo besterenean esku hartzean eta interes-gatazka dagoenean.
3. Diru-truke babestuaren ondasunak erostea edo hari diru-truke ondasunak saltzea.”

Babestuaren aldeko berme hauek eta babeste-zeregina betetzeak berekin dakarren argitasuna ez ezik, badago epailaritza-baimena eskatzen duten egintza zerrenda bat, 271. eta 272. artikuluetan jasoa, eta baita babesleak bete beharreko zenbait baldintza eta batera ezinezko gauza.

Ezintasun juridikozko kasu horietan ez bezala, edadetua egitez dagoenean ezindua, ez legez, eta besteren aurrean haren senideek edo hura zaintzen dutenek burututako ekintzak hark onartzen dituela dirudienean, orduan dago benetan gizalegez ez jokatzeko eta legea urratzeko arriskua.

Horrela, askotan, senideek ezintasun juridikoaren prozesua hasi gabe lor dezakete pertsona edadetuaren ondasunak baliatzea eta horiek nahi bezala erabiltzea, ustez helburu hori lortu asmoz eskatuko luketen arren senideek ezintasun juridikoaren prozesua has zedin. Horrela, sarritan bereiz-gabeko kontuak irekitzen dira, adintsuaren senideek, sortzen diren beharrak asetzeko aitzakiaz, haren dirusarrerez “errazago” baliatu ahal izateko.

Hortaz, ez da harrigarria senideen eskariz hain ezintasun juridiko gutxi bideratzea, eta horietako gehienak epailearen edo Herri-salataritzaren eskariz hasi izana.

Garbi dago adinekoaren senideek ezintasun juridikoaren prozesuari ekiteko eskatzen dutenean, bi arrazoi nagusi izaten dituztela: adintsuak negozio juridiko batean esku hartzeko baimena eman dezan nahi izaten dute, edota, aitzitik, senideek arduragabekotzat jotzen duten ekintza galerazi nahi izaten dute. Kasu hauetan, ordea, adinekoaren ongizatea baino gehiago, haren ondasunak bere legezko oinordekoei utz diezazkien izaten dute xede.

Herrilege-bildumaren 220. artikulua arabera, "ezintasuna bideratzeko arrazoiak dira pertsonari bere kabuz baliatzea eragozten dioten gorputz edo buru gaisotasunak edo ezintasun larriak".

Ezintasun-adierazpena ezkontideak, oinordekoek eta, oinordekorik ez izanez gero, ustezko ezindua guraso eta anai-arrebek eskatuko dute.

Eta honako hau dio 203. artikulua: "Herri-salataritzak eskatu beharko du ezintasun-adierazpena, arestian aipatu bezalako pertsonarik ez badago edo horiek adierazpena eskatzen ez badute. Hori lortu asmoz, herri-agintari eta funtzionarioek beren karguei esker pertsona bat ezindu jotzeko modukoa dela jakingo balute, Herri-salataritzari jakinarazi beharko liokete."

Hau iragarpen garrantzitsua da, izan ere, sarritan familiak alde batera uzten du pertsona edadetua, eta, hortaz, komenigarria da edozein pertsonak Herri-salataritzari jakinaraztea ezintasun-adierazpena bideratzeko beharra.

Kasu hauetan, edadeko pertsonaren babesle izan nahi duen inor ez balego, interesgarria izango litzateke erakunde-babesa sustatzea, baina horrek berekin ekarri beharko luke herri-legeriak norbanakoarentzat ezarritako murrizpen batzuk malgutzea.

Gai honi, hau da, ezgaitasunaren erakunde juridikoak alde batetik, eta adimen akatsak edo psikologikoak dituzten zaharren eskubideen defentsak bestetik, elkarrekin duten erlazio ustez paradogikoari lotuta, bidezko da, gaingiroki bada ere, hauteskunde politikoez zerbait esatea.

Auzi honen barnean, duen garrantzia gorabehera, zahar batzuen arrisku egoera eta, bide batez, oinarrizko eskubideekin zerikusirik duten arazoei modu koherente batez ekin, zorrotz aztertu eta bateratutako jarraibideen ildotik, profesional batzuek erakusten duten irizpiderik eza erakusteko ere balio du.

Hauteskondeek oso arazo jakinak sortzen dizkiete egoitzetako zenbait zuzendariri, kontzientzi arazoak barne direla. Bestalde, badirudi adineko batzuen ahulezia edo borondaterik eza alderdikieriaz erabiltzen direla, edo uste hori bederen zabaldua dago, egoitzen barruan eta kanpoan. Horrek, esan beharrik ez dago, ez du zaharren irudia hobetzeko mesederik egiten, ez egoitzena ezta politikoa ere.

Bistan da, bada, egin den ebaluazioaren bitartez ez dagoela frogatzerik egoitzetan egiten omen diren azpijoko politikoei buruzko zurrumurruak egiazkoak diren ala ez. Beraiek aitortu dutenez, bozketan "agindu diotena" edo "eskutan jarritakoa" em'an duenik izan da, eta kexuak ere jaso dira partidu "jakin" batzuei besteei baino erraztasun handiagoak eman zaizkielako, baina, jakina, esamesa horiek besterik gabe ezin onar daitezke.

Edozein modutan ere azpijokorako aukera hortxe dago, buru-ahalmena nahiko hondatuta duen zahar franko baitago babesik gabe eta, horrexegatik hain justu, behar-beharrezkoa da arazo horri berme osoaz aurre egitea. Eta konponbidea ezin daiteke egoitza bakoitzeko langileen -zuzendaritzakoa, laguntzailea edo zuzeneko zaintzakoa izanik ere- borondatearen, jakituriaren, baliabideen eta ezagupenaren esku utzi. Aditu diren jokabide batzuk -adibidez, zuzendariren batek erabaki omen zuen adineko buru-nahasiai nortasun agiri nazionala hartu eta gordetzea; horrela, inork ez maneatzeko aitzakiaz botoa

emateko eskubidea ukatzen zien- borondate onenaz jokatu arren, on baino kalte gehiago sortzeko bide izan zitezkeen.

Baliteke bildu diren ohartarazpen eta baiezenak jarduera politikoaren aurrean dauden susmo txar eta aurriritzietan oinarritzea, baina, hala izanda ere, hauteskunde orotan salbuespenik gabe behin eta berriz agertzen diren zurrumurruak -alegia, egoitzetan mota askotako azpijokoak gertatzen direla-ekiditeko, ez litzateke txarra izango, berriro diogu, arazo hori modu berezian arautzea. Arautze horrek funtsezko hiru ardatz izango lituzke: ezgaitasunaren adierazpena, erakundeek hauteskunde kanpainiei ateak zabaltzea eta egoiliarrak hauteslekuetara joan ahal izateko bermea, pertsona edo instituzio batzuek alderdikeriazko laguntzarik eman ez dezaten.

7.2.5. Arauketa eta kalitatearen bermea

Egoitzetan eskaintzen den zaintzaren kalitatea bermatzeko ezinbestekoa da botere publikoek jarduera-arauak ezarri eta beharrezko diren kontrol-neurriak ezartzea.

Euskal Autonomi Elkartean badugu tresna arautzaile interesgarri bat: 218/1990 dekretua. Gai hau arautzeari dagokionez funtsezkoak diren bi alderdi jorratzen ditu xedapen horrek: batetik baimena emateari dagokiona, horrelako erakunde batek jardun ahal izateko bete behar dituen gutxienezko betekizunak zehazten baititu; bestetik, berriz, akreditazioari dagokiona, hots, honetarako edo hartarako kalitate-maila jakin baten abala edukitzeko eskubidea izateko baldintzak, esate baterako sistema publikoarekin lankidetzan jardun ahal izateko aukera edukitzeko, kategoria eta prezioak ezartzeko, etabar.

Funtsean eskatzen dituen estandarren egokitasunari dagozkion beste kontu batzuk aldera utzita, arau horrek jaso dituen kritikarik nagusien sorburu hauxe izan da: araua betetzen ez dutenei ezarriko zaizkien zigorrei buruz xedatzen dena ez omen da nahikoa, eta horren ondorioz eraginkortasun eskasa izan omen dezake.

Aipatutako 218/1990 dekretu hori garatzeko beharra onartuta ere -batez ere ikuskaritzari eta zigorrei dagokien atalburua-, bidezko bekigu gogoeta pare bat egitea.

Alde batetik, esan beharra dago 218/1990 dekretuak eragin positiboa izan duela, hori neurtzea erraza ez bada ere, didaktikaren edo kulturaren mailan. Izañ ere, gaur egun hor dago arau horrek ezarritako estandarren erreferentzia, eguneroko zaintza benetan nolakoa den epaitzeko orduan, nahiz eta nagusiki alderdi materialetara zuzenduta egon; aldi berean, ezin da ahaztu funtzio garrantzitsua betetzen duela: alegia, zehatz-mehatz adierazi nolako bilakaera eduki beharko luketen zerbitzuek.

Aipatzen ari garen 218/1990 dekretuak gai hau bere luze-zabalean jorratzen ez badu ere, ez da ahaztu behar kontutan hartzen duela bertan ezarritako betekizunak hausteagatik zigortzeko aukera. 14 eta 15. artikuluetan adierazitakoaren arabera, horrenbestez, administrazio-zigorrak ezarri ahal

izango dira horrelako kasuetan, eta ukatu egingo zaizkie, erantzule diren erakundeek, Autonomi Elkarteak administrazio publikoen aurrekontuetatik datozen dirulaguntzak jasotzeko nahiz hitzarmenak egiteko aukera, bai eta hirugarren adinekoentzako egoitza-zerbitzu izaera kendu ere. Dekretuaren edukinaren eskastasuna, hortaz, zigortze-prozedura zehaztu beharko luketen berariazko xedapenak falta izatean datza, eta ez propio zigorren faltan; horrek kentzen dio eraginkortasuna administrazioak zigortzeko duen ahalmenari.

Bestalde, gogoratu beharra dago 218/1990 dekretuan aurrikusitako baliabideei segurtasunari eta osasunbideari buruzko arau orokorretan jasotakoak gehitu behar zaizkiela, esan nahi baita: Suteen kontrako Babesari buruzko NBE-CPI 81 oinarrizko arauak, behe-tentsioari buruzko elektroteknika-araudia, jantoki kolektiboari buruzko arautegi tekniko-sanitarioa, kontsumo publikorako edateko uren kalitatearen hornikuntza eta kontrolari buruzko araudi tekniko-sanitarioa, etabar.

Egia da, ordea, atentzioaren kalitatearekin lotura zuzena duten alderdiak direla, hain zuzen ere, praktikan xedapen zigortzaileen eskumenetik harantzago geratzen direnak -ohe kopurua edo langileen-ratioa, adibiderik agerikoenak besterik aipatu gabe.

Dena dela, ez da komeni zigorpideak eredutzat hartzea. Izan ere, horretan jantzita dauden adituen ustea da zigor-mehatxupean esijituz, baino emaitza hobekak lortzen direla luzarora hitz eginez, limurtze-bidetik joz eta laguntza eskainiz; mehatxuek eta zigorrek konfidantzarik eza eta elkarri aurre egitea baitakartzate berekin, eta epe laburrera baino ez ditu emaitzak lortzen.

Arau zigortzaileak ezartzeak beti dakar arazorik, eta are gehiago eskaintza defizitarioa duten ondasun edo zerbitzuei eragiten dienean. Izan ere, bestelako burutapen batzuk alde batera utzita, nekez onar lezake gizarteak, oro har, baina batez ere egoizetan sartu nahi eta ezinean dabilzan edateko pertsonak eta horien senitartekoek osatzen duten taldeak, zenbait betekizun betetzen ez dituzten erakundeak ixtea edo zigortzea, jakina, baldin eta sozio-kulturalki ezinbestekotzat edo oinarri-oinarrizkotzat jotzen diren alderdiak ukitzen ez badira⁵. Argi dago hain oinarrizko eskakizun maila horrek -gizarteak bere-bere egina duen horrek- ez lukeela eragingo kalitate mailaren igoera nabarmenik. Azken batean, arauak dioena eskatu eta betearazi ahal izateko, errealitatean oso hedatuak dauden baliabide, prozedura eta neurriak buruz jardun beharko du arauak berak.

Badago aurrekoei gehitu beharreko beste arazo bat ere. Askotan bere burua zigortu beharko luke Administrazioak, edo bera izango litzateke berak finantzatutako erakundeetan baliabide-urritasunagatik egindako arau-hausteen erantzule zuzena.

⁵Seguruena ere giro askotan sozio-kulturalki oinarrizkoagotzat jotzen da otorduetako baxoerdia komunitateko oztopo arkitektonikoak desagertaraztea baino eta, beraz, ezinbesteko gutxienezko baldintzatzat joko da lehenengoa. Badirudi egungo zaharren belaunaldiak onartuak dituztela, kulturalki, askotariko logelak, baina baliteke bihar-etziko belaunaldiek intimitateari balio handiagoa aitortzea, otorduetako oparotasunaren eta gisa horretako beste alderdi batzuen aldean.

Gomendioak emateak, komentzitzen saiatzeak eta arazoez hitz egiteak garrantzi handia dute atentzioaren kalitatearen hobekuntza lortzeko bidean. Horri dagokionez, funtsezko bi alderdi azpimarratu beharra dago:

Alde batetik, jarduera onerako eskuliburuek eta barne-jaurpiderako araudiek jokabide egokiak zabaltzeari dagokionez, zein interesgarri diren, bai eta egoiliarren eta langileen eskubide eta betekizunak zabaltzeari dagokionez ere. Ezagutzaren bidez baino ezin irits daiteke kontzientziatoria, eta herritarren kontzientziatoria da, dudarik gabe, garantiarik hoberena eskubideak errespetatu daitezkeen.

Bestalde, ezinbestekoa da ebaluazioa egitearen aldeko irizpidea garatzea. Arauez eta ikuskaritzarako nahiz arau-hausteak zigortzeko baliabideez gaindi, zerbitzuen etengabeko ebaluazioa egiteak eta emaitzak publikoki ezagutzera emateak laguntza ikaragarria eman dezakete azken batean atentzioaren kalitate-maila ona eskatzea eta lortzea ekarriko duen kultur aldakuntza gauzatzeko bidean.

Zalantzarik gabe, 218/1990 dekretua berritze-bidean izanik, eskertzekoa litzateke zehazpen hauek lege-testu berria iradokitzen duten irizpideetan jasota geratzea, bai eta artikuluetan garatzea ere, modu horretan akreditazio-araudian leku eginez zerbitzuen kalitatea bermatzeari buruz adituek biziki gomendatu izan dituzten bi bideei.

Helburu horretxekin, komenigarria litzateke xedapenetan beste hau ere jasotzea, hots, zeharkako kontrolerako tresnatzat jo litezkeen zenbait neurriren ukazinezko erabilgarritasuna. Neurri beharrezkoena, egoitza inguruko komunitatean integratzean eta erakundeak beharko lukeen izaera irekian oinarrituz, funtsezko gizarte-zerbitzuaren eta egoiliarren arteko harremanak bultzatzea litzateke: egoitza batean sartzeak ez luke harreman horiek etetea eragin behar, baizik eta, guztiz alderantziz, estuago bilakatu beharko litzuzke.

7.2.6. Gizarte-xedezko ekinbide pribatua gizarte-laguntzaren eskubideari egokitzea. Fundazioen eginkizuna ongintza-izpiritua gainditurik

Ongizate Estatu iristeko bidean, aberastea helburu ez duten erakunde pribatuek oso zeregin garrantzitsua burutu dute gizarte-eskubideen alorrean. Estatuaren jardunbideak egin duen aurrerabideagatik, esandako erakunde horiek betetzen zituzten beharrak, gaur egun botere publikoek hartu dituzte bere gain.

Hala ere, eskubide hauetako askori erantzuna ematerakoan, Estatuak bere gain hartutako erantzukizuna ez da iritsi, adineko pertsonak behar duten sorospenerari loturik, aberaste-xederik gabeko erakunde pribatuek betetzen dituzten premien mailara.

Fundazio pribatuak eta irabazte asmorik ez duten erakundeak betidanik arduratu dira pertsona edadetuei egoitzetan sorospena emateaz.

Fundazioen ongintza izaerak, adinekoak zaintzea orain arte ongintza ideari lotu izanarekin du zerikusia. Era berean, ongintzan oinarritutako jardueren islada dira fundazioen helburuak, berorien onuradunak eta jardun-modua jasotzen dituzten estatutuak. Horixe adierazten dute erakunde hauetako batzuen izenek: Erruki-etxe Saindu eta Erregezkua, e.a.

Gizarte estatutuaren berezko ezaugarrietako bat da gizarte beharrei emandako erantzunak eskubide ezaugarria dutela. Zehazpen hau funtsezkoa da egoitza batean bizi denaren eskubide eta betebeharren alorrean.

Jatorria oso bestelakoa izanik, ongintza erakundeen sorrera-eskutitzek ongintza izpiritu hura jasotzen dute, eta baita honek berekin dakarren pertsonen eskubideak mugatzea ere. Hau horrela izanik, egoiliarren eskubideei zor zaien errespetuak eragindako beharrei egokitu ahal izateko, gizarte-ongintza fundazioen estatutuak birraztertu behar direla deritzogu.

Beste era bateko baldintzapean sortu zen egoera hura epaitzea ez, baizik eta egungo gizarte-eredura moldatzea dute xede arestian egindako zehazpenok, eta, zehazpen horiek gorabehera, ezin dugu ahaztu fundazioek betetzen duten zeregin garrantzitsua. Eta horrexegatik sustatu behar da fundazioak egoitzen egitarau publikoetan sartzea.

Ildo horretatik, Konstituzio-Auzitegiak berak, otsailaren 7ko 18/1984 epaian dioenez, "Estatua sozial moduan eratzearekin batera bukatzen da bilakabide jakin bat; bilakabide horri esker, Estatuak ez du bereganatzen denon intereseko helburuei eusteko lana, baizik eta Estatuak eta gizarteak elkar hartuta lan egiten dute, Zuzenbide publiko-pribatu dikotomia apurtuz."

Gizarte-ekintza hauetan, bai ekinbide pribatuak -honen barruan legoke ongintza fundazioen jarduna- eta bai botere publikoek alor honetan beti esku hartu izan dutenez gero, horren ondorio logikoa bien arteko elkarlana da.

Dagoeneko gauzatua dagoen elkarlanak ez du dirua hartu-ematera mugatu behar, horretaz gain, beste behar batzuk ase beharko lituzke, hala nola, fundazioen estatutuak eguneratzea eta beharrizanei erantzuteko plangintza publikoan sartzea.

Fundazioen estatutuak egokitzera eta fundazioak plangintza publikoetan sartzera bideratutako ohar horiek egin ondoren, ezin dugu ahaztu fundazio horietako askoren jabetzapeko ondareei buruzko arazoa.

Jatorriz fundatzaile batek ongintzarako eman zuen ondarea gehituz joan da heredentzi, donazio eta beste laguntza batzuen bidez, hain zuzen ere, fundazioen helburu beraren mesedetan beren ondasunak eman dituztenen dirulaguntzez.

Ondare-gehitze hori fundazio guztietan gertatu denik ezin esan badugu ere, fundazio batzuek baren jabetzapean duten ondareak etekinik ez ematea, erakunde horien helburuen aurka doala uste dugu.

Erakunde hauen anitz egiturak duten malgutasun eza da ondare garrantzitsu batzuk bere hartan geratzearen arrazoia, eta babespeko erakunde izateak berekin dakartzan eskakizunetan ere antzematen da zorrotzasun hori.

Fundazioen lehentasunezko helburua da beren baliabide guztien bitartez xedeak bete ahal izateko ekintzak sustatzea, egoitzetan sartzeko dauden eskaera ugarien aurrean daukagun baliabide urritasuna kontuan izanik. Fundazioen babesgoa bere gain duen administrazio atalaren eginkizuna funtsezkoa da zeregin honetan.

Aipatu ditugun egoera horiek fundazioen gizarte eta ekonomi eraginkortasuna indartu beharraren adierazle dira, honela lortuko baita fundatzailearen nahia betetzea eta, aldi berean, guztion helburuak erdiestea, antzinako ongintza-izpiritua gaindituz eta bere gizarte-eskubide izaerari egokituz.

7.3. AUKERATUTAKO EGOITZAK EBALUATU ONDORENGO ZEHAZPENAK

7.3.1. Inguru fisikoa

Egoitzaren tamaina zuzenean loturik dago bertan eskaintzen den zaintza-kalitatearekin. Jakina, tamaina txikikoa izateak ez du esan nahi kalitate onekoa denik, nahiz eta egoitza txikietan errazago den egoiliarren artean nahiz egoiliarren eta langileen artean harreman onak izatea.

Egindako azterketak erakutsi digunez, tamaina handikoek, oro har, erosotasun eta segurtasun handiagoa, osasun-zerbitzu eta astialdirako aukera gehiago ematen dute, baina txikietan, aldiz, erabiliagoak dira sorospen eta astialdiko zerbitzuak, partaidetza handiagoa dute egoiliarrek eta langileen jarduna ere hobea izaten da.

Erakunde handiek arrisku handiagoa dute, noski, zaharren "biltegi" bilakatzeko, ez dutelarik, horratik, dirutan edo bestelakotan inolako abantailarik eskaintzen, muga jakin batetik aurrera behintzat. Alde horretatik, laurogei ohetik gorako egoitzak handiegitzat jo beharko lirateke.

Euskal Autonomi Elkarteko egoitzen artetik, lautik bat baino ez dira, ozta-ozta, laurogeitik gora ohe dituzten egoitzak, baina horietan dauden egoiliarrek zahar-etxeetan sartutako aiton-amona guztien erdia baino gehiago dira.

Kokalekuari dagokionez, zahar-etxeak hirietako kanpoaldeetan egoten dira askotan, eta, beraz, oinarrizko komunitate-baliabideetatik urrun. Eraikinen egoera, oro har, onartzeko modukotzat jo daiteke, nahiz eta zenbait egoitza, irizpide estetiko eta arkitektonikoak alde batera utzirik, babesleku huts baino ez diren.

Esan beharra dago zenbait egoitzatan -San Roke Egoitza, San Juan Bautista, Bihotz Deuna-, sartzeko eskailerak izanik ere, ez dagoela arranparik, edo daudenak ezin pasatzeko modukoak direla, hala nola Bihotz Deuna egoitzakoa, bertako zenbait egoiliarrek gurpil-aulkietan ibili behar duten arren. Zorroagan, eskailerarik gabeko bigarren sarrera oso urrun geratzen da sarrera nagusitik.

a) Egoiliar guztientzako guneak

Egoitza batzuetan leku-arazo nabarmenak daude. Egoiliar bakoitzari dagokion espazio erabilgarriari dagokionez⁶, astialdirako lekuek edo jangelek ez dituzte betetzen 1990/218 dekretuko baldintzak San Roke, San Prudentzio, Julian Rezola, San Esteban, Leioa eta Amurrioko egoitzetan. Bestalde, gehienetan eskailera eta arranpetan ez dago irrist ez egiteko zorurik -Leioa, Bihotz Deuna, San Prudentzio eta Berangoko Agirretxu Baserrian bai- eta bideratzeko lagungarriak ere gutxi dira.

Ohe anitzeko egoitzetan ez dago lasai eta telebistarik gabe egon ahal izateko gelarik, ez eta gela txikirik ere egoiliarrek bisitak hartu ahal izateko. Hala gertatzen da Leioa, San Prudentzio, Julian Rezola, San Juan Bautista, San Esteban eta Amurrioko egoitzetan.

Gure herrian irakurzaletasun handirik ez egoteak ez luke arrazoi izan beharko zenbait zentrotan -Julian Rezola, San Roke, San Esteban, Araba Klinika, Erruki-etxea- egoiliarrek liburuak maileguz hartzeko moduko liburutegi txiki bat bedereñ ez izateko.

Egoitzen barruko giroa lasaia da normalean, San Estebanen izan ezik, non buru-gaixoek nahi gabe egindako oihuek giroa nahasten duten. Leioa eta Julian Rezolako hainbat lekutan halako usain txarra somatu genuen azterketa egin genuen egunean eta, bai azken zentru horretan, bai San Roke, San Esteban, Araba Klinika eta Erruki-etxean ere argiak ez dira behar bezalakoak.

Segurtasunaren aldetik ere bada akats nabarmenik zenbait instituziotan. Hala, Erruki-etxean suterik sortuz gero, nekez bertaratu liteke suhiltzaileen kamioirik, San Juan Bautistan ez dago arautegiak agintzen duen adina estintorerik, aipatu egoitzan eta San Roken ez dago larrialdietarako argirik pasabideetan. Bestalde, San Juan Bautista, San Esteban, Bihotz Deuna eta San Roken ez dute alarma-sistemarik eta Santa Maria Magdalena, Erruki-etxea, Amurrio, San Prudentzio eta Leioakoa kenduta, gainerakoek ez dute sua geldiarazteko aterik⁷.

b) Gelak

Gela bakoitzak zenbat ohe dituen hartu dugu kontuan, besteak beste, zein erakunde aztertu erabakitzerakoan. Beraz, horregatik agertzen zaizkigu ohe askotako gela ugari aztertu egoitzetan. Honen inguruan, gogoan izan behar da 1990/218 dekretuak, azpiegitura eta hornigai materialei buruzko baldintzak

⁶218/1990 dekretuaren II. eranskinaren 10 zenbakidun zehazpen teknikoak xedatzen du jangelak gutxienez 2,5 m² izan behar dituela egoiliar bakoitzeko.

⁷Egoitza guztiek bete beharko dituzte 218/1990 dekretuaren II. eranskinaren 1 zenbakidun zehazpen teknikoan biltzen diren xedapenak, suteei aurka egiteko neurriei buruzkoak.

jasotzen dituenak, banakako gelak esijitzen dituela edo, gehienez ere, bi ohekoak laguntzarik behar ez dutenentzat, eta gehienez ere lau ohekoak la-guntza behar dutenentzat.

Portugaletoko San Juan Bautista egoitzan, alabaina, badira manparez bereizirik bata bestearen segidan jarritako 20 ohe dituzten gelak, eta Markinako San Rokeñ badira 6 oheko gelak.

Egoiliar ugarik ohe askoko gelak berezko etsipenez onartzen badituzte ere, dudarik ez dago banakako gelen eskaintza urria dela atentzio-eskaintzaren alderdi txarrenetako bat, oro har dagoen toki-eskasiaz gain, noski. Argi dagoela dirudi, ordea, intimitateari zor zaion errespetuak beharrezko egiten duela honez gero banakako gelak jartzen hastea, baita bihar-etziko aiton-amonon beharrianei erantzun ahal izateko ere. Horrenbestez, birrantolaketa-egitura bat burutu beharra dago, eskaintza hobetu eta ohe askoko gelak kentzeko.

Era berean, 1990/218 dekretuak eskatzen du banakako gelak 9 eta 20 m² bitartekoak izatea, eta bi ohekoak, berriz, 12 eta 25 m² bitartekoak⁸. Gutxieneko luze-zabaleran arau hori ez da betetzen San Roke, San Juan Bautista, San Esteban eta Berangoko Agirretxu Baserrian.

Bestalde, aztertutakoen artean, Amurrioko Egoitza eta San Prudentzio (laguntza-premia dutenen zonaldean) dira gurpil-aulkiak erabiltzen dituztenentzako gela egokituak dituzten bakarrak. Santa Maria Magdalena, Leioa, Julian Rezola, San Juan Bautista, San Esteban, Bihotz Deuna, Araba Klinika, Erruki-etxea eta Zorroaga Egoitzan ez dute 1990/218 dekretuak eskatzen dituen gutxieneko altzaririk geletan, hau da, 0,90 m-ko ohe bat, armairu bat, gaueko mahaitxo bat, siloi txiki bat eta bakoitzarentzako mahaitxo bat.

Leioan eta Julian Rezola Zentruan zenbait gelak ez dute leihorik.

Gelen itxurari dagokionez, denak berdinarik dira eta hotzak. San Roke eta San Esteban Geriatrikoan ez da kontuan hartzeko moduko aldaketarik ikusten gelen diseinu eta dekorazioari dagokienez. Aipatu San Roke eta Berangoko Agirretxu Baserrian, bai eta San Prudentzian ere nabari da nolabaiteko pertsonalizazio ahalegina egin dela. Leioa, Santa Maria Magdalena, San Juan Bautista, San Esteban eta Erruki-etxean debekatuta dago koadrorik jartzea, hormak ez hondatzearren.

Gelak giltzaz ixteko aukera dago Zorroaga, Bihotz Deuna, San Prudentzio eta San Juan Bautista ospitalean, baina eremu "pribatua" soilik, hala ere. Leioa, Julian Rezola, San Roke, San Esteban, Erruki-etxea eta Berangoko Agirretxu Baserrian armairu eta kajoak giltzaz ixteko baimenik ere ez dute.

Bisitatu ditugun egoitzetan, ezinezkoa da kanpotik gelen barrualdea ikustea atea itxita egonez gero, nahiz eta, laguntza-premia dutenen geletan, normalean, atea zabalik egoten den, zaharrak errazago zaintzeko.

Bisitak hartzeko nahikoa leku dute geletan Amurrio, Erruki-etxea, San Prudentzio, eta Berangoko Agirretxu Baserrian.

⁸11 zenbakidun zehazpen teknikoa, B atala, II. eranskina.

Bestelako eskuarteei dagokienez, kontuan izan behar da geletan ez dutela telebista-antenerik Leioa, San Roke, San Esteban eta Berangoko Agirretxu Baserrian. Bestalde, San Roke, San Esteban, Bihotz Deuna, Araba Klinika, Berangoko Agirretxu Baserrian eta Julian Rezola Zentruan ez dago kalefazioa geletatik kontrolatzeko aukerarik, eta azken zentru horretan irakurri ahal izateko moduko argirik ere ez dute. Azkenik, aipatutako egoitza bakar batean ere ez dago telefonorik geletan.

Segurtasun-neurriei dagokienez, ez dago kea antzemateko tresnarik Julian Rezola, San Roke, San Juan Bautista, Zorroaga, San Esteban, Bihotz Deuna eta Berangoko Agirretxu Baserrian. Eta San Roke, San Juan Bautista, Zorroaga eta Bihotz Deuna egoitzetan ez dute "lotarako argi" edo beti pizturik irauten duten horietako argirik, eta bisitatu ditugun geletan ez dago heldulekurik.

c) Hornigaiak eta laguntza teknikoak

Bisitaturiko egoitza guztietan, Amurrio, Santa Maria Magdalena, Araba Klinika eta San Prudentzion izan ezik, badira ez dutxa, ez komunik ez duten gelak. Gainera, San Roke, San Esteban eta Erruki-etxean ez dute bainugela geriatrikorik. Leioa, Amurrio, eta Berangoko Agirretxu Baserrian bakarrik dago nahikoa leku bainuetan gurrpil-aulkiez bira egin ahal izateko.

Zenbait egoitzatan benetako oztopoak daude bainugeletan -hala nola Bihotz Deuna eta Araba Kliniketan, non afeetatik ez baitira sartzen gurrpil-aulkiak- eta egoitza askotan ez dago pertsona ezinduentzako egokitutako lagungaririk.

Nahiz eta ondo jakineko gauza izan egoitza askotako bainugeletan istripuak izateko arriskua dagoela, ez dira kontuan hartu oinarrizko segurtasun-neurriak. Hala, Leioa, Santa Maria Magdalena eta Araba Klinikak baino ez dute txirrinik bainugeletan, egoitza batean ere ez dago irrist ez egiteko zorurik. Leioa, Santa Maria Magdalena, Julian Rezola, San Roke, Bihotz Deuna eta Erruki-etxean, dutxa, bainugela eta komunetan ez dago helduleku edo segurtasun-hagarik. Soilik Amurrio, San Roke, Bihotz Deuna, San Prudentzio eta Berangoko Agirretxu Baserrian itxi daitezke ateak krisketaz eta, gainera, kanpotik ireki daitezke⁹, hala ere.

Oro har, urriak dira eguneroko beharretarako laguntza teknikoak eta horren arfazioa, seguraski, beste herrialdeen ondoan daukagun atzerapena izango da¹⁰.

⁹218/1990 dekretuaren II. eranskinaren 9 zenbakidun zehazpen teknikoan ezarrita daude zerbitzuek bete behar dituzten baldintzak.

¹⁰SIIS. *Laguntza teknikoak. Zerbitzu sistemak*, 1991.

7.3.2. **Jardunbideak**¹¹

Era berean esan behar dugu urriak direla, oro har, zaintze-modua kontrolatzeko eta neurtzeko tresnak. Gainera, ez da nabari antolamenduen berri argi eta garbi emateko joerarik, ez baitaude idatziz jasorik helburu eta prozedurak.

Aurrerago esan dugunez, aztertutako egoitza askotan ez dago barne jaurpiderako araudirik: horixe gertatzen da Leioa, Julian Rezola, San Roke, San Esteban, Bihotz Deuna eta Erruki-etxean. Bestalde, horietako batean ere ez dugu aurkitu kezak idatziz jasotzeko prozedura edo erroldarik, ez egoiliarrentzako jokabide eskulibururik, ez eta larrialdietarako jardunbiderik ere.

San Roke eta San Juan Bautista izan ezik, gainerako egoitzek badute egoiliarren artxibategi bat. Hala ere, San Prudentzion baino ez da jasotzen fitxetan banakako plangintzarik.

Amurrioko Egoitzan, Zorroaga Egoitzan, Bihotz Deuna Udal Egoitzan eta San Prudentziokoan bakarrik daukate egoiliarren eta langileen istripuen errolda.

7.3.3. **Giza baliapideak eta egoitzetako langilegoaren antolakuntza**¹²

Egoiliarrak/langileak ratioak ondo betetzen du, oro har, 1990/218 dekretuak eskatzen duena. San Juan Bautista eta San Estebanen soilik gerta-

¹¹218/1990 dekretuaren I. eranskinaren 17 zenbakidun berarizko baldintzak, egoitza txiki, erdi-neurriko eta handiei buruzkoak dio egoitza horiek honako hauek izan beharko dituztela:

- Egoitzaren helburuak.
- Jasotzaileak.
- Bertan sartzeko baldintzak.
- Hautaketa irizpideak eta baremia.
- Egoiliarren eskubide eta betebeharrak.
- Barne-jaurpiderako arauak

¹²218/1990 dekretuaren I. eranskinak, akreditaziozko kalitate-baldintzak ezartzen dituenak, hauxe dio bere 35 zenbakidun atalean egoitza guztiek bete behar dituzten baldintzei buruz:

Langileak/egoiliarrak gutxienezko proportzio edo ratioa 0,25ekoa izango da burujabeentzako egoitzetan eta 0,40 laguntza behar dutenentzako zentruetan, 21 zenbakidun zehazpen teknikoan erabakitako kalkularen arabera; bitariko egoitzetako ratioa zehazpen tekniko horretantxe ezarritakoari egokitu beharko zaio.

Era berean, aipatu 218/1990 dekretuaren I. eranskinaren B atalean, 26 zenbakidun zehazpen teknikoan, hauxe ezarrita dago egoitza txiki eta erdi-neurrikoei dagokienez:

1. Laguntza behar dutenentzako egoitzetan, langilego osoaren %60ko proportzioa gainditu beharko du zuzeneko zaintzarako langile kopuruak (klinika laguntzaileak, zaintzaileak, zerbitzariak, garbitzaileak, zeladoreak edo horien antzekoak).

2. Medikua izatea, egun erdiko lanaldia betetzen duena edota erakunde akreditatu batekin sinatutako hitzarmenaz ekarritakoa. Ehun postu baino gehiagoko laguntzadunenentzako egoitzetan medikuak lanegun osoan lan egin beharko du.

3. Gutxienez pertsona bat izan beharko dute, prestakuntza egokia, gizarte-ekintzaren programa garatzeari berariaz ekiteko.

4. Erizaintza zerbitzu egokia bermatzeko behar bezanbat SUT (Sanitate-Urgazle Teknikoa): burujabeentzako egoitza handietan eta laguntzadunenentzako guztietan, erizaintza zerbitzuak SUT edo erizain diplomatu bat bertan edukiko du egun osoan. Nolanahi ere, egoitza guztiek bermatu beharko dute premia duten egoiliarrak dagokien osasun-zentruetara lehenbailehen aldatzea.

tzen da -Agirretxu Baserrian ere bai, baina zail da egoitza horretan ratio bat ezartzea- langile gutxiegi izatea dauden egoiliarrentzako.

Langile guztiek kexa bera adierazten dute: etengabe trebatu eta birgaitze-ko aukerarik eza. Izan ere, aztertu ditugun egoitzetako batean ere ez da langile kontratatu berrientzako bideratze-ikastarorik antolatzen.

Era berean, Leioa, Hernaniko Santa Maria Magdalena edo Gasteizko San Prudentzio kenduta, gainerako egoitzetan, langileak ez dira astean behin ere biltzen, nahiz eta batzuetan, esaterako Amurrion, informalki bada ere biltzen diren.

Oso modu orokorrean esanik, bi kultura bereiz ditzakegu egoitzen arloko ikuspegi profesionalari dagokionez. Artean bizirik diraute aspaldikoa ez den aldi historiko bateko hainbat jokabidek. Garai hartan, erakunde erlijiosoen ardurapean zegoen langileen administrazioa, askotan langileak berak ere erlijiosoak izaten ziren, irizpide jakin batzuk izaten zituzten, eta ez zituzten beti kontuan hartzen lan-munduan zabalduko eskubide eta betebeharrak. Antolamendu-eskemen gogortasun hori dela bide, zaila gertatzen da egoiliarrek zahartuz joateak sortzen dituen aldakuntzei aurre egin ahal izateko egokitzapenak gauzatzea.

Beraz, antolamendu-eskemek halako bizitasun bat eskatzen dute sortuko den egoera berriari egokitzeko.

Zenbait egoitza publikotan oso antolamendu-eskema hertsia dituzte eta, gatazkaren bat sortzen denean, hertsitasun berberaz erantzuten diote langileek arazo horri, zaintze-moduaren kaltetan. Aztertu ditugun egoitzen artetik, Leioan ikus daiteke argien fenomeno hori.

Egoitza horretan (baina beste batzuetan ere bai) aldi baterako langile asko dago, formazio eskasekoa, eta hainbestearainokoa da zereginen sakabanaketa, non ikaragarri zailtzen baitu horrek zerbitzuak eskaintzea. Bestalde, auzie irtenbideak emateko dauden zailtasunengatik, eta langile asko egoteagatik, berez txiki diren arazoak handitu egiten dira, ia konponezin bihurtzeraino. Adibide bat baino gehiago eman genezake gaur egungo egoerak sor ditzakeen zentzugabekeriak erakusteko eta maila profesional balzuen eta besteen artean dagoen tirabirazko giroaren erakusgarri.

Alderdi hau aztertu ez badugu ere, Leioako Egoitzako zenbait teknikariek esan digutenez, eragin handia omen du "errearen sindromea"k eta horren erakusgarri omen da lan-uzte tasa handia izatea. Hainbat langilek beharrezko ikusten du psikologi aholkularitza eta laguntzarako zerbitzu bat jartzea, zeren, haien esanetan, oso zaila baita hain gizatalde handia eta hainbeste ezintasun dituen zaintzea.

1990/218 dekretuak aipatzen duen gutxieneko egoiliar/langile ratioa behar bezala betetzen bada ere, zenbait egoitzatan, hala nola Markinako San Roke-n, hainbat gabezia ikus daiteke. Hala, gaueko txandan -gaueko hamarretatik goizeko zortziak arte, asteko zazpi egunetan- monja edadetu batek bete-

tzen du, baina nekez moldatzen da ezintasun larriak dituzten egoiliarrek mugitzen bai eta, hala behar izanez gero, aldatzen ere¹³.

Komeni da esatea, azkenik, 1990/218 dekretuan aipatzen diren ratioak gutxienekoak direla. Bestelako neurri tekniko batzuen bidez neurtuz gero, egoera okerragoa da¹⁴, dudarik gabe. Joera nagusi gisa, langile gutxiago dira egoiliarrek zuzenean zaintzen dituztenak, laguntzaileak baino. Bigarren mailan aurki daiteke nolabait ere ontzat emateko moduko langile-talde zabalik. Lehenengoan, aldiz, denak dira gutxienez justukoak. Gainera, egoiliarrek zuzenean zaintzen dituzten langileen trebakuntzari dagokionez, arreta handiagoa ematen zaie osasun-alderdiei alderdi soziokulturaleri baino. Langile horiek bere burua "osasun arloko"tzat hartzeko joera dute, begibistakoa izan arren aitona-amonak zaintzeko alderdi psikologiko eta soziokulturalak garrantzi handikoak direla.

7.3.4. Zerbitzuen eskuragarritasuna

Atal honetan adierazle gisa balioztatzen dira egoitzek eskaintzen dituzten zerbitzu, egitarau eta ekintzak; horien erabilera zuzeneko zaintzaren zati dela uste dugu, eta hurrengo atalean aztertuko dugu.

a) Osasun Zerbitzua

Egitura-adierazleen zerrendan ikus daitekeenez, egoitzetan arreta emateko garrantzitsutzat jotzen diren hainbat osasun zerbitzu balioztatu dira: medikuntza eta erizaintza zerbitzua, birgaitze-zerbitzua, lanaren bidezko terapia, psikoterapia. Aldiz, ez dira kontuan hartu zahar-egoitzetan ezinbestekotzat jotzen ez diren beste batzuk, hala nola, azterketa klinikoak egiteko laborategia eta radiologia zerbitzua, azken hau zentru bakarren batean dagoelarik, hain zuzen Araba Klinikian.

Osasun zerbitzuen eskuragarritasuna, neurri batean bederen, maila onekoa da Zorroagan eta San Prudentzian, zentru horietan hartzen dituzten erabiltzaileei dagokienez. Aztertu den egoitza multzoan mediku-zerbitzurik ez dutenak Amurrio, Santa Maria Magdalena eta San Roke dira, bai eta, jakina, Berangoko Agirretxu ere. Azken bi hauek erizaintza zerbitzurik ere ez dute.

Zorroaga eta San Prudentzian ez ezik, birgaitze-zerbitzurik bada Leioan, Julian Rezola Zentruan eta Bihotz Deuna Udal Egoitzan. Lanaren bidezko

¹³Esan beharra dago, bestalde, monja horrek ez duela leku egokirik gaua pasatzeko eta plantxatze-ko gelan egin behar izaten duela lo, arropa busti artean askotan.

¹⁴Esate baterako, David Lane eta Vince Prad-en *Staffing ratios in residential establishments* izenekoak aplikatuz gero.

terapia zerbitzurik badute Leioan, Santa Maria Magdalena Egoitzan, Julian Rezola Zentruan, Zorroagan eta Bihotz Deuna Udal Egoitzan. Zentru bakar batek ere ez du psikoterapia zerbitzurik.

Lanaren bidezko terapia zerbitzurik, den txikienik ere, ez dutenak hauek dira: Amurrio, Markina, San Juan Bautista, San Esteban, Araba Klinika, Erruki-etxea, San Prudentzio¹⁵ eta ulergarriago dena, noski, Berangoko Agirretxu. Gainerako instituzioek, aditu baten laguntza gutxienik badute, lanaldi osoz nahiz erdian lanterapia programak prestatzen eta ezartzen aritzen dena, baina ahaztu gabe horrek bakarrik ez duela behar den hornidura, ez jardun egokia bermatzen kasu guztietan. Nolanahi ere, astialdirako ekintzetan MEAPen bidez erdi mailako eskaintza agertzen dute Amurrio, San Prudentzio eta Zorroagan, eta eskaintza apala, ordea, neurtu diren gainerako zahar-egoitzetan.

b) Eguneroko bizimoduan ematen den arreta

Egoiliarrek eguneroko bizitzan zereginak eta ohiturazko betebeharrak gauza ditzaten erakundeak eskaintzen dizkien zerbitzuei dagokie: nor bere burua garbitu eta txukuntzeko laguntza, ileapaindegi zerbitzua, arropa garbitzekoa, garraiozkoa, kanpora irteteko eta erosketak egiteko laguntza, e.a.

Bestalde, egoitza guztietan, San Estebanen izan ezik, ileapaindegi zerbitzua badute, eta den-denetan, salbuespenik gabe, garbiketa zerbitzua. Garraio zerbitzua dute, bestalde, Zorroagak eta Bihotz Deunak.

Instituzio bakar batean ere -Berangoko Agirretxun izan ezik- ez da laguntzarik eskaintzen kanpora ateratzeko; hori dela eta, egoiliar franko bizi da ia erabat isolaturik. Honetaz aipatu da urtean behin egoiliarren erdia baino gutxiago ateratzen dela kanpora eta, ikuskatu diren zentruetako egoiliarren artean, horietako herena ez kalera, ezta zaharretzeko patiora edo lorategira ere ez zen atera ikustaldia egin zeneko aste hartan. Kasu harrigarri bat aipa daiteke: Markinako San Rokeko emakume egoiliar bat aulki batean egoten da eta hamar urtetan ez da bere gelatik atera ere egin. Erosketak egin ahal ditzaten lagundu egiten zaie egoiliarrei Leioa, Markinako San Roke, San Juan Bautista, Zorroaga, Bihotz Deuna eta Berangoko Agirretxun.

MEAPek erakusten digunez, eguneroko bizitzan eskaintzen den laguntza erdi mailakoa da egoitza gehienetan; goi mailakoa ez da inon, eta maila apalekoa da San Estebanen, Leioan eta Araba Kliniketan, laguntza beharra dutenen egoitzak izanik balioztapena zorrotzagoa baita.

¹⁵San Prudentzian lanaren bidezko terapia zerbitzua azterlana egin ondoko hilean hastekoa zen.

c) Astialdirako jolas-ekintzak

Atal honetan erakundeak berak antolatzen dituen ekintza-egitarauen aukera eta horien maiztasuna balioztatzen dira: eskulanak, artelanak, festak, ikuskizunak, jolasak, hitz egiteko taldeak, e.a. Ez dira aintzat hartzen egoiliarren bapateko ekintzak.

Sarrien egiten diren ekintzak festak, mezatara joatea, ikuskizunak eta txangoak dira, horietan bataz-beste %20 eta %40 bitarteko parte hartzea antzematen delarik. Harrera ona dute gimnasiak, mahai-jokuak -kartak eta bingoa-, hitzaldiek eta mintzaldiek, horietan aztertutako egoitzetako erabiltzaileen %10 eta %20 bitarteko egoiliar kopuruak esku hartzen duelarik. Oro har, partaidetza-indizerik baxuenak (%10etik behera) eskulan, artelan, zinema, antzerki eta hitz egiteko edo biderapenerako taldeek erakusten dituzte.

Eskuarki, egoitza txikietan -100 postutik beherakoak- ekintza aukera gutxiago dago: esaterako, San Roke Egoitzan eta Agirretxu Baserrian noizean behin bakarrik egiten dira festak.

Amurrioko Egoitzako ekintza-egitaraua aberatsagoa da, nahiz egoitza txikia izan: gimnasia saioa izaten da astean hiru bider eta bertan parte hartzen du egoiliarren %77ak; horretaz gain, badira hitz egiteko taldeak, filmeak, eskulanak eta karta-jokuak, horietan guztietan %20tik gorako parte hartzea nabari delarik.

San Prudentzio, Santa Maria Magdalena eta Bihotz Deunaren Udal Egoitzan hitzaldiak eta antzerki-jaiak ere antolatzen dituzte, hitz egiteko talderik ez dagoen arren.

Julian Rezola Zentruan gimnasiarako, hitz egiteko, norberaren laguntzarako, eskulanetarako eta festetarako taldeak dituzte, baina ez dago parte hartze handirik, ekintza horietako bakar batean ere ez baita %7ra iristen parte hartzaileen kopurua. Soil-soilik egoitzako kaperan ematen diren mezek erakarzen dute egoiliarren %20a.

Leioako Laguntzadunen Egoitzan eta Zorroaga Egoitzan, festa eta mezak ez ezik, beste ekintza batzuk ere antolatzen dira, hala nola eskulanak, karta-jokuak, hitzaldiak eta gimnasia taldeak; Leioako Laguntzadunen Egoitzan antzerki eta zinema saioak ere egoten dira.

Egoitza handien artean, Araba Klinika eta Erruki-etxe Saindu eta Erregezkoa dira ekintza gutxien eskaintzen duten egoitzak. Lehenengoan noizean behin antolatzen dira festa eta ikuskizunak, egoiliarrek bete-betean eta samaldan parte hartzen dutelarik; gainera, egoiliar gutxi batzuek gimnasia eta eskulanak egiten dituzte. Erruki-etxe Saindu eta Erregezkoan kantu-taldea dago eta zenbait edadetu karta-jokuan eta eskulanak egiten ibili ohi dira.

Nolanahi ere, astialdirako jolas-ekintzei dagokienez, MEAPen bidezko azterketan bataz-besteako eskuragarritasun onargarria antzematen da Amurrioko Egoitzan, San Prudentzion, Bihotz Deunaren Udal Egoitzan eta Zorroaga Egoitzan, eta eskuragarritasun maila baxua, berriz, aztertutako gainerako egoitzetan.

7.3.5. Zuzeneko zaintza eta egoiliarren eskubideetan duen eragina

Oro har, egoiliarren oinarrizko beharrak, garbitasuna eta elikadurari dagokienez, ongi betetzen dira aztertu diren zentruetan. Zailagoa da neurtzea ea norberaren zaintza-bideek gutxienezko baldintzak betetzen dituzten, ez baitago irizpide behar bezain argirik gutxienezko erreferentzial horiek zeintzuk izan beharko luketen jakiteko. Beraz, korapilotsua ere bada, edo zehatzago esateko konprometitua, ohitura edo jokabide batzuk tratu txartzat, edo besterik gabe, utzikeriatzat hartzea; baina egia esateko, garbi azaldu behar da ikusi diren hainbat jokabide dela medio, esparru instituzionaletik kanpo kulturalki ontzat ematen diren eskubideak galarazi edo gogor oztopatzen direla.

Alde horretatik, aipagarria da zein erraz sinisten den bizitza instituzionalak norberaren askatasunari eta, zehazki, nor bere aukera egiteko eskubideari jartzen dizkion mugak ezinbestekoak direla. Egia ere bada komunitatean bizi izateak baldintza batzuk jartzen dituela eta, azken buruan, ekonomiak zuzenezuzenean eragiten duela zaintze-moduaren kalitate mailan. Hala ere, askotan, zaintze-jardunean izaten diren hutsegiteak edo aukeratzeko askatasunaren arloko murrizketak, bai eta ekonomikoaren eragina argiagoa denean ere -adibidez, aukeratzeko menu ezberdinak eskaintzea-, funtsean egoitzen ezaugarri den kulturazko geldokeriaren ondorio dira.

Gutziz beharrezkoa da jakitea zeintzuk diren mugak, handik aurrera zaintze-moduak egoiliarren eskubideak urratzen dituen ala ez gogoan hartzeko. Alde horretatik, gure inguruko beste nazioetan bezala, ez daukagu zaintzalanearan diharduten erakunde profesionalen jarduna arautzen duten eskuliburu-rik edo ongi aritzeko gidaliburu-rik. Badira gai batzuk, errazak izanda ere, zeharo garrantzitsuak direnak, eta horiek nahi baino gehiagotan behar den prestakuntzarik ez dutenen iritzipean gelditzen dira, esate baterako egoiliarrei nola hitz egin behar zaien -alde batera utzi behar da haurrak balira bezala mintzatzeari, edo izugarri zabaldu den erdarazko "tu"keta- edo, txisari eutsi ezina eta jarduera sexuala bezalako gaietan, intimitatea eta duintasuna bermatzeko nola jokatu behar den.

Egoitza batzuetan -Leioa, Zorroaga, San Esteban, Bihotz Deuna, Araba Klinika eta Erruki-etxean- norbanakoen askatasunaren arloan jokabide murrizgarri-rik izan dela hauteman da, edo erabiltzaileei zor zaien begirunea ez dela zaindu. Nahiz jendeak ikusi aiton-amonak bakarrik edo deus egin gabe telebistaren aurrean egoten direla, hura piztuta edo itzalita egon berdin zaiela, kasurik ez baitiote egiten, hori normaltzat edo ezinbestekotzat jotzen da eta ez zaie beste inolako aukerarik eskaintzen.

Horri buruz, arestian aipaturiko erakunde-rik geldokeria ideologikoki zuzitza-rik dakarren arriskua azpimarratzen da, izan ere, egoitzen eginkizuna eta adinekoek dituzten beharren izaera ez baitira behar bezala ulertzen.

Oker ulertze horietan makurrena da egoitzen helburu bakarra zaharren oinarrizko beharrak asetzea dela uste izatea, garbitasuna eta elikadura hain zuzen, eta alde batera uztea, beraz, haien ongizaterako funtsezkoak diren beste alderdi batzuk, adibidez norberaren burujabetasunaren garapenari edo

integrazio sozialari lotzen zaizkionak. Instituzio batzuen tamaina hain handia da, ezen izugarri zaila baita intimitatea errespetatzen duen zaintza ematea; nolahi ere, ez du behar adina pertsonalizatutako harremanak izateko bide ematen. Horrezaz gainera, burua nahasi samarra edo nabarmen nahastua daukaten egoiliarrek hainbeste izanik¹⁶, harremanetarako giro ona sortzea zailagoa izan daiteke.

Dena den, egoitza askotan ikusten denez, harreman gutxi dago langileen eta egoiliarren artean. Oro har, aiton-amonengana jotzen dutenean ia beti izaten da norberaren laguntzarekin zerikusirik duen zuzeneko eginbeharren batengatik -"ez dago ezertarako astirik, dena ziztu bizian egin behar dugu" diote, kexu, Leioako laguntzaile batzuek-, baina benetako harremanak, berriz, oso gutxitan baizik ez direla izaten esan daiteke. Markinako San Roken eta Berangoko Agirretxun langileek ba omen dute ahalmena ohetik noiz altxa, oheratu edo bainatu egoiliarren esku uzteko. Aurreko biekin batera Amurrion ere bertako langileek beren denboraren zati bat egoiliarrekin mintzatzen ematen dute, iritziak ezagutu eta haien zer nahi duten jakitearren.

Zuzenean ikusi ahal izan denagatik eta aiton-amonekin izandako elkarrizketen bitartez ateratzen den ondorioa da zainketa-lana, kasu batzuetan bederen, ez dela behar bezain ongi egiten. Zorroagan erizaintzan sartzen dituztenak luzaroan bakar-bakarrik egoten dira, eta Leioan, Araba Kliniketan eta Julian Rezola Zentruan maiz entzuten dira kexak tinbre-hotsa entzuten denetik bertaratu arte denbora luzeegia igarotzen delako. Bihotz Deuna Udal Egoitzan emakume bati gertatua jaso dugu, adibide gisa: lurrera erori eta gimnasia joateko gauza ez zela geratu zen, hara joateko nork lagundu ez zuelako. Araba Kliniketan ebaluazio-taldeko kide batek honako hau ikusi du: ikustaldi bat egitera joandako emakume batek beste emakume bat darama, egoiliarra eta gurpil-aulki batean eserita. Kanpora atera nahi dute, baina hara non gurpil bat airerik gabe dagoela konturatzen diren. Emakumeak hartu puzgailua eta pasabide-tik txistuka doan urgazle bati gurpila airezta dezan eskatzen dio. Honen erantzuna: "bihar".

Bilboko Erruki-etxean ezgaituak daudenak ezin dira lorategira atera. Oinez ibiltzeko gauza ez direnek aulki arruntetan eserita egon behar dute eta gurpil-aulkietan jantokira eramateko baino ez dituzte jartzen.

Nabaria da aztertutako egoitzetan ezarri diren antolakuntza-eskemetako batek ere ez duela funtsezko edo erreferentziako langilearen irudia jasotzen. Begibistan dago, alabaina, komeni dela egoiliar bakoitzak berataz arduratuko den pertsona bat izatea, era ezberdineko profesionalen ardurapeko zaintze-prozesuaren alderdi franko bideratu eta koordinatuko dituen. Erreferentziako langilearen irudia (egia esateko, arduradun antzeko zerbait izango litzateke

³⁵Sorospen-irizpideak ezartzean hain ospe handikoa den Centre for Policy on Ageing -*Coping with mental frailty*- erakundeak gomendatzen du ez dadila buru-arazoa duten zaharren dentsitatea edo maiztasuna 1/5ekoa baino handiagoa izan egoitza-zerbitzuetan. Aztertu diren instituzioen irizpideak onartzen badira, zehaztu beharko litzateke proportzio hori zein puntutan den handiagoa kasu guztietan eta salbuespenik gabe. Egia ere bada zuzenean arreta ematen duten langileak, datuak eskuratu dizkigutenak, aski iritzi zabala dutela buru-galtze edo buru-nahasteaz.

berau), egoiliar askoren ipar-galtzea eta, hein batean, zuzenean zaintzeko dau- den langileen arteko aldaketek sortarazten dizkien larria eta segurtasunik eza ere ekiditeko bide litzateke.

Beste arlo batean, ohikeriazko zenbait jokaera aztertzearen ondorioz, esan daiteke ohikeria horiek aiton-amonen beharrei erreparatuta baino gehia- go instituzioak -zuzendari edo/eta langileek- dituen interesen arabera jartzen direla, eta egoiliarren behar horiek bigarren mailan gelditzen direla. Esan beharrik ez dago xedetzat zaharrak zaintzea duten langileen lan-lekua egoitza dela eta aldi berean, baita zaharren etxebizitza ere. Zoritxarrez, bi alderdion kontrajarpena arazo latza izan ohi da, teorikoa baino zerbait gehiago dena, eta maiz aski, hori konpontzeko aiton-amonen eskubideak murriztu besterik ez da egiten. Lehen ere esan da, baina inoiz ez da behar hainbatetan esaten honako hau: jarrera desegoki askoren sorrera, edo horien zuribidea behinik behin, egoitza batean tokia eskatzen duten zaharren zaintzan ongintza-kontzeptua ez baztertzean datza.

Ondoren azalduko ditugu aztertutako egoitzetan antzemandako alderdirik aipagarrienetako batzuk, zuzeneko zainketaren arloko jardunbideei dagozkie- nak.

a) Intimitatea izateko eskubidea

218/1990 dekretuak bere 8.1.d) artikulua arabera, baimena lortzeko ezinbesteko baldintza da “erabiltzaileen eskubideak behar bezala bermatzea”. Eta dekretu horretxetako I. eranskineko A.8. zatiak honela dio:

“Dekretuaren ataletan ezartzen diren printzipio operatiboak praktiko- ki onartzea, honako portaera-modu zehatz batzuk gutxienez jaso behar direlarik:

- Egoiliarrek dituzten eskubide individualak erabat errespetatzea, inti- mitate-eskubidea bereziki;...”

Jakina denez, gela bakoitzeko ohe kopuruak zuzenean baldintzatzen du egoiliarren intimitaterako eskubidea. Alde batetik, logela beste batekin dauka- tenek nahiko luketen pribatutasunari eustea zaila da, eta bestaldetik, zahar- egoitza gehienetan banakako logelak nola banatzen diren ez jakitea adineko- entzat nahigabe-iturri izaten da, eta arrazoiak edo arrazoirik gabe, baztertuta sentitzeko joera dute. On litzateke esleipen-prozesuaren garbitasuna bermat- zea, inolako gaizki ulertzerik ez dadin gerta. Horretarako biderik hoberena da baremoak jartzea, Leioan eta Markinako San Roken egiten dutenaren antzera, aztertutako egoitzen artean.

Zahar-egoitza guztietan bidezko da gelako atea ixtea, baina giltzaz ixteko baimena Zorroagan eta San Prudentzian bakarrik ernaten dute. Bilboko Erruki-etxean gizonak itxi dezakete euren atea, haien geletako ateak sarraila-

dunak baitira. Emakumeen kasuan, berriz, eta beraiek hala aitortu dute, ezin itxi izateaz gainera, "gaizki ikusia" ere badago atea erdizka ixtea bera ere; horrela, beraz, intimitatea ezinezkoa da.

Aipatutako bi egoitza horietan, Zorroagan eta San Prudentzian, langileek geletan sartu baino lehen deitu egiten dute beti, eta itxaron egin behar izaten dute harik eta sartzeko baimena ematen zaien arte; beste horrenbeste gertatzen da, orobat, Amurrian, San Roken eta Berangoko Agirretxun ere.

Leioan, Julian Rezola Zentruan, Bihotz Deuna Udal Egoitzan eta Bilboko Erruki-etxean, bainugelan jantzi eta eranztzeko unean pribatutasuna ez dago bermatua. Hain zuzen ere, lehenbizi aipatu den zentruan, eraginkortasuna dela eta ezgaitasun larriak dituzten egoiliar batzuk pasabidean jazten dituzte eta dutxara ere izara batekin estalita eramaten dituzte.

218/1990 dekretuak egoiliarren norbanako eskubide gisa jasotzen du sentimendu eta sexuzko harremanak izateko eskubidea; hala ere, intimitaterako eskubidea, sexu harremanak izateko aukerari loturik, argi eta garbi Amurrioko Egoitzan baizik ez da planteatu. Gai honetaz Bilboko Erruki-etxean dagoen egoera ezagutzeko, esanguratsua izan daiteke egoitza horretan bitariko jangelarik ez izatea: gizonetako eta emakumezkoetako berezita jaten dute, eta ez dute dute elkar ikusteko aukerarik, ikustaldietarako orduetan ez bada. Egoiliarren artean senar-emazte bikote bakarra dago. Ezkontideetako bat, ezgaitua, laguntza beharrekoen solairuan dago eta bestea burujabeen solairuan. Instituzio honetan hain ezkondu gutxi izatearen arrazoia, agian bertan jarri dituzten arau zorrotzak izan daitezke, seguru aski eskatzaile ezkonduen sexu harremanen gaineko ohiturazko arau horiek asmoa aldaraziko bailieke. Dena den, egoiliar eta langile batzuek azpimarratzen dute aiton-amonen artean bikoteak eratzearen kontrako giroa dagoela, izan ere, era honetako jokabideak ez dira ez errespetatzen, ez eta ulertzen ere.

b) Askatasunez aukeratzeko eskubidea

Jakina denez, askatasunez hautatzearekin zerikusirik duten alderdiak, zuzen edo zeharka, norberaren duintasunarekin ere loturik daude. Izan ere, norberaren zaintzari dagozkion alderdi guztiek zenbait balore ukitzen dute aldi berean: adibidez, nor bere buruaren jabe izateko eskubidea, gogozko hautapena, duintasuna, pribatutasuna, etabar. Beraz, esparru jakin bateko azalpenak, demagun intimitatekoak, emateko aztertu diren erakuskariak berririo eman beharrik ez dago, beste alderdiak, esaterako gogozko hautapenari buruzkoak, aztertu nahi izanez gero.

Egoiliarrak ordu jakin batean altzarazteak eragina izan dezake, dudarik gabe, gogozko hautapenean (hautabide multzo baten barrenean askatasunez hautatzeko ahalmena), burujabetasunean (pentsatu eta ekiteko ahalmena, beste pertsona baten erreferentzia izan beharrik gabe, kalkula daitekeen nolabaiteko arrisku maila onartzea ere barné dela) eta norberaren duintasunean, noski. Edonola ere, "altxa guztiak" deiadarrak adierazten duen sistemak bere-

kin dakar gosaltzeko orduan den-denak mahaian egon beharra, eta horixe erabiltzen dute Leioa, San Juan Bautista, San Esteban, Bihotz Deuna eta Erruki-etxean. Zuzendari batzuen ustez jardun-modu hori egokia da, zerbitzuaren beharretatik aparte, lo-galdua eragozteko modu bat delako eta, zenbaitetan, San Estebanen kasu, aiton-amonei galerazi egiten zaie egunez lo egitea, logaletzen diren bezain laster astinduz eta ozenki hots eginez; Julian Rezola Zentruan berriz, bazkalondoko lo kuluxka egiteko orduan norbaiti ohean sartzea bururutzen bazaio, laguntza ematen zaio, beti ere medikuak hala agindu badu. Zentru horretan lotarako orduak finkoak dira, eta gauza bera gertatzen da Leioa, San Esteban, Araba Klinikari eta Erruki-etxean ere.

Amurrio, San Roke eta Berangoko Agirretxun askatasun osoa dago ikus-taldietarako, inolako ordutegirik gabe. Hernaniko Santa Maria Magdalena, San Esteban, Bihotz Deuna eta Erruki-etxean debekatuta dago bisitak geletan hartzea, eta Leioan bakarrik dago kanpoko jendea bazkaltzera gonbidatzeko aukera. Egoitza horretan, haatik, San Juan Bautista, San Esteban eta Bihotz Deuna Udal Egoitzan bezalaxe, familiakoei ez zaie gaua zentruan pasatzen uzten, ezta egoerarik berezietan ere. Ikusten denez, instituzio batzuetan, arau murriztaileak ezartzeko joera dago, ziur aski eginbehar batzuk erraztu, antolamendua sinpleagotu edo, agian, arriskuak ahalik eta gehien saihesteko.

Adibidez, Amurrio, San Roke eta Zorroagan, geletan alkoholik edatea debekatuta dago, eta areago San Estebanen, non ez baitute baso bat ardo bakarra ere hartzen uzten. Erakunde horretan askatasunaren murrizketak ugari direla esan daiteke. Esate baterako, egunez geletan egotea debekatuta dago, janaririk ere ezin dute eduki eta erretzea galerazi diete. Leioako egoiliar batzuk, aldiz, kexu dira erretzaileek, langile zein egoiliarrek, ez dituztelako erretzaile ez direnen eskubideak errespetatzen.

Aipatu dugu jadanik, oro har, gelek erakusten duten pertsonalizatorik eza. Egia ere bada, egoitzen arduradun zenbaitek ohartarazten dutenez, sarritan zaila dela adineko pertsonak animatzea gelak beren gustora apaindu eta edertu ditzaten. Arrazoi psikologiko eta kulturalak ahaztu gabe, neurri batean, interesik eza eta are axolagabekeria ere ulertarazteko bide direlako, oso gutxi egiten da norberaren bizilekua eta norberaren ongizatea hobetzearen aldeko interesa sustatzeko, baldin eta norberaren gauzatxoak gelara eramatea debekatzen bada -horixe gertatzen da Santa Maria Magdalena Hernanikoan, Julian Rezola Zentruan, San Juan Bautistan, San Estebanen, Bihotz Deuna Udal Egoitzan eta Erruki-etxean- edo altzariak lekuz aldatzea galerazten bada, Leioan, Santa Maria Magdalenan (egoiliarren ekimenez zenbait gela egongelatarako egokitu dira), Julian Rezola Zentruan, San Juan Bautistan, San Estebanen, Bihotz Deuna Udal Egoitzan, Araba Klinikari eta Erruki-etxean, kasu.

Komunitatean etxeko animalia bat -arraina edo txoria- edukitzea baino gauza ohizko eta arruntagorik, eta adineko pertsonentzako maila afektiboan onuragarriago denik ez dago. Eta hori Amurrio eta Berangoko Agirretxun bakarrik dago baimendua. Gelan berotu gabeko jakia, edo kafea nahiz infusio- ren bat prestatzea San Prudentzian eta Berangoko Agirretxun izan ezik ez

dute beste inon uzten, kasu honetan sukaldean. Azkeneko honetan, eta berebat Leioan, Zorroagan eta Bihotz Deuna Udal Egoitzan, arropa xehea gelan garbitzeko eskubidea dute. Hernaniko Santa Maria Magdalenan, areto batzuetan sukalde xume bat daukate bertako egoiliarrek jaki batzuk presta ditzaten.

Gehienetan, egoiliarrei toki bat jartzen zaie jangelan eta ez dutē hura aldatzerik izaten baimenik ematen ez bazaie, San Roke eta Berangoko Agirretxun izan ezik. Horietan, San Prudentzion bezala, gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko nolabaiteko malgutasuna dute beren ordutegian. Beraz, tarte batzuetan janaria eskura dute egoiliarrek. Aukera egin dezakete bi menuen artean, gutxienez, Leioa, San Roke, San Juan Bautista, Erruki-etxea, San Prudentzio eta Berangoko Agirretxun.

Esan daiteke, orokorrean, garbiketa-ohiturak, bai eta otorduetako eta nork bere burua txukuntzeko orduak ere, lotuegi daudela antolamenduaren eta langileen eginkizunei, eta ez direla kontuan hartzen, komeniko litzatekeen neurrian behintzat, erabiltzaileen beharrak. Eta horrela, Markinako San Roken eta Berangoko Agirretxun bakarrik gertatzen da gelak garbitzeko orduak egoiliarrek nahi duten modura egokitzea. Kasu batzuetan, langileen ordutegiak behartzen du otorduek egunean zehar duten banaketa behar bezain adimenlegezkoa ez izatea. Hori horrela, maizenik afaria aurreratu egin ohi da eta gosaria berriz, atzeratu, langileentzako erosoago delako; baina horrek gutxienez zera dakar berekin: otorduen arteko tarte batzuk luzeegiak diren bitartean beste batzuk motzegiak izatea. San Estebanen, adibidez, afariak arratsaldeko seietan hasten direnez banatzen, zortzi t'erdietarako egoiliar guztiak oheratuta egoten dira. Erraz ulertzekoa da ordutegi horrekin arratsaldez dihardutenek gainerako langile gehienak ateratzen diren ordu beretsuan ateratzea lortu badute ere, hori ez dela egoiliarren giza harremanak aberasteko modurik egokiena.

Ildo berari jarraiki, frankotan gertatzen da zerbitzua errazteko, sinplifikatzeko edo ohikeria bihurtzeko joera dagoela, aiton-amonon nahi eta beharrei ezer gutxi erreparatu gabe, eta horrekin haien egoera okertzeko bidean jartzen da. Alde horretatik, erabili eta bota egiten den materiala erabiltzeak, oro har, egoiliarren bizi-kalitaterako eta zaintzaileen lan-baldintzen aldetik dudarik gabeko aurrerapena izanik ere, beste alde batetik horrek banan-banan tratatu behar diren arazoak inolako berezitasunik gabe tratatzeko bidea ematen du -esate baterako, txisa-oihalak salbuespenik gabe erabiltzeko ohitura, txisari ezin eutsi diezaioketen aiton-amonon kasuan-. Julian Rezola Zentrua, Zorroaga, Bihotz Deuna, Araba Klinika eta Erruki-etxean halako joera bat sumatzen da zerbitzua errazago edo erosoago egiteko, horrek egoiliarrei kalte egiten badie ere.

c) Txisari eutsi ezina, arazo berezia

Egoitzetan sartzten diren adinekoek barren-barrenetik eskatzen dute txisari eutsi ezina egoki trata dadin, eta horrekin batera, janaria askotarikoa, kalitatekoa eta ugaria izatea, bai eta geletan bakarrean egoteko aukera ere.

Aipatu da dagoeneko, aztertutako gai gehienek, edozein izanik ere, eragina dutela esparru guztietan: pribatutasunean, duintasunean edo gogozko hautapenean, eta eutsi ezinarena da, seguraski, haren adibiderik argiena. Arazo hau maiztasun handikoa da egoitzaratu direnen artean, eta bizitzaren alderdi franko ukitzen ditu: ukitzen du, nola ez, norberaren duintasuna, gogozko hautapena mugatzen du eta, orokorrean, bizi-kalitatea ere bai. Hala ere, kontuan edukitzekoa da zenbat eta desegokiago tratatu, orduan eta ondorio txarragoak izaten dituela.

Aiton-amonak luzaroan edukitzen dituzten erakunde eta egoitzetan kalitate oneko laguntza izateko Geriatriaren Elkarte Britaniarrak ematen dituen gomendioen artean¹⁷, kaka eta pixari eusteko ahalmena sendotzeari buruzkoak dira behinenak. Ospe handiko erakunde horrek gomendatzen duen bezala, zentru bakoitzak gai horretazko eskuliburu bat izan beharko luke, erraz ulertzeko moduan idatzia, guztiek erabiltzekoa, eta arazoa araubide anitzen ikuspuntutik aztertu beharra azpimarratzen du. Eusteko ahalmena indartzeari buruz gizalegez jarduteko eskuliburu guztiek biltzen dituzte banakako egitamuak presatzeko baliapideak, baina aztertu diren egoitzetatik batek ere ez dauka horrelako tresnarik. Jakina, eutsi ezina modu egokian tratatzeko ezinbestekoa da komun aski izatea, eta are zailagoa dena, premia hori duten pertsoneri eta behar duten momentuan bertan laguntzeko adina langile izatea.

Tamalez, ez Leioan, eta ezta Julian Rezola Zentruan, Zorroagan, Bihotz Deuna Udal Egoitzan, Araba Klinikian eta Bilboko Erruki-etxean ere, laguntza beharrean dauden egoiliarrek ez daukate nahi dutenean komunera joaterik.

Nahiko hedatua dagoen jokabidea da oihalak eta sondak jartzea eta komunera joaten laguntzea edo ordu jakin batean horiek sistematikoki aldatzea. Egoiliar batzuei egintza hori guztiz lotsagarria iruditzen zaie, eta Leioaren kasuan hain juxtu, horixe jotzen dute eritasun eta erredura askoren arrazoi, batik bat, gau batzuetan beharra duten pertsona guztiak ez dituztelako aldatzen. Bihotz Deuna Udal Egoitzan, egoiliar askok zulodun aulkietan egon beharra izaten dute eta Araba Klinikian, non aukera ematen baitzaie komunera joateko goiz eta arratsaldeko erdi aldera, egoiliar batzuk kexu ziren laguntza horren ordez gauontziak eskaintzen zizkietelako.

Hainbat kasutan langileak ez dira ohartzen zaharrentzat eutsi ezinaren arazoa era egokian hartzeak zer garrantzia duen. Batzuetan aipatzen da egoiliarrek tematu egiten direla beren eutsi ezina kontrolatu nahian, eta horretarako komuna erabili nahi izaten dutela, txisa-oihalak behin eta berriz erabiltzeari uko eginez, eta tema horren errua adinari egotzi nahi zaio, ahalmenen galarenen adierazle delakoan. Ikuskatzailearen batek, gure ustez zilegi eta naturala den nahi horretaz mintzatzean, "benetako itsukeria" zela zioen. Jarrera itxi horren kontra, egoiliar batzuk ikaragarritzko eginahaletan saiatzten dira euren burujabetasunari eutsi nahian eta euren duintasuna gordetzeko asmoz, eta horrexe-

¹⁷Gomendio horiek 1992an British Geriatrics Society-k emandakoak dira Royal College of Physicians of London-ekin elkarlanean. Testu horren itzulpena aurki daiteke Rev. Esp. Geriat. y Gerontol. 27, 1. erans. (53-57), 1992.

gatik segitzen dute komuna erabiltzen. Aipagarria da benetan Araba Klinikako egoiliarra den emakume itsu baten kasua: hanka bat moztuta dauka, bere aulkia komunean ez da sartzen, eta gorriak ikusten ditu komunera doi-doi heldu ahal izateko.

d) Duintasunarekiko begirunea

Ez dago zertan errepikatu behar aztertu diren ia gai guztiek dutela eragirik egoiliarren duintasunean, maila ezberdinetan bada ere. Gogozko hautapeinari mugak jartzen bazaizkio nekeza izango da norberaren duintasunari ez ukitzea, eta beste horrenbeste esan daiteke pribatutasun-etzari dagokionean. Arestian aztertu dugun ezin-etsiaren trataera desegoki hori adibide ona da egoiliarren duintasunarekiko eta haiek duten intimitate-eskubidearekiko begirunerik eza adierazteko.

Horrela, bada, "duintasunarekiko begirunea" izeneko atalaren bitartez hizpide izan ditugun alderdi gehienak oroitaraz baditzakegu ere, erakunde batzuetan gertatzen diren arauz kanpoko jokabideak bakarrik aipatuko ditugu, ziur aski askoz ere orokorragoa den arazoa argitzeke.

Gai honetaz lehenbizi adierazi behar da barne jardunari buruzko araudirik edo arau idatzirik ez dagoela -izan ere, eta hori aurrez ere aipatu da, instituzio askok ez dute barne araubiderik-. Gabezia horrek bide ematen du hainbat eta hainbat istorio ager daitezen, egiazko zein gezurrezko, iraganean jokabide jakin batzuek merezi izan zituzten zigor zorrotzei buruzkoak. Horrek beldurra eta segurtasun-eza sortarazten ditu¹⁸. Jakina, araubiderik ez badago egoiliar askok ez dute garbi ikusten egin daitekeenaren eta arauz kanpokoaren arteko muga-non dagoen, eta horixe da, jakina, zalantza sortzaile.

Dena den, egoitzetako zigorren gaiak, langileen eta egoiliarren eskubide eta eginbeharren gai orokorragoaren barnean, zera eskatzen du: lege-bide egokiaz baliatuz, lege-urratzeen eta zigorren taula egin dadin, egoiliarrak jakin dezaten zein jokabide ez diren onargarriak eta horietako portaeraren bat erakusteak berekin dakarren zigorra.

Zigorak jartzeko arrazoi nagusiena, inolako dudarik gabe, alkohol gehiegi edatea da. Horrek, dirudienez, eragin handia du zenbait egoitzatan. Askotan gertatzen da, horditu ondotik erakundeko ordena asaldatzen hasten direla; horrelakoetan, bakarka jartzen dituzte edo puska batean ez diete kalera ateratzen uzten. Zorroagako egoitzan, hirigunetik urrun samar dagoenez, era-

³⁷Bihotz Deuna Udal Egoitzako egoiliar batzuek jakinarazi zuten bikote batek "ihesari" ekin ondotik, erantzun gisa emakumea kanpora bidali zutela. Kontakizun hori egiazkoa izanez gero, ez litzeteke zaila izango jakitea zein arrazoi izan ziren emakumea, bera bakarrik, kaleratzeko. Bilboko Erruki-etxean egiazkotzat jotzen zen iraganean lau "egoitz-nahasle" kanporatu zituztela. Gertaera hauek aipatzen ditugu, egiaztatu ez badira ere, arrazoi ezberdinak direla medio kanporatua izateko beldurraren adierazle direlako. Beldur horren funtsa oso-osorik ez litzateke araudirik ez izatea, baiña oinarria behinik behin bada.

kundeak berak duen garraio zerbitzuaz baliatzen dira debeku hori betetzeko. Baina maizago erabiltzen da beste bide bat, zigortuari kaleko arropa kentzearena, alegia, Bilboko Erruki-etxean egiten duten bezalaxe.

Alkoholzaletasunaren arazoa ez da erraza, inondik inora, baina gaitz horren mende daudenak kasik iraintzeraino tratatzea ez da inolaz ere konponbiderik egokiena.

Esan beharra dago, hainbat erakundetan, langileek berek aitortzen dutela egoiliarrek harrokeriaz tratatzen dituztela. Egoera horren adibide bat emateko, kasu bat aipatuko dugu, non sorospenaren kalitate maila onenetakoa baita: Amurrioko Egoitza.

Egoitza honetan, langileak nahikoa ados azaltzen dira adineko pertsonak behar besteko begirunez tratatzen ez direla esaten dutenean. Hala eta guztiz ere, egoiliar bat bera ere ez zen iritzi horretakoa. Horrek, seguru aski adierazten du, egoiliarrek "normaltzat" hartzen dutela langileek desegokitzen jotzen duten trataera, alde batera utzirik erakunde horretako langileak beren iritzia agertzeko askatasun subjektibo handiagoa izan dezaketela. Agian beste zerbait ere adierazten du -berriro diogu, Amurrioko zaintza-moduaren kalitatea, hein handi batean langileei zor zaiena, onargarria da neurri absolutuetan eta zeharo onargarria neurri erlatiboetan-, beharbada beste zaharretxe batzuetako egoera kezkarriagoa da, langileen arazoak, askoz ere arazo larriagoak gainera, beren kopurua, kualifikazioa, antolamendua, direla bide.

Trataera okerreko zantzuak hauteman dira Bilboko Erruki-etxean. Ebaluatzaileen aurrean urgazle batek iseka egin zion egoiliar bati. Halaber, zaharrak beldur zirela antzeman da elkarrizketetan. Beldur ziren zelatatuko zituzten eta, ondorioz, zigorren bat jarriko zieten erakundea kritikatzegatik. Baten batzuek aipatu ere aipatu zuten inoiz edo behin atximur eta kaskarrekoak ere jaso izan dituztela.

Ezbairik gabe, onartu behar da adierazpen horiek faktore psikologiko eta kulturalen eraginpean jasoak izan daitezkeela, zaharrek erakundetan izan ohi duten trataerarekin zerikusirik izan gabe, irudipenezkoak ere izan daitezkeen adierazpenak, alegia. Baina begibistakoa denez, gehienetan langileen eta aiton-amonen arteko harremanak hain dira bereziak non gaizki ulertzeak, behinik behin, ohizkoak baitira. Jakina, kaskarreko "kuttunaren" ohitura ezabatuko balitz gaizki ulertzeentzako toki gutxiago legoke.

Ebaluatzaileekin izandako elkarrizketetan egoiliar batzuk beldur ziren erakundeari kritikak egitegatik zigorra jasoko zuten. Horrekin batera halako etsipen bat ere erakusten zuten -"zertarako kexatu", "bizitza guztian pobre izan gara eta sofritzen ikasi dugu, bai" eta antzeko adierazpenak jaso dira sarri askotan-. Beldurra eta etsipena, beraz, egoitzetan duten trataeraz kanpoko faktore psikologiko eta kulturei lepora dakizkieke, baina gaizki egingo genuke aintzat hartuko ez bagenu adierazpen horien azpian egon daitekeen benetako arrazoa.

Dudarik gabe, egoiliar batzuen etsipen horretan eragina izan dezake bera zaintzegatik sortzen diren gastuak ordaintzeko egiten duen diru-ekarpena ez dela aski jakiteak. Markinako San Roke egoitzan, erakundeak dituen arazo

ekonomikoak direla eta, aiton-amonen gain egiten den presioa izango da seguru aski nabarmenena. Bilboko Erruki-etxean emakumezko egoiliar batek zioenez, arropa garbitzen lau urtez lan egin beharra izan zuen “pentsiorik kobratzen ez nuenez, nola edo hala bere mantenua ordaindu ahal izateko”.

Egoiliarrek etxeko lanetan aritzea edo burujabetasun-mugak dituzten bizi-kideak zaintzen laguntzea, gehienentzat onuragarria izango litzateke. Partaidetza hori arautu behar da eta behar den bezala eskatu, alde batetik egoiliar bakar batek ere duen egoera ekonomikoa dela medio, bere burua horretara beharturik ikus ez dezan, eta batez ere, lanak betebeharraren ondorioz, kategoria apaleko egoiliarren azpimultzorik sor ez dadin.

7.3.6. Heriotza eta hiltzorian daudenak egoitzetan

Hasiera batean, hauxe dute helburu egoitzek: edadeko pertsonari hil arte behar duen arreta eskaintzea. Horrek esan nahi du, noski, egoitza horiek bizi-zako azken aldian dauden pertsonari zaintza egokiak eskaintzeko beharrezko diren baliabide materialak eta giza baliabideak eduki behar dituztela -baldin eta pertsona horiek ospitale batera aldatzea eskatzen duen atentzio espezializaturaren baten premian ez badaude behintzat-. Egoitzetako langileek aukerako prestakuntza eduki beharko lukete hildakoaren senideei nahiz bertako lagunei heriotzaren berri modu egokian emateko, eta, oro har, halakorik egokituz gero, egoiliarrekin heriotzari buruz ulerberatasunez mintzatu ahal izateko, zaharrek izan ditzaketen borondate eta jarrerak aintzat hartuz.

Gai honek, bere horretan garrantzitsua izanik, egoitzetan eskaintzen den zaintzaren punturik ahulenetako batzuk agerian jartzeko balio du, bestalde.

Lehenik eta behin, azpimarratu beharra dago heriotza eta, halaber, gaisotasuna eta ezintasuna, ez direla mintzagai izaten egoitzetan. Hala adierazi dute, bederen, elkarrizketatutako pertsona gehienek, bai egoiliarrek, bai langileek. Batzuek eta besteek bestalde, kontu horiek jorratzea komenigarria litzatekeela uste dute. Hala ere, ez dago giro egokirik horretarako, eta, gainera, langileek ez dute beharrezko luketen aholkularitza-laguntzarik jasotzen. Beraz, komunikaziorik eza, aholkularitzarik eza eta langileen trebatzerik eza geratzen dira agerian, gai honi dagokionez.

Egoitza barruko heriotzek, halaber, agerian jartzen dute ez direla aintzat hartzen pertsonaren intimitateari eta duintasunari buruzko hainbat alderdi. Jakina da pertsona zaharrek sentitzen duten segurtasuna handitu egiten dela jakiten badute ez dituztela bizi diren lekutik beste batera aldatuko hiltzeko. Beharrezko zaizkien atentzioak, ahal den neurrian, beren gelan bertan eskaini behar zaizkie, eta ez berehalakoan heriotzarekin lotzen diren “unitate berezietan”.

Hiltzorian daudenei tratamendu egokia eman nahi zaienean, gela berean pertsona bat baino gehiago egoteak ere ekartzen du zailtasunik, nekez lor baitaiteke bertan sarturik dauden parte guztien barne-borondateak bat egitea, hala nola maite duten pertsonarekin egon nahi duten senitarteko eta lagunena

eta aldi berean beren intimitatea urratua sentitzen duten eta nahasmendua sortzen zaien gelakideena. Zenbait zentrutan, Portugaleteko San Juan Bautis-taren kasuan esate baterako, gela bat gordetzen da hiltzorian daudenentzat, baina ez dirudi, esan denez, hori denik biderik egokiena.

Oro har, zentzurik gehienetan heriotza izkutuan gorde nahian bezala jokatzeko da, eta, horrenbestez, jende asko baldin bada bertan bizi dena, gerta liteke zenbait egun igaro arte ez jabetzea egoiliarrik beren arteko norbaiten heriotzaz, hura jantokira agertzen ez dela erreparatuta -Leioako egoiliar batek hala adierazi zigun: "Gure auzokoak hiltzen direnean jakin egin nahi genuke"-; horrek, nolabait, egoitzetan giza harremanak zeinen eskasak diren erakusten digu.

Adieraz dezagun, azkenik, medikuntza-administrazioaren antolakuntzan ere zenbait arazo badirela; horixe erakusten dute heriotzek edo, zehatzago esanda, halakoetan arauzko den heriotz-egiaztagiria egin beharragatik sortzen diren zailtasunek. Horren ondorioz egoera benetan tamalgarriak gertatu izan dira; esate baterako, inoiz gorpua hainbat egunez egon izan da gelan bertan, kasuren batean beste inor ez zegoelarik bertan, etxerako medikuak heriotz-egiaztagiria egin zain. Izan ere, larrialdietarako medikuek, jaiegunetan deitzen zaienean heriotz-egiaztagiria egiteko, ihes egiten diote eginbehar horri, eta auzitegiko medikuaren esku geratzen da orduan; eta autopsia egin beharra dauka horrek arauz, zenbait kasutan egoera horrelakorik gabe ere konpontzen den arren, bi fakultatiboak akordiora iritsi ondoren.

Aipatu dugun egoera hori arazo larria izatera iritsi daiteke batzuetan, baita erakundeak berak plantilan mediku bat edo bat baino gehiago edukita ere; ongi erakusten digu horrek noraino diren zailak zenbait zentrutan bizi diren harremanak. Izan ere, neurri handi batean alderdien arteko elkar-aditzerik ezari egotzi behar zaio arazoa; hau da, urtean zehar, zorionez ala zoritxarrez, maizegi gertatu ezin den egoera horri aurre egiteko zailtasunari -hala ere, jaiegun-aldi baten hasieran gertatzen diren heriotzen kasuan ere heriotz-egiaztagiria egin beharra dago-. Egia da, edonola ere, ez heriotzak, ez "zubiak" ez direla hain ugariak urtean zehar, maizegi bi zertzelada horiek batera gertatzeko.

Berriro ere, bereziki kezkatua ageri da Leioako langilegoa zertzelada hori dela eta. Zenbait langilek adierazten dutenez, "zubian edo asteburuan hildakoen gorpuek lehen lanegunean medikuak iritsi arte itxaron behar izaten dute", eta are gehiago zehazten dute: "zenbaitetan gorpuek hiru egunez ere egon izan dira beste norbait zegoen gela berean, ezen, gelakidea lekuz aldatzen saiatzen garen arren, gertatu izan da inoiz oherik ez egotea libre".

Arazoa, ordea, ez da egoitza horretara mugatzen. Erabat bestelako egoeretan -gutziz kontrakoak esan beharko litzateke, agian-, Berangoko baserrian hain zuzen ere, gertatu izan da bost egunez itxaron behar izatea heriotz-agiria egin bitartean, bertako arduradunak adierazitakoaren arabera.

Berriro esango dugu: administrazio eta kompetentzia mailan gertatzen diren heriotzaren inguruko disfunczio tamalgarri horiek era askotako hainbat urritasun edo eskasia islatzen dituzte. Batetik baliabide materialik eza, gorpua gordetzeko edo hildakoaren gelakidea beste nonbaitera aldatzeko lekurik eza,

esate baterako; bestetik, ordea, are okerrago dena, elkar-aditzerik eza eta eskubide eta betekizunen interpretazio murriztaile edo zikoitza¹⁹.

Konpetentzia-liskar zentzugabearen paradigma gisa ospetsu bilakatu da gorpua garraiatzeko obligazioaren inguruan zuzeneko zaintzarako langileen eta langile laguntzaileen artean sortutako eztabaida: bizirik dauden pertsona zaharrak eta ez gorpuk zaintzea dagokiela zioten batzuek; besteek, ordea, bizirik ala hilik egon, egoiliarra izanik hildakoa, zaintzaileei dagokiela hartaz arduratzea.

¹⁹218/1990 dekretuaren II. eranskinaren 19 zenbakidun zehazpen teknikoan arautzen da derrigorrezkoa dela gorpuentzako toki bat izatea.

VIII. ATALA

LABURBILDUMA

8.1. EGOITZEN ESKAINTZAREN EZAUGARRIAK. ADINEKOEN EGOITZAK: BALIAPIDE URRIA GIZARTE-ZERBITZUEN SAREAN

Erruki-etxe zaharren ardatz izan den “ongintza ideologia” atzeratu hura gaudituz joan da gure gizartea, zalantzarik gabe. Egia da, halere, ideologia horrek eragina duela oraindik egoitza erakundeetan eta baita ere erabiltzaileek errealitate horretaz duten usteetan.

Bakardadeak, pobreziak edo etxebizitzarik ez izateak eraginda beste irten-biderik ez dagoenean, bertara jotzeko “azken aterpe” bezala ikusten dituzte egoitzak pertsona askok. Normala da, beraz, egoitzak nolabait norberaren porrot egitearen ondorio eta helmugatzat hartzea.

Oraindik ere gizarte zerbitzuek oro har, eta egoitzetakoak bereziki duten aukerako izaerak ez du, noski, erabiltzaileen eta hauen senideen jarrera kritikoa aldaraztea errazten. Honen guztiaren eta ekonomia, gizarte, psikologia eta kultura alorreko beste zenbait faktoreren eraginez, eta batipat egoitzaratzeko aukera urriengatik, erabiltzaileek ontzat jotzen dituzte jasotzen duten tratua eta gainontzekoak -arreta aldetik maila ona egonik ere-, eta ez dute ia erreklamaziorik egiten, ez adiera absolutuetan, ezta erlatiboetan ere.

Aipatutako arrazoi ideologikoak oinarritzat hartuz, baina, esaterako, adinekoek dituzten ezaugarri psikologiko bereziak babes-argudio bezala erabiliz, zenbait egoitzetako arduradunek ez dute beharko litzatekeen ahalegina egiten, erabiltzaileek, beren bizitzan zuzen-zuzenean eragina duten erabakiak hartzerakoan, parte har dezaten bermatzeko eta errazteko.

Testuinguru honetan, “egoitza espazioa” arrisku handikotzat jo behar da eskubideak zapaltzearen ikuspegitik. Halaxe da, azken hamarkadetan egoitzetan bizi diren adinekoei ematen zaien arretari dagokionez lorpen handiak gauzatu badira ere, gogoan izan behar da oraindik ere egoitza gehienak “orokor izaera” dutela.

Bestalde, dituzten ezaugarri fisiko eta psikologikoengatik, eta baita kultur arlokoengatik ere, egoiliar askok gehiegikeriak jasan behar izaten dituzte, eta ikuspegi honetatik “arrisku talde” bat osatzen dute, egoera horrek kontrol eta ikuskaritza berezia eskatzen duelarik.

Egoitzetan jasotako tratua gehiegikeriazkotzat jotzea kultur aldetik baldintzatua dago. Hau da, zenbait pertsonak jokabide jakin bat gehiegikeria nabarmenezko jokabidetzat har dezake hainbat bizitokitan, hots, tratua txartzat, baina

baliteke beste espazio batean edo beste pertsona batzuek horrela ez iriztea. Zaila da, beraz, gehiegikeria diren eta ez diren jokabideen arteko muga bereiztea.

Aztertu diren egoitzetan ez dirudi tratu txarrak ematen direnik, ez, behintzat, kontzeptu horrek izan ohi duen zentzuan, hau da, egunkarietan sarriegi azaltzen diren gertakizun asaldagarriak eredutzat hartuz. Baina, zalantzarik gabe, egoitzetako pentsamolde zaharraren aztarnak baztertu ez dituen kultur instituzional bereziak eragina du egoitza batzuetako zaintze-moduan, eta egoitza horietan gizarteko beste alorretan nabaritzen ez diren jokabideak ikusi eta gabeziak antzeman daitezke.

Horregatik, eta berrikuntza tekniko eta materialak bazter utzita, zaintza-ren kalitatea hobetu dadin eta, noski, gehiegikeria egoerak desagertaraz daitezzen, beharrezkoa da egoitzetako ongintza ideologia gainditzea, egoitzak eman beharreko arretaren helburuak behar bezala definitzea, eta erakundeen eta gai horrekin zerikusirik duten pertsonen arteko elkarrizketa jarraitua bultzatzea, askatasuna bermatuko duen eta adineko pertsonen duintasuna errespetatuko duen kultura garatu ahal izateko. Eginkizun honetan, aginte publikoek egin beharreko lan sustatzailea guztiz funtsezkoa da.

Gehiegikeria eta tratu txarrekin zerikusia duten arazoak, baita hainbat pertsona bakarrik uzteak eta miseria egoerak ere etxebizitzetan gertatzen dira antza, izan ere, populazioaren ia %97ak egoitzetatik kanpo jasotzen du soro-spena, ona edo txarra.

Nabarmena da ezintasun larriak dituzten adineko asko oso egoera zailean bizi direla gure gizartean, senitartekoen zoriona kolokan jarritz eta, batzuetan, gizakiak bizitzeko behar dituen gutxienezko baldintzetara iritsi gabe; badirudi egoera hori, zorionez, ez dela erakundeen esparruan gertatzen.

Egoera hauek gertatuko ez balira bezala jokatzuz, zerbitzuen eskaintza publikoaren zati handi batek egoitzetako postu eskatzaileei burujabetasun handia eskatzen zien eta oraindik ere eskatzen die, gai honi dagokionez onartzeko irizpideak aldatu badira ere; horregatik, larritasun maila txikiena duten adinekoak bere gain hartzen saiatzen da, eta arreta handiagoa eskatzen dutenak gizartearen ardurapean uzten ditu.

Azken urteotan ahalegin garrantzitsuak egin dira, arreta-emate alorrean, eskaintza alternatibo edota egoitzetan ematen diren zerbitzuen osagarriak sendotzeko, eta horren adibiderik argiena etxebizitzan bertan ematen den laguntza da.

Zenbait azterlanek agerian uzten dute egoitzetara sartu nahi izatea komunitatean jarraitzeko euskarri edo laguntzarik ezak eragiten duela -batzuetan dirulaguntzarik eza besterik ez da-, edo etorkizunean izan daitezkeen gabeziei aurrea hartu nahiak; hori dela eta, egoitzetara sartzeko itzarote zerrendetan dauden edadetu askoren beharizanak, beharbada, zerbitzu arin eta kostu merkeagoz ase daitezke.

Bestalde, egin diren inkesta guztiek adierazten dute oso adineko gutxi direla egoitza batetara gogo onez joango liratekeenak.

Egia da halaber, arestian aipatu den erakundeen ahalegina kontuan izanda ere, sarritan, zerbitzu alternatiboen eskaintza egoitz-laguntza handiagoa ematen duten gure inguruko herrialdeena baino askoz urriagoa da, eta ez da egoitzetan eskaintzen denaren ordezkotako aringarri bat baizik.

Adineko gehienek ez dutela egoitzetara joan nahi egia den arren, kontuan izan behar da, gainera, eskaintzaren arabera gaur egun egoitzetara joateko aukera edadetuen %3,34ak bakarrik duela, eta nabarmena da bataz-beste-ko hau egoitzetara jotzeko premia duten eta bertako zaintza jaso nahi dutenen kopuruaren azpitik dagoela.

Gaur egun 8,890 postu daude Euskal Autonomi Elkarte-ko egoitzetan, 65 urte edo gehiagokoen biztanlegoari dagokionez, %3,34ko eskaintza tasa asko aldatzen da Arabatik, Bizkaia eta Gipuzkoara; Araban %5,1ekoa da, %3,1ekoa Bizkaian eta %3,4koa Gipuzkoan.

Postu kopuruaren ia erdiak jabego publikoa du, laurden osagarria fundazioek zuzentzen dute eta hauetako gehienak publikoak dira. Postu guztien %17a irabazi asmorik ez duten erakundeek bideratzen dute eta, ondorioz, sektore pribatukoak direnak ez dira %10era iristen.

Ia ez dago enpresa pribaturik Araban eta Gipuzkoan; Bizkaian berriz, erakunde pribatuek %30aren jabegoa daukate eta postuen ia %17a.

Arabako Foru Aldundiak duen zerikusi zuzena nabarmena da, eta Gipuzkoan jabetzaren arabera neurtutako ahalegin nagusia herri-erakundeek burutzen dute, hauek baitute jabegoa, eta postuen erdia baino gehiago kudeatzen baitute, fundazioen bidez duten parte hartzea kontuan izan gabe. Bizkaia Lurralde Historikoan, fundazioak, enpresa pribatuak eta irabazi asmorik ez duten erakundeak garrantzitsuagoak dira.

Egoitzetarako dagoen eskabidearen aurrean erakundeek egiten duten ahalegina ez dela nahikoa agerian geratzen da ondorengo datu hauen bidez: populazio guztiaren artean 6.000tik gora edadetu bizi da ohean edo aulki batean, eta beste 8.000tik gora adintsuk ez dute bakarrik garbitu edo jatzeko ahalmenik.

Burujabetasun arazo larriak dituzten 14.000 pertsona baino gehiagok osatzen duten talde honen ondoan, ez dira 3.500era iristen, hots, adintsuen laurdena dira, egoitzetan zaintzen dituzten ezintasun maila berdintsuko edadetuak.

Gure inguruko herrialdeek duten egoitz-postuen eskaintzaren eta plan-tingintza lanetan onartzen diren kopuruaren arabera, 65 urte eta gehiagoko populazioaren %5ari dagokion ohe kopurua lortzeko bidean gaude, eta bataz-beste-ko hau Arabako portzentaiarekin bat dator.

Beharrianen ebaluazioari begira, kontuan izan behar da gainera, adinekoen populazioaren bataz-bestekoa goruntz egiten ari dela. Alderdi honi dagokionez, ez da ahaztu behar azken hamar urteotan postuen kopurua %21 igozteak ez duela galarazi eskaintza tasa %4 gutxitzea.

2016. urterako aurrikusitako %5eko eskaintza tasak berekin dakar egun dagoen ohe kopurua %120 igozteko beharrezkoak diren ia 20.000ra iristeko, hau da, ia 500 postu gehitzea urtero.

Egun dagoen eskaintza tasa bera mantentzeak 25 urteko epean dauden postuak %50a gehitzea eskatzen du, 160 postu berri urtero, 2016. urtean izango den adinekoen populazioaren %3,34a hartzeko behar diren 13.000ra iristeko.

Aurreko atalean adierazitako kalkuluak egiterakoan, ez da kontuan izan 218/1990 dekretuak agintzen duenari egokitzeko, edo erabiltzaile zaharrenen eta ezintasun maila handiagoa dutenen beharretara egokitzeko, egun dauden postuetako batzuk aldatu beharrak eragingo duen postu ugaltzea.

Hiru pertsona edo gehiago bizi diren gelak kendu beharrak bakarrik, 1.000 ohe inguru aldatzea eskatuko luke.

8.2. EGOITZETAKO SOROSPEN-ZERBITZUAREN JAURPIDEA EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAN

Gizarte-eskubideak Konstituzio arauen barruan onartzearen ondorioz, Estatu sozialari dagokion bezala, aurrerapausu handia eman da laguntza sozialak zuen ongintza kutsua alde batera uzteko eta sorospenaren eskubide balioa indartzeko bidean.

Laguntza soziala kontzeptua osatzerakoan, kontutan izan behar dugu alor desberdinetako gaiak hartzen dituela bere barne, jasotzailegaien arabera zehazten direnak. Horregatik, hirugarren adinekoen inguruko jarduerak, laguntza sozialaren eskubide orokor baten barruan kokatzen dira.

Adinekoen egoitzetako laguntza-zerbitzuen erlazio juridiko-administrati-boa aztertzerakoan, beharrezkoa izan dugu jakitea nortzuk izan daitezkeen eskubide horien jabe.

Nahiz eta normalean hirugarren adina kontzeptua jubilazio-adinari loturik egon, komenigarria litzateke egoitzetako zerbitzu sozialei buruzko arauak argi eta garbi adieraztea nortzuk diren zerbitzu horren jasotzaileak.

Adinekoek laguntza-zerbitzua jasotzeko duten eskubidearen eremua erabakitzeko, beharrezkoa dugu eskubidearen izaera aztertzea.

Konstituzioak adintsuen babes eskubidea jasotzen duenean, "gizarte eta ekonomi politikaren gida oinarriak" izenburupean kokatzen du. Honek hauxe esan nahi du: idatzitako legeak, epailaritza-bidea eta herri-agintarien ekintzen ardatz diren irizpideen zati dela.

Euskal Autonomi Elkarteko zerbitzu sozialei buruzko 6/82 legeak eskubide honen mamia zehaztu ez badu ere, doktrinarik aurreratuenaren arabera, esan dezakegu ez dela herri-agintarien nahiaren esku utz daitezkeen ahalmena, baizik eta agintari horiek Konstituzioak agindutakoa betetzera behartuak dela, zerbitzu sozialak sortu behar dituztelarik.

Eskubidearen jabeek berori gauzatzeko zenbait oztopo badute ere, lege mailan behar bezala garatu ez delako hain zuzen, ez da gauza bera gertatzen EAeko egoitzetan dauden postuak betetzeko duten eskubidearekin.

Izan ere, Euskal Herriko 6/82 legearen arabera, laguntza soziala jasotzeko eskubidedunek egoitza batean postua berdintasun osoz lortzeko eskubidea

dute. Horregatik, nahikeriaz eskaera bati uko egiten bazaio, administrazio-
auzibideetarako jurisdikzioan horren aurka egin daiteke.

Arartekoaren jarduerak zerikusi handia du alor honetan, kontuan izanik
eskubide horien babes judizialari gehitzen zaizkibn beste eragozpenak.

Eskubide sozialak eskubide bezala onartuak izateak zera eskatzen du:
eskakizun horiei erantzuna eman behar dioten botere publikoak zeintzuk diren
zehaztea.

Euskal Herriko Autonomi Elkarteak, bere Autonomi-Estatutuaren bidez,
bere gain hartu zuen gizarte-laguntzaren alorreko eskumen osoa, eta berari
dagokio legeak egin eta arauen bidez garatzeko eskumena.

Autonomi elkartearen barruan, Lurralde Historikoen Legeak ezarritakoari
jarraiki, Eusko Legebiltzarrari eta Jaurlaritzari dagokie legeak egin eta arauen
bidez garatzeko eskumena laguntza soziala eta hirugarren adinekoen alorrean.

Lurralde historikoetako foru aldundiei dagokie autonomi elkarteetako
legeak indarrean jartzea, erakunde amankomunek zuzenean esku har dezaten
galerazi gabe.

Erakunde Amankomunen eta Lurralde Historikoetako Foru Aldundien
arteko Harremanetarako 1983/27 Legeak, azaroaren 25ekoak, bai eta ondo-
rengo TJOAL eta azken hamarkadan erakunde publikoek egindako ahalegi-
nek ere, Euskal Herriko Zerbitzu Sozialak arautzen dituen 1982/6 Legean ira-
garririkoa aldatu behar dela adierazten dute.

Eskumenak egokitzea ez da legea aldatzeko arrazoi bakarra. Halaber,
ezinbestekoa da zerbitzu sozialen erabiltzaileen eskubideak eta, beraz, zaharre-
nak, bermatuko dituen lege-esparrua ezartzea.

Hirugarren adinekoen egoitz-zerbitzuen jasotzaileak lotura bereziko harre-
manen pean dagoen alorrean kokatzen dira, eta horrek ondorio juridiko
garrantzitsuak dakartza; ondorio horietako batzuek oinarritzko eskubideei
mugak jartzen dizkiete.

Edadetuen egoitzetako erabiltzaileek duten lotura bereziko harreman
horrek, ezin du, ordea, funtsik gabeko mugarik ezarri.

Oinarritzko eskubideek eremu honetan ere badute indarririk eta, beraz,
Konstituzioak jasotzen baditu eta egoitzen jardunerako beharrezkoak badira
bakarrik ezar dakizkieke mugak.

Erabilitako teknika ez da egokia eta, horregatik, zerbitzu sozialei buruzko
lege berriak zerbitzuen erabiltzaileen eskubide eta betebeharren taula egin
dadin aurrizki beharko du.

Eusko Jaurlaritzako 218/1990 dekretuaren bidez, gutxienezko eskubide-
en taula bat eratzeko ahalegina egin zen.

Aztertzen ari garen erlazio juridiko hau egoitzan sartzerakoan sortutakoa
da, eta hau oztopoa da kontutan hartzen badugu postu-eskaintza eskaera
baino urriagoa dela.

Horregatik, egoitza zerbitzua jasotzeko aukera arautu beharra dago, arau-
diak berdintasun-irizpidean oinarritu beharko duelarik.

Hauexek dira zerbitzu sozialei buruzko arau berriak giza eskubideak ber-
matuko dituen arau-esparrua tajutzearen jaso beharko dituen aldaketak:

- a) Zerbitzu sozialen erabiltzaileen eskubide-taula bat ezartzea.
- b) Zerbitzu sozialak berdintasunez jasotzeko eskubidea bermatuko duen araudia egitea.
- c) Erabiltzaileen betebeharrak ezarriko dituen taula finkatzea, beste erabiltzaileen eskubideak bermatzeko.
- d) Laguntza sozialeko harreman juridikoaren eremuan zigortzeko administrazio-zuzenbidea ezartzea, lege-hausteak eta zigorrak arautuko dituen, bai egoitzari dagozkionak, bai erabiltzaileenak ere.

8.3. EBALUAZIOAREN EMAITZAK

8.3.1. Gai orokorrak

Erakundeen helburuak ez daude, oro har, argi definituta edo formulatze-rakoan ez dute maila orokorra gainditzea lortzen "zaindu", "arreta eman"-eta, beraz, ez dituzte kontutan hartzen helburu operatiboak, zehatzak, emaitzen bidez neur daitezkeenak.

Zehazgabetasun honek geldokeria nagusitzea errazten du eta, neurri handian behintzat, sorospen-egitarauik eza azaltzen du. Egitarauik ez egotearen erakusgarri da aztertu diren egoitzetako erabiltzaileen erdia ere ez dela kalera irteten, eta egoitza bisitatu zen astean zehar, adinekoen heren bat bakarrik atera zela kanpora, ez kalera, baizik lorategira edo patiora.

Zenbait egoitzatan antzematen den geldokeria eta axolagabekeria ez dirudi, beti behintzat, bitarteko urritasunak eragiten dituenik. Ardura-maila ezberdinetako profesional askoren iritziz, egoitzek betetzen duten eginkizuna ostatuena antzekoa da huts-hutsean, eta egoiliarren geldokeria norberaren eskubide bezala errespetatu beharreko zerbait dela uste dute.

Maizegi ahazten da egoitzak egoiliarren benetako etxeak direla eta lan jardunak nahiz ordutegiak beraien beharretara egokitu behar direla, ez ordea, langileei komeni zaienera.

Aztertu diren zenbait egoitzaren izenek -Erruki-etxe Saindu eta Errege-zkoa, San Juan Bautista Dohatsuaren Ospitale Saindua- karitate-erakundeek edadetuak eta gaisoak zaintzen zituzteneko eta, beraz, sorospen hura eskubide gisa eskatzerik ez zegoen garaia gogorarazten dute.

Erakundeetako zenbait jokabidek iraganean errotutako zaintze-modua erakusten dute, eta erabiltzaileen jokabidea esanekoa eta kritikarik gabekoa izaten da eskuarki, baita arreta hori malgutasunik gabe eta intimitate eta duintasuna errespetatu gabe ematen denean ere. Beharbada, zenbait egoitzatan harremanetarako erabiltzen den sari eta zigor sistema bereziak suspertzen ditu jokabide horiek.

Hainbat egoitzatan, egoiliarrei behin eta berriz gogorarazten zaie beren dirusarrerak ez direla nahikoa betetzen duten tokiaren kostua ordaintzeko.

Honek eta egoitzetako postuak urriak direla jakiteak ez du, noski, egoiliarren ahalmen kritikoa zorrozten laguntzen.

Borondate onenarekin antolatutako zenbait auzo-laguntza edo diru bilketek, jokabide babestaileak ekartzen dituzte gogora, gaur egungo egoitza-zerbitzuaren ardatz izan behar duen eskubide eta askatasunarekiko begirunearekin zerikusi handirik ez dutenak. Egoitza batzuek dituzten txostenetan agertzen diren babesle eta diru-emaleen zerrendek asilo kutsuari eusten laguntzen dute, inolako zalantzarik gabe.

Arazo honi buruz ondorengo puntuak azpimarratu beharra dago:

- Komenigarria litzateke zenbait egoitzak beren izenak eguneratzea eta baita eraentza organuena ere, "ongintza kulturarekin" lotura nabarmen-egia baitute.
- Egoitza batzuen eguneratu beharrak itxuraz bestelako zenbait alor ere ukitzen ditu. Izan ere, aztertu diren egoitzen artean, oso gutxi dira beren antolabidean erabiltzaileei parte hartzeko aukera ematen dietenak.
- Oso zentru gutxitan egiten dira asanblada orokorrak eta bisitatutako bakar batean ere ez da barne-aldizkaririk argifarutzen.
- Informazio argiagoa izateko, eskubideak errespetatu eta babesteko, baita zerbitzuak hobeto erabiltzeko ere, komenigarria litzateke egoitza bakoitzak liburuska bat izatea, eta bertan ahal bezain argien azaltzea zeintzuk diren erakundearen helburuak, bere instalakuntza eta zerbitzuak, barne-jaurpiderako araudia, zerbitzuen erabilerari buruzko arauak zehaztuz, segurtasun arauak, salneurri publikoak, erreklamazioak egiteko jarraibideak, e.a.

Egoiliarrei osasun arloan ematen zaien arreta, beste edozein herritarri emandakoa bezalaxe, osasun zerbitzu nagusiek bermatzen dute. Ekonomikoak bakarrik ez diren arrazoiengatik, egoiliarrek, ahal izanez gero, guztientzako diren zerbitzuetara jo beharko lukete, duplizitatea sailhestuz.

Ezarpen edo aplikazio honek baditu hainbat traba. Eragozpen nagusia ondorengoa da: osasun zentru bati zahar-egoitza bateko erabiltzaileak esleitzen zaizkionean, zentru horren ardurapeko edadetuen kopurua izugarri handitzen da eta, ondorioz, medikuen lana ere areagotu egiten da.

Egoitzetako adinekoak sare arnankomunean behar bezala sartzeko beste oztopo garrantzitsua, honako hau da: oro har, horrek dakarren diru-ekarpen urria soldata mailan, eta bereziki, mediku bakoitzarentzat, bestalde, produktibitate osagarrian pertsona edadetu titular asko edukitzeak ia eraginik ez izatea.

Laguntza premia handia duten zaharrek betetzen duten ohe kopuruari dagokionez, arazoak gehiago eta larriagoak dira. Mediki ikuspegitik, erabiltzaile horiek dituzten bereizgarriak eta ospitaleetan luzaroko egonaldiko oheak -administrazio-bereizketa garbia egiten den herrialdeetan ematen zaie izen hori- betetzen dituztenen ezaugarriak bertsuak direnez, zenbait politikari eta teknikaririk dioten bezalaxe, gaiso horiek zaintzea osasun administrazioari legokioke.

Egoera honen arriskua, jakina, konpetentzia gatazken ondorioz erantzukizuna inork bere gain hartu nahi ez izatea da, eta ezintasun larriak dituzten adi-

nekoei eman beharreko laguntzaz inor ez arduratzea, edota nahikoa edo ego-
kia ez den zaintza eskainiko dien erakunde ahul eta kaxkarrenean sartzea.

Zorionez, osasun eta gizarte-ongizate zerbitzuen arteko administraziozko koordinazio bidean zenbait aurrerapauso eman dira, eta, hortaz itxaropentsu ager gaitzke, bai beren kabuz baliatzeko gai diren egoiliarren zaintzaren alor-
rari begira, bai aipatu bi zerbitzuek ezintasun larriak dituzten adintsuak oro har zaintzeko argitu dituzten puntuei dagokienez.

Eusko Jaurlearitza Hirugarren Adinekoentzako Egoitzetako Zerbitzuei buruzko 218/1990 Dekretuak hauxe agintzen die egoitza mota guztiei: behar bezanbateko publizitate eta hedadura duen araudia izan dezatela, eta bertan, gutxienez egoitzan sartzeko baldintzak eta hautaketa irizpide eta baremuak ager daitezela (I.B.27. eranskina). Hala eta guztiz ere, egoitzan sartzeko bideei buruzko araudia maila ezberdineko xedapenetan sakabanaturik dago. Oro har, sarrera-baldintzak adinari eta eskatzaileak tokian tokiko udalerrian bizitzen daraman denbora-epeari dagozkie.

Hiru lurralde historikoetan oinarritzko gizarte-zerbitzuek bideratzen dituzte egoitzaratzeko eskaerak, eta argibideak ematen dituzte edadetuaren gizarte eta famili egoeraz eta bere premiez, bai eta pertsona horrek egoitzaratzeari zer irizten dion, zein zentrutan sartu nahi duen eta proposamenari buruzkoak ere.

Batzorde teknikoek finkatzen dute lehentasunen ordena eta balioztatzen dituzte eskaerak, horretarako onaturiko baremu baten arabera; baremu hone-
tan kontuan hartzen dira batipat eskatzailearen gizarte eta famili egoera, gor-
putzeko eta buruko ezintasunak, etxebizitza eta bere diru-egoerari buruzko zer-
nolak.

Zentru bakoitzeko postuak batez ere egoitza kokaturik dagoen udalerrian bizi diren edadetuei ematen zaizkie, nahiz eta, premiazko arrazoiak direla bide, adinaren ete bizitokiaren baldintzak alde batera utz daitezkeen.

Autore batzuek beharrezko jotzen dute kontratu edo hitzarmena ezartzea eskaeraren ordez, horrela garrantzi bera ematen zaielarik egoiliarren eskubide eta betebeharrei.

Nekez jakin daiteke zenbat postu-eskaerari eman zaion ezezkoa, asko bai-
tira errolatze-bideak eta argibideak jasotzen dituzten egoitzak. Hala ere, hiru lurralde historikoetako eremuko arduradunek emandako datuen arabera, auto-
nomi elkarteetan gutxi gorabehera 2.500 pertsona daude egoitzetan sartzeko itzarote zerrendetan.

Gizarte-zerbitzuetako gastuaz gizartea eta Estatua, biak batera, arduratu behar dutela aldarrikatzen duten tesiak nagusitzen ari dira. Horrela, Administrazioari zerbitzu gehiago eskatzeak ez du zertan adierazi zerbitzu horiek debaldekoak izango direla, zerbitzu-eskatzaileak bere gain hartu behar-
ko baitu, bere diru-baliapideen arabera, zerbitzua ordaintzeko ardura.

Gizarte-zerbitzuei buruzko legeak administrazioari eta erabiltzaileen artean dirubidezko zorpideak banatzeko sistema ezartzen du, gero lurralde histori-
ko bakoitzak bere modura garatu duena. Oro har, aldundiek ezartzen dute zer-
bitzuek mantendu eta hobetzeko udal-dirulaguntza, eta gainontzekoa, beraiek eta egoiliarrek ordaintzen dute.

Erabiltzaileek egin beharreko diru-ekarpenak ez du gainditu behar beren urteko irabazi gutien %75a, lanaren ordain nahiz domu edo beste pentsio-sarien bidez jasotzen duen kopurua kontuan izanik.

Gipuzkoan, horrela neurtutako dirusarreraren %75a ezin daiteke izan egoitza-postuaren egiazko kostua baino kopuru handiagoa; Bizkaian eta Araban, aldiz, gehienezko kostu teorikoa ezartzen da.

Era berean, gutxienezko kopuru bat aparte uzten da -11.000 pezeta inguru- egoiliarrek nahi duen eran erabil dezan.

Zerbitzuaren erabiltzailearekin batera, horien familiakoek duten ordeko erantzukizuna ezartzen da, egoiliarrek ezarritako salneurri publiko ordaintzeko adina dirusarrera ez daukanean, senideek horiek herri-legez janariak ematera behartuak daudelarik.

Herri-administraritzek egoiliarrek ekarritako diruaren eta betetzen duen postuaren egiazko kostuaren arteko aldea kobra dezaten dauden bermeei dagokienez, gaur egun eskuarki atal bereziak sartzen dira, eskatzailea egoitzarekiko duen zorra aitortzera behartzen dutenak.

Salneurri publikoak direnez, eta Dirubilketarako Guztizko Araudiaren 57. artikuluan xedatutakoari jarraiki, ordaintzeko epemuga iritsi eta, senideek ordainduko ez balute, premiatasun-bideari ekiteko aukera egongo litzateke eta, horren ondorioz, zordunaren ondasunak bahitu ahal izango lirateke, zorpidea ordaintzeko bezanbeste. Kobratzeko bide honek administratza-prozeduraren abantailak ditu, agizko auzibideen prozesuen aldean.

Legez ezindutzat jotzeko bidea oso gutxitan ezartzen zaie egoitzetan bizi diren adinekoei, nahiz eta populazio horretako %10ak, gutxienez, ezintasun intelektual edo psikologiko larriren bat duen.

Halaber, egia da bide hau kontuz erabili eta ezarri beharrekoa dela, kontuan izanik edadetuei jasanerazi diezazkieketen gehiegikerietatik beroriek babestea duela helburu.

Horrela, zenbait langile kexu dira -gizarte laguntzaileak batipat- behar adinako babesik ez duten eta ezintasun larriak dituzten pertsonen arazoetan esku hartu behar izaten dutenean segurtasun eza nabaritzen dutelako, beren jardunbidea oker interpretatua izateko arriskua baitago.

Erabat baztertu behar dugu geure gogotik, legez ezindutzat jotako egoiliarren ondasunak kudeatzen dituzten pertsonak, egoera horretaz baliatzen direlako ustea. Aitzitik, babesari buruzko lege-arauek halako berme-bideak ezartzen dituzte, ezen esan baitaiteke gaur egun babes-zerégina ez dela batere erakargarria edadetuaren ongizateak benetan kezkatzen ez dituen pertsonentzat.

Hain zuzen horixe da epailaritzak auzien gehiegizko denbora-luzapenak zurrizteko erabiltzen duen arrazoietako bat, hots, norbait ezindutzat jotzean, pertsona horren zaintza bere gain hartu nahi duen pertsonarik aurkitu ezina. Kasu hauetan oso komenigarria litzateke irabazte asmorik gabeko erakundeek zaintza hori bereganatzea; horrek berekin ekarriko luke norbanakoarentzat herri-legeak ezarritako zenbait murrizpen malgutzea.

Hauteskunde garaian, kanpoaldean gehienetan aldarrikatzen ez bada ere, ez egunkarrietan ere, egoitza askotan azaltzen da ezintasun intelektual eta psi-

kologikoak dituzten pertsonen borondatea nahasteko ustez egiten diren ahaleginen arazoa. Gertakizun hauek jazotzen direla esateko arrazoirik badago, eta gehiegikeria batzuen frogak ere badira, baita egoitzek arazo hori galerazteko erabiltzen dituzten araugabeko bideak ere.

Hauteskundeen inguruan sortzen diren eztabaidak ahal den neurrian saihesteko, -ez baitiote inolako onik egiten ez adinekoei, ez egoitzei, ezta demokraziari berari ere- ez legoke gaizki arazoa berariz arautzea, hiru ardatz nagusitan oinarrituz: ezintasun adierazpena, egoitzak hauteskunde kanpainei ateak zabaltzea eta egoiliarrei botua ematera joateko aukera bermatzea, horretarako, zenbait pertsona eta erakundek alderdi politikoen alde egin dezaten ekiditeko.

Euskal Herriko Autonomi Elkartearen badago adinekoen egoitzetako zerbitzuen kalitatea bermatzeko araudia, hau da, 218/1990 dekretua.

Arauk definitzen dituen ereduen egokitasuna alde batera utzita, hauxe da berori kritikatzeko arrazoi nagusia: arauak ez betetzeagatik jartzen diren zigorreki buruz ez dago behar beste xedapen. Alabaina, zuzenago izango litzateke esatea edukia ez dela nahikoa, zigorbidea zehazteko xedapen berezirik ez dagoelako.

218/1990 dekretuak eragin positiboa izan du didaktika edo kultur mailan, sorospen arloan benetan gertatzen dena teknikoki aztertu edo neurtzerakoan erreferentzia baitira ereduak, eta bide batez, eredu horiek zerbitzuek beren bilakaeran norantz jo behar luketen adierazten baitute.

Dena den, esan beharra dago arau horren xedeak betetzeko oztupoak egon direla, helburu hori erdiestearren aurrikusitako hainbat bide ez direlako gauzatu: erroldak, ikuskapenak eta zigor-jaurpidea, batez ere.

Ez da komeni zigorbideak bide egokia direla uste izatea. Aditu askoren ustez, solasaldien eta limurtze-ahaleginen bidez, zigor mehatxupean zereginak bete ditzaten eskatuz baino ondorio hobekak lortzen dira.

Onartu beharra dago, zigor-arauak ezartzea istilu-iturri dela eskaintza urria denean, gutxienezko betebeharrak besterik ezartzen ez badira behintzat, jakina denez, eguneroko jardunean eragin eskasa dutenak. Askotan arazo honi gehitzen zaio beste buruhauste bat: arau-urratzeaz Administrazioa bera zuzenean ez arduratzea, hala beharko lukeen kasuetan.

Zaintzaren kalitatea bermatzeari dagokionez, oso interesgarria litzateke "jarduera onerako liburuskak" eta barne-jaurpiderako araudia erabiltzea eta ezartzea. Orobat, ebaluazioaren kultura garatzea ere on litzateke. Ebaluazio sistematikoa egin eta emaitzak jakinarazteak, egoitzak zabaltzen eta herritarrei beren eskubideen berri ematen laguntzen du, eta hori sorospen-kalitatea hobetzeko ezinbestekoa da.

Bide berari jarraiki, egoitzek komunitateari ateak zabaltzeko behar dizkiote. Egoitza batean dagoen pertsona edadetuak ez luke izan behar kasuan kasuko Oinarritzako Gizarte Zerbitzuarentzat "konpondua dagoen" eta ondorioz, "jarraipenik behar ez duen" kasu bat izan behar. Oinarritzako Gizarte Zerbitzuek, babeste eta behatze zereginak bete beharko litzateke, horixe izango bailitzateke zaintza-kalitatea bermatzeko biderik onena.

8.3.2. Zehazpenak

Egoitzaren kalitatea tamainak baldintzatzen du. Txikia izateak ez du kalitate maila egokia bermatzen, baina egoitza txikietan errazagoa da egoiliarren artean harreman atseginak bultzatzea, baita hauen eta langileen artekoak ere.

Aztertu diren egoitzetan ikusitakoaren arabera, handiek, orohar, erosotasun, segurtasun, osasun-zerbitzu eta astialdirako laguntza gehiago eskaintzen dituzte, baina txikietan maizago erabiltzen dira dauden zerbitzuak, egoiliarrek eragin handiagoa dute antolamenduan eta langileek ere hobeto betetzen dituzte beren eginkizunak.

Eraikinak gutxienez onartzeko moduko egoeran daude kasu guztietan, nahiz eta, irizpide estetiko eta arkitektonikoak alde batera utzita, batzuek zaharretxe kutsu nabaria duten.

Zenbait egoitzatarako sarbideek eskailera dituzte eta ez dute aldaparik, erabiltzaile bat baino gehiagok gurpildun aulkian ibili behar duen arren.

Zahar-egoitza batzuetan toki-arazo nabarmenak daude, eta astialdirako zonaldeek eta jantokiek ez dute 218/1990 dekretuak ezarritako arautegia betetzen biztanle bakoitzeko izan behar den espazioari dagokionez. Kasu gehienetan eskailera eta aldapak ez dira ez-irristakorrak izaten eta bideratzeko laguntzak urriak izaten dira.

Egoitza bat baino gehiago dira, egoiliarrek telebista ikusi nahi ez, edo bisitariekin bakarrik egon nahirik, horretarako egongelarik ez dutenak.

Zentru batzuetan ez dago behar adina argi. Garbiketa aldetik aski ondo daude oro har eta kasuren batean bakarrik dago usain txarreko zonalderen bat.

Segurtasunaren ikuspegitik urritasunak nabarmenagoak dira. Kasuren batean suhiltzaileek ia ez daukate sartzetik, estintore-kopurua ez da nahikoa eta ez dago larrialdietarako argirik. Batzuetan ez dago alarmerik, ezta sua geldiarazteko aterik ere.

Zoritzarrez, oraindik ere 20 ohe bitarteko gelak dituzten egoitzak badaudela esan beharra dago. Egoiliar anitzek askorentzako gelak berezko etsipenez onartzen badituzte ere, zalantzarik gabe, pertsona bakarrarentzako gela gutxi izatea da egoitz-eskaintzaren alderdirik txarren eta garrantzitsuenetako bat.

Egoiliarrek bakarrik egoteko duten eskubidean eragin handiena duen alderdietako bat, banakako gelarik ez egotea da.

Badirudi, halere, intimitateari zor zaion errespetuak banakako gela gehiago eraikitzea eskatzen duela, eta etorkizunean eskaera hau areagotu egingo dela, bihar-etziko edadetuen belaunaldiek izango dituzten beharrei begira. Ondorioz, nahitaezkoa da eskaintzaren kalitatea hobetzen lagunduko duen errekonbertsio plangintza burutzea, pertsona askorentzako gelak kenduz.

Egoitza askotan gelek ez dute altzarien neurri eta kopuruari buruz 218/1990 dekretuak dioena betetzen. Batzuek ez dute leihorik ere.

Bi egoitzatan bakarrik daude gurpildun aulkiak erabiltzen dituzten pertsonentzat egokitutako gelak.

Oro har egoitzek itxura berdintsua dute, erakunde tankerakoa, eta oso gutxi egin dituzte desberdintze-ahaleginak. Egoitza batzuetan guztiz debekatua dago hormetan kuadroak zintzilikatzea, horma horiek hondatu egingo direlako aitzakiaz.

Zentru gehienetan geletako atea ezin da giltzaz itxi, eta langileek ez dute beti sartu aurretik atea jo eta sartzeko baimena eman arte itxoiten. Zenbait egoitzatan armairuko atea ere ezin da giltzaz itxi.

Aztertu diren egoitzetako bakar batek ere ez du telefonorik geletan eta askok ez dute telebista-antena. Orokorrean ez dute gelan bertan berogailua kontrolatzeko modurik ere.

Segurtasun neurriei dagokienez, gela askok ez dute kea antzemateko tresnarik, beste batzuek ez dute "lotarako argirik" eta bakar batek ere ez du heldulekurik.

Egoitza gehienetan dutxarrik eta komunik ez duten gelak daude eta oso komun gutxitan eman dezakete bira gurpildun aulkiek. Gela batzuetako komunetara ezin da sartu ere egin gurpildun aulkiaz.

Komunetako segurtasun neurriak urriak dira. Gutxi dute txirrina eta, nekez, zoru ez-irristakorra. Egoitza askotan ez dago merkea bezain beharrezkoa den bainu eta komunetako helduleku edo segurtasun-hagarik. Era berean, gutxi dira barrutik itxi eta, behar izanez gero, kanpotik ireki daitezkeen komunak.

Orokorrean gutxitxo dira eguneroko bizitzako ekintzetarako laguntza teknikoak.

Langile-ratioek 218/1990 dekretuak dioena betetzen dute gehienetan.

Langileak oso sarri kexu dira prestakuntza jarraitua jaso eta lanbidean trebatzeko aukera eskasengatik.

Egoitzen alorrean ikuspegi profesionalari buruz bi "kultura" mota daudela esan daiteke. Alde batetik, guregandik gertu dagoen aldi historiko baten azternak antzeman daitezke, hain zuzen ere, erlijio taldeek, nork bere irizpideari jarraituz, langileen administrazioa bere gain hartzen zuten garaikoak; talde horiek ez zituzten beti lan alorreko eskubide eta betebeharrak aintzat hartzen. Gutxi ordaintzen zieten langileei eta hauen eginbeharrak ez zeuden zehaztuta. Guganaino iritsi diren sistema "babestaile" honen ondorio txarrenak, behar bada, bidezkoak ez diren soldatak eta egoiliarrak gutxiespenez tratatzea dira.

Beste muturrean, erakunde publikoetan batipat, nabarmena da eginkizunak lehengoan dirautela eta nekez aldatzen direla, eta egoera gatazkatsuetan, bereizgarri horiek azken muturreraino eramanez gero, zaintze-moduaren kalitatearen galera dakarte berekin.

Langileen artean, gutxiago dira arreta zuzeneko zainzaileak langile laguntzaileak baino. Horrez gain, nabarmena da, seguraski prestakuntza egitarauen eraginez, arreta zuzeneko zainzaileek osasun-arloari gizarte eta kultur alorrei baino garrantzi handiagoa emateko joera dutela.

Zerbitzuen erabilgarritasuna areagotu egiten da eskuarki egoitza handietan, hauetan mediku eta birgaitze-zerbitzuak izaten direlarik. Gutxi egin dituzte

lanaren bidezko terapia edo antzeko egitarauak, eta astialdirako ekintzez baliatzeko aukera urria da.

Aztertu direnen artean, erakunde bakar batek ere ez du kanpora ateratzeko laguntzarik eskaintzen. Hori izango da, seguraski, egoiliarren erdiak baino gutxiago egoitzaatik, urtean behin gutxienez, irtetearen arrazoiak. Egoera honen adibide latzenetakoa, gurpildun aulkian jezarririk, urte asko bere gelatik irten gabe daraman pertsonarena dugu.

Egoitza gehienek ez dute egoiliarrei behar duten arreta emateko jarduera onerako eskulibururik.

Zaintza-prozesua neurtzeko ia ez dago kontrol tresnarik. Langileen jardunbide-arauik izatea ere ez da ohizkoa, eta kasu bakanen batean bakarrik dago egoiliar bakoitzarentzako jardunbide-plana.

Egoiliarren oinarritzko beharrak, garbitasunari eta elikatzeari dagokienez, ondo betetzen dira, oro har, aztertu diren egoitzetan.

Sarritan, egoiliarrek dituzten norbanakoaren eskubideak zeintzuk diren ere zehaztu gabe dauzkate. Horrez gain, batzutan, horiek zehaztuak daudenean, barne-araudien bidez edo beste moduren batez, ez dituzte behar bezala ezagutarazten eta bultzatzen.

Era berean, egoitza askotan ez dago barne-araudirik, ezta kexak aurkezteko biderik ere.

Bakarrik egoteko eskubidearen alderdi batzuk gelen ezaugarriek baldintzatzen dituzten bezalaxe, egoiliarren eskubideek dituzten beste muga batzuek, egoera jakin batzutan jasotzen duten tratuarekin dute zerikusia, bai eta hainbat nahi, ohitura edo jokabideren aurrean agertzen den malgutasun ezarekin ere.

Horrelakoak jazotzen direnean, zenbait egoera nahikeriaz erabakitakotzat jotzen dira, eta halakoak dira asko eta asko.

Ez da erraza pertsona bat bakarrik uztearen eta tratu txarrak ematearen bitarteko jokabide gaitzesgarrien mugak zehaztea. Nolanahi ere, esan beharra dago behatu diren hainbat ohitura edo jokabideek erakunde esparru horretatik kanpo kulturaz onartuta dauden eskubideak galerazi edo oztopatzen dituztela. Azpimarratzekoa da era berean, egoitzetako bizimoduak norberaren askatasunerako eta hautapenerako ezartzen dituen murrizketak, saihesti ezinezkotzat onartzeko dagoen joera.

Intimitatearen eskubidea sexu harremanak edukitzeko aukerari begira, egoitza bakar batean azaldu da. Salbuespen bezala, baina egoeraren adierazle, honakoa gertatzen da egoitza handi batean: ez dago gizon eta emakumeek elkarrekin jateko jantokirik eta, beraz, hauek ezin dute elkar ikusi, beraien solairuetan, bisita orduetan izan ezik. Beste kasu batean, ezkondata dagoen bikote bat zentru berean banandurik bizi da, bata burujabeen eta bestea ezin duen sailean.

Egoiliarrek oso maiz esnarazten dituzte ordu jakinetan. Zuzendari batzuek gauzez egoiliarren lo-galdua galeratzeko egiten dela esaten dute. Egoitza batean egunez ez diete lorik egiten uzten eta horretarako lozorroan daudenean, astindu edo ahots ozenez iratzartzen dituzte. Beste kasu batean, bazkalosteko loal-

ditxoa medikuak agintzen duenean bakarrik izaten da zilegi, eta, goizean gertatzen den bezala, oheratzeko ordua ere zehaztua dago zenbait egoitzatan.

Bisitak nahi den orduan egiteko aukera oso egoitza gutxitan ematen da, eta zentru batzuetan bisitariak debekatua dute egoiliarren geletara joatea. Egoitza batzuetan gainera, senitartekoak ezin dira gauzez bertan geratu, ezta egoera berezia bada ere.

Oro har, langileen hainbat eginkizun erraztu, antolaketa sinplifikatu edo ustez gerta daitezkeen arriskuak saihestearren neurri murriztaileak ezartzeko joera antzematen da.

Egoitza batzuetan alkohola hartzea mugatua dago eta geletan hartzea debekatua; egoitza horietako batean, berriz, ezin da inola ere alkoholik edan, ezta tabakorik erre ere.

Egoitza gutxitan uzten zaie egoiliarrei beren gauzak geletan edukitzen, eta altzarien kokalekua aldatzen. Orobat gutxi dira, geletan txori edo arrainak edukitzen uzten duten egoitzak, eta oso gutxitan uzten dute infusiorik edo jateko zerbitu prestatzen, hotza bada ere, edo arropa txikiak nork bere gelan garbitzen.

Oro har, jantokian beti leku berean eseri beharra dute eta ezin dira lekuz aldatu baimenik eskatu gabe. Otõrduetako ordutegia bi zentrutan bakarrik da malgu samarra.

Era berean, eskuarki, eguneroko garbiketa, otordu eta garbiketa-ordutegiak, zentruaren antolakuntzaren eta langileen gorabeheren arabekoak dira. Horren ondorioz, geletako garbiketa ordutegi jakin baten menpe geratzen da eta zenbaitzuetan otõrduetako ordutegia ere ez da izaten egoiliarrentzako egoiena.

Egoiliarren duintasunean eragina izan dezaketen murrizpenetako batzuk arreta zuzena ematerakoan erabiltzaileen beharretara ez egokitzeak sortzen ditu. Murrizpen hauetako batzuk, eta garrantzitsuak dira oso, txisari eutsi ezinaren arazoak behar adina ez arduratzearekin dute zerikusia.

Aztertutako egoitza bakar batek ere ez du txisari eusten laguntzeko plangintza norbanakoturik lantzen, eta egoitza gehienetan errazegi erabiltzen dira arazo hori dutenentzat kaltegarriak eta ezerosoak diren bideak, hala nola txisaoihalak behin eta berriro aldatu edo komunera ordu jakinetan eramatea. Kasuren batean, komuna duten aulkietan eserita edukitzen dituzte arazoak dituztenak eta oso egoitza gutxitan laguntzen zaie kómunera joan nahi duten guztietan.

Arazo hau behar bezala ez zaintzea izan daiteke noizean behin somatzen diren zauri eta erredura askoren zergatia.

Langile asko ez dira konturatzen txisari eutsi ezinaren arazoa egoki tratatzeak adinekoentzat duen garrantziaz.

Norbanakoaren eskubideekin eta zenbaitzuetan hauek dituzten murrizpenekin lotura zuzena du araubide zigortzailea dei genezakeenak, egoiliarren jokaera batzuk zuzentzeko erabiltzen dena. Oro har, zigor daitezkeen jokabideen eredu argirik ez dagoela nabaritzen da.

Zigorak jartzeko arrazoi nagusia, zalantzarik gabe, alkohol gehiegi edatea izaten da, eta itxuraz behintzat, hau arazo larri bihurtzen da zenbait egoitzatan. Sarritan, alkohol gehiegi edan ondoren erakundeko giroa nahasten hasten diren egoiliarrek isolatu egiten dituzte edo denboraldi batez ez diete kanpora irteten uzten, batzuetan kalera joateko arropa kentzen dietelarik.

Egoitzaren batean egoiliarrei ematen zaien tratua ez dela egokia ikusi ahal izan dugu. Egoiliarrei hika hitz egiteko joera nagusitu egin da, harremanetan konfidantza handiegia hartzen da batzuetan eta, behin baino gehiagotan, haurrak bailiren zaintzen dituzte.

Heriotza, gaisotasun edo ezintasunak bezalaxe, ez da egoki tratatzen aztertu diren egoitzetan.

Heriotza eta hiltzorian daudenen inguruko arazoak aztertzerakoan, sistemak dituen kontzeptu eta antolaketa hutsegiteak, bai materialak ere, agerian geratzen dira.

Gelak lagun bat baino gehiagorentzat izateak, heriotza inguruko gorabeherak eskatzen duten intimitatea eragozten du. Izan ere, askotan nekeza da ondo etortzea hiltzorian dagoen gaisoaren senitarteko eta lagunek harekin egoteko duten nahia, alde batetik, eta, gaisoaren gelakideek bakarrik egoteko dutena, bestetik, azken hauek intimitatea kentzen zaiela uste baitute.

Mediku eta administrazioaren aldetik eragozpen edo hutsegiteak daudela ere somatzen da. Eragozpen horien ondorioz, gertatu izan da gorpu batek berea izandako gelan egon behar izatea egun batzuetan, baita gela hori pertsona bakarrarena ez izanik ere, heriotz-egiaztagiria iritsi arte; izan ere, larrialdietarako medikuek jai egunetan uko egiten diote heriotz-egiaztagiria emateari, hildakoa eta heriotzaren inguruko zertzeladak ezagutzen ez zituztela esanez.

Harreman aldetik dauden zailtasunen ondorioz, langileen artean medikua duten zenbait egoitzetan ere agertzen dira arazo hauek, bidegabe jotzen dituzten jardunbideei aurre egitearren edo beren zereginenez gain beste ezer egiteko motibaziorik ez dutelako, mediku horiek ez baitute heriotz-egiaztagiririk eman nahi izaten lanorduez kanpo.

Batzuetan egiten den bezala, hiltzorian daudenak gela berezietan isolatzea ez dirudi prozedura egokia denik. Heriotzaren aurrean eta hiltzorian daudenak zaintzerakoan hartzen den jokabideak erakusten du, beste edozein alderdik baino argiago, zehaztu egin behar direla sorospena eskaintzen duten estamentu guztien jarduerak, eta hori lortzeko biderik egokiena, jarduera onerako liburuskak eta jardunbideak egiteratzea izango litzateke.

IX. ATALA

GOMENDIOAK

1. Pertsona ezinduek laguntza-premia handia daukatenez gero, egoitzen eskaintzak lehentasuna eman beharko dio pertsona horien beharrak asetzeari.

2. Sortu berriak diren egoitzak bitariko ereduari egokitu beharko zaizkio, beti ere sartzeko lehentasuna ezinduei emanez.

3. Beren kasa baliatzeko gauza diren aiton-amonentzat sortu ziren egoitzetako egoiliarrak denbora igaro ahala osasuna galduz joan ohi direnez, egoitzen egiturak eta antolakuntza moldatu beharko lirateke, aiton-amonen osasuna eta egoera psikikoak aldatzen direnean behar duten zaintza berezia bermatu ahal izateko.

4. Bestelako laguntzen aukerak ere ugaltu beharko dira, aiton-amonak beren ohizko giroan jarraitzeko modua izan dezaten.

5. Politika sozialak lehentasun osoa eman beharko dio egoitzetako postu urritasuna konpontzeko helburuari. Postuen ugalketak 65 urte baino gehiagoko biztanleriaren %5era iritsi beharko du gutxienez, gure inguruko herrialdeetan gertatzen den bezalaxe.

6. Datorren 2016 urterako lortu nahi badugu esan dugun %5eko proportzioa, %120an ugaltu beharko da gaur egungo eskaintza: hau da, urtero 500 postu gehiago ipini.

7. Gaur egungo portzentaiari (%3,34) eutsi nahi bazaio 2016 urtean, urtero 160 postu gehiago eskaini beharko dira, eta hori kontutan hartu gabe dauden hainbat postu aldatu beharregatik gertatuko den ugalketa.

8. 218/1990 dekretuan jasotako aginduak bete beharko dira, hots, egoitza guztietan araudia eduki beharko dute, eta bertan azaldu beharko da, behar besteko publikitate eta hedapen-mailaz, egoitzan sartzeko baldintzak eta hautaketa irizpide nahiz baremuak.

Gai honi dagokionez, beharrezkoa litzateke egoitzetan sartzeko berdintasun eta arrazionalitate irizpidea bermatzeaz gain, aldi berean, bertan sartzeko premia objetiboaren mailan oinarrituriko hautabidea ezartzea, alde batera utziz betidanik aseztiko eta objetiboagozat jo izan diren beste hautabide batzuk, hala nola itxarote-zerrendetan aspaldidanik egote hutsagatik postua izatea. Orobat, hutsik dauden postuen kudeaketa garbiagoa eta eraginkorragoa izatearren, eta adjudikazioak kontrolatu eta ikuskatzeko aukera izateko, komenigarria litzateke errolda bakarra izatea, lurralde historiko bakoitzean onartu gabeko eskariak bildu eta aldi orotan dagoen benetako eskaera-mailaren berri emateko.

Gaur egungo eskaintza eskaera baino askoz txikiagoa izatea da edadetuek egoitzetan sartzera berdintasun irizpidea errespetatzen dadin eskatzeko beste arrazoi bat da.

9. Adinekoentzako egoitza bateko erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak arautu egin behar dira, arauketa hori guztiz funtsezkoa baita egoiliarren eskubideak babesteko.

10. Iraganean aiton-amonei ematen zitzaizkien arreta ulertzeko modua alde batera utzi behar da, hau da, arreta hori ongintzarekin loturik ikusteko ohitura aldatu beharko da, benetako eskubide bezala ulertu ahal izateko.

11. Egoitzak irekitzeko baldintzen eta jaurlariek gaur egungo arauketa arau mailako asmo hutsean geratzeko arriskua du. Arauketa hori ezar dadin, 218/1990 dekretuan aurrikusitako bideak ezartzen hasi behar da: azterketak, ikuskapenak eta zigorrak.

12. Ezinbestekoa da administrazio publikoek lehen aipatu aginduak betezea, ondoan adierazten dugun bezala:

1. Foru aldundiek martxan jarri behar dituzte dekretuak ezarritako zain-tza lanak betetzeko beharrezkoak diren ikuskaritza-zerbitzuak.

2. Lan eta Gizarte Segurantza Sailak martxan jarri behar du "Agintea duten Administrazioek arauak bete dituztenari buruzko Goi Mailako Ikuskaritza".

3. Foru aldundiek adinekoentzako beren zerbitzu sozialen errolden egitura eta betekizunak arautu behar dituzte.

4. Lan eta Gizarte Segurantza Sailak egoitza-zerbitzuen Errolda Nagusia sortu behar du.

5. Hirugarren adinekoentzako erresidentzi-zerbitzuen kreditapen-batzordeak lanari ekin behar dio, alor honetako sail aholku-emaile gisa.

6. Alor honetan ahalmena duten botere publiko guztiek halako ekintza-politika batzuk jarri behar dituzte martxan, kalitatea ziurtatzeko jarritako baldintzak egiatan bete daitezela. Hona hemen, zehatz-mehatz, baldintza horiek:

a) Jabetza publikoko egoitzen esparruan, eskatutako baldintzak betetzeko eta dauden akatsak konpontzeko behar diren aurrekontu-zuzkidurak.

b) Irabazte-xederik gabeko egoitza pribatuen esparruan, dirulaguntza-politika egoki bat erabili, haietan dauden akatsak konpontzeko.

c) Irabazte-xedea duten egoitza pribatuen esparruan, aipatutako baldintzak betearazi, dekretuko 2 eta 3. ebazpenetan finkatutako epeetan (hots, 5 urtetan, baina beste 3 urte gehiagotara ere zabal daitezke).

d) Egoitza sortuberriren baten kasuan, baimena emateko teknika administratiboaz baliatu, dekretuak ezarritako baldintzak zorrotz bete daitezela eskatuz.

13. Egoiliarren eskubideak egiatan errespetatzen direla ziurtatzearen, botere publikoek, arautze eta egiteratze ahalmenarekin batera, arau horien eraginkortasuna lortzeko baldintzak bultzatu beharko lituzkete.

14. Zahar-etxe bakoitzak agiri batean adierazi beharko luke, ahalik eta argien, zeintzuk diren bere helburuak, nolakoak bere instalakuntzak eta zerbitzuak, zein den haien barne-jaurpiderako arautegia, bai eta zeintzuk diren zerbitzuak erabiltzeko zehaztapenak, segurtasun-neurriak, prezioak, parte hartze-ko bideak eta kexak aurkezteko modua ere.

15. Gabezia batzuk antzeman ditugu gure ikerlana burutzerakoan: baliabi-deak urriak dira, eta gizarte-osasunezko gunea delakoari ez zaio arretarik egiten; horregatik, erakunde mailan koordinazio handiagoa egon beharko luke gizarte-ongizatearen alorrean agintea duten sailen artean, bai eta haien eta osasun-egituren artean ere.

16. Intimitaterako eskubidea oso loturik dago egoiliarrek erabil dezaketen espazio pribatuarekin. Horregatik, egoiliarren pribatutasuna errespetatzeko neurriak hartu behar dira; adibidez, oro har, premiazko helburua izan beharko luke banakako gelak eskaintzeak.

17. Badirudi egoki dela hiru lurralde historikoetarako irizpide bakarra izatea honako gaiotan: erabiltzaileak eskaturiko prezioa ordaintzerik ez daukanean, zeintzuk izan daitezkeen haren ordeztako erantzuleak, eta baita bere ondasunen kontura zor horiek kobratzeko modu eta bideak ere.

18. Egoitza batean ematen diren zerbitzuen kalitateak zerikusi zuzena du haietan diharduten langileekin. Horregatik, langileentzat garrantzi handikoa izan daiteke etengabeiko prestakuntza jaso ahal izatea eta zerbitzuen helburuei buruzko informazioa edukitzea.

19. Zentru askotan, bai antolaketaren zorrozkariagatik, bai langileen zereginak zehazteagatik, osasun-arloko eginbeharrez arduratzen direnek gizarte-zaintzako edozein zeregin itzurtzeko joera dute, eta alderantziz, gizarte-sorospenez arduratzen direnek erabat baztertzen dituzte osasun arloko betebeharrak. Gorabehera honi arreta berezia eman behar zaio, ardurarik ezako egoera sortzen baitu egoiliarrengan.

20. Nabaria da aztertutako egoitzetan ezarri diren antolakuntza-eskemetako batek ere ez duela funtsezko edo erreferentziako langilearen irudia jasotzen. Begibistan dago, alabaina, komeni dela egoiliar bakoitzak berataz arduratu den pertsona bat izatea, era ezberdineko profesionalen ardurapeko zaintze-prozesuaren alderdi franko bideratu eta koordinatuko dituen. Erreferentziako langilearen irudia (egia esateko, arduradun antzeko zerbaite izarngo litzateke berau), egoiliar askoren ipar-galtzea eta, hein batean, zuzeneko langileen arteko aldaketek sortarazten dizkien larria eta segurtasunik eza ere ekiditeko bide litzateke.

21. Aiton-amonak dira egoitzetako protagonista nagusiak. Hortaz, egoitza guztien helburuen artean egon beharko luke egoiliarrei jardun orokorrean parte hartzeko modua egiteak.

22. Aiton-amonen beharrianak ez dira askotan ongi betetzen, behar fisikoekin ezinari ematen zaion trataerarekin gertatzen den bezala; horretarako, oso interesgarria izango litzateke gidaliburuak edukitzea, kasu bakoitzari eman beharreko erantzuna finkatzeko.

23. Egoiliarrei ematen zaien zaintze-moduan ere aldaketak egin beharra dago; izan ere, maiñ kutunkeria erabiltzen da, askotan umeak balira bezala zainduz gainera, eta tratu horrek ez du edadetuen duintasunari zor zaion begirunea erakusten.

24. Herrilege-bildumak dioenaren arabera, beren kabuz baliatzea galerazten dien gaisotasun iraunkorra, fisikoa nahiz psikikoa, duten edadetuentzat ezgaitasun adierazpena bideratzea eskatu beharko da.

Bide hauek nonnahi erabil daitezten, baliapideak bizkortu behar dira, eta horretarako neurri egokia izango litzateke bide hori mamitzeaz arduratuko diren epaitegi eta auzitegiak langile eta material berezietz hornitzea. Ildo honetatik, komenigarria litzateke Bizkaiko esperientzia Gipuzkoa eta Araba lurraldeetara aldatzea: hots, Bizkaian berriki lehen auzipidetarako epaitegia sortu da (14 zenbakiduna), berariz era honetako auziak egiteratzeko.

25. Botua emateko eskubideari dagokionez, zehazki arautu beharko litzateke egoitzak hauteskunde-kanpainei ateak zabaltzea eta egoiliarrei hauteskunde-idazgura joateko aukera bermatzea, pertsona eta erakunde batzuek horretarako ematen duten laguntza alderdikoia galeraztearren.

26. Gomendioak emateak, komentzitzen saiatzeak eta arazoez hitz egiteak garrantzi handia dute atentzioaren kalitatearen hobekuntza lortzeko bidean. Horri dagokionez, funtsezko bi alderdi azpimarratu beharra dago:

Alde batetik, jarduera onerako eskuliburuek eta barne-jaurpiderako araudiak jokabide egokiak zabaltzeari dagokionez, zein interesgarri diren, bai eta egoiliarren eta langileen eskubide eta betekizunak zabaltzeari dagokionez ere. Ezagutzaren bidez baino ezin irits daiteke kontzientziatziora, eta herritarren kontzientziatzioa da, dudarik gabe, bermerik hoberena eskubideak errespetatu daitezten.

Bestalde, ezinbestekoa da ebaluazioa egitearen aldeko irizpidea garatzea. Arauez eta ikuskaritzarako nahiz arau-hausteak zigortzeko baliabidez gaindi, zerbitzuen etengabeko ebaluazioa egiteak eta emaitzak publikoki ezagutzera emateak laguntza ikaragarria eman dezakete azken batean sorospenaren kalitate-maila ona eskatzea eta lortzea ekarriko duen kultur aldakuntza gauzatzeko bidean.

27. Oro har ontzat jo daiteke eraikinen egoera. Alabaina, komenigarria da gai honetan esku hartzea, 218/1990 dekretuan jasotako hainbat xedapen betetzen ez dituzten gabeziak zuzentzeko:

- Kanpoko sarbideak: arranpak, zoru ez-irristakorrak.
- Gelak: gurgildun aulkietan getetan sartzerik badagoen, egoiliar bakoitzeko dagoen espazioa, heldulekuak.
- Bainugelak: abisu edo alarma emateko sistemak, heldulekuak edo segurtasun-hagak jartzea.
- Suteen aurkako babes-neurriak: nahikoa estintore, larrialdietarako argi eta sua geldiarazteko atea edukitzea.

28. Zerbitzu sozialetan buruzko arau berriak jaso beharko dituen aldaketak eskubide sozialak bermatzeko adina eremu sortu beharko ditu.

a) Zerbitzu sozialen erabiltzaileen eskubide-taula bat.

- b) Zerbitzu sozialak aukeratzeko berdintasuna bermatuko duen arautegia.
- c) Erabiltzaileen betebeharrak ezarriko dituen taula beste erabiltzaileen eskubideak bermatzeko.
- d) Laguntza sozialeko harreman juridikoaren eremuko zigorrak arautzen dituen Zuzenbide administratiboa ezarri, lege hausteak eta zigorrak ezartzen dituena, bai egoitzakoa, bai erabiltzaileenak ere.

BIBLIOGRAFIA

- ABANTO, J.J. eta BESTE BATZUEK. Valoración de los residentes y las residencias de tercera edad de los distritos municipales X y XI de Zaragoza. *Revista española de geriatría y gerontología*, 27. bol., 3. zk., 1992, 141etik 146. orrira.
- AIZPURUA, M. Reflexiones en torno a algunos aspectos de la admisión en residencias de ancianos. *Zerbitzuan aldizkarian*, 20-21 zenbakietan, 1992, 74. orrian.
- ALLEN, I. eta BESTE BATZUEK. *Elderly people: choice, participation and satisfaction*. Londres: Policy Studies Institute, 1992, 362 orr.
- APPLEBAUM, R. eta PHILLIPS, P. Assuring the quality of in-home care: the "other" challenge for long-term care. *The gerontologist*, 30. bol., 4. zk., 1990, 444tik 450. orrira.
- ARABAKO FORU ALDUNDIA - GIZARTE ZERBITZUEN IDAZKARI-TZA. *Situación socio-sanitaria de los ancianos en Alava*, Vitoria-Gasteiz, 1991, 250 orr.
- ASMUTH, V. eta WEBB, L. Nursing home residents' participation in a creative communication course: The influence of age, activity and attendance. *Journal of applied gerontology*, 9. bol., 3. zk., 1990, 266tik 282. orrira.
- BALDWIN, N. eta BESTE BATZUEK. *Residents' rights: a strategy in action in homes of older people*. Hants (GB): Avebury, 1993, 215 orr.
- BARCELO, M. Derechos y deberes constitucionales en el Estado autonómico. *Cuadernos Civitasen*. Madrid: Generalitat de Catalunya. Institut d'Estudios Autònòmic, 1991.
- BARNES, M. eta MILLER, N. Performance measurement in personal social services. *Research, policy and planning*, 6. bol., 2. zk., 1988, 47. orrian.
- BEAULIEU, J.E. The quality of home and community-based services. *Journal of applied gerontology*, 10. bol., 1. zk., 1991, 88tik 102. orrira.
- BECK, J. Measure for measure. *Social work today*, 22. bol., 37. zk., 1991, 22. orrian.
- BERKOWITZ, M.W. eta BESTE BATZUEK. The effects of a resident self-help model on control, social involvement and self-esteem among the elderly. *The Gerontologist*, 28. bol., 5. zk., 1988, 620tik 624. orrira.

- BERKSHIRE COUNTY COUNCIL. *Registered homes act 1984. NHS & Community care act 1990. Annual inspection*. Londres (GB): Berkshire County Council, 1990, 22 orr.
- BERKSHIRE COUNTY COUNCIL. *Residential care for elderly people in Berkshire*. Berkshire (GB): Berkshire County Council, 1990, 41 orr.
- BLAND, R. eta BESTE BATZUEK. *Efficiency, effectiveness and quality of care in old people's homes in Scotland. Report of a preliminary study*. Stirling (GB): Social Welfare Research Centre, 1989, 207 orr.
- BLAND, R. eta BLAND, R.E. *Client characteristics and patterns of care in local authority old people's homes*. Stirling (GB): University of Stirling, 1985, 134 orr.
- BOND, J. eta BESTE BATZUEK. Pragmatic and explanatory trials in the evaluation of the experimental national health service nursing homes. *Age and ageingen*, 18. bol., 2. zk., 1989, 89tik 95. orrira.
- BOND, J. eta BESTE BATZUEK. The implementation of a multicentred randomized controlled trial in the evaluation of the experimental national health service nursing homes. *Age and ageingen*, 18. bol., 2. zk., 1989, 96tik 102. orrira.
- BOND, J. eta BESTE BATZUEK. Measurement of outcomes within a multi-centred randomized controlled trial in the evaluation of the experimental NHS nursing homes. *Age and ageingen*, 18. bol., 5. zk., 1989, 292tik 302. orrira.
- BOND, J. eta BESTE BATZUEK. Evaluation of an innovation in the continuing-care of very frail elderly people. *Ageing and societyn*, 9. bol., 4. zk., 1989, 347tik 381. orrira.
- BOND, J. eta BESTE BATZUEK. *Evaluation of continuing-care accommodation for elderly people*. Volume 2: The randomized controlled trial of the experimental NHS nursing homes and conventional continuing-care wards in NHS hospitals. Gran Bretaña: University of Newcastle upon Tyne, 1989, 160 orr.
- BOND, J. eta BESTE BATZUEK. *Evaluation of continuing-care accommodation for elderly people*. Volume 4: The 1984 and 1987 surveys of continuing-care institutions in six health authorities. Gran Bretaña: University of Newcastle upon Tyne, 1989, 104 orr.
- BOND, J. eta BOND, S. Outcomes of care within a multiple-case study in the evaluation of the experimental national health service nursing homes. *Age and ageingen*, 19. bol., 1. zk., 1990, 11tik 18. orrira.
- BOND, S. eta BOND, J. *Evaluation of continuing-care accommodation for elderly people*. Volume 3: A multiple-case study of NHS hospital wards and nursing homes: some aspects of structure and outcome. Gran Bretaña: University of Newcastle upon Tyne, 1989, 167 orr.

- BOOTH, T. *Home truths old people's homes and the outcome of care.* Hants (GB): Gower, 1985, 276 orr.
- BOOTH, T. eta BESTE BATZUEK. Staff attitudes and caring practices in homes for the elderly. *British journal of social worken*, 20. bol., 2. zk., 1990, 117tik 131. orrira.
- BRADSHAW, J. eta GIBBS, I. *Public support for private residential care.* Aldershot, Hants (GB): Avebury, 1988, 179 orr.
- BRANNON, D. eta BESTE BATZUEK. The psychosocial quality of nursing home work. *Journal of aging and healthen*, 4. bol., 3. zk., 1992, 369tik 389. orrira.
- BROWN, D. *Report of an inspection of Grampian House, OPH, Grampian Drive, Peterlee, CO Durham, on 15 and 16 september 1987.* Londres (GB): Social Services Inspectorate, 1988, 30 orr.
- BROWN, D. eta MURRAY, U. *Report of an inspection of Royal National Institute for the blind homes for elderly people.* Gateshead (GB): Social Services Inspectorate, 1991, 61 orr.
- BUFFUM, W.E. Measuring person-environment fit in nursing homes. *Journal of social service researchen*, 11. bol., 2/3. zk., 1988, 35etik 54. orrira.
- CALVO, J.J. eta BESTE BATZUEK. Demanda de institucionalización y posibles alternativas en la anciana de San Sebastián. *Zerbitzuan aldizkarian*, 11. zk., 1990, 23tik 32. orrira.
- CARD, J.A. Perceived leisure functioning of nursing home patients: Does recreation make a difference?. *Activities, adaptation and agingen*, 13. bol., 1/2. zk., 1988, 29tik 40. orrira.
- CARRINGTON, D. *Quality of life in residential care project - Salford.* Salford (GB): Salford Social Services Department, 1989, 30 orr.
- CARTWRIGHT, A. The role of residential and nursing homes in the last year of people's lives. *British journal of social worken*, 21. bol., 6. zk., 1991, 627tik 645. orrira.
- CASSAM, E. *Meals inspection.* Londres (GB): Norfolk County Council Social Services Department, 1990, 147 orr.
- CELMA, F. eta BESTE BATZUEK. La alimentación en el anciano: análisis cualitativo de la alimentación ofertada en una residencia geriátrica. *Revista de gerontologían*, 2. bol., 2. zk., 1992, 102tik 105. orrira.
- CENTRE FOR POLICY ON AGEING. *Home life: a code of practice for residential care.* Londres (GB): Centre for Policy on Ageing, 1984, 115 orr.
- CITY OF SALFORD SOCIAL SERVICES DEPARTMENT. *Inspection & registration unit. Inspection procedures.* Salford (GB): Salford Social Services Department, 1991, 11 orr.
- CITY OF SALFORD SOCIAL SERVICES DEPARTMENT. *Policy and procedures for the registration and inspection of residential care homes*

- registered homes act 1984*. Salford (GB): Salford Social Services Department, 1991, 55 orr.
- CLAIR, A. eta BERNSTEIN, B. A preliminary study of music therapy programming for severely regressed persons with Alzheimer's-type dementia. *Journal of applied gerontologyn*, 9. bol., 3. zk., 1990, 299tik 311. orrira.
- CLARK, P. eta BOWLING, A. Observational study of quality of life in NHS nursing homes and a long-stay ward for the elderly. *Ageing and societyn*, 9. bol., 2. zk., 1989, 123tik 148. orrira.
- CLARK, P. eta BOWLING, A. Quality of everyday life in long stay institutions for the elderly. An observational study of long stay hospital and nursing home care. *Social science and medicineen*, 30. bol., 11. zk., 1990, 1.201etik 1.210. orrira.
- CLARK, P.A. eta BESTE BATZUEK. Working well together. Report of an inspection of bebside assessment unit Tynedale House, Blyth, Northumberland. Gateshead (GB): Social Services Inspectorate, 1991, 14 orr.
- COLEMAN, P.G. Assessing self esteem and its sources in elderly people. *Ageing and societyn*, 4. bol., 2. zk., 1984, 117tik 135. orrira.
- COLVEZ, A. eta BESTE BATZUEK. *Approche épidémiologique des besoins en services pour les personnes âgées dépendantes*. Montpellier (FR): INSERM, 1990, 46 orr.
- COSSEY, B. *Tell us what it's really like to be a resident in local authority care in Norfolk in 1988*. Norwich (GB): Norfolk County Council Social Services Department, 1989, 51 orr.
- COSSEY, B. *Tell us waht it's really like to be a resident in local authority care in Norfolk in 1988*. Norfolk (GB): Norfolk County Council Social Services Department, 1989, 35 orr.
- DAVIS, A. *Managing to care in the regulation of private nursing homes*. Cornwall (GB): Patten Press, 1987, 55 orr.
- DAVIES, B. *American experiments to sustitute home for institutional long-term care: policy logic and evaluation*. Kent (GB): Personal Social Services Research Unit, 1985, 29 orr.
- DAVIES, B. eta KNAPP, M. *Costs and residential social care*. Canter-bury (GB): Personal Social Services Research Unit, 1987, 102 orr.
- DAY, P. eta KLEIN, R. Quality of institutional care and the elderly: policy issues and options. *British medical journalen*, 294. zk., 1987, 384tik 387. orrira.
- DEFENSOR DEL PUEBLO. *Residencias públicas y privadas de la tercera edad. Informes, estudios y documentosen*, 1990.
- DEPARTMENT OF HEALTH. *Long-term care for elderly people. Purchasing, providing and quality*. Londres (GB): HMSO, 1992, 72 orr.

- DEPARTMENT OF HEALTH AND SOCIAL SECURITY. *Public support for residential care. Report of a joint central and local government working party.* Londres (GB): Department of Health and Social Security, 1987, 124 orr.
- DEPARTMENT OF HEALTH, WELSH OFFICE. *Making sense of inspection. A training course for registration and inspection staff.* Londres (GB): HMSO, 1990, 163 orr.
- DIXON, S.R. *Autonomy and dependence in residential care. An evaluation of a project to promote self determination in a home for older people.* Londres (GB): Age Concern Institute of Gerontology, 1991, 128 orr.
- DONALDSON, C. eta BOND, J. Evaluation of continuing-care accommodation for elderly people. Volume 6: Surveys of NHS hospital wards and nursing homes: views of relatives and volunteers. Britainia Haundia: University of Newcastle upon Tyne, 1989, 52 orr.
- DUPONT, A. eta BESTE BATZUEK. *Evaluation de la qualité de vie dans les structures d'hébergement pour personnes âgées.* Paris (FR): Fondation National de Gerontologie, 1988, 180 orr.
- EUSKO JAURLARITZA. 1990eko uztailaren 30eko 218/1990 dekretua, hirugarren adinekoentzako egoitzak arautzen dituen, 1990, 98 orr.
- EUSKO JAURLARITZA - LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA. Ancianos en residencias. *Serie estadísticas y documentos de trabajo*, 9. zk. 1985.
- EUSTAT. *Estadística de servicios sociales (entidades y centros), 1991.* Vitoria-Gasteiz, 1993, 133 orr.
- FERNANDEZ-BALLESTEROS, R. eta BESTE BATZUEK. *Proyecto: programas y servicios de asistencia al anciano y su valoración. Volumen 1.* Madrid: INSERSO, 1989, 240 orr.
- FISK, S. eta DICKSON, I. *Social Services Department. Inspection and registration unit report.* Londres (GB): Salford Social Services Department, 1991, 13 orr.
- FRIAS, R. eta KAUFMANN, A. Análisis institucional de la atención a los ancianos en establecimientos residenciales. *Revista de gerontología*, 2. bol., 1. zk., 1992, 30etik 36. orrira.
- FRIGAL, L. *La protección de los derechos fundamentales en el ordenamiento español.* Madrid: Editorial Montecorvo, S.A., 1981.
- GARCIA, R. *Las relaciones de especial sujeción en la Constitución Española.* Editorial Tecnos, 1992.
- GARCIA, R. Sanciones administrativas y relaciones de sujeción especial. *Reda 72*, 1991.

- GASTEIZKO UDALA eta ARABAKO FORU ALDUNDIA - ONGIZATE SAILA. *Gerontologiazko Lehen Jardunaldiak Vitoria-Gasteizen*. Akta liburua. 1993.
- GERON, S.M. Regulating the behavior of nursing homes through positive incentives: an analysis of Illinois' quality incentive program (QUIP). *The gerontologist*, 31. bol., 3. zk., 1991, 292tik 301. orrira.
- GIBBS, I. eta SINCLAIR, I. Consistency: a pre-requisite for inspecting old people's homes? *British journal of social work*, 22. bol., 5. zk., 1992, 535etik 550. orrira.
- GILLESPIE, K.A. eta BESTE BATZUEK. Utilizing importance-performance analysis in the evaluation and marketing of activity programs in geriatric settings. *Activities, adaptation and ageing*, 13. bol., 1/2. zk., 1989, 77tik 89. orrira.
- GLASS, A.P. Nursing home quality: a framework for analysis. *Journal of applied gerontology*, 10. bol., 1. zk., 1991, 5etik 18. orrira.
- GOFFMAN, E. *Internados*. Buenos Aires (AR): Amorrortu Editores, 1970.
- HARRINGTON, M. Assuring quality of care: nursing home resident councils. *Journal of applied gerontology*, 10. bol., 1. zk., 1991, 103tik 116. orrira.
- HODGKINSON, J. Home work: meeting the needs of elderly people in residential homes, booklet 7. *Coping with mental frailty*. Londres (GB): Centre for Policy on Ageing, 1989, 22 orr.
- HUGHES, B. eta WILKIN, D. *Residential care of the elderly. A review of the literature*. Donostia-San Sebastian: SIIS-eko agiritegia, 1980, 73 orr.
- HUGHES, R.D. eta BESTE BATZUEK. Homes are for living in. Two residential homes for the elderly in Lancashire. Londres (GB): Social Services Inspectorate, 1989, 35 orr.
- HUMPHREYS, C. *Elford close resource centre: an evaluation*. Londres (GB): Directorate of Social Services, 1989, 94 orr.
- JUSTICIA DE ARAGON. *Informe extraordinario del Justicia a las Cortes de Aragón. Los derechos de los ancianos. Las residencias de la tercera edad en la Comunidad Autónoma*. Aragoako Gorteetako aldizkari ofiziala, 14. zk., X. urtea, III. legealdia, 1992-01-21.
- KANE, E. *Quality control in public and private homes for the elderly*. Norwich (GB): Social Work Monographs, 1986, 40 orr.
- KELLAHER, L.A. Determinants of quality of life in residential settings for old people. *Residential care for elderly people*. Londres (GB): HMSO, 1986, 127tik 137. orrira.
- KELLAHER, L.A. eta BESTE BATZUEK. *Living in homes: a consumer view of old people's homes*. Londres (GB): Centre for Environmental and Social Services in Ageing, 1985, 67 orr.

- KNAPP, M. The outputs of old people's homes in the post-war period. *International journal of sociology and social policyn*, 3. bol., 3. zk., 1983, 55etik 85. orrira.
- KNAPP, M. eta BESTE BATZUEK. Lessons from a demonstration programme. *Care in the community*, 9. zk., 1990, 39. orrian.
- KRASILOVSKY, G. Seating assessment and management in a nursing home population. *Physical and occupational therapy in geriatricsen*, 11. bol., 2. zk., 1993, 25etik 38. orrira.
- LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA. La asistencia domiciliaria en Europa. *Documentos de bienestar socialen*, 32. zk.
- LEMKE, S. eta MOOS, R.H. Measuring the social climate of congregate residences for older people: sheltered care environment scale. *Psychology and agingen*, 2. bol., 1. zk., 1987, 20tik 29. orrira.
- LEMKE, S. eta MOOS, R.H. Ownership and quality of care in residential facilities for the elderly. *The gerontologisten*, 29. bol., 2. zk., 1989, 209tik 215. orrira.
- MINISTERE DE LA SOLIDARITE, DE LA SANTE ET DE LA PROTECTION SOCIALE. *Pour une gériatrie efficace. Documents affaires sociales*. Paris (FR): La Documentation Française, 1988, 101 orr.
- MONK, J. *Enabling or disabling? An evaluation of the disability project*. Derbyshire (GB): Social Services Department, 1985, 13 orr.
- MOOS, R.H. eta LEMKE, S. *Multiphasic environmental assessment procedure (MEAP)*. Palo Alto, CA (USA): Social Ecology Laboratory, 1988, 450 orr.
- MacMAHON, D. eta BESTE BATZUEK. *A caring home. Improving quality and standards of care in homes and hospitals for the elderly*. A conference report. Londres (GB): Newbourne Health Services, 1990, 19 orr.
- NATIONAL ASSOCIATION OF HEALTH AUTHORITIES. *Handbook on the registration and inspection of nursing homes*. 1988 supplement. Birmingham (GB): National Association of Health Authorities, 1988, 28 orr.
- NATIONAL INSTITUTE FOR SOCIAL WORK. *Residential care for elderly people: using research to improve practice*. Londres (GB): National Institute for Social Work, 1988, 70 orr.
- NEILL, J. *Assessing elderly people for residential care: a practical guide*. Londres (GB): National Institute for Social Work, 1989, 57 orr.
- NIETO, A. *Derecho administrativo sancionador*. Editorial Tecnos, 1993.
- NORFOLK COUNTY COUNCIL SOCIAL SERVICES DEPARTMENT. *Guide to the procedures and requirements for the registration of private and voluntary residential care homes*. Londres Norfolk County Council Social Services Department, 1989, 88 orr.

- PALFREY, C., PHILLIPS, C. eta BESTE BATZUEK. *Efficiency, economy and the quality of care*. Norwich (GB): Social Work Monographs, 1991, 37 orr.
- PAYNE, C. *Evaluation begins at home*. Kent (GB): Personal Social Services Research Unit, S/A, 20 orr.
- PAYNE, C. eta BESTE BATZUEK. *Better services for older people*. Londres (GB): National Institute for Social Work, 1989, 112 orr.
- PEACE, S.M. Quality of institutional life. *Reviews in clinical gerontology*, 3. bol., 2. zk., 1993, 187tik 193. orrira.
- PEAKER, C. *Registration and inspection: time for a change?* Londres (GB): National Council for Voluntary Organizations, S/A, 44 orr.
- PHILLIPS, C.J. Developing a method of assessing quality of care in nursing homes, using key indicators and population norms. *Journal of aging and health*, 3. bol., 3. zk., 1991, 407tik 422. orrira.
- PHILPOT, T. *The residential opportunity? The Wagner report and after*. Surrey (GB): Community Care, 1989, 166 orr.
- POWER, M. eta BESTE BATZUEK. Evaluating volunteer support to elderly people in residential homes. *Research, policy and planning*, 2. bol., 2. zk., 1984, 14tik 20. orrira.
- SALFORD SOCIAL SERVICES DEPARTMENT. *Quality standards for residential care*. Salford (GB): Salford Social Services Department, 1991, 60 orr.
- SANZ, F. *La potestad sancionadora de la Administración: la Constitución Española y el Tribunal Constitucional*. Editorial Revista de Derecho Privado. Editoriales de Derecho Reunidas, 1985.
- SANZO, L. eta ANSOTEGUI, J.C. *Ancianos en residencias. Una evaluación de la situación de los ancianos en residencias de la Comunidad Autónoma Vasca*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1985, 235 orr.
- SCHNELLE, J.F. *Managing urinary incontinence in the elderly*. New York (USA): Springer, 138 orr.
- SCHNELLE, J.F. eta BESTE BATZUEK. Assessment and quality control of incontinence care in long-term nursing facilities. *Journal of the American Geriatrics Society*, 39. bol., 2. zk., 1991, 165etik 171. orrira.
- SIIS. *La asistencia domiciliaria en Europa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1990, 95 orr.
- SIIS. *Sistemas de autorización y acreditación de servicios residenciales para ancianos: panorama internacional*. Donostia-San Sebastian: SIIS, 1992, 276 orr.
- SINCLAIR, I. eta BESTE BATZUEK. *Evaluating effects of institutional treatment. Evaluative research in social care*. Londres (GB): Policy Studies Institute, 1981, 99tik 148. orrira.

- SINCLAIR, I. eta PAYNE, C. *The consumers' contribution. Management and inspection of residential homes for people.* Londres (GB): Social Services Inspectorate, 1991, 15 orr.
- SOCIAL SERVICES INSPECTORATE. *Certain standards. Inspection of the implementation of the 1984 registered homes act.* Londres (GB): Department of Health and Social Security, S/A, 27 orr.
- SOCIAL SERVICES INSPECTORATE. *Homes are for living in,* Londres (GB): HMSO, 1990, 126 orr.
- SOCIAL SERVICES INSPECTORATE. *Inspection of local authority residential care for elderly people in Oxfordshire.* Oxfordshire (GB): Department of Health, 1989, 41 orr.
- SOCIAL SERVICES INSPECTORATE. *Inspection of local authority residential care for elderly people in Oxfordshire. An assessment of some aspects of hotel service provision in residential homes for elderly people.* Oxfordshire (GB): Department of Health, 1991, 15 orr.
- SOCIAL SERVICES INSPECTORATE. *Caring for quality. Guidance on standards for residential homes for elderly people.* Londres (GB): HMSO, 1990, 55 orr.
- SOCIAL SERVICES INSPECTORATE. *Homes are for living in: how the model was tested in 2 London boroughs.* Londres (GB): Department of Health, 1991, 23 orr.
- SOCIAL SERVICES INSPECTORATE. *Towards a climate of confidence. Report of a national inspection of management arrangements for public sector residential care for elderly people.* Londres (GB): Department of Health, 1991, 83 orr.
- SOCIAL SERVICES INSPECTORATE. *Managing home care in metropolitan districts.* Londres (GB): Department of Health, 1989, 67 orr.
- SOCIAL SERVICES INSPECTORATE. *Inspection of local authority residential care for elderly mentally disordered people.* Londres (GB): Department of Health and Social Security, 1985, 4 orr.
- SPECTOR, W.D. eta TAKADA, H.A. Characteristics of nursing homes that affect resident outcomes. *Journal of aging and healthen*, 3. bol., 4. zk., 1991, 427tik 454. orrira.
- STONE, P. *Report of an inspection for syke house and watling house old people's homes.* Durham Tyne and Wear (GB): Social Services Inspectorate, 1991, 12 orr.
- TIMKO, K. eta MOOS, R.H. A typology of social climates in group residential facilities for older people. *Journal of gerontologyn*, 46. bol., 3. zk., 1991, S160tik S169. orrira.
- TIMKO, K. eta MOOS, R.H. Determinants of interpersonal support and self-direction in group residential facilities. *The Gerontological Society of American*, 1990, S184tik S192. orrira.

- WAGNER, G. *Residential care. The research reviewed*. Londres (GB): National Institute for Social Work, 1988, 388 orr.
- WAGNER, G. *Residential care. A positive choice*. Londres (GB): National Institute for Social Work, 1988, 227 orr.
- WAGNER DEVELOPMENT GROUP. *Staffing in residential care homes*. Londres (GB): National Institute for Social Work, 1990, 54 orr.
- WEAVER, T. eta BESTE BATZUEK. *The business of care: a study of private residential homes for old people*. Londres (GB): Centre for Environmental and Social Studies in Ageing, 1985, 170 orr.
- WILLCOCKS, D. eta BESTE BATZUEK. *The residential life of old people. A study in 100 local authority homes, research report*. Vol. 1 and vol. 2. Research report 12. Londres (GB): The Polytechnic of North London, 1982, 613 orr.
- WISEMAN, V. eta POTTER, P. Net curtains and flowers. *Social work today*, 20. bol., 41. zk., 1989, 15 eta 16. orrietan.
- WRIGHT, K. *Cost-effectiveness in community care*. Discussion paper 33. York (GB): Centre for Health Economics, 1987, 48 orr.
- WRIGHT, L.K. A reconceptualization of the "Negative staff attitudes and poor care in nursing homes" assumption. *The gerontologist*, 28. bol., 6. zk., 1988, 813tik 820. orrira.

INFORME EXTRAORDINARIO
AL PARLAMENTO VASCO
1992 - 1993

LAS RESIDENCIAS DE TERCERA
EDAD EN LA COMUNIDAD
AUTONOMA VASCA

© ARARTEKO

Fotocomposición e impresión: Estudios Gráficos ZURE, S.A.

Papel reciclado.

I.S.B.N.: 84-87122-50-7 Obra completa.

D.L.: BI-178-94.



INFORME EXTRAORDINARIO
AL PARLAMENTO VASCO
1992 - 1993

INDICE

CAPITULO I. PRESENTACION DEL INFORME	13
CAPITULO II. OBJETIVOS Y METODOLOGIA EN LA ELABORACION DE ESTE ESTUDIO.....	19
2.1. OBJETIVOS.....	21
2.2. METODOLOGIA	22
2.2.1. Ambito del informe	22
2.2.2. Metodología	22
CAPITULO III. CONSIDERACIONES GENERALES SOBRE LA ATENCION RESIDENCIAL DE LA TERCERA EDAD	29
3.1. LA ATENCION RESIDENCIAL: UNA ELECCION POSITIVA	32
3.2. LAS RESIDENCIAS: UN RECURSO ESCASO.....	34
3.3. EL DÉSARROLLO DE LA ATENCION COMUNITARIA	40
CAPITULO IV. EL REGIMEN DE LA RELACION JURIDICO-ADMINISTRATIVA DE LA PRESTACION DE ASISTENCIA RESIDENCIAL PARA LA TERCERA EDAD EN LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO	51
4.1. CONCEPTO DE ASISTENCIA SOCIAL	53
4.1.1. Su indeterminación terminológica.....	53
4.1.2. Delimitación del concepto en la jurisprudencia constitucional y en el Derecho positivo.....	53
4.1.3. La protección a la tercera edad como materia subsumida en el concepto de asistencia social	55
4.2. LA RELACION JURIDICO-ADMINISTRATIVA DE LA PRESTACION ASISTENCIAL A LA TERCERA EDAD	55
4.3. SUJETOS DE LA RELACION JURIDICO-ADMINISTRATIVA DE LA PRESTACION ASISTENCIAL A LA TERCERA EDAD ..	56
4.3.1. Sujetos prestadores de la asistencia residencial	56
4.3.2. Sujetos destinatarios de la prestación de asistencia residencial	56

4.3.3. El derecho a la prestación en materia de asistencia social. Especial referencia a la prestación asistencial en residencias de tercera edad.....	57
4.4. OBJETO DE LA RELACION JURIDICO-ADMINISTRATIVA ASISTENCIAL PARA LA TERCERA EDAD.....	59
4.5. EL MARCO COMPETENCIAL DE LA PRESTACION DE ASISTENCIA RESIDENCIAL PARA LA TERCERA EDAD EN LA COMUNIDAD AUTONOMA DEL PAIS VASCO	59
4.5.1. La distribución competencial como marco definidor de los sujetos prestadores de la actividad de prestación social	59
4.5.2. Delimitación competencial entre el Estado y la Comunidad Autónoma del País Vasco	59
4.5.3. Delimitación competencial en el seno de la Comunidad Autónoma del País Vasco	62
4.5.4. Especial referencia a la competencia de la Administración Local en materia de asistencia social.....	70
4.5.5. Conclusiones	72
4.6. PROPUESTAS DE MODIFICACION NORMATIVA	72
4.6.1. Planteamiento general de la cuestión	72
4.6.2. Régimen de derechos y obligaciones de los usuarios de servicios sociales.....	74
4.6.3. El derecho al acceso a las residencias de tercera edad en relación con el principio de igualdad	77
4.6.4. Los deberes de los usuarios de centros asistenciales	77
